

**BARRI ONA**



**EL EVANGELIO**

JESUKRISTO'REN BARRI ONA

•

EL EVANGELIO DE JESUCRISTO




KEREXETA'TAR JAIME

**JESUKRISTO'REN  
BARRI ONA**

**EL EVANGELIO  
DE  
JESUCRISTO**

1973



---

**Euskeratzaille:**

**Kerexeta'tar Jaime**, abadea, Euskaltzaindikoa.

**Marrazlari:**

**Etxart'ar Eguzki eta Gallastegi'tar L.**

**Nihil obstat:**

**Arriola'tar Yon**, S. I., Censor Ecco.

**Imprimatur:**

**Dr. León María Martínez**, Vic. General.

Bilbao, 1972, Baqillak 5.

**Argitaratzaille:**


**Kerexeta'tar Jaime**


Depósito Legal: VI 166 - 1973.

ISBN 400 - 5749 - 0

**Irar-lantegia:**

**Gráficas ESET. Apartado 86. Gazteiz-Vitoria (Araba).**





## SARRERA

EVANGELIUM itzak BARRI ONA adierazoten dau. Iragarritako Barri au, Jaungoikoak egindako agintzari guztien betetzea da, gizadi guztiarentzako Salbatzaille bat bialtzea: KRISTO.


Auxe da Jaungoikoak gizonai egin daikkeen iragarterik pozgarriena: "Il eta biztu zan Kristo'gan urten gara onik pekatutik, eriotzatik, geisotik, miñetik; eta Kristo'gan irabazi dautsagu Deabruari".

Iragarte au egin eutsen Kristo'k Apostoluai bere bizitzaren eta berben bidez; eta, batez be, bere Eriotza ta Biztueraren bidez.

Geroago, Barri On au basarririk basari ta uririk uri iragarten eben Apostoluak, eta astiro-astiro azia erraren bizitzan sartu zan.

Orduan, Jesus'engandik zuzenean edo Jesus'egaz batera bizi izan ziranen agotik eta bizitzatik ikusi ta entzun izan ebena idatzi nai izan eben Jainko-erriaren gizon batzuek.

Eta orreik idatzi ebenetik (Lk. 1, 1), Elizak beretzatkat lau artu ebazan; lauron egilleak, barriz, Mateo ta



## INTRODUCCION

La palabra EVANGELIO quiere decir BUENA NUEVA.

Esta Nueva es el cumplimiento por parte de Dios de todas sus promesas, el enviar su Salvador para toda la humanidad: CRISTO.

Este es el anuncio más gozoso que puede hacer Dios a los hombres: "Por Cristo muerto y resucitado nos hemos salvado del pecado, muerte, enfermedad, dolor; y en Cristo hemos vencido al Demonio.

Cristo hizo este anuncio a sus Apóstoles por medio de su vida y palabras, y, sobre todo, por medio de su Muerte y Resurrección.

Más tarde, esta Buena Nueva la predicaban los Apóstoles de aldea en aldea y de pueblo en pueblo, y poco a poco la semilla entró en la vida del pueblo.

Entonces, algunos hombres del pueblo de Dios quisieron escribir lo que vieron y oyeron directamente de Jesús o de la obra y vida de los que vivieron juntamente con Jesús.

Y de lo que éstos escribieron (Lc. 1, 1), la Iglesia



Yon, Markos eta Lukas dira: leenengo biak, Aposto-luak, eta beste biak Apostoluen ikasleak.

Ebanjelari bakotzak "Barri On" bakarra emon dausku: JESUS. Batiña, bakotzak bere eratarra, berak ikusi dauenez, eta alde batzui beste batzui baiño garrantzi andiagoa emonaz. Orrela, Mateo'k Mesias lez eta antxiñako agintzarien betetzaille lez ikusten dau Kristo; Markos'ek, mirarigille lez eta deabruen azpiratzaille lez; Lukas'ek, Salbatzaille errukior lez, eta beartsuen eta pekatarien adiskide lez; eta Yon'ek, Jaungoikoaren Seme Bakar lez, gugaitik aragia artu ta Grazia, Argia ta Bizitza emoten dauskula.

Jaungoikoaren Espirituak berak emon dautso bere Elizari BARRI ON au, aitaturiko lau Ebanjelarion bidez, guri Jesus Salbatzaillea ezaguerazorik.

Lau Ebanjeliook dira Alkartasun Zaarreko azken-muga. Mezako Opari santua ospatzean be, beti irakurten dogu Barri Onaren zatiren bat, eta begirunerik andienaz irakurri be, Jaungoikoaren itza da-ta. Barri Ona irakurtean, Kristo bera somatzen dogu gure artean. Gerkar-Elizan, Barri On liburua altara-gaiñean egoten da beti, Eukaristiaren ondooan.

Gure etxeetan be, aparteko tokiren baten egon bear leuke: gure bizitzak aldatzeko ta guri zeruko bidea erakusteko liburririk santuena ta egokiena dan ezkerro. Jesukristo'ren Barri Ona da, izan be, idatzi dan liburririk ederrena, bikaiñena ta jaungoikozkoena, eta gure Eliza Amak eskuetan jarten dauskun idatzirik begikoena, maitekorrena ta irakurgarriena.

recibió cuatro para sí; estos cuatro autores son Mateo y Juan, Marcos y Lucas: los dos primeros son Apóstoles, y los otros dos, discípulos de los Apóstoles.

Cada Evangelista nos ha dado un solo "Evangelio": JESUS. Pero cada uno escrito a su manera, tal como él lo ha visto, y dando a algunos pasajes más importancia que a otros. Así, Mateo ve a Cristo como Mesías y cumplidor de las antiguas promesas; Marcos, como realizador de milagros y sojuzgador de demonios; Lucas, como Salvador misericordioso y amigo de los pobres y pecadores; y Juan, como Hijo Unico de Dios, hecho hombre por nosotros y dándonos la Gracia, Luz y Vida.

El Espíritu de Dios ha dado a su Iglesia esta Buena Nueva por medio de los cuatro Evangelistas, dándonos a conocer a Jesús el Salvador.

Estos cuatro Evangelistas son la frontera de la Vieja Alianza. También al celebrar el Sacrificio de la Santa Misa leemos algún trozo del Evangelio, y lo leemos con el mayor respeto, por ser palabra de Dios.

Al leer el Evangelio, barruntamos al mismo Cristo entre nosotros. En la Iglesia griega, el libro de los Evangelios suele estar siempre encima del altar, junto a la Eucaristía.

También en nuestras casas debía estar en algún sitio especial: puesto que es el libro más santo y adecuado para cambiar nuestra vida y para enseñarnos el camino del cielo. El Evangelio de Jesucristo es, en efecto, el libro más hermoso, perfecto y divino de


\* \* \*

Barri Onaren argitarapen au, euskeraz eta erderaz agertzen dan leenengoa da, **"Jerusalen'go Biblia"** izeneko liburu ospatsutik egiña, eta euskerazko bigarren argitarapena.

Aurrekoa lez, izan daitela au be Kristo Jaunaren aintzarik andienerako, Elizaren gorapenerako, eta gure Erriaren onerako.

Elorrio'n, 1972, Jorraitak 2,  
Jesukristo Jauna biztu zan eguna,  
geure eguna.

KEREXETA TAR JAIME.



cuantos se han escrito, y el más apreciado, amado y digno de leerse que nos ha puesto en las manos nuestra Madre Iglesia.


\* \* \*

La presente edición de los Evangelios es la primera que aparece en euskera y castellano, entresacada de la reconocida versión de la **"Biblia de Jerusalén"**, y la segunda edición euskérica.

Como la anterior, sea también ésta para la mayor gloria de Cristo Señor, alabanza de la Iglesia, y bien de nuestro Pueblo.

Elorrio, 2 de Abril de 1972,  
día en que resucitó el Señor Jesucristo,  
nuestro día.

JAIME DE KEREXETA.





I

JESUKRISTO'REN JAIOTZA TA UMETZAROA

Jesus'en jatorria

(Luc. 3, 23-38)

1Abrahan'en belauneko Dabid'en seme dan Jesu-kristo'ren jatorria\*: 2Abrahan'ek Isaak sortu eban; Isaak'ek Jakob; Jakob'ek Juda ta onen anaiak sortu ebazan; 3Judas'k, Tamar'egandik, Fares ta Zara; Fares'ek Esrom sortu eban; Esrom'ek Aram; 4Aram'ek Aminadab; Aminadab'ek Naason; Naason'ek Salmon; 5Salmon'ek, Errahab'egandik, Booz; Booz'ek, Errut'egandik, Obed; Obed'ek Jese; 6Jese'k Dabid erregea.

Dabid erregeak, Urias'en emazte izan zanagandik, Salomon sortu eban; 7Salomon'ek Erroboam; Erroboam'ek Abia; Abia'k Asaf; 8Asaf'ek Josapat; Josapat'ek Joram; Joram'ek Ozias; 9Ozias'ek Joatam; Joatam'ek Akaz; Akaz'ek Ezekias; 10Ezekias'ek Manases; Manases'ek Amon; Amon'ek Josias; 11Josias'ek Jekonias eta onen anaiak sortu ebazan, Babilonia'ko erbestaldian.

12Eta Babilonia'ko erbestaldi-ondoren, Jekonias'ek Salatiel sortu eban; Salatiel'ek Zorobabel. 13Zorobabel'ek Abiud; Abiud'ek Eliazim; Eliazim'ek Azor; 14Azor'ek Sadok; Sadok'ek Akim; Akim'ek Eliud; 15Eliud'ek Eleazar; Eleazar'ek Matan; Matan'ek Jakob; 16Jakob'

1. 1 Mateo'k, zeatz-zeatz, Kristo israeldar-jatorritik datorrela diño. Onetan, Lukas'egaz (3 23-38) ez dator guztiz batera: Mateo'k Kristo'ren errege-jatorria azaltzea naiago dualako, edo-ta berezko jatorria eta lege-jatorria (lebitar-legea, Deut. 25, 5) bardintsuak diralako. Jose, legearen aurrean bakarrik da Jesus'en aita: baiña lege-aitatasunak oñiordekotasun-eskubideak emoten ebazan; emen, Mesias-jatorriarenak be bai. Ebanjelioak ez diñoe Maria be jatorri onetakoa zanik; baiña orrek ez dau esan nai ez zanik be.

I

NACIMIENTO E INFANCIA DE JESUCRISTO

Genealogía de Jesús

(Lc. 3, 23-38)

1Genealogía de Jesucristo, hijo de David, hijo de Abraham\*: 2Abraham engendró a Isaac, Isaac engendró a Jacob, Jacob engendró a Judá y a sus hermanos, 3Judá engendró, de Tamar, a Fares y a Zará, Fares engendró a Esrom, Esrom engendró a Aram, 4Aram engendró a Jesé. 6Jesé engendró al rey David.

David engendró, de la que fue mujer de Urias, a Salomón, 7Salomón engendró a Roboam, Roboam engendró a Abiá, Abiá engendró a Asaf, 8Asaf engendró a Josafat, Josafat engendró a Joram, Joram engendró a Ozías, 9Ozías engendró a Joatam, Joatam engendró a Acáz, Acáz engendró a Ezequías, 10Ezequías engendró a Manasés, Manasés engendró a Amón, Amón engendró a Josías, 11Josías engendró a Jeconías y a sus hermanos, cuando la deportación a Babilonia.

12Después de la deportación a Babilonia, Jeconías engendró a Salatiel, Salatiel engendró a Zorobabel, 13Zorobabel engendró a Abiud, Abiud engendró a Eliakim, Eliakim engendró a Azor, 14Azor engendró a Sadoq, Sadoq engendró a Aquim, Aquim engendró a

1. 1 hijo de Abraham. La genealogía de Mateo detalla la ascendencia israelita de Cristo. Sus divergencias con la de Lc. 3, 23-38 se explican, o porque Mt. ha preferido la sucesión dinástica, o bien por la equivalencia que hay entre la descendencia natural y la descendencia legal (ley del levirato, Dt. 25, 5+). José sólo es padre legal de Jesús, pero la paternidad legal confería los derechos hereditarios, aquí los del linaje mesiánico. Los evangelios no hablan de la pertenencia de María a este linaje, lo cual no quiere decir que no perteneciera.



ek Jose, Maria'ren senarra: eta Maria'gandik, Kristo deritxon Jesus jaio zan.

<sup>17</sup>Beraz, Abraham'gandik Dabid'eganaño, amalau belaunaldi dira; Dabid'egandik Babilonia'ko erbestaldiraño, amalau belunaldi dira; Dabid'egandik Babilonia'ko erbestaldiraño, amalau belaunaldi; eta Babilonia'ko erbestalditik Kristo'ganaño, amalau belaunaldi.

### Jesus'en sortze garbia

<sup>18</sup>Jesukristo'ren jaiotza olantxe izan zan: Jesus'en ama Maria, Jose'ri ezkontzeko berba emonda egoan\*, eta, alkarregaz bizi izan baiño len, Espiritu Santuaren egiñez seindun (*umedun*) aurkitu zan. <sup>19</sup>Jose'k, aren senarrak, zintzoa zanez eta a salatu nai ez-ta, isilik iztea erabagi eban. <sup>20</sup>Baiña, asmo onetan ziarduala, amesetan Jaunaren aingerua agertu yakon, eta auxe esan eutsan: "Jose, Dabid'en seme ori: ez bildurtu Maria emaztetat artzen: beragan sortu dana, Espiritu Santuagandik da-ta. <sup>21</sup>Seme bat egingo dau, eta izena Jesus\* ezarriko dautsa-zu; bere erria pekatuetatik Berak atarako dau-ta". <sup>22</sup>Guzti ori, Jaunak igarlearen agoz aurretiaz esan eban au bete zedin jazo zan: <sup>23</sup>*Begira: neska (birjiña) batek sabelean semea sortu ta argitara ekarriko dau, eta izena "Emmanuel" ezarriko dautsoe\**. Izen onek, "Jaun-goikoa gugaz" adierazoten dau.

<sup>24</sup>Jose'k, amesetatik iratzartu zanean, Jaunaren aingeruak agindu izan eutsanez egin eta bere emaztea beragaz artu eban. <sup>25</sup>Eta onegaz ezkontzako artu-emonik izan bagarik\*, *Maria'k* seme bat izan eban, eta arek izena Jesus ezarri eutsan.

1. <sup>18</sup> Senargaiari senarra eritxoen, eta izte-agiria emonda bakarrik gelditzen zan barriro bere eskuko. (Cf. Lk. 1. 27; 2. 5).

1. <sup>21</sup> *Jesus. Yehosúa*'k ebetar-izenak, "Yabe'k (Jaunak) salbatzen dau" esan nai dau.

1. <sup>23</sup> Is. 7. 14.

1. <sup>25</sup> Ebanjeliotik atara daitekenez eta agoz-ago etorri danez, Maria gero be neska-garbia (edo birjiña) izan zan. (Cf. 12. 46).

Eliud; <sup>15</sup>Eliud engendró a Eleazar, Eleazar engendró a Mattán, Mattán engendró a Jacob, <sup>16</sup>y Jacob engendró a José, el esposo de María, de la que nació Jesús, llamado Cristo.

<sup>17</sup>Así que el total de las generaciones son: desde Abraham hasta David, catorce generaciones; desde David hasta la deportación a Babilonia, catorce generaciones; desde la deportación a Babilonia hasta Cristo, catorce generaciones.

### Concepción virginal de Jesús

<sup>18</sup>El nacimiento de Jesucristo fue de esta manera: Su madre, María, estaba desposada con José\* y, antes de empezar a estar juntos ellos, se encontró encinta por obra del Espíritu Santo. <sup>19</sup>Su esposo José, como era justo y no quería ponerla en evidencia, resolvió repudiarla en secreto. <sup>20</sup>Así lo tenía planeado, cuando el Ángel del Señor se le apareció en sueños y le dijo: "José, hijo de David, no temas tomar contigo a María tu esposa, porque lo concebido en ella es del Espíritu Santo. <sup>21</sup>Dará a luz un hijo a quien pondrás por nombre Jesús\*, porque él salvará a su pueblo de sus pecados". <sup>22</sup>Todo esto sucedió para que se cumpliera el oráculo del Señor por medio del profeta: <sup>23</sup>*Ved que la virgen concebirá y dará a luz un hijo, a quien pondrán por nombre Emmanuel\**, que traducido significa: "Dios con nosotros". <sup>24</sup>Despertó José del sueño, e hizo como el Ángel del Señor le había mandado, y tomó consigo a su esposa. <sup>25</sup>Y sin haberla conocido\*, dio ella a luz un hijo, a quien él puso por nombre Jesús.

1. <sup>18</sup> *desposada con José*. Al prometido se le llamaba ya esposo y sólo podía quedar libre por el repudio. Cf. Lc. 1. 27; 2. 5.

1. <sup>21</sup> *Jesús*. El nombre hebreo *Yehosúa* quiere decir "Yahvéh salva".

1. <sup>23</sup> *Emmanuel*. Cita de Is. 7. 14.

1. <sup>25</sup> *conocido*. El resto de Evangelio supone y la antigua Tradición afirma la virginidad ulterior de María. Cf. 12. 46+.

## Aztien° gurtza

**2** <sup>1</sup>Erodes erregearen egunetan, Juda'ko Belen'en Jesus jaio zanean, azti batzuk etorri ziran eguzki-sortzaldetik Jerusalem'era, <sup>2</sup>esanez: "Nun dago judarren errege jaiobarría? Eguzki-sortzaldean Aren izarra ikusi dogu-ta, gur egitera gatorkioz". <sup>3</sup>Ori entzunik, Erodes erregea larritu egin zan, baita aregaz batera Jerusalem guztia be. <sup>4</sup>Abadeburu ta erriko idazlari guztiak batu-erazo ebazan, eta Kristo'a nun jaioko zan itandu eutsen. <sup>5</sup>Areik auxe esan eutsoen: "Juda'ko Belen'en, olantxe dago igarleak idatzita-ta: *6Eta zu, Belen, Juda'ko lurralde ori, ez zara, ez, Juda'ko erri nagusien artean erri-rik txikiena: zeugandik urtengo da buruzagia-ta, nire erri Israel'en artzain izango dana\**."

<sup>7</sup>Orduan, Erodes'ek aztiai ixillean dei egin eutsen, eta izarra noiz agertu izan yaken jakin eban arekandik. <sup>8</sup>Gero, Belen'erako bidean jarri ebazan, auxe zirautsela: "Zoaze, eta jakin egizue ondo umea nun dagoan; eta aurkitu dagizuenean, iragarri egidazue, neu be bera gurtzera joan naiten". <sup>9</sup>Areik, ba, erregearen berbok entzunda gero, joan egin ziran. Eta ara!, sortzaldean ikusi izan eben izarra aurretik yoakien, umea egoan toki-gaiñera eldu ta bertan gelditu arte. <sup>10</sup>Izarra ikustean, poz aundiz bete ziran. <sup>11</sup>Etxean sartu ziran; umea ikusi eben bere ama Maria'gaz; eta auzpazturik, gurtu egin eben. Gero, euren kutzak zabaldu ta opariak eskiñi eutsoezan: urrea, intzetzua ta mirra. <sup>12</sup>Gero, Erodes'egana ez biurtzeko burubidea amesetan artuta, euren errialdera beste bide batetik biurtu ziran.

Ejipto'ra igesi, eta umetxo errubageen eriotza

<sup>13</sup>Areik alde egin ebenean, Jaunaren aingerua Jose'ri

2, 6 Mik. 5. 1.

° Azti: mago.

## Adoración de los Magos

**2** <sup>1</sup>Nacido Jesús en Belén de Judea, en tiempo del rey Herodes, unos magos que venían del Oriente se presentaron en Jerusalén, <sup>2</sup>diciendo: "¿Dónde está el rey de los judíos que ha nacido? Pues vimos su estrella en el Oriente y hemos venido a adorarle". <sup>3</sup>En oyéndolo el rey Herodes, se turbó y con él toda Jerusalén. <sup>4</sup>Convocó a todos los sumos sacerdotes y escribas del pueblo, y por ellos trataba de averiguar el lugar donde había de nacer el Cristo. <sup>5</sup>Ellos le dijeron: "En Belén de Judea, porque así está escrito por medio del profeta: *6Y tú, Belén, tierra de Judá, no eres, no, la menor entre los principales clanes de Judá; porque de ti saldrá un caudillo que apacentará a mi pueblo Israel\**".

<sup>7</sup>Entonces Herodes llamó aparte a los magos y por sus datos averiguó el tiempo de la aparición de la estrella. <sup>8</sup>Después los puso en camino de Belén, diciéndoles: "Id e informaos bien sobre ese niño; y cuando le encontréis, comunicádmelo, para ir también yo a adorarle". <sup>9</sup>Ellos, después de oír al rey, se pusieron en marcha, y he aquí que la estrella que habían visto en el Oriente, iba delante de ellos, hasta que llegó y se detuvo encima del lugar donde estaba el niño. <sup>10</sup>Al ver la estrella, se llenaron de inmensa alegría. <sup>11</sup>Entraron en la casa; vieron al niño con su madre María y, postrándose, le adoraron; luego abrieron sus cofres y le ofrecieron dones de oro, incienso y mirra. <sup>12</sup>Después, avisados en sueños que no volvieran donde Herodes, se retiraron a su país por otro camino.

Huida a Egipto y muerte de los inocentes

<sup>13</sup>Después que ellos se retiraron, el Angel del Señor

2, 6 Israel. Cita de Mi. 5. 1.



amesetan agertu yakon, eta auxe esan eutsan: "Jagi zaitetz, umea ta bere ama artu ta Ejipto'ra iges egizu, eta zagoz an neuk esan dagitzudan arte: umea ilteko, Erodes aren billa ibilliko da-ta". <sup>14</sup>Jose jagi, umea ta onen ama artu, eta Ejipto'ra baztatu zan, <sup>15</sup>eta antxe egon zan Erodes'en eriotzararte, Jaunak igarlearen agoz aurretiaz esandako au bete zedin: *Nire semeari Ejipto'tik egin neutsan dei\**.

<sup>16</sup>Orduan Erodes, aztiak iruzur egin<sup>o</sup> izan outsoela ikustean, asarre-bitsetan jarri zan, eta Belen'en eta inguruetan izan zeitekezan urte birik beerako ume guztiak ilteko agindu eban, aztiakandik jakindako sasoia gogoan arturik. <sup>17</sup>Orduantxe bete zan Jeremias igarleak aurretiaz esandako au: <sup>18</sup>*Deadar bat entzun da Errama'n, negar eta garrasi aundia: Errakel da, bere semeakaitik negarrez, eta ez dau pozbiderik nai, ez dira bizi-ta\**.

### Ejipto'tik Nazaret'era

<sup>19</sup>Erodes il zanean, Jaunaren aingerua agertu yakon Jose'ri Ejipto'n, <sup>20</sup>eta auxe esan eutsan: "Jagi zaitetz, artu egizuz umea ta bere ama, eta zoaz Israel'go lurraldera: umea il nai ebenak, il egin dira-ta". <sup>21</sup>Jose jagi, umea ta onen ama artu, eta Israel'go lurraldera etorri zan. <sup>22</sup>Baiña Judea'n errege, Erodes'en orde onen seme Arkelao egoala jakitean, ara joateko bildur izan zan; <sup>23</sup>eta amesetan burubidea artuta, Galilea'ko lurraldera baztatu zan; <sup>24</sup>eta Nazaret izeneko errian bizilagun gelditu zan, igarleak aurretiaz esandako au bete zedin: *Izena Nazaretarra emongo yako.*

2. 15 Os. 11. 1.  
2. 18 Jer. 31. 15.

<sup>o</sup> Iruzur egin: engañar.

se apareció en sueños a José y le dijo: "Levántate, toma contigo al niño y a su madre y huye a Egipto; y estate allí hasta que te avise. Porque Herodes va a buscar al niño para matarle". <sup>14</sup>El se levantó, tomó de noche al niño y a su madre, y se retiró a Egipto; <sup>15</sup> y allí estuvo hasta la muerte de Herodes; para que se cumpliera el oráculo del Señor por medio del profeta: *De Egipto llámame a mi hijo\**.

<sup>16</sup>Entonces Herodes, al ver que había sido burlado por los magos, se enfureció terriblemente y envió a matar a todos los niños de Belén y de toda su comarca, de dos años para abajo, según el tiempo que había averiguado de los magos. <sup>17</sup>Entonces se cumplió el oráculo del profeta Jeremías: <sup>18</sup>*Un clamor se ha oído en Ramá, llanto y lamento grande: es Raquel que llora a sus hijos, y no se quiere consolar, pues ya no existen\**.

### Vuelta de Egipto y residencia en Nazaret

<sup>19</sup>Muerto Herodes, el Angel del Señor se apareció en sueños a José en Egipto y le dijo: <sup>20</sup>"Levántate, toma contigo al niño y a su madre, y marcha a la tierra de Israel; pues ya han muerto los que buscaban la vida del niño". <sup>21</sup>El se levantó, tomó consigo al niño y a su madre, y entró en la tierra de Israel. <sup>22</sup>Pero al enterarse de que Arquelao reinaba en Judea en lugar de su padre Herodes, tuvo miedo de ir allí; y avisado en sueños, se retiró a la región de Galilea, <sup>23</sup>y fue a vivir en una ciudad llamada Nazaret; para que se cumpliera el oráculo de los profetas: *Será llamado Nazareno.*

2. 15 mi hijo. Cita de Os. 11. 1.  
2. 18 ya no existen. Cita de Jer. 31. 15.



## II

## ZERUETAKO ERREIÑUAREN DEIA

## A. AZALTZE-ZATIA

## Yon Bateatzaillearen irakatsia

(Mk. 1, 1-8; Lk. 3, 1-18).

**3** <sup>1</sup>Aldi aretan, Yon Bateatzaillea agertzen da, Judea<sup>1</sup> ko basamortuan auxe iragarten ebalá: <sup>2</sup>“Garbatu zaitzeze\*, zeruetako Erreiñua urr dago-ta”. <sup>3</sup>Auxe da Isaias igarleak diñoanean iragarritakoa: *Basamortuan deadarka dagoan abotsa: Atondu egizue Jaunaren bidea, zuzendu Aren bide-zidorrak\**.

<sup>4</sup>Yon, gamelu-ulez jantzita ebillen, gerrian narruzko gerrikoa eroian eta aren janaria matxingorri<sup>o</sup> eta baso-ertzia ziran. <sup>5</sup>Orduan, Jerusalem<sup>1</sup>dik eta Judea guztitik eta Jordan-lurralde guztitik aregana etozan; <sup>6</sup>eta euren pekatuak autorturik, Jordan-ibaian aregandik bateoa artzen eben\*.

<sup>7</sup>Pariseo ta saduzeo asko bere bateoa artzera etozala ikusirik, auxe esan eutsen: “Nok irakatsi dautsue, sugekumeoi, zuekana etorteko dan asarreari iges egiten?” <sup>8</sup>Egizuezu damu-frutu egokiak, <sup>9</sup>eta ez egizuez asmakeririk sortu zuen barruan, <sup>10</sup>Abraham dogu aitatzat<sup>1</sup> esanez. Ba-

3, 2 **Garbatu zaitzeze.** Gerkaritz onek “aldatzea” adierazoten dau, espirituaren biurtzea (garbitzea).

3, 3 **Is. 40, 3.**

3, 6 Yon'en bateoa (uretan-sartzea) eta judarren beste uretan-sartzeak ez ziran bardiñak. Jaungoikiaren Erabagiak emondako indarrak bereizten dauz; Erabagi ori Mesias<sup>1</sup>i emon eutsan, eta. Onk Espiritu Santuagun bateatuko dau (11; Yn. 1, 33; 3, 5; Ap. Eg. 1, 5; Errom. 6, 4).

3, 7 **zuekana etorteko dan asarrea.** Yabe'ren Egunekoarena (Am. 5, 18; Tes 1.<sup>a</sup>, 1, 10).

<sup>o</sup> Matxingorri: langosta de campo.

## II

## PROMULGACION DEL REINO DE LOS CIELOS

## A. SECCION NARRATIVA

## Predicación de Juan el Bautista

(Mc 1, 1-8; Lc 3, 1-18)

**3** <sup>1</sup>Por aquellos días aparece Juan el Bautista, proclamando en el desierto de Judea: <sup>2</sup>“Convertíos\*, porque el Reino de los Cielos está cerca”. <sup>3</sup>Este es el anunciado por el profeta Isaías cuando dice: *Voz que clama en el desierto: Preparad el camino del Señor, rectificad sus sendas\**.

<sup>4</sup>Tenía Juan un vestido de pelos de camello con un cinturón de cuero a sus lomos, y su comida eran langostas y miel silvestre. <sup>5</sup>Acudía entonces a él Jerusalén, toda Judea y toda la región del Jordán, <sup>6</sup>y eran bautizados por él en el río Jordán, confesando sus pecados\*. <sup>7</sup>Pero al ver venir muchos fariseos y saduceos al bautismo, les dijo: “Raza de víboras, ¿quién es ha enseñado a huir de la cólera inminente\*? <sup>8</sup>Dad, pues, digno fruto de conversión, <sup>9</sup>y no os contentéis con decir en vuestro interior: <sup>10</sup>Tenemos por padre a Abraham; porque os digo que puede Dios de estas piedras dar hijos a Abra-

3, 2 **Convertíos.** La palabra griega expresa un cambio, un viraje del espíritu (conversión).

3, 3 **sus sendas.** Cita de Is, 40, 3.

3, 6 **sus pecados.** El bautismo de Juan, rito de inmersión, se distingue de las otras inmersiones judías. Su eficacia depende del Juicio de Dios, confiado al Mesías, quien únicamente bautizará en el espíritu Santo, v. 11; Jn. 1, 33+; 3, 5; Hch. 1, 5+; Rom. 6, 4+

3, 7 **inminente.** La del Día de Yahvéh, Am, 5, 18+; 1 Ts. 1, 10+.

dirauntsuet-eta: arri orreitatik Abraham'en semeak atarateko lain ba-da Jaungoikoa. <sup>10</sup>Onezkerok, aizkora arbole-tako zusterari ezarrita dago; frutu onik ekarri ez dagian arbola, ebagia ta sutara jaurtia izango da. <sup>11</sup>Nik, bai, uraz bateatzen zaituet damurako; baiña, nire ondoren datorrena, ni baiño altsuagoa da, eta Ari oiñetakoak eroateko be ez naz ni nor; Berak bateatuko zaitue Espiritu Santuaz eta suaz\*. <sup>12</sup>Galbaea bere eskuan dauko, eta bere larraña garbitu egingo dau; bere garia garautegian batuko dau; gari-lastoa, barriz, ezin itzungi (*atzamatu*) daiteken sutan erreko dau\*\*.

### Jesus'en bateoa

(Mk. 1, 9-11; Lk. 3, 21-22)

<sup>13</sup>Orduan, Jesus Galilea'tik Jordan'era etorri zan, Yon'egana, onek bateatu egian. <sup>14</sup>Yon'ek, barriz, galera-zo egiten eutsan, esanez: "Neu naz ni zuk bateatu bear nozuna; eta zeu zatoz nigana?". <sup>15</sup>Baiña Jesus'ek erantzun eutsan: "Egiten itxi egidazu orain, zuzenbide osoa betetea dagokigu-ta". Orduan, Yon'ek itxi egin eutsan. <sup>16</sup>Jesus bateatuta gero, bereala uretatik urten egin zan. Eta zeruak zabaldu egin ziran, eta Espiritu Santua usoirudiz jatsiten eta Aren gaiñera etorten ikusi eban, <sup>17</sup>zerutik abots batek iñoan artean: "Au, atsegin dodan neure Seme kutuna da\*\*".

3, 11 Alkartasun Zaarrean, "sua" itzak, Jaungoikoak artzen eba-la parte adierazoten eban, biotzak garbitzen ebazala (Is. 1, 25; Zak. 13, 9 eta abar).

3, 12 Su-lezako (impernuko) suak, ezin garbitu izan dana erre-ten dau (Is. 66, 24).

3, 17 Berba oneik (12, 18; 17, 5, cf. Is. 42, 1), Jaungoikoaren Morroia Aren Seme dan Mesias be ba-dala adierazoten dabe (4, 3). Jesus, Mesias-aldia gertatzen dauan zerbaite egiteko jarten danean (6), bereala Espiritu (Santua) agertzen da Aren egitekoa aur-rrera eroateko (4, 1; 12, 18, 28 eta abar; Ap. Eg. 10, 38).

ham. <sup>10</sup>Ya está el hacha puesta a la raíz de los árboles; y todo árbol que no dé buen fruto, será cortado y arrojado al fuego. <sup>11</sup>Yo os bautizo en agua para conversión; pero aquel que viene detrás de mí es más fuerte que yo, y no merezco llevarle las sandalias. El os bautizará en el Espíritu Santo y en el Fuego\*. <sup>12</sup>En su mano tiene el biello y va a limpiar su era: recogerá su trigo en el granero, pero la paja la quemará con fuego que no se apaga\*\*.

### Bautismo de Jesús

(Mc 1, 9-11; Lc 3, 21-22)

<sup>13</sup>Entonces aparece Jesús, que viene de Galilea al Jordán donde Juan, para ser bautizado por él. <sup>14</sup>Pero Juan trataba de impedirselo diciendo: "Soy yo el que necesita ser bautizado por ti, ¿y tú vienes a mí?". <sup>15</sup>Respondióle Jesús: "Déjame ahora, pues conviene que así cumplamos toda justicia". Entonces le dejó.

<sup>16</sup>Bautizado Jesús, salió luego del agua; y en esto se abrieron los cielos y vio que el Espíritu de Dios bajaba en forma de paloma y venía sobre él. <sup>17</sup>Y una voz que venía de los cielos decía: "Este es mi Hijo amado, en quien me complazco\*\*".

3, 11 y en el Fuego. El Fuego simbolizaba ya en el A. T. la inter-  
vención de Dios que purificaba las conciencias, Is. 1, 25; Za. 13,  
9; etc.

3, 12 no se apaga. El fuego de la Gehenna consume lo que no  
ha podido ser purificado, Is. 66, 24.

3, 17 me complazco. Estas palabras, 12, 18; 17, 5, cf. Is. 42, 1,  
subrayan que el Siervo de Dios es también el Mesías su Hijo, 4, 3+.  
En el momento en que Jesús se somete a un acto que prepara la  
era mesiánica, v. 6, el Espíritu aparece para dirigirle en su misión,  
4, 1; 12, 18, 28, etc.; Hch. 10, 38.



## Tentaldiak basamortuan\*

(Mk. 1, 12-13; Lk. 4, 1-13).

**4** <sup>1</sup>Orduan, Jesus Espiritu Santuak basamortura eroan eban, deabruak zirikatu egian. <sup>2</sup>Eta berrogei egunetz eta berrogei gabez barau eginda gero, gose izan zan. <sup>3</sup>Orduan, tentatzailla urreratu yakon, eta auxe esan eutsan: "Jaungoikoaren Semea ba'zara\*, esan egizu arriok ogi biurtu daitezala". <sup>4</sup>Baiña Jesus'ek esan eutsan: "Idatzita yagok: *Gizona ez dok ogi utsez bizi, Jaungoikoaren agotik urtendako edozein berbaz baiño*". <sup>5</sup>Orduan, deabruak Uri Santura daroa, Jaunaren Etxeko gaillurrean jarten dau, <sup>6</sup>eta auxe dirautso: "Jaungoikoaren Semea ba'zara, jaurti egizu zure burua goitik beera, idatzita dago-ta: *Zaindu zugiezala aginduko dautse bere aingeruai, eta euren eskuetan eroango zaitue, zure oiñak arriren baten labanik egin ez dagian*". <sup>7</sup>Jesus'ek esan eutsan: "Baita idatzita be ba-yagok: *Ez dok ire Jaungoiko Jauna zirikatuko*". <sup>8</sup>Barrero be, deabruak beragaz mendi aundi-aundi batera daroa, lurreko erreñu guztiak eta arein edertasuna erakusten dautsaz, <sup>9</sup>eta auxe dirautso: "Guzti au emongo dautsut, auzpaz gurtzen ba'nozu". <sup>10</sup>Orduan, Jesus'ek dirautso: "Alde emendik, Satanás!, idatzita ya-

4. **Tentaldiak basamortuan.** Deabruaren tentaldiak Jesus'1 aberastasan, aintza eta giza-nagusitasunezko Mesias-aldia erakusten dautsoez. Baiña Jesus'ek apaltasunecan eta Jaungoikoaganazko mepetasunecan irauten dau (cf. 16, 21; 26, 39, 42; Ap. Eg. 5, 7-9).— 4, 6, 7 eta 10'garren ataltxoek, Deut. 8, 3; Sal. 91, 11-12; Deut. 6, 16 eta Deut. 6, 13'garrenak aitatzen dabez.

4, 3 **Jaungoikoaren Semea.** Izenorde onek, Bibliam, semetzakoa adierazo daike, aukeratze-antzeran (Ex. 4, 22; Deut. 1, 31; 14, 1; Os. 2, 1; Sal. 82, 6). Mesias-Erregeari dagokiozan idatz-txataletarik askok ez dabe geiago esaten (Sam. 2.<sup>a</sup>, 7, 14; Sal. 2, 7 eta abar). Baiña Jesus'ek, batez be, Jainko-semetasuna emoten dau aditzen (7, 21; 11, 27; 21, 37; 24, 36; Yn. 5, 17-18; 20, 17). Beraz, esatera orrek, Pazko-ostean ikasleak Jesus'en berbak ulertu dagiezanean, benetakoa Jaungoizko zentzuna artuko dabe (Errom. 9, 5).

## Tentaciones en el desierto\*

(Mc 1, 12-13; Lc 4, 1-13)

**4** <sup>1</sup>Entonces Jesús fue conducido por el Espíritu al desierto para ser tentado por el diablo. <sup>2</sup>Y después de hacer un ayuno de cuarenta días y cuarenta noches, al fin sintió hambre. <sup>3</sup>Entonces se acercó el tentador y le dijo: "Si eres Hijo de Dios\*, di que estas piedras se conviertan en panes". <sup>4</sup>Mas él respondió: "Está escrito: *No sólo de pan vive el hombre, sino de toda palabra que sale de la boca de Dios*".

<sup>5</sup>Entonces el diablo le lleva consigo a la Ciudad Santa, le pone sobre el alero del Templo, <sup>6</sup>y le dice: "Si eres Hijo de Dios, tírate abajo, porque está escrito: *A sus ángeles te encomendará, y te llevarán en sus manos, para que no tropiece tu pie en piedra alguna*". <sup>7</sup>Jesús le dijo: "También está escrito: *No tentarás al Señor tu Dios*".

<sup>8</sup>Todavía le lleva consigo el diablo a un monte muy alto, le muestra todos los reinos del mundo y su gloria, <sup>9</sup>y le dice: "Todo esto te daré si te postras y me adoras". <sup>10</sup>Dícele entonces Jesús: "Apártate, Satanás, porque está

4. **Tentaciones en el desierto.** Las sugerencias diabólicas proponen a Jesús un mesianismo de opulencia, de gloria y de poder humanos. Pero él permanece en la humildad y en la sumisión a Dios, cf. 16, 21s; 26, 39, 42; Hch. 5, 7-9. — Los vv. 4, 6, 7, 10 citan a Dt. 8, 3; Sal. 91, 11-12; Dt. 6, 16; Dt. 6, 13.

4, 3 **Hijo de Dios.** Este título bíblico puede expresar simplemente una filiación adoptiva con resultado de una elección, Ex. 4, 22; Dt. 1, 31; 14, 1; Os. 2, 1; Sal. 82, 6. Muchos de los textos en que se aplica al Rey-Mesías, no dicen más, 2 S 7, 14; Sal. 2, 7, etc.; Mt. 4, 3, 6, etc. Pero Jesús ha sugerido una filiación propiamente divina, 7, 21; 11, 27+; 21, 37; 24, 36; Jn. 5, 17-18; 20, 17. La expresión tomará, pues, un sentido propiamente divino, Rm. 9, 5+, cuando después de la Pascua los discípulos hayan comprendido las palabras de Jesús.



gok-eta: *Eure Jaungoiko Jauna gurtuko dok, eta gurtu be Bera bakarrik gurtuko dok*". <sup>11</sup>Orduan, deabruak bakan izten dau. Eta ara!, aingeru batzuk etorri yakoza, eta otseindu egiten eben.

### Galilea'ra biurtzen da

(Mk. 1, 14-15; Lk. 4, 14).

<sup>12</sup>Yon atxillotu egin ebela entzun ebanean, Jesus Galilea'ra baztertu zan. <sup>13</sup>Eta Nazaret itxirik, Zabulon eta Neftali'ko mugetan, itxasondoan dagoan Kafarnaum'go bizilagun egin zan; <sup>14</sup>Isaias igarleak aurretiaz esandako au bete zedin: <sup>15</sup>*Zabulon lurraldea ta Neftali lurraldea, itxasbidea, Jordan-aruzkoa, atzerritarren Galilea!* <sup>16</sup>*Illunetan etzunda egoan erriak argi bizi bat ikusi dau; eriotz-gerizpeko lurraldean etzunda egozanai, argi bat sortu yake*". <sup>17</sup>Arrezkero, auxe iragarten eta esaten asi zan Jesus: "Garbatu zaiteze, zeruetako Erreñua urr dago-ta".

### Lenengo lau ikasleak

Mk. 1, 16-20; Lk. 5, 1-11).

<sup>18</sup>Galilea'ko itxasondoan ebillela, anai bi ikusi eban: Pedro eritxon Simon, eta onen anai Ander, sarea itxasora jaurtiten, arrantzaleak ziran-eta; <sup>19</sup>eta auxe di-

4, 16. Is. 8, 23-9, 1.

4, 17 Erri aukeratuaganako Jaungoikoaren (edo Zeruetako) Erregetza, eta, erri orren bidez, pekatutan jausitako munduaganako Erregetza, Jaungoikoak eta beronen Mesias'ek barriro ezarri bear eben (Dn. 2, 28): euren parte-artze ori espiritu-mailakoa da (Mt. 8, 17, 20; Mk. 1, 34; Yn. 18, 36). Osorik eta bein betiko burutu arte, Erregetza astiro-astiro asten da (12, 28; 13, 24; Mk. 4, 26-29; Lk. 17, 21; Ap. Eg. 1, 3). Erregetza ori altsua ta aintzatsua izango da (13, 37; 16, 27; Kor. 1.<sup>a</sup>, 15, 24); baiña aurrerantzean mesede bat lez izango da (20, 1), txikiari eta buru-ukatzailleai agindua (5, 3; 13, 44-45; 18, 3-4; mesede orretatik, besteak alde batera bazartuta gelditzen dira (21, 31; 23, 13; Kor. 1.<sup>a</sup>, 6, 9-10; Gal. 5, 21. Iku si Ap. Eg. 1, 3 be).

escrito: *Al Señor tu Dios adorarás, y sólo a él darás culto*".

<sup>11</sup>Entonces el diablo le deja. Y he aquí que se le acercaron unos ángeles y le servían.

### Vuelta a Galilea

(Mc. 1, 14-15; Lc. 4, 14)

<sup>12</sup>Cuando oyó que Juan había sido apresado, se retiró a Galilea. <sup>13</sup>Y dejando Nazaret, vino a residir en Cafarnaúm junto al mar, en el término de Zabulón y Neftalí; <sup>14</sup>para que se cumpliera el oráculo del profeta <sup>15</sup>*Tierra de Zabulón, tierra de Neftalí, camino del mar, allende el Jordán, Galilea de los gentiles!* <sup>16</sup>*El pueblo que habitaba en tinieblas ha visto una intensa luz; a los que habitaban en paraje de sombras de muerte una luz les ha amanecido*".

<sup>17</sup>Desde entonces comenzó Jesús a predicar y decir: "Convertíos, porque el Reino de los Cielos está cerca".

### Llamamiento de los cuatro primeros discípulos

(Mc. 1, 16-20; Lc. 5, 1-11).

<sup>18</sup>Caminando por la ribera del mar de Galilea vio a dos hermanos, Simón, llamado Pedro, y su hermano Andrés, echando la red en el mar, pues eran pescadores,

4, 16 ha amanecido. Cita de Is. 8, 23-9, 1.

4, 17 está cerca. La Realeza de Dios (o de los cielos) sobre el pueblo elegido, y a través de él sobre el mundo, comprometida por el pecado, debía ser restablecida por Dios y su Mesías, Dn. 2, 28+: su intervención inminente es de orden espiritual, Mt. 8, 17+, 20+; Mc. 1, 34; Jn. 18, 36. Antes de su plena y definitiva realización, el Reino comienza lentamente, 12, 28; 13, 24s; Mc. 4, 26-29; Lc. 17, 21; Hch. 1, 3+. Será poderoso y glorioso, 13, 37s; 16, 27; 1 Co. 15, 24, pero desde ahora es como una gracia, 20, 1s, prometida a los pequeños y a los abnegados, 5, 3+; 13, 44-45; 18, 3-4, de la que los otros quedan excluidos, 21, 31; 23, 13; 1 Co. 6, 9+10; Ga. 5, 21. Véase también Hch. 1, 3+.

rautse: "Jarraitu egidazue, eta nik gizon-arrantzale egingo zaituet". <sup>20</sup>Eta areik, berealaxe, sareak alde batera itxirik, jarraitu egin eutsoen.

<sup>21</sup>Aurrera jo eban, eta beste anai bi ikusi ebazan: Zebedeo'ren Santiago ta onen anai Yon, euron aita Zebedeo'gaz txalupan euren sareak konpontzen ziarduela; eta dei egin eutsen. <sup>22</sup>Eta areik, berealaxe, sareak eta aita alde batera itxirik, jarraitu egin eutsen.

### Jesus'ek irakasten eta osatzen diardu

(Mk. 1, 39; 3, 7-8; Lk. 4, 14-15, 44; 6, 17-18; Mt. 9, 35).

<sup>23</sup>Jesus Galilea guztian zear ebillen, arein sinagogetan irakasten, Erreiñuko Barri Ona iragarten\*, eta errian edozein geiso ta gaitz osatzen. <sup>24</sup>Aren izen ona Siria osoan zabaldu zan; eta edozein geisok eta gatxek jota egozan guztiak ekarri eutsoezan: deabrudunak, alditsuak eta elbarridunak: eta osatu egin ebazan. <sup>25</sup>Eta Galilea'tik, Dekapolis'tik, Jerusalem'dik, Judea'tik, eta Jordan-aruzkotik laguntalde aundiak jarraitu eutsan.

## B. EBANJELIO-ITZALDIA\*

### Zoriontasunak

(Lk. 6, 20-23).

**5** <sup>1</sup>Laguntaldea ikusirik, mendira igo zan; eta jesarri zanean, bere ikasleak urreratu yakozan. <sup>2</sup>Eta itza arturik, irakatsi egiten eutsen: <sup>3</sup>"Zoriontsuak

4, 23 "Barri Ona" da "Ebanjelio" gerkaritzaren esmai jatorra (Mk. 1, 1; Errom. 1, 16; Gal. 1, 6; Tes. 1.<sup>a</sup>, 1. 5). Barri Ona ez da idazki bat bakarrik, ezta iragarte bat be, Jesukristo'k ekarritako salbamera baño, salbamen orren biotza edo erdi lekua Bera dala.

5 **Zoriontasunak.** Kafarnaun-ondoko menditxo baten, Jesus'ek Jaungoikoaren Erreiñuko mamifia edo espirituaz azaltzen dau (4, 17). Mateo'k itzaldi oni (cf. Lk. 6, 20-49) beste une baten esandako berba batzuk ezarten dautsaz gaitiera.

<sup>19</sup>y les dice: "Venid en pos de mí y os haré pescadores de hombres". <sup>20</sup>Y ellos al instante, dejando las redes le siguieron.

<sup>21</sup>Siguió adelante y vio a otros dos hermanos, Santiago el de Zebedeo y su hermano Juan, que estaban en la barca con su padre Zebedeo arreglando sus redes; y los llamó. <sup>22</sup>Y ellos, al instante, dejando la barca y a su padre, le siguieron.

### Jesús enseña y sana

(Mc. 1, 39; 3, 7-8; Lc. 4, 14-15, 44; 6, 17-18; Mt. 9, 35).

<sup>23</sup>Y recorría Jesús toda Galilea, enseñando en sus sinagogas, proclamando la Buena Nueva del Reino\* y curando toda enfermedad y toda dolencia en el pueblo. <sup>24</sup>Su fama llegó a toda Siria; y le trajeron todos los que se encontraban mal con enfermedades y sufrimientos diversos, endemoniados, lunáticos y paralíticos, y los curó. <sup>25</sup>Y le siguió una gran muchedumbre de Galilea, Decápolis, Jerusalén y Judea, y del otro lado del Jordán.

## B. DISCURSO EVANGELICO

### Las Bienaventuranzas

(Lc. 6, 20-23).

**5** <sup>1</sup>Viendo a la muchedumbre, subió al monte, se sentó, y sus discípulos se le acercaron. <sup>2</sup>Y tomando la palabra, les enseñaba diciendo: <sup>3</sup>"Bienaventurados los

4, 23 **del Reino.** "Buena Nueva" es el sentido originario de la palabra griega Evangelio, Mc. 1, 1+; Rm. 1, 16; Ga. 1, 6; 1 Ts. 1, 5. No es en primer lugar un escrito, ni siquiera una predicación, sino más bien la salvación traída por Jesucristo y cuyo centro es él mismo.

5, **Discurso evangélico.** En una de las colinas próximas a Cafarnaúm Jesús expone el espíritu del Reino de Dios, 4, 17+. Mt. añade a este discurso inaugural, cf. Lc. 6, 20-49, palabras pronunciadas en otras circunstancias.



gogozko txiroak (*beartsuak*)\*, zeruetako Erreñua eurena da-ta. <sup>4</sup>Zoriontsuak otzanak, lurraren jabe egingo dira-ta\*. <sup>5</sup>Zoriontsuak negar egiten dabenak, poztuak izango dira-ta. <sup>6</sup>Zoriontsuak zuzentasunaren gose-egarri diranak, asetuak (*beteak*) izango dira-ta. <sup>7</sup>Zoriontsuak errukiorkak, errukia jadetsiko dabe-ta. <sup>8</sup>Zoriontsuak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta. <sup>9</sup>Zoriontsuak bake-zaleak, izena Jaungoiko-*seme emongo yake-ta*. <sup>10</sup>Zoriontsuak zuzentasunagaitik aurrean erabilliak, zeruetako Erreñua eurena da-ta. <sup>11</sup>Zoriontsuak izango zaree zuek, nigaitik iraindu ta aurrean erabilli zagiezanean, eta guzurrez zuen aurka nai dagiena esan dagienean. <sup>12</sup>Poztu ta alaitu zaitetze: zuen saria zeruetan andia da-ta; orrelaxe erabilli ebezan aurrean zuen aurreko igarleak be<sup>13</sup>.

### Gatz eta argi

(Mk. 9, 50; Lk. 24, 34-35)

<sup>13</sup>Lurraren gatz zaree zuek. Gatz gazatzen ba'da, barriz, zerez gatzitu? Ezetarako be ez da, kanpora jaurtiteko ta gizonen ankaperako baiño.

(Lk. 11, 33; Mk. 4, 21; Lk. 8, 16)

<sup>14</sup>Munduaren argia zaree zuek. Mendi-tontorrean dagoan uria, ezin gorde daiteke. <sup>15</sup>Argi iziotua be ez dabe imillaun-pean<sup>o</sup> ipinten, argi-ontziaren gainean baiño, etxean dagozan guztiai argi egin dagi(ts)en.

5, 3 Txiroak edo apalak gertu dagoz Erreñurako (4, 17; Is. 57, 15; Sof. 2, 3; Sant. 2, 5; Kor. 1.<sup>a</sup>, 1, 26), baita txikiak be (11, 25; 18, 2-4; 19, 13), edo "azkenak" (19, 30; Mk. 9, 35). Mateo'k "gogozko txirotasuna" diñocanarren, (cf Lk. 6, 20), Kristo'k, bein baiño santiago, benetako ta egiazko txirotasuna goratu eban (8, 19; 10, 9-10; 19, 21-24; Ap. Eg. 4, 32), eta Jesukristo'k berak bete eban egiñez eta benetan (8, 20; Kor. 2.<sup>a</sup>, 8, 9).

5, 4 Cf. Sal. 37, 11; Gen. 13, 15.

<sup>o</sup> Imillaun: celemín.

pobres de espíritu\*, porque de ellos es el Reino de los Cielos. <sup>4</sup>Bienaventurados *los mansos*, porque *ellos poseerán en herencia la tierra*\*. <sup>5</sup>Bienaventurados los que lloran, porque ellos serán consolados. <sup>6</sup>Bienaventurados los que tienen hambre y sed de justicia, porque ellos serán saciados. <sup>7</sup>Bienaventurados los misericordiosos, porque ellos alcanzarán misericordia. <sup>8</sup>Bienaventurados los limpios de corazón, porque ellos verán a Dios. <sup>9</sup>Bienaventurados los que buscan la paz, porque ellos serán llamados hijos de Dios. <sup>10</sup>Bienaventurados los perseguidos por causa de la justicia, porque de ellos es el Reino de los Cielos. <sup>11</sup>Bienaventurados seréis cuando os injurien, os persigan y digan con mentira toda clase de mal contra vosotros por mi causa. <sup>12</sup>Alegraos y regocijaos porque vuestra recompensa será grande en los cielos, que de la misma manera persiguieron a los profetas anteriores a vosotros.

### Sal de la tierra y luz del mundo

(Mc. 9, 50; Lc. 14, 34-35).

<sup>13</sup>“Vosotros sois la sal de la tierra. Mas si la sal se desvirtúa, ¿con qué se la salará? Ya no sirve para nada más que para tirarla afuera y ser pisoteada por los hombres.

(Lc. 11, 33; Mc. 4, 21; Lc. 8, 16).

<sup>14</sup>“Vosotros sois la luz del mundo. No puede estar oculta una ciudad situada en la cima de un monte. <sup>15</sup>Ni tampoco se enciende una lámpara para ponerla debajo del celémín, sino sobre el candelero, para que alumbré

5, 3 de espíritu. Los pobres o los humildes están a punto para el Reino, 4, 17+; Is. 57, 15; So. 2, 3; St. 2, 5; 1 Co. 1, 26s, así como los pequeños, 11, 25; 18, 2-4; 19, 13, o los “últimos”, 19, 30; Mc. 9, 35. Si bien Mt. subraya la pobreza de espíritu, cf. Lc. 6, 20, Cristo recomendó repetidas veces una pobreza efectiva, 6, 19s; 10, 9-10; 19, 21-24; Hch. 4, 32, y él mismo la practicó, 8, 20; 2 Co. 8, 9.

5, 4 la tierra. Cf. Sal. 37, 11; Gn. 13, 15.

<sup>16</sup>Bego orrela ditziz zuen argia gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusi dagiezan, eta zeruetan dagoan Aita goratu dagien.

### Legea bete

<sup>17</sup>“Ez uste izan Legea ta Profetak kentzera etorri nazanik; ez naz kentzera etorri, betetera baiño\*.” <sup>18</sup>Bene-benetan dirautsuet: Legeko “i” bat edo izpitxo bat kendu baiño lenago igaroko dira zerua ta lurra, guztiguztia bete arte. <sup>19</sup>Beraz, onetariko agindurik txikiena ausi, eta gizonai orretara austen irakatsi dagi(ts)ena, zeruetako Erreñuan txikiena izango da; aginduok bete ta beteten irakatsi dagiana, barriz, aundia izango da orrelakoa zeruetako Erreñuan.

### Zuzentasun barria antxiñakoa baiño gorago

<sup>20</sup>“Ba-dirautsuet-eta: Zuen zuzentasuna idazlari ta Fares-aldekoena baiño aundiagoa ez ba’da, ez zaree zeruetako Erreñuan sartuko.

<sup>21</sup>Entzun dozue antxiñakoi esandako au: *Ez dozu iñor ilgo\**; eta iltzaillea auzitegian errudun izango da. <sup>22</sup>Nik, barriz, auxe dirautsuet: Bere anaiaren aurka asarratu daitena, errudun izango da auzitegian; eta bere anaiari *kirten ori!* esan dagiona, errudun izango da batzarrean; eta *donga ori!* esan dagiona, lezako (*inpernuko*) sutarako errudun izango da. <sup>23</sup>Beraz, zure oparia altaran eskintzean, eta zure anaiak zure aurka zerbait ba-daukala gogoratzen ba’dozu an, <sup>24</sup>itzi egizu zure oparia an, altara-aurrean, eta zoaz lenengo zure anaiagaz adiskidetzera; gero, barriro etorri ta eskiñi egizu zure oparia.

5, 17 Lege zaarra zeatz-zeatz bete ez, barriztuaz obetu baiño (9, 17). Ebanjelioaren espirituaz (ikus, adibidez, 21 eta urrango atal-txoak); era onetan, zeaztasun guztiak euren indarra dabe erabide barrian.

5, 21 Cf. Ex. 20, 13.

a todos los que están en la casa. <sup>16</sup>Brille así vuestra luz delante de los hombres, para que vean vuestras buenas obras y glorifiquen a vuestro Padre que está en los cielos.

### Cumplimiento de la Ley

<sup>17</sup>“No penséis que he venido a abolir la Ley y los Profetas. No he venido a abolir, sino a dar cumplimiento\*.” <sup>18</sup>“Sí, os lo aseguro: el cielo y la tierra pasarán antes que pase una i o un ápice de la Ley sin que todo suceda.” <sup>19</sup>Por tanto, el que quebrante uno de estos mandamientos más pequeños, y así lo enseñe a los hombres, será el más pequeño en el Reino de los Cielos; en cambio, el que los observe y los enseñe, ése será grande en el Reino de los Celos.

### La justicia nueva superior a la antigua

<sup>20</sup>“Porque os digo que, si vuestra justicia no es mayor que la de los escribas y fariseos, no entraréis en el Reino de los Cielos.

<sup>21</sup>“Habéis oído que se dijo a los antepasados: *No matarás\**; y aquel que mate será reo ante el tribunal.” <sup>22</sup>Pues yo os digo: Todo aquel que se encolerice contra su hermano, será reo ante el tribunal; pero el que llame a su hermano ‘imbécil’, será reo ante el Sanedrín; y el que le llame ‘renegado’, será reo de la gehenna de fuego. <sup>23</sup>Si, pues, al presentar tu ofrenda en el altar te acuerdas entonces de que un hermano tuyo tiene algo que reprocharte, <sup>24</sup>deja tu ofrenda allí, delante del altar, y vete primero a reconciliarte con tu hermano; luego vuelves y presentas tu ofrenda.

5, 17 dar cumplimiento. No ejecutar toda la ley antigua en sus detalles sino perfeccionarla renovándola, 9, 17, con el espíritu del Evangelio (ejemplos concretos vv. 21s): en este sentido todo detalle tiene su importancia en la nueva economía.

5, 21 No matarás. Cf. Ex. 20, 13.



(Lk. 12, 58-59)

<sup>25</sup>Zure arerioagaz adiskidetu zaitetz arin, bidean aregaz zoazan artean: arek epailleari ta epailleak ertzaiñari<sup>o</sup> emonda, giltzapean sartua izan ez zaitetzan. <sup>26</sup>Benetan dirautsut: ez zara andik urtengo azkenengo txanpona ordaindu arte.

<sup>27</sup>Entzun dozue esandako au: *Ez egin ezkontza-naasterik\**. <sup>28</sup>Nik, barriz, auxe dirautsuet: Emakumea lizunkeriz begiratzen dauan edonok, bere biotzean aretzaz ezkontza loitu egin dau.

(18, 8-9)

<sup>29</sup>Beraz, zure begia pekatuako bide ba'yatzu, atara ta jaurti egizu zugandik: obe dozu zure gorputz-ataletariko bat galtzea, zure gorputz osoa su-lezara (*inpernura*) jaurtia izatea baiño. <sup>30</sup>Eta zure eskumako eskua pekatuako bide ba'yatzu, ebagi ta jaurti egizu zugandik: obe dozu gorputz-ataletariko bat galtzea, zure gorputz osoa su-lezara jaurtia izatea baiño.

(19, 9; Mk. 10, 11-12; Lk. 16, 18. Cf. Cor. 1.<sup>a</sup> 7, 10-11)

<sup>31</sup>Beste au be esanda dago: *Bere emaztea itzi dagianak, ezkontzauste-agiria emon dagiola\**. <sup>32</sup>Nik, barriz, auxe dirautsuet: Bere emaztea izten dauanak —aragikeriagaitik izan ezik\*—, emaztea ezkontza naasteko arriskuan jarten dau; eta itxitako emazte orregaz ezkontzen danak, ezkontza naastu egiten dau.

<sup>33</sup>Aurretikoak esandako au be entzun dozue: *Ez dozu guzurrez ziñik egingo<sup>o</sup>; zure ziñak Jaunari beteko*

5, 27 Cf. Ex. 20, 14.

5, 31 Cf. Deut. 24, 1.

5, 32 Ikusi 19, 9.

<sup>o</sup> Ertzain: erri-zain = alguacil, guardia.<sup>o</sup> Zin egin: jurar.

(Lc. 12, 58-59).

<sup>25</sup>Ponte en seguida a buenas con tu adversario mientras vas con él por el camino; no sea que tu adversario te entregue al juez y el juez al alguacil, y se te meta en la cárcel. <sup>26</sup>Yo te aseguro que no saldrás de allí hasta haber pagado el último céntimo.

<sup>27</sup>Habéis oído que se dijo: *No comerás adulterio\**. <sup>28</sup>Pues yo os digo: Todo el que mira a una mujer deseándola, ya cometió adulterio con ella en su corazón.

(18, 8-9).

<sup>29</sup>Si, pues, tu ojo derecho te es ocasión de pecado, sácatelo y arrójalo de ti; más te vale que se pierda uno de tus miembros, que no que todo tu cuerpo sea arrojado a la gehenna. <sup>30</sup>Y si tu mano derecha te es ocasión de pecado, córtatela y arrójala de ti; más te vale que se pierda uno de tus miembros, que no que todo tu cuerpo vaya a la gehenna.

(19, 9; Mc. 10, 11-12; Lc. 16, 18. Cf. 1 Co. 7, 10-11).

<sup>31</sup>También se dijo: *El que repudie a su mujer, que le dé acta de divorcio\**. <sup>32</sup>Pues yo os digo: Todo el que repudia a su mujer, excepto el caso de fornicación\*, la expone a cometer adulterio; y el que se case con una repudiada, comete adulterio.

<sup>33</sup>Habéis oído también que se dijo a los antepasados: *No perjurarás, sino que cumplirás al Señor tus juramentos\**. <sup>34</sup>Pues yo os digo que no juréis en modo algu-

5, 27 adulterio. Cf. Ex. 20, 14.

5, 31 de divorcio. Cf. Dt. 24, 1.

5, 32 de fornicación. Ver 19, 9+.

*dautsazuz, ostera\**. <sup>34</sup>Nik, barriz, auxe dirautsuet: Iñola be ez egin ziñik, ez *zeruagaitik*, Jaungoikoaren Errege-jarlekua da-ta; <sup>35</sup>ez *lurragaitik*, Aren oiñazpikoa da-ta; ez *Jerusalen'gaitik*, Errege aundiaren uria da-ta\*. <sup>36</sup>Ezta zeure buruagaitik be ez egin ziñik, zure ule bat bera be ezin zuritu edo baltzitu daikezu-ta. <sup>37</sup>Zuen izkera "bai,bai; ez, ez", izan bedi; orren gaiñerakoa, barriz, Gaiztoagandik dator.

(Lk. 6, 29)

<sup>32</sup>Salían ellos, cuando le presentaron un mudo endemoniado. <sup>33</sup>Y expulsado el demonio, rompió a hablar el mudo. La gente, maravillada, decía: "Jamás se vio cosa igual en Israel". <sup>34</sup>Pero los fariseos decían: "Por el Príncipe de los demonios expulsa a los demonios".

### Compasión hacia la muchedumbre

(4, 23)

<sup>35</sup>Y Jesús recorría todas las ciudades y los pueblos, enseñando en sus sinagogas, proclamando la Buena Nueva del Reino y sanando toda enfermedad y toda dolencia.

(Mc. 6, 34; Lc. 10, 2)

<sup>36</sup>Y al ver a la muchedumbre sintió compasión de ella, porque estaban vejados y abatidos como ovejas que no tienen pastor. <sup>37</sup>Entonces dice a sus discípulos: "La mies es mucha y los obreros pocos. <sup>38</sup>Rogad, pues, al Dueño de la mies que envíe obreros a su mies".



## B. APOSTOLU-ITZALDIA

## Apostoluen eginkizunak

(Mk. 3, 14; 6, 7; Lk. 9, 1)

**10** <sup>1</sup>Eta bere amabi ikasleai dei egiñik, gogo zikiñak jaurtiteko ta edozein geiso ta gaitz osatzeko aginpidea emon eutsen.

(Mk. 3, 16-19; Lk. 6, 13-16. Ap. Eg. 1, 13).

<sup>2</sup>Amabi Apostoluen izenak\*, oneixek dira: lenen-goa Simon, Pedro deritxona, eta onen anai Ander; Jakob (Santiago) Zebedeo'rena, ta onen anai Yon; <sup>3</sup>Felipe ta Bartolome; Tomas eta Mateo zerga-batzaillea; Jakob (Santiago) Alfeo'rena, eta Tadeo; <sup>4</sup>Simon kanaandarra, eta Judas Iskariote, Jesus saldu ebana bera. <sup>5</sup>Jesus' ek amabiok bialdu ebazan, arei urrengo irakaspenok emonda gero: "Ez egizue artu atzerritarren biderik, ezta samaritarren uri baten be sartu; <sup>6</sup>zoaze, batez be, Israel-etxeko ardi galduakana\*. <sup>7</sup>Eta zuen bidean, onetara-xe joan iragarten: Zeruetako Erreiñua urr dago. <sup>8</sup>Osatu egizuez geisoak, biztu ildakoak, garbitu legenardunak, jaurti deabruak. Utsean artu zenduen; utsean emon egizue. <sup>9</sup>Ez artu urrerik, ez zidarrik, ez dirurik zuen gerrikoetan; <sup>10</sup>ezta biderako zorrerik be, ez barruko jantzi birik, ez oiñetakorik, ez makillarik: langilleak bere lan-saria jasoteko eskubidea dauko-ta.

10. 2 Apostolu izenak "bialdua" adierazoten dau. Mateo'k ez dau Amabien aukeratze berezia aitatzen (cf. Mk. 3, 13; Lk. 6, 13).

10. 6 Judarrak, aukeratzearen oiñordekoak direnez, Mesias'en salbamenaren eskintza artzeko lenenak izan bear dabe.

## B. DISCURSO APOSTOLICO

## Misión de los Doce

(Mc. 3, 14; 6, 7; Lc. 9, 1)

**10** <sup>1</sup>Y llamando a sus doce discípulos, les dio poder sobre los espíritus inmundos para expulsarlos, y para curar toda enfermedad y toda dolencia.

(Mc. 3, 16-19; Lc. 6, 13-16; Hch. 1, 13)

<sup>2</sup>Los nombres de los doce Apóstoles\* son: primero Simón, llamado Pedro, y su hermano Andrés; Santiago el de Zebedeo y su hermano Juan; <sup>3</sup>Felipe y Bartolomé; Tomás y Mateo el publicano; Santiago el de Alfeo y Tadeo; <sup>4</sup>Simón el Cananeo y Judas el Iscariote, el mismo que le entregó. <sup>5</sup>A estos doce envió Jesús, después de haberles dado estas instrucciones:

"No toméis el camino de los gentiles ni entréis en ciudad de samaritanos; <sup>6</sup>dirigíos, más bien, a las ovejas perdidas de la casa de Israel\*. <sup>7</sup>Id proclamando que el Reino de los Cielos está cerca. <sup>8</sup>Curar enfermos, resucitar muertos, limpiad leprosos, expulsad demonios. De gracia lo recibisteis; dadlo de gracia. <sup>9</sup>No toméis oro, ni plata, ni cobre en vuestras fajas; <sup>10</sup>ni alforja para el camino, ni dos túnicas, ni sandalias, ni bastón; porque el obrero merece su sustento.

10. 2 Apóstoles. Apóstol significa "enviado". Mt. no menciona la especial elección de los Doce, cf. Mc. 3, 13s; Lc. 6, 13s.

10. 6 Israel. Los judíos, como herederos de la elección, deben ser los primeros en recibir el ofrecimiento de la salvación mesiánica.

semea; semeak gurasoen aurka jagiko dira ta il egingo dabez. <sup>22</sup>Eta nire izena dala-ta, guztiak gorroto izango dautsue; baiña, azkeneraino iraun dagiana, orixe urten-go da onik.

(Lk. 6, 40; Yn. 13, 16; 15, 20)

<sup>23</sup>Uri baten aurrean erabilli zagiezenean, iges egizue beste batera; eta uri onetan be aurrean erabilten ba'zaitue, joan beste batera. Benetan dirautsuet: ez dozue Israel'go uri guztiak igaroten amaituko Gizasemea etorri baiño len\*. <sup>24</sup>Ez dago ikaslea bere irakaslea baiño gorago, ezta morroia be bere ugazaba baiño gorago. <sup>25</sup>Ikasleak naikoa dau bere irakaslea lakoa izatea, eta morroiak bere ugazaba lakoa. Etxeko jaunari izena Beelzebub (*txerren*) ezarri ba'dautsoe, geiago aren etxeokoi!

#### Zabal-zabal eta bildur bagarik egin berba

(Lk. 12, 2-7; Mk. 4, 22; Lk. 8, 17)

<sup>26</sup>Ez izan, ba, arein bildurrik. Izan be, ezer be ez dago estalduta, agiri izango ez danik; ezta gordeta be, jakingo ez danik. <sup>27</sup>Nik illunetan dirautsuedana, esan egizue zuek argi-argitan; eta belarrira entzuten dozuena, etxe-gaiñetatik deadarka esan egizue\*.

<sup>28</sup>Gorputza ilten dabela, gogoa (*edo arima*) ezin il daikenen bildurrik ez izan; arima ta gorputz su-lezara (*infernura*) jaurti daikezanaren bildurrago izan zaitze. <sup>29</sup>Ez ete-dira txoritxo bi lauko<sup>o</sup> baten saltzen? Areitariko bāt be ez da, orraitaino, hurrera jausiko zuen Aitak nai izan ezik. <sup>30</sup>Zuei buruz, barriz, zuen buruko ule

10, 23 Jazopen au, Jerusalem'go ondamendian Jaungoikoak bere erri ez-zintzoari egin eutsan "ikustaldia" da (16, 28; cf. 24, 1)

10, 27 Jesus'en eginkizuna bere eriotzaz eta biztueraz amaituta gero, Aren ikasleak Barri Ona iragarri bear izango dabe zeatz eta osoro (Lk. 12, 2-3).

<sup>o</sup> Lauko: burdingorritzko (kobrezko) dirua: host eunen edo zentimo.

dre a hijo; se levantarán hijos contra padres y los matarán. <sup>22</sup>Y seréis odiados de todos por causa de mi nombre; pero el que persevera hasta el fin, ése se salvará.

<sup>23</sup>“Cuando os persigan en una ciudad, huid a otra, y si también en ésta os persiguen, marchaos a otra. Yo os aseguro: no acabaréis de recorrer las ciudades de Israel antes que venga el Hijo del hombre\*.

(Lc. 6, 40; Jn. 13, 16; 15, 20)

<sup>24</sup>“No está el discípulo por encima de su maestro, ni el siervo por encima de su amo. <sup>25</sup>Ya le basta al discípulo ser como su maestro, y al siervo como su amo. Si al dueño de la casa le han llamado Beelzebub, ¡cuánto más a sus domésticos!

#### Hablar francamente y sin temor

(Lc. 12, 2-7; Mc. 4, 22; Lc. 8, 17)

<sup>26</sup>“No les tengáis miedo. Pues no hay nada encubierto que no haya de ser descubierto, ni oculto que no haya de saberse. <sup>27</sup>Lo que yo os digo en la oscuridad, decidlo vosotros a plena luz; y lo que oís al oído, proclamadlo desde los terrados\*.

<sup>28</sup>“Y no temáis a los que matan el cuerpo, pero no pueden matar el alma; temed más bien a Aquél que puede llevar a la perdición alma y cuerpo en la gehenna. <sup>29</sup>¿No se venden dos pajarillos por un as? Pues bien, ni uno de ellos caerá en tierra sin el consentimiento de vuestro Padre. <sup>30</sup>En cuanto a vosotros hasta los cabellos de

10, 23 Hijo del hombre. Este acontecimiento es la "visita" de Dios a su pueblo infiel cuando la ruina de Jerusalén, 16,28; cf. 24,1+.

10, 27 desde los terrados. Una vez consumada la obra de Jesús con su muerte y su resurrección, sus discípulos deberán anunciar su mensaje sin restricciones, Lc. 12, 2-3.



guztiak zenbatuta (*kontauta*) dagoz. <sup>31</sup>Ez izan, ba, bildurrik; txori-pilloa baiño obeak zaree zuek.

(Lk. 12, 8-9; Mk. 8, 38; Lk. 9, 26)

<sup>32</sup>Ni gizonen aurrean autortu nagiana, neuk be alakoa autortu egingo dot zeruetan dagoan nire Aitaren aurrean. <sup>33</sup>Gizonen aurrean ukatu nagiana, barriz, neuk be alakoa ukatu egingo dot zeruetan dagoan nire Aitaren aurrean.

### Jesus dala-ta, banakuntza

(Lk. 12, 51-53)

<sup>34</sup>Ez uste izan lurrera bakea ekartera etorri nazanik; ez naz bakea ekartera etorri, ezpata ekartera baiño. <sup>35</sup>Bai; gizona bere aitagandik, alab(e)a bere amagandik, eta errena bere amagiñarrebagandik banantzera etorri naz; <sup>36</sup>eta bakotxaren arerioak, bere etxeoak izango dira\*.

### Jesus'i jarraitzeko, norbere burua ukatu-bearra

(Lk. 14, 26-27; Mt. 16, 24-25; Mk. 8, 34-35; Lk. 9, 23-24;

Lk. 17, 33; Yn. 12, 25)

<sup>37</sup>Aita naiz ama, ni baiño maiteago dauana, ez da niretzako lain. <sup>38</sup>Bere gurutzeta artuta jarraitzen ez daustana, ez da niretzako lain. <sup>39</sup>Bere burua aurkitzen dauanak, galdu egingo dau; eta bere burua neugaitik galtzen dauanäk, aurkitu egingo dau.

### Itzaldicaren amaiera

(Mt. 18, 5; Mk. 9, 37; Lk. 9, 48; Lk. 10, 16; Yn. 12, 44-45; 13, 20)

<sup>40</sup>Zuek artzen zaituenak, neu artzen nau; eta ni artzen nauanak, ni bialdu nauan A artzen dau. <sup>41</sup>Igarlea

10, 36 Mik. 7, 6.

vuestra cabeza están todos contados. <sup>31</sup>No temáis, pues; vosotros valéis más que muchos pajarillos.

(Lc. 12, 8-9; Mc. 8, 38; Lc. 9, 26)

<sup>32</sup>Por todo aquel que se declare por mí ante los hombres, yo también me declararé por él ante mi Padre que está en los cielos; <sup>33</sup>pero a quien me niegue ante los hombres, le negaré yo también ante mi Padre que está en los cielos.

### Jesús, señal de contradicción

(Lc. 12, 51-53)

<sup>34</sup>No creáis que he venido a traer paz a la tierra. No he venido a traer paz, sino espada. <sup>35</sup>Sí, he venido a enfrentar al hombre con su padre, a la hija con su madre, a la nuera con su suegra; <sup>36</sup>y sus propios familiares\* serán los enemigos de cada cual.

### Renunciarse para seguir a Jesús

(Lc. 14, 26-27; Mt. 16, 24-25; Mc. 8, 34-35; Lc. 9, 23-24;

Lc. 17, 33; Jn. 12, 25)

<sup>37</sup>El que quiere a su padre o a su madre más que mí, no es digno de mí; el que quiere a su hijo o a su hija más que a mí, no es digno de mí. <sup>38</sup>El que no tome su cruz y me siga, no es digno de mí. <sup>39</sup>El que encuentre su vida, la perderá; y el que pierda su vida por mí, la encontrará.

### Conclusión del discurso apostólico

(18, 5; Mc. 9, 37; Lc. 9, 48; Lc. 10, 16; Jn. 12, 44-45; 13, 20)

<sup>40</sup>Quien a vosotros recibe, a mí me recibe, y quien me recibe a mí, recibe a Aquél que me ha enviado.

10, 36 sus propios familiares. Cita de Mi. 7, 6.

igarle dalako artzen dauanak, igarle-saria artuko dau; eta zintzoa zintzo dalako artzen dauanak, zintzo-saria artuko dau.

(Mk. 9, 41)

<sup>42</sup>Eta txolet bete ur otz besterik ezean, txikitxo oneitariko bati ikasle dalako edaten emon dagionak, benetan dirautsuet: ez dau bere saria galduko”.

#### IV ZERU-ERREINUKO EZKUTAPENA

##### A. AZALTZE-ZATIA

|| <sup>1</sup>Bere amabi ikasleai irakaspenok emonda gero, Jesus andik ango urietan Barri Ona irakastera eta iragartera joan zan.

**Yon Bateatzaillearen itauna eta Jesus'en autorra.**

(Lk. 7, 18-28).

<sup>2</sup>Eta Yon'ek, Kristo'ren egintzak giltzapean entzun ebazanean, bere ikasleak bialdu eutsazan, itaunka: <sup>3</sup>“Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?” <sup>4</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsen: “Zoaze, eta entzuten eta ikusten dozezanon barri emon egiozue Yon'i: <sup>5</sup>itsuak ikusi egiten dabe, errenak ba-dabiz, legenardunak garbi gelditzen dira, gorrak entzun egiten dabe, illak biztu egiten dira, eta beartsuai Barri Ona iragarten yake\*; <sup>6</sup>eta zoriontsua, nigan galbiderik artu ez dagiana!”

<sup>7</sup>Areik alde egin ebenean, Jesus laguntaldeari Yon'i buruz berba egiten asi yakon: “Zer ikustera urten zarek basamortura? Aizeak darabilen kaiñaberen bat?

11. 5 Jesus'en egintzak salbamen-ondasunakaz zabaltzen dabe Erreinuá, eta ez eraso ta zigorez (8, 1; Lk. 4, 16; cf. Is. 61, 1).

<sup>41</sup>“Quien reciba a un profeta por ser profeta, recompensa de profeta recibirá, y quien reciba a un justo por ser justo, recompensa de justo recibirá.

(Mc. 9, 41)

<sup>42</sup>“Y todo aquel que dé de beber tan sólo un vaso de agua fresca a uno de estos pequeños, por ser discípulo, es seguro que no perderá su recompensa”.

#### IV EL MISTERIO DEL REINO DE LOS CIELOS

##### A. SECCION NARRATIVA

|| <sup>1</sup>Cuando Jesús acabó de dar instrucciones a sus doce discípulos, partió de allí para enseñar y predicar en sus ciudades.

**Pregunta del Bautista y testimonio de Jesús**

(Lc. 7, 18-28)

<sup>2</sup>Y Juan, que en la cárcel había oído hablar de las obras de Cristo, envió a sus discípulos a decirle: <sup>3</sup>“¿Eres tú el que ha de venir, o debemos esperar a otro?” <sup>4</sup>Jesús les respondió: “Id y contad a Juan lo que oís y veis: <sup>5</sup>Los ciegos ven y los cojos andan, los leprosos quedan limpios y los sordos oyen, los muertos resucitan y se anuncia a los pobres la Buena Nueva\*; <sup>6</sup>y dichoso aquel que no se escandalice de mí”.

<sup>7</sup>Cuando ellos se marchaban, se puso Jesús a hablar de Juan a la gente: “¿Qué salisteis a ver en el desierto?

11. 5 la Buena Nueva. Las obras de Jesús inauguran el Reino con los beneficios de la salvación, no con violencia y castigo, 8 1+; Lc. 4, 16s; cf. Is. 61, 1.



<sup>8</sup>Zer ikustera urten zaree, bestela? Apain jantzitako gizonen bat? Ez; apain jazten diranak errege-jauregietan dagoz. <sup>9</sup>Zer ikustera urten zaree, ba? Profetaren bat ikustera? Bai, benetan dirautsuet: baita igarlea baiño aundiagoa be. <sup>10</sup>Auxe berau da beronetaz idatzita dagoan au:

*Neure aingerua bialtzen dot zure aurretik\*, aurretiaz bidea atonduko dautsuna.*

<sup>11</sup>Benetan dirautsuet: emakumegandik jaiotakoen artean, ez da Yon Bateatzaillea baiño aundiagorik agertu; alan be, zeruetako Erreñuan txikiena a baiño aundiagoa da\*. <sup>12</sup>Yon Bateatzaillearen egunetatik orain arte, zeruetako Erreñuak eraso artzen dau, eta indartsuak egiten dira aren jabe. <sup>13</sup>Igarle guztiak, baita Legeak be, igarketak Yon etorri arte egin ebezan. <sup>14</sup>Eta onartu nai ba' dozue, bera da Elias, etorteko zana. <sup>15</sup>Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala!

### Bere gizaldia epaitzen

(Lk. 7, 31-35)

<sup>16</sup>Baiña, noren parean jarriko dot gizaldi au? Enparantzetan (*plazetan*) jesarrita dagozan mutikoen antzekoa da, alkarri deadarka dirautsoenean: <sup>17</sup>Guk txistua jo, eta zuek ez dozue dantzarik egin; guk negarsoiñuak asi, eta zuek negarrik egin ez! <sup>18</sup>Izan be, etorri zan Yon, jan-edan egiten ez ebala, eta 'Deabrua dauko', diñoe. <sup>19</sup>Etorri zan Gizasemea, jan-edan egiten daua-la, eta 'Orra gizon jatun eta moskorra, zerga-batzaille ta pekatarien adiskidea', diñoe. Eta Jakituriari bere egiñak emon dautsoe izen ona\*\*.

11, 10 Mal. 3, 1.

11, 11 Aurrez-gurre jarten dira Jainko-ekonomia bi, Aurrelariak beragan dauan aunditasuna epaitzen asi bagarik, Erreñutik at gelditu da-ta (Mal. 3, 1, 23; cf. 17, 10).

11, 19 Judarrak, Jaungoikoak adierazoten dautsena baztatu egi-

¿Una caña agitada por el viento? ¿Qué salisteis a ver, si no? ¿Un hombre elegantemente vestido? ¡No! Los que visten con elegancia están en los palacios de los reyes. <sup>9</sup>Entonces ¿a qué salisteis? ¿A ver un profeta? Sí, os lo aseguro, y más que profeta. <sup>10</sup>Este es de quien está escrito:

*He aquí que yo envío mi mensaje delante de ti\*, el cual te preparará por delante el camino.*

<sup>11</sup>En verdad os digo que no ha surgido entre los nacidos de mujer uno mayor que Juan el Bautista; sin embargo, el más pequeño en el Reino de los Cielos es mayor que él\*. <sup>12</sup>Desde los días de Juan el Bautista hasta ahora, el Reino de los Cielos sufre violencia, y los violentos lo conquistan. <sup>13</sup>Pues todos los profetas, lo mismo que la Ley, hasta Juan profetizaron. <sup>14</sup>Y, si queréis admitirlo, él es Elías, el que iba a venir. <sup>15</sup>El que tenga oídos, que oiga.

### Jesús juzga a su generación

(Lc. 7, 31-35)

<sup>16</sup>¿Pero, con quién compararé a esta generación? Se parece a los chiquillos que, sentados en las plazas, se gritan unos a otros diciendo: <sup>17</sup>Os hemos tocado la flauta, y no habéis bailado, os hemos entonado endechas, y no os habéis lamentado'. <sup>18</sup>Porque vino Juan, que ni comía ni bebía, y dicen: 'Demonio tiene'. <sup>19</sup>Vino el Hijo del Hombre, que come y bebe, y dicen: 'Ahí tenéis a un comilón y un borracho, amigo de publicanos y pecadores'. Y la Sabiduría se ha acreditado por sus obras\*\*.

11, 10 delante de ti. Cita de Mt. 3, 1.

11, 11 que él. Se contraponen dos economías divinas, sin entrar a juzgar la grandeza personal del Precursor, que ha quedado fuera del Reino, Mt. 3, 1, 23; cf. 17, 10s.

11, 19 obras. Los judíos rechazan todas las insinuaciones de

### Sinisgogorrak madarikatzen

(Lk. 10, 13-15)

<sup>20</sup>Orduan Jesus, bere miraririk geienak ikusi ebezan uriak madarikatzen asi zan, garbatu ez ziralako. <sup>21</sup>“Zure zoritxarra, Korazain! Zure zoritxarra, Betsaida! Zue-nean egin diran mirariak Tiro'n eta Sidon'en egin ba'litzaz, zaku-autsetan aspaldian garbatuko litzakezan. <sup>22</sup>Beraz, ba-dirautsuet: auzi-egunean, Tiro ta Sidon'i zuei baiño bigunago egingo yake. <sup>23</sup>Eta zuk, Kafarnaum, zeruragiño azi bear dozu, ala? *Inpernuraiño ondatuko zara!*\* Izan be, zurean egindako mirariak Sodoma'n egin ba'litzaz, gaur arte iraungo leukean. <sup>24</sup>Beraz, ba-dirautsuet: auzi-egunean, Sodoma-lurraldeari zuri baiño bigunago egingo yako”.

Barri Ona toles-bageci iraqarten yake.

Aita ta Semea

(Lk. 10, 21-22)

<sup>25</sup>Aldi aretan, Jesus'ek, itza arturik, auxe esan eban: “Gorutzen zaitut, Aita, zeru-lurren Jaun ori, gauza oneik jakintsuai ta zuurrai gorde, eta txikitxoai agertu dautsezuzalako. <sup>26</sup>Bai, Aita, orixe izan dozu atsegin-eta. <sup>27</sup>Nire Aitak dana emon daust; eta Semea ez dau iñok ondo ezagutzen, Aitak izan ezik; ezta Aita be ez dau iñok ondo ezagutzen, Semeak izan ezik eta Semeak agertu nai dationak izan ezik\*.

ten dabe; baiña Jaunak bere asmoak bere naitara beteten dauz, eta orrela, bere burua zuritzen dau.

11, 23 Cf. Is. 14, 13, 15.

11, 27 Idatz-txatál onek —Yon'en 1, 18; 3, 34 eta 10, 15'garren ataltxoan antzekoa da—, lenengo sinoptiku-tradiziñuan, argi erakusten dau Jesus Jaungoikoaren Semea dana (cf. 4, 3).

### ¡Ay de las ciudades impenitentes!

(Lc. 10, 13-15)

<sup>20</sup>Entonces se puso a maldecir a las ciudades en las que se habían realizado la mayoría de sus milagros, porque no se habían convertido:

<sup>21</sup>“¡Ay de ti, Corazón! ¡Ay de ti, Betsaida! Porque si en Tiro y en Sidón se hubieran hecho los milagros que se han hecho en vosotras, tiempo ha que con saco y ceniza se habrían convertido. <sup>22</sup>Por eso os digo que el día del Juicio habrá menos rigor para Tiro y Sidón que para vosotras. <sup>23</sup>Y tú, Cafarnaúm, ¿hasta el cielo te vas a encumbrar? ¡*Hasta el Hades te hundirás!*\* Porque si en Sodoma se hubieran hecho los milagros que se han hecho en ti, aún subsistiría el día de hoy. <sup>24</sup>Por eso os digo que el día del Juicio habrá menos rigor para la tierra de Sodoma que para ti”.

El Evangelio revelado a los sencillos.

El Padre y el Hijo

(Lc. 10, 21-22)

<sup>25</sup>En aquel tiempo, tomando Jesús la palabra, dijo: “Yo te bendigo, Padre, Señor del cielo y de la tierra, porque has ocultado estas cosas a sabios y prudentes, y se las has revelado a pequeños. <sup>26</sup>Sí, Padre, pues tal ha sido tu beneplácito. <sup>27</sup>Todo me ha sido entregado por mi Padre, y nadie conoce bien al Hijo sino el Padre, ni al Padre le conoce bien nadie sino el Hijo, y aquel a quien el Hijo se lo quiera revelar\*.

Dios, pero Dios realiza su designio según su voluntad y así se justifica a sí mismo.

11, 23 hasta el Hades. Cf. Is. 14, 13, 15.

11, 27 revelar. Este pasaje, afín a Jn. 1, 18; 3, 34; 10, 15, expresa en la tradición sinóptica primitiva la conciencia de la filiación divina de Jesús, cf. 4, 3+.



### Jesus, irakasle biozpera

<sup>28</sup>Etorri zaiteze nigana, nekatuta eta sortaz makurtuta zagozen guztiok\*, eta neuk bizkortuko zaituet. <sup>29</sup>Artu egizue nire buztarria zuen gainean, eta ikasi nigandik, biotzez otzana ta apala naz-ta; eta zuen arimentzat atsedena aurkituko dozue\*. <sup>30</sup>Nire buztarria biguna, eta nire sorta ariña da-ta”.

### Zapatuz artutako galburuak

(Mk. 2, 23-28; Lk. 6, 1-5)

**12** <sup>1</sup>Aldi aretan, Jesus ereindako soloetan zear yoian, zapatuz. Aren ikasleak gose izan ziran, eta galburuak artu ta jaten asi ziran. <sup>2</sup>Eta pariseuak, a ikusita, auxe esan eutsoen: “Begira: zure ikasleak zapatuz bidezko ez dana egiten diardue”\*. <sup>3</sup>Baiña, Jesus’ek esan eutsen: “Ez dozue irakurri Dabid’ek egin ebana\*, bera ta beragaz egozanak gosetu ziranean?, <sup>4</sup>eta Jaunaren Etxean sartu zala, eta abadeak baiño beste iñok ezin jan eikezan oparigiak jan ebezala? <sup>5</sup>Ala, ez dozue Legean irakurri, abadeak zapatuz, Jaunaren Etxean, zapatua ausi egiten dabela, errurik egin bagarik? <sup>6</sup>Begira, ba; neuk dirautsuet: ba-dago emen Jaunaren Etxea baiño aundiagoa dana. <sup>7</sup>Eta, *Errukia nai dot, eta ez oparirik\** zer dan ulertu izan ba’zenduen, ez zeukezan errurik ez daukenak galduko. <sup>8</sup>Gizasemea zapatuaren jabe be ba-da-ta”\*.

11, 28 Legea eta lege-betetearen sorta andiak.

11, 29 Cf. Jer. 6, 16.

12, 2 zapatuz. Lege-adierazleak, Ex. 34, 21’garren ataltxoan debekatuta egoan lan bat ikusten eben emen.

12, 3 Cf. Sam. 1.<sup>a</sup>, 21, 2-7; Leb. 24, 5-6.

12, 7 Os. 6, 6; cf. Mt. 9, 13.

12, 8 Jesus’ek, Jaungoikoak Israel’i emondako aalmena dauada diño.

### Jesús, maestro bondadoso

<sup>28</sup>“Venid a mí todos los que estáis fatigados y sobrecargados\*, y yo os daré descanso. <sup>29</sup>Tomad sobre vosotros mi yugo, y aprended de mí, que soy manso y humilde de corazón; y hallaréis descanso para vuestras almas\*. <sup>30</sup>Porque mi yugo es suave y mi carga ligera”.

### Las espigas arrancadas en sábado

(Mc. 2, 23-28; Lc. 6, 1-5)

**12** <sup>1</sup>En aquel tiempo vino a pasar Jesús un sábado por los sembrados. Sus discípulos sintieron hambre y se pusieron a arrancar espigas y a comerlas. <sup>2</sup>Al verlo los fariseos, le dijeron: “Mira, tus discípulos hacen lo que no es lícito hacer en sábado\*”. <sup>3</sup>Pero él les dijo: “¿No habéis leído lo que hizo David\* cuando sintió hambre él y los que le acompañaban, <sup>4</sup>cómo entró en la Casa de Dios y comieron los panes de la proposición, que no le era lícito comer a él, ni a sus compañeros, sino sólo a los sacerdotes? <sup>5</sup>¿Tampoco habéis leído en la Ley que en día de sábado los sacerdotes, en el Templo, quebrantan el sábado sin incurrir en culpa? <sup>6</sup>Pues yo os digo que hay aquí algo mayor que el Templo. <sup>7</sup>Si hubieseis comprendido lo que significa aquello de: *Misericordia quiero, que no sacrificio\**, no condenaríais a los que no tienen culpa. <sup>8</sup>Porque señor es del sábado el Hijo del hombre\*”.

11, 28 sobrecargados. La Ley y las observaciones que la recargan más todavía.

11, 29 para vuestras almas. Cf. Jr. 6, 16.

12, 2 en sábado. Los casuistas veían en esto un “trabajo” prohibido por Ex. 34, 21.

12, 3 lo que hizo David. Cf. 1 S. 21, 2-7; Lv. 24, 5-9.

12, 7 no sacrificio. Cita de Os. 6, 6; cf. Mt. 9, 13.

12, 8 el Hijo del hombre. Jesús afirma su poder sobre las instituciones dadas por Dios a Israel.

### Gizon esku-igarra osatzen dau

(Mk. 3, 1-6; Lk. 6, 6-11)

<sup>9</sup>Andik igaro ta arein sinagogara joan zan. Eskua igartuta eukan gizon bat egoan an. <sup>10</sup>Eta zapatuz osatzea bidezko ete-zan itandu utsoen, gero Jesus salatu aal izateko. <sup>11</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: "Zuetariko batek ardi bakarra euki ezkerro, eta zapatuz zulo batera jausten ba'yako, ez ete-dau artzen eta ataraten? <sup>12</sup>Eta, ez dau balio gizonak ardiak baiño geiago? Beraz, bidezko da zapatuz on egitea". <sup>13</sup>Orduan, "Zabaldu egizu esku ori", esan eutsan gizonari. Arek zabaldu egin eban, eta osatuta gelditu yakon, bestea baizen ondo. <sup>14</sup>Pariseuak, barriz, urten eta Jesus'en aurka batu ziran, Jesus zelan galdu asma-tzeko.

### Jesus, "Yabe'ren Morroia" da

(Mk. 3, 7, 12)

<sup>15</sup>Jesus'ek ori jakinda, andik alde egin eban. Askoak jarraitu utsoen, eta guztiak osatu ebazan. <sup>16</sup>Eta ez egie-la Bera agirian jarri agindu eutsen gogor, <sup>17</sup>Isaias igar-leak aurretiaz esandako au bete zedin\*:

<sup>18</sup>*Ona emen aukeratu neban nire morroia, nire maita, nira arimaren atsegiña. Nire Gogoa (Espiritua) Aren gaiñean jarriko dot, eta erriai zuzenbidea iragarriko dautse. <sup>19</sup>Ez dau eztabaidarik izango, ezta deadarrik atarako be, eta iñok be ez dau Aren abotsik plazetan entzungo. <sup>20</sup>Ez dau ausiko kaiñabera brintzatua, eta kea dariola dagoan argi-aria<sup>o</sup> be ez dau itxungiko (atzamauko), zuzentasuna garaipenera eroan arte: <sup>21</sup>Aren izenean jarriko dabe erriak euren itxaropena.*

12, 17 On-egiten erabillen zuertasunagaitik (cf. Is. 42, 1-4).

<sup>o</sup> Argi-ari: mecha de la vela.

### Curación del hombre de la mano paralizada

(Mc. 3, 1-6; Lc. 6, 6-11)

<sup>9</sup>Pasó de allí y se fue a su sinagoga. <sup>10</sup>Había en ella un hombre que tenía una mano paralizada. Y le preguntaron si era lícito curar en día de sábadu para poder acusarle. <sup>11</sup>El les dijo: "¿Quién de vosotros que tenga una sola oveja, si ésta cae en un hoyo en sábadu, no la agarra y la saca? <sup>12</sup>Pues, ¡cuánto más vale un hombre que una oveja! Por tanto, es lícito hacer bien en sábadu". <sup>13</sup>Entonces dice al hombre: "Extiende tu mano". El la extendió, y quedó restablecida, sana como la otra. <sup>14</sup>Pero los fariseos salieron y se confabularon contra él para ver cómo eliminarle.

### Jesús es el "Siervo de Yahvéh"

(Mc. 3, 7, 12)

<sup>15</sup>Jesús, al saberlo, se retiró de allí. Muchos le siguieron y los curó a todos. <sup>16</sup>Y les mandó enérgicamente que no le descubrieran; <sup>17</sup>para que\* se cumpliera el oráculo del profeta Isaias: <sup>18</sup>*He aquí mi Siervo, a quien elegí, mi Amado, en quien mi alma se complace. Pondré mi Espíritu sobre él, y anunciará el juicio a las naciones. <sup>19</sup>No disputará ni gritará, ni oirá nadie en las plazas su voz. <sup>20</sup>La caña cascada no la quebrará, ni apagará la mecha humeante, hasta que lleve a la victoria el juicio: <sup>21</sup>en su nombre pondrán las naciones su esperanza.*

12, 17 para que. Por la discreción en su actividad bienhechora, cf. Is. 42, 1-4.



### Jesus eta Beeltzebul

(Lk. 11, 14-15; Mt. 9, 32-34)

<sup>22</sup>Orduan, itsu ta mutua zan deabrudun bat ekarri eutsoen, eta osatu egin eban, mutuak berba ta ikusi egiten ebala. <sup>23</sup>Eta laguntalde guztiak arrituta iñoan: "Ez ete-da au Dabid'en Semea?" <sup>24</sup>Baiña pariseuak, ori entzunik, auxe esan eben: "Orrek ez dau deabrurik jaurtiten, Beeltzebul\* deabru-nagusiaren laguntzaz izan ezik".

(Mc. 3, 23-30; Lk. 11, 17-23)

<sup>25</sup>Jesus'ek, arein bururakizunak igarririk, auxe esan eutsen: "Bere buruaren aurka bananduta dagoan edozein erreñu, ondatuta dago; eta bere buruaren aurka bananduta dagoan edozein urik naiz etxek, ezin iraun aal izango dau. <sup>26</sup>Satanas'ek Satanás jaurtiten ba'dau, bere buruaren aurka dago bananduta: zelan iraungo dau, ba, aren erreñuak? <sup>27</sup>Eta deabruak nik Beeltzebul'en indarraz jaurtiten ba'dodaz, zuen semeak noren laguntzaz jaurtiten dabez? Orregaitik, eurak izango dira zuen epaille.

<sup>28</sup>Baiña, deabruak nik Jaungoikoaren Espirituaz jaurtiten ba'dodaz, agirian dago Jaungoikoaren Erreñua etorri yatzuena.

<sup>29</sup>Edo-ta, zelan sartu daiteke iñor gizon indartsuaren etxean eta onen ondasunak ostu, lenen indartsua lotzen ez ba'dau? Orduan, bai, aal izango dautso etxea ustu.

<sup>30</sup>Nire alde ez dagoana, neure aurka dago; eta nigaz batzen ez dauanak, sakabanatu egiten dau.

(Lk. 12, 10)

<sup>31</sup>Orregaitik, ba-dirautsuet: Edozein pekatu ta birao

12, 24 Beeltzebul. Kanandar-jainkoa, "Baal nagusia"; judarrak tzerrenburutzat eben.

### Jesús y Beelzebul

(Lc. 11, 14-15; Mt. 9, 32-34)

<sup>22</sup>Entonces le fue presentado un endemoniado ciego y mudo. Y le curó, de suerte que el mudo hablaba y veía. <sup>23</sup>Y toda la gente decía atónita: "¿No será éste el Hijo de David?". <sup>24</sup>Mas los fariseos, al oírlo, dijeron: Este no expulsa los demonios más que por Beelzebul\*, Príncipe de los demonios".

(Mc. 3, 23-30; Lc. 11, 17-23)

<sup>25</sup>El, conociendo sus pensamientos, les dijo: "Todo reino dividido contra sí mismo queda desolado, y toda ciudad o casa dividida contra sí misma no podrá subsistir. <sup>26</sup>Si Satanás expulsa a Satanás, contra sí mismo está dividido: ¿cómo, pues, va a subsistir su reino? <sup>27</sup>Y si yo expulso los demonios por Beelzebul, ¿por quién los expulsan vuestros hijos? Por eso, ellos serán vuestros jueces. <sup>28</sup>Pero si por el Espíritu de Dios expulso yo los demonios, es que ha llegado a vosotros el Reino de Dios.

<sup>29</sup>O, ¿cómo puede uno entrar en la casa del fuerte y saquear su ajuar, si no ata primero al fuerte? Entonces podrá saquear su casa.

<sup>30</sup>El que no está conmigo, está contra mí, y el que no recoge conmigo, desparrama.

(Lc. 12, 10)

<sup>31</sup>Por eso os digo: Todo pecado y blasfemia se per-

12, 24 Beelzebul. Divinidad cananea, "Baal el príncipe", en la que los judíos veían al príncipe de los demonios.

parkatu egingo yake gizonai; Gogoaren (*Espiritu Santuaren*) aurkako biraoa, barriz, ez da parkatua izango. <sup>32</sup>Eta Gizasemearen aurka berba bat esan dagianari, parkatu egingo yako: baiña, Espiritu Santuaren aurka berba bat esan dagianari, ez bizitza onetan ez gerokoan ez yako parkatuko\*.

### Berbetan, biotza agirian

(Mt. 7, 16-20; Lk. 6, 43-45)

<sup>33</sup>Egizue arbola ona dala, eta bere frutua ona izango da; egizue arbola txarra dala, eta bere frutua txarra izango da: zugatza bere frututik ezagutzen da-ta.

<sup>34</sup>Subekumeok!, gaiztoak izanik, zelan esan daiketzue berba onik? Biotzari gaiñez dariona diño agoak-eta. <sup>35</sup>Gizon onak, ondasuntari onetik, gauza onak atarāten dauz; gizon gaiztoak, ondasuntegi txarretik, gauza txarrak atarāten dauz. <sup>36</sup>Ba-dirautsuet: Alperrik esandako berba guztien kontua emongo dabe gizonak Auzi-egunean. <sup>37</sup>Izan be, zure berbak dirala-ta izango zara zintzoztat artua, eta zeure berbak dirala-ta izango zara galdua”.

### Jonas'en ezaugarria

(Lk. 11, 29-32; Mk. 8, 11-12; Mt. 16, 1-4)

<sup>38</sup>Orduan, idazlari ta pariseo batzuek auxe esan eutsoen: “Irakasle, zeuk egindako ezaugarri bat ikusi nai dogu\*<sup>39</sup>. <sup>39</sup>Baiña Jesus'ek erantzun eutsen: “Au bai gizaldi gaizto ta ustela! Ezaugarri bat eskatzen dau, eta Jonas igarlearen ezaugarria baiño beste ezaugarrik ez yako emongo. <sup>40</sup>Izan be, Jonas iru egun eta iru gau arraiñaren sabelean egon zanez\*, Gizasemea be iru egun eta

12. 32 Espiritu (Santuaren) egintzak ontzat ez artzean, gizonak Jaungoikoaren deia ukatu egiten dau eta salbamenetik at gelditzen da (cf. Yn. 8, 21; Yn'en 1.<sup>a</sup>, 3, 16).

12. 38 Bere eginkizuna egiztatzeko (8, 1; Yn. 2, 11; Kor. 1.<sup>a</sup>, 1, 22), berba estalduen bidez bere biztuera iragarten dau.

12. 40 Cf. Yn. 2, 1.

donará a los hombres, pero la blasfemia contra el Espíritu no será perdonada. <sup>32</sup>Y al que diga una palabra contra el Hijo del hombre, se le perdonará; pero al que la diga contra el Espíritu Santo, no se le perdonará ni en este mundo ni en el otro\*.

### Las palabras descubren el corazón

(7, 16-20; Lc. 6, 43-45)

<sup>33</sup>Suponed un árbol bueno, y su fruto será bueno; suponed un árbol malo, y su fruto será malo; porque por el fruto se conoce el árbol. <sup>34</sup>Raza de víboras, ¿cómo podéis vosotros hablar cosas buenas siendo malos? Porque de lo que rebosa el corazón habla la boca. <sup>35</sup>El hombre bueno, del buen tesoro saca cosas buenas y el hombre malo, del tesoro malo saca cosas malas. <sup>36</sup>Os digo que de toda palabra ociosa que hablen los hombres darán cuenta en el día del Juicio. <sup>37</sup>Porque por tus palabras serás declarado justo y por tus palabras serás condenado”.

### La señal de Jonás

Lc. 11, 29-32; Mc. 8, 11-12; Mt. 16, 1-4)

<sup>38</sup>Entonces le interpelaron algunos escribas y fariseos: “Maestro, queremos ver una señal hecha por ti\*<sup>39</sup>. <sup>39</sup>Mas él les respondió: “¡Generación malvada y adúltera! Una señal reclama, y no se le dará otra señal que la señal del profeta Jonás. <sup>40</sup>Porque de la misma manera que Jonás estuvo en el vientre del cetáceo tres días y tres noches\*, así también el Hijo del hombre estará en

12. 32 en el otro. Al negarse a reconocer las obras del Espíritu, el hombre rechaza la invitación de Dios y se sitúa fuera de la salvación: cf. Jn. 8, 21; 1 Jn. 5, 16.

12. 38 hecha por ti. Para autentificar su misión, 8, 1+; Jn. 2, 11+; 1 Co. 1, 22, Jesús se contenta con el anuncio velado de su resurrección.

12. 40 tres noches. Cf. Jon 2, 1.



iru gau egongo da lurraren biotzean. <sup>41</sup>Ninibe'tarrak Auzi-egunean gizaldi onen aurka jagiko dira, eta galdutzat artuko dabe: Jonas'en damu-iragarteaz areik garbatu egin ziran-eta. Ona emen, barriz, Jonas baiño zerbait geiago dana. <sup>42</sup>Egoi-aldeko erregiña Auzi-egunean gizaldi onen aurka jagiko da, eta galdutzat artuko dau: Salomon'en jakituria entzutera lurreko mugetatik etorri zan-eta. Ona emen, barriz, Salomon baiño zerbait geiago dana.

### Satanas'en jokabidea

(Lk. 11, 24-26)

<sup>43</sup>“Deabru zikiña gizonagandik urteten danean, toki legorretan zear ara-onaka dabil atsedeen-billa, baiña ez dau aurkitzen. <sup>44</sup>Orduan, ba-diño: ‘Urten nintzan neure etxera joango naz barriro’. Eta ara eltzean, utsik, garbi ta apain aurkitzen dau. <sup>45</sup>Orduan, ba-doa, eta beste zazpi deabru, bera baiño gaiztoagoak, beragaz artzen dauz; etxean sartu ta bertan gelditzen dira; eta alako gizonaren azken-aldia, asiera baiño txarragoa da. Orixe jazoko yako gizaldi gaizto oni be”.

### Jesus'en benetako senitartea

(Mk. 3, 31-35; Lk. 8, 19-21)

<sup>46</sup>Artetan laguntaldeari berba egiten ziarduala, Aren ama ta Aren anaiak (*senideak*)\* kanpoan egozan, Jesus' egaz berba egin gurarik. <sup>47</sup>Norbaitek ba-dirautso: “Zure ama ta anaiak (*senideak*) or kanpoan zugaz berba egin guraz dagoz”. <sup>48</sup>Jesus'ek, barriz, ori zirauntsanari, auxe erantzun eutsan: “Nor da nire ama, eta nortzuk dira nire anaiak?” <sup>49</sup>Eta bere eskua bere ikasleakana luzaturik, auxe esan eban: “Oneixek dira nire ama ta anaiak.

12, 46 **Aren anaiak.** Maria'ren semeak ez, urreko senideak baiño (13, 55), “anaiak” itza semitarren artean erabilten denez (Gen. 13, 8 eta abar).

el seno de la tierra tres días y tres noches. <sup>41</sup>Los ninivitas se levantarán en el Juicio con esta generación y la condenarán; porque ellos se convirtieron con la predicación de Jonás, y aquí hay algo más que Jonás. <sup>42</sup>La reina del Mediodía se levantará en el Juicio con esta generación y la condenará; porque ella vino de los confines de la tierra a oír la sabiduría de Salomón, y aquí hay algo más que Sabiduría.

### Estrategia de Satanás

(Lc. 11, 24-26)

<sup>43</sup>“Cuando el espíritu inmundo sale del hombre, anda vagando por lugares áridos en busca de reposo, pero no lo encuentra. <sup>44</sup>Entonces dice: ‘Me volveré a mi casa, de donde salí’. Y al llegar la encuentra desocupada, barrida y en orden. <sup>45</sup>Entonces va y toma consigo otros siete espíritus peores que él; entran y se instalan allí, y el final de aquel hombre viene a ser peor que el principio. Así le sucederá también a esta generación malvada”.

### El verdadero parentesco de Jesús

(Mc. 3, 31-35; Lc. 8, 19-21)

<sup>46</sup>Todavía estaba hablando a la muchedumbre, cuando su madre y sus hermanos\* se presentaron fuera y trataban de hablar con él. <sup>47</sup>Alguien le dijo: “¡Oye! ahí fuera están tu madre y tus hermanos que desean hablarte”. <sup>48</sup>Pero él respondió al que se lo decía: “¿Quién es mi madre y quiénes son mis hermanos?”. <sup>49</sup>Y, extendiendo su mano hacia sus discípulos, dijo: “Estos son mi madre y mis hermanos. <sup>50</sup>Pues todo el que cumpla la vo-

12, 46 **sus hermanos.** No hijos de María, sino parientes próximos, 13, 55, según el empleo semítico de la palabra “hermano”, Gn 13, 8, etcétera.

<sup>50</sup>Izan be, zeruetan dagoan nire Aitaren naia bete dagian edonor, orixe da nire anai, nire arreba ta nire ama<sup>50\*</sup>.

## B. IPUIN-ITZALDIA

### Sarrera

(Mk. 4, 1-2; Lk. 8, 4)

**13** <sup>1</sup>Egun aretan, Jesus etxetik urten eta itxaserztean jesarri zan. <sup>2</sup>Eta inguruan laguntalde aundia be aundia batu yakon, txalupa baten sartu ta bertan jesarri bear izateraiño; eta laguntalde guztia itxaserztean egoan. <sup>3</sup>Eta gai asko esan eutsezan, ipuiñetan.

### Ereillearen ipuiña

(Mk. 4, 3-9; Lk. 8, 5-8)

Auxe iñoan: “Bein baten, ereille bat ereitera urten zan. <sup>4</sup>Eta ereitean, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran; egaziak etorri ta jan egin ebezan. <sup>5</sup>Beste batzuk, lur askorik ez euken arri-artean jausi ziran; eta berealaxe erne ziran, lurak sakonik ez eukan-eta; <sup>6</sup>baiña eguzkia urten zanean, erre egin ziran; eta, zusterrik ez euken ezkerro, igartu egin ziran. <sup>7</sup>Beste batzuk sasi-artean jausi ziran; arantzak azi, eta ito egin ebezan. <sup>8</sup>Beste azi batzuk lur onean jausi ziran eta frutu ona emon eben: batek eun, beste batek irurogei, beste batek ogetamar. <sup>9</sup>Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala!”

### Zegaitik egiten dautse berba ipuiñetan?

(Mk. 4, 10-12, 25; Lk. 8, 9-10, 18)

<sup>10</sup>Eta ikasleak Jesus'egana urreraturik, auxe esan eutsoen: “Zegaitik egiten dautsezu berba ipuiñetan?” <sup>11</sup>Je-

<sup>50</sup> 12, 50 Espiritu-senidetazuna aragiarena baiña lenago dago (8, 21-22; 10, 37; Lk. 8, 21; 11, 27-28).

luntad de mi Padre celestial, ése es mi hermano, mi hermana y mi madre<sup>50\*</sup>.

## B. DISCURSO PARABOLICO

### Introducción

(Mc. 4, 1-2; Lc. 8, 4)

**13** <sup>1</sup>Aquel día, salió Jesús de casa y se sentó a orillas del mar. <sup>2</sup>Y se reunió tanta gente junto a él, que hubo de subir a sentarse en una barca; toda la gente quedaba en la ribera. <sup>3</sup>Y les habló muchas cosas en parábolas.

### Parábola del sembrador

(Mc. 4, 3-9; Lc. 8, 5-8)

Decía: “Una vez salió un sembrador a sembrar. <sup>4</sup>Y al sembrar, unas semillas cayeron a lo largo del camino; vinieron las aves y se las comieron. <sup>5</sup>Otras cayeron en pedregal, donde no tenían mucha tierra, y brotaron en seguida por no tener hondura de tierra; <sup>6</sup>pero en cuanto salió el sol se agostaron y, por no tener raíz, se secaron. <sup>7</sup>Otras cayeron entre abrojos; crecieron los abrojos y las ahogaron. <sup>8</sup>Otras cayeron en tierra buena y dieron fruto, una ciento, otra sesenta, otra treinta. <sup>9</sup>El que tenga oídos, que oiga”.

### Por qué habla Jesús en parábolas

(Mc. 4, 10-12, 25; Lc. 8, 9-10, 18)

<sup>10</sup>Y acercándose los discípulos le dijeron: “¿Por qué les hablas en parábolas?” <sup>11</sup>Respondióles: “Es que a

<sup>10</sup> 12, 50 mi madre. Los lazos del parentesco carnal quedan puestos a los del parentesco espiritual, 8, 21-22; 10, 37; Lc 8, 21; 11, 27-28.



sus'ek erantzun eutsen: "Zeruetako Erreiñuko ezkutua ezagutzeara, zeuei emon yatzue, eta arei ez. <sup>12</sup>Izan be, euki daukanari, emon egingo yako, eta gainezka eukiko dau; ez daukanari, barriz, euki daukana be kendu egingo yako\*. <sup>13</sup>Orrexegaitik egiten dautset berba ipuiñetan: ikusirik, ikusten ez dabelako; eta entzunik, entzun ez ulertu egiten ez dabelako\* <sup>14</sup>Orrexekan beteten da Isaias' ek aurretiaz esandako au:

*Ondo entzungo dozue, baiña ez dozue ulertuko; ondo begiratuko dozue, baiña ez dozue ikusiko. <sup>15</sup>Erri onen biotza gogortu egin da-ta; euren belarriak sortu<sup>o</sup> egin dira, eta euren begiak itxi egin dabez; euren begiakaz ikusi ez dagien, eta euren belarriakaz entzun ez dagien, eta euren biotzaz ulertu ez dagien eta garbatu ez daitezan, eta nik osatu ez dagidazan.*

(Lk. 10, 23-24)

<sup>16</sup>Zorionsuak, ba, zuen begiak, ikusi egiten dabe-ta; baita zuen belarriak be, entzun egiten dabe-ta! <sup>17</sup>Benetan dirautsuet: zuek ikusten dozuena, profeta ta zintzo askok gura izan eben ikusi, baiña ez eben ikusi; baita zuek entzuten dozuena be gura izan eben entzun, baiña ez eben entzun.

13, 12 Erabagien eraz, Alkartasun Barriak Zaarra bikaindu egingo dau (5, 17), edo-ta, judarren Legea, bertan-beera itzita, indarbagatuta geldituko da (cf. 25, 29).

13, 13 Aurreko azaltze orreik (11-12) buru-gogorkeria erakutsi dabe (cf. Is. 6, 9-10, 14 ta urrengo ataltxoetan aitatur; Yn. 12, 40, eta Ap. Eg. 28, 26-27). Mesiasutasunaren izakera apal eta ezkutuari buruzko argi zabalak itsutuko ebazanai (Mk. 1, 34), Jesus'ek antz-irudiz irazitako argia eskintzen dautse; argi ori billatzera eta artzera eragiten dautse.

<sup>o</sup> Sortu: adormecerse, hacerse torpes, duros.

vosotros se os ha dado el conocer los misterios del Reino de los Cielos, pero a ellos no se les ha dado. <sup>12</sup>Porque a quien tenga se le dará y le sobraré; pero a quien no tenga, aun lo que tiene se le quitará\*. <sup>13</sup>Por eso les hablo en parábolas, porque viendo no ven, y oyendo no oyen ni entienden\*. <sup>14</sup>En ellos se cumple la profecía de Isaías:

*Escucharéis bien, pero no entenderéis. Miraréis bien, pero no veréis. <sup>15</sup>Porque se ha embotado el corazón de este pueblo, han hecho duros sus oídos, y sus ojos han cerrado; no sea que vean con sus ojos, y con sus oídos oigan, y con su corazón entiendan y se conviertan, y yo los sane.*

(Lc. 10, 23, 24)

<sup>16</sup>¡Dichosos, pues, vuestros ojos, porque ven, y vuestros oídos, porque oyen! <sup>17</sup>Os digo de verdad que muchos profetas y justos desearon ver lo que vosotros véis, pero no lo vieron, y oír lo que vosotros oís, pero no lo oyeron.

13, 12 se le quitará. Según las disposiciones, o bien la Nueva Alianza perfeccionará a la antigua, 5,17+, o bien la Ley judía abandonada a sí misma caducará; cf. 25, 29.

13, 13 ni entienden. Los relatos que preceden, 11-12, han mostrado un endurecimiento culpable, cf. Is 6, 9-10, citado en los vv. 14s; Jn 12, 40; Hch 28, 26-27. A los que una luz plena sobre el carácter humilde y oculto de su mesianismo los cegaría, Mc 1, 34+, Jesús les ofrece una luz tamizada por los símbolos, que invita a seguir buscando y recibiendo.

## Ereillearen ipuiña azaltzen dautse

(Mk. 4, 13-20; Lk. 8, 11-15)

<sup>18</sup>“Entzun egizue, ba, zuek, ereillearen ipuiña. <sup>19</sup>Erreiñuko Itza entzun bai ta ulertu ez egiten dauana-ri, Gaiztoa etorri ta kendu egiten dautso aren biotzean ereindakoa: orixe da bide-ondoan erein zana. <sup>20</sup>Arri-artean erein zana, Itza entzun eta bereala pozik artzen dauana da; <sup>21</sup>baiña, beragan zusterrik ez dauko, azalekoa da, ostera; eta Berba ori dala-ta, larrialdi edo erasoaldiren bat datorrenean, bereala jausi egiten da. <sup>22</sup>Sasi-artean erein zana, Itza entzun bai, baiña munduko arazoak eta aberastasunen zorakeriak Itza ito egiten dabe, eta frutu bagarik gelditzen dana da. <sup>23</sup>Lur onean erein zana, barriz, Itza entzuten eta ulertzen dauana da: onek, bai, onek frutua emoten eta ekarten dau: batek eun, arek irurogei, besteak ogetamar”.

## Galbedarraren ipuiña

<sup>24</sup>Beste ipuin bat ekarri eutsen: “Zeruetako Erreiñua, bere soloan azi ona erein eban gizonaren antzekoa da. <sup>25</sup>Baiña, aren gizonak lo egozala, aren arerioa etorri, gari-artean galbedarra erein, eta joan egin zan <sup>26</sup>Garia erne ta laster galburua emoten asi zanean, orduan galbedarra be agertu egin zan. <sup>27</sup>Morroiak ugazabagana joan eta auxe esan eutsoen: ‘Jauna, ez zenduan, ba, zure soloan azi ona erein? Zelan dauko, ba, galbedarra?’ <sup>28</sup>Ugazabak erantzun eutsen: ‘Arerioresen batek egin dau ori’. Morroiak dirautsoe: ‘Nai dozu, ba, galbedar ori batzera joan gaitezan?’ <sup>29</sup>“Ez! —dirautse—: galbedarra batzean, garia be batera atara ez dagizuen. <sup>30</sup>Itxi biak gari-ebateraiño batera azten; eta gari-ebatean, gari-ebatailleai esango dautset: Batu egizue lenen galbedarra ta lotu eskutetan, erretako; garia, barriz, gorde egizue nire garautegian”.

## Explicación de la parábola del sembrador

(Mc. 4, 12-20; Lc. 8, 11-15)

<sup>18</sup>“Vosotros, pues, escuchad la parábola del sembrador. <sup>19</sup>Sucede a todo el que oye la Palabra del Reino y no la entiende, que viene el Maligno y arrebatada lo sembrado en su corazón: este es el que fue sembrado a lo largo del camino. <sup>20</sup>El que fue sembrado en pedregal, es el que oye la Palabra, y al punto la recibe con alegría; <sup>21</sup>pero no tiene raíz en sí mismo, sino que es inconstante y, cuando se presenta una tribulación o persecución por causa de la Palabra, sucumbe en seguida. <sup>22</sup>El que fue sembrado entre los abrojos, es el que oye la Palabra, pero las preocupaciones del mundo y la seducción de las riquezas ahogan la Palabra, y queda sin fruto. <sup>23</sup>Pero el que fue sembrado en tierra buena, es el que oye la Palabra y la entiende: éste sí que da fruto y produce, uno ciento, otro sesenta, otro treinta”.

## Parábola de la cizaña

<sup>24</sup>Otra parábola les propuso, diciendo: “El Reino de los Cielos es semejante a un hombre que sembró buena semilla en su campo. <sup>25</sup>Pero, mientras la gente dormía, vino su enemigo, sembró encima cizaña entre el trigo, y se fue. <sup>26</sup>Cuando brotó la hierba y echó luego espiga, apareció entonces también la cizaña. <sup>27</sup>Los siervos del amo fueron a decirle: ‘Señor, ¿no sembraste buena semilla en tu campo? ¿Cómo es que tiene cizaña?’ <sup>28</sup>El les contestó: ‘Algún enemigo ha hecho esto’. Dícenle los siervos: ‘Quieres, pues, que vayamos a recogerla?’ <sup>29</sup>Dícele: ‘No, no sea que, al recoger la cizaña, arranquéis a la vez el trigo. <sup>30</sup>Dejad que ambos crezcan juntos hasta la siega. Y al tiempo de la siega, diré a los segadores: Recoged primero la cizaña y atadla en gavillas para quemarla, y el trigo recogedlo en mi granero”.



**Ziape-aziaren° ipuiña**

(Mk. 4, 30-32; Lk. 13, 18-19)

<sup>31</sup>Beste ipuin bat ekarri eutsen: “Zeruetako Erreina, gizon batek eskuan artu ta bere soloan erein eban ziape-aziaren antzekoa da. <sup>32</sup>Azi guztietarik zeiena da, benetan; baiña, azten danean, ortu-ari guztietarik aundiena da, eta arbola egiten da, zeruko egaztiak aren adarretan apiak egitera etorteraíño”.

**Legamiñaren ipuiña**

(Lk. 13, 20-21)

<sup>33</sup>Beste ipuin bat esan eutsen: “Zeruetako Erreíña legamiñaren antzekoa da: emakume batek artu ta iru negurri-urunetan° sartzen dau, ora guztia jagi arte”\*.

**Ipuñetan bakarrik egiten dautse berba**

(Mk. 4, 33-34)

<sup>34</sup>Guzti ori, ipuiñetan esan eutsan Jesus'ek laguntaldeari; eta ipuiñetan izan ezik, ez eutsen barbarik egiten, <sup>35</sup>igarleak aurretiaz esandako au bete zedin: *Nire agoa ipuiñetan zabaldu dot; lurra lur danetik ezkutuan egozanak azalduko dodaz\**.

**Galbedarraren ipuiña azaltzen dau**

<sup>36</sup>Orduan, laguntaldea bialduta, etxera joan zan. Eta bere ikasleak urreratu yakozan, Jesus'i zirautsoela:

13, 33 Erreíñuak asiera apalak ditu, baiña zabal-zabal azten da.  
13, 35 Sal. 78, 2.

° Ziape: mostaza (latiñezko *sinapis*'tik?). Emen beste batzuk be, bidezkoena aukeratzeko: zerba (mostaza campestre), mustarda, yeben, usta.— ° Negurri orek 30 litro artzen ebazan.

**Parábola del grano de mostaza**

(Mc. 4, 30 32; Lc. 13, 18-19)

<sup>31</sup>Otra parábola les propuso: “El Reino de los Cielos es semejante a un grano de mostaza que tomó un hombre y lo sembró en su campo. <sup>32</sup>Es ciertamente más pequeña que cualquier semilla, pero cuando crece es mayor que las hortalizas, y se hace árbol, hasta el punto de que las aves del cielo vienen a anidar en sus ramas”.

**Parábola de la levadura**

(Lc. 13, 20-21)

<sup>33</sup>Les dijo otra parábola: “El Reino de los Cielos es semejante a la levadura que tomó una mujer y la metió en tres medidas de harina, hasta que fermentó todo”\*.

**Sólo en parábolas habla a la gente**

(Mc. 4, 33-34)

<sup>34</sup>Todo esto dijo Jesús en parábolas a la gente, y nada les hablaba sin parábolas, <sup>35</sup>para que se cumpliese el oráculo del profeta: *Abriré en parábolas mi boca, publicaré lo que estaba oculto desde la creación del mundo\**.

**Interpretación de la parábola de la cizaña**

<sup>36</sup>Entonces dejó a la multitud y se fue a casa. Y se le acercaron sus discípulos diciendo: “Explicanos la pa-

13, 33 fermentó todo. El Reino tiene comienzos modestos, pero un gran desarrollo.

13, 35 creación del mundo. Cita de Sal. 78, 2.

“Azaldu egiguzu soloko galbedarraren ipuiña”. <sup>37</sup>Jesus’ ek erantzun eutsen: “Azi ona ereiten dauana, Gizasemea da; <sup>38</sup>soloa, mundua da; azi ona, Erreiñuko semeak dira; galbedarra, Gaiztoaren semeak dira; <sup>39</sup>galbedarra erein eban arerioa, Deabrua da; gari-ebatea, munduaren amaiera, eta gari-ebatailleak, aingeruak dira <sup>40</sup>Beraz, galbedarra batu ta sutan erreten danez, alantxe izango da munduaren amaieran be. <sup>41</sup>Gizasemeak bere aingeruak bialduko dauz, eta bere Erreiñuan diran gaizpide guztiak eta gaizkille guztiak batu <sup>42</sup>ta su-labara jaurtiko dabez. An izango da negarra ta agin-karraskada! <sup>43</sup>Orduan, zintzoak eguzkia legetxe egingo dabe argi euren Aitaren Erreiñuan. Belarririk euki dagianak, entzun dagiala!

#### Dirutzarena ta pitxiarena

<sup>44</sup>Zeruetako Erreiñua, landan gorderiko dirutza lakoxea da. Aurkitzen dauan gizonak barrero gordeten dau, eta pozez beterik, ba-doa, daukan guztia saldu ta landa a erosi egiten dau. <sup>45</sup>Zeruetako Erreiñua, pitxi ederrren billa dabillen merkatari baten antzekoa be ba-da; <sup>46</sup>eta balio aundiko pitxi bat aurkitzean, ba-doa, daukan guztia saldu ta pitxia erosi egiten dau\*.

#### Sarearen ipuiña

<sup>8</sup>"Si, pues, tu mano o tu pie te es ocasión de pecado, córtatelo y arrójalo de ti; mejor te es entrar en la Vida manco o cojo que, con dos manos o dos pies, ser arrojado al fuego eterno. <sup>9</sup>Y si tu ojo te es ocasión de pecado, sácatelo y arrójalo de ti; mejor te es entrar en la Vida con un solo ojo que, con dos ojos, ser arrojado a la gehenna del fuego\*.

18, 5 como éste. Un hombre ha vuelto a ser niño por la sencillez, cf. 19, 14.

18, 9 gehenna del fuego. La "Gehenna", un valle de Jerusalén,



<sup>10</sup>Ez gutxitzat artu, gero, txiki onetariko bat bera be!; onein aingeruak, zeruetan, zeruetan dagoan nire Aitarean arpegia etenbagarik ikusten dabela dirautsuet-eta. (<sup>11</sup>Gizasemea, galduta egoana salbatzera etorri da-ta<sup>12</sup>)<sup>\*</sup>.

### Ardi galdua

(Lk. 15, 3-7)

<sup>12</sup>“Zer deritxazue? Gizon batek eun ardi ba’daukaz eta areitariko bat galtzen ba’yako, ez ete-dauz larogeta emeretzia mendietan itxiko, galdutakoaren billa joateko? <sup>13</sup>Eta aurkitzen ba’dau aurkitu, benetan dirautsuet: galdu bagariko larogeta emeretzia baiño galdutako bakar orrek poz aundiagoa emongo dautso. <sup>14</sup>Orretaraxe, zeruko zuen Aitak be ez dau nai txiki onetariko bat bera be galdu daiten.

### Lagun-urkoc, zelan zuzendu?

(Lk. 17, 3)

<sup>15</sup>“Zure anaiak zure aurka pekatu egin ba-dau, zoaz eta asarre egiozu bakarrean; entzuten ba’zaitu, irabazia izango dozu zure anaia. <sup>16</sup>Entzuten ez ba’zaitu, artu zeugaz lagun bat naiz bi, *auzi guztia bi edo iru ikusleren autorraz ebatzita gelditu daiten*<sup>\*</sup>. <sup>17</sup>Orrei be jaramonik egiten ez ba’dautse, batzarrari esan egiozu<sup>\*</sup>. Eta batzarrari be jaramonik egiten ez ba’dautso, sinisbage ta zerga-batzailletzat artu egizu.

<sup>18</sup>Benetan dirautsuet: zuek lurrean lotu dagizuen edozer, zeruan be lotuta geldituko da; eta zuek lurrean askatu dagizuen edozer, zeruan be askatuta geldituko da.

antxiña, umeak ilten ebezan oparitzat an (Leb. 18, 21), eta geroago gaizkilleen zigor-toki biurtu zan.

18, 11 Geitua, Lukas’enetik artuta: 19, 10.

18, 16 Deut. 19, 15.

18, 17 batzarra. Eliza da (16, 18), anai-arreben batzarra; gaizkillea andik jaurtia izan daiteke.

<sup>10</sup>“Guardaos de despreciar a uno de estos pequeños; porque yo os digo que sus ángeles, en los cielos, ven continuamente el rostro de mi Padre que está en los cielos<sup>\*</sup>.

### La oveja perdida

(Lc. 15, 3-7)

<sup>12</sup>“¿Qué os parece? Si un hombre tiene cien ovejas y se le descarría una de ellas, ¿no dejará en el monte las noventa y nueve, para ir en busca de la descarriada? <sup>13</sup>Y si llega a encontrarla, os digo de verdad que se alegra más por ella que por las noventa y nueve no descarriadas. <sup>14</sup>De la misma manera, no es voluntad de vuestro Padre celestial que se pierda uno de estos pequeños.

### Corrección fraterna

(Lc. 17, 3)

<sup>15</sup>“Si tu hermano llega a pecar, vete y repréndele, a solas tú con él. Si te escucha, habrás ganado a tu hermano. <sup>16</sup>Si no te escucha, toma todavía contigo uno o dos, para que *todo asunto quede zanjado por la palabra de dos o tres testigos*<sup>\*</sup>. <sup>17</sup>Si no les hace caso a ellos, díselo a la comunidad<sup>\*</sup>. Y si ni a la comunidad hace caso, considéralo ya como al gentil y al publicano.

<sup>18</sup>“Yo os aseguro: todo lo que atéis en la tierra quedará atado en el cielo, y todo lo que desatéis en la tierra quedará desatado en el cielo<sup>19</sup>”.

donde antiguamente se sacrificaban niños, Lv. 18, 21+, designó más tarde el lugar de castigo de los malvados.

18, 10 en los cielos. Se omite el v. 11.

18, 16 dos o tres testigos. Cita de Dt. 19, 15.

18, 17 la comunidad. Es la Iglesia, 16, 18, la asamblea de los hermanos, de la que el delincuente puede ser “excomulgado”.

## Lagun-arteko otoitza

<sup>19</sup>“Auxe be ba-dirautsuet : lurrean zuetariko bik zerbait eskatzeko, dana-dala, alkar bat egiten ba’dabe, zeruetan dagoan nire Aitagandik jadetsi egingo dabe; <sup>20</sup>bi edo iru lagun neure izenean batuta dagozan tokian, neu be ardian nago-ta”.

## Irañiak parkatu

(Lk. 17, 4)

<sup>21</sup>Orduan, Pedro’k, Aregana urreraturik, auxe esan utsan: “Jauna, zenbatetan parkatu bear dodaz nire anaiak egin dagidazan iraiñiak? Zazpi bidar bai?” <sup>22</sup>Jesus’ek dirautso: “Zazpi bidar bakarrik ez, baita irurogeta amar aldiz zazpi bidar be.

## Morroi biotz-gogorraren ipuiña

<sup>23</sup>“Orregaitik, zeruetako Erreñua, bere morroiakaz artu-emonak garbitu nai izan ebazan errege baten antzekoa da. <sup>24</sup>Kontu-garbitzen astean, amar milla diru-talentu° zor eutsazan morroi bat ekarri utoen. <sup>25</sup>Ezin ordaindu eikean ezkeru, morroia, onen emaztea ta seme-alabak eta eukan guztia saltzeko ta zorra ordaintzeko agindu eban ugazabak. <sup>26</sup>Orduan, morroiak, Aren aurean auzpazturik, erreguka zirautsan: “Itxaron egidazu, guztia ordainduko dautsut-eta”. <sup>27</sup>Ugazabak, morroi aretzaz errukituta, joaten itxi ta zorra parkatu egin utsan.

<sup>28</sup>Morroii a andik urtetean, eun denario° zor eutsazan morroi-lagun bat aurkitu eban, eta itobearrez ari eldu ta auxe zirautsan: “Ordaindu egik zor doana”. <sup>29</sup>Aren morroi-lagunak, auzpazturik, erreguka zirautsan: “Itxa-

° Amar milla diru-talentu: irurogei milloes peseta urrezko.— ° 100 denario: 100 peseta-edo.

## Oración en común

<sup>19</sup>“Yo os aseguro también que si dos de vosotros se ponen de acuerdo en la tierra para pedir algo, sea lo que fuere, lo conseguirán de mi Padre que está en los cielos. <sup>20</sup>Porque donde están dos o tres reunidos en mi nombre, allí estoy yo en medio de ellos”.

## Perdón de las ofensas

(Lc. 17, 4)

<sup>21</sup>Pedro se le acercó entonces y le dijo: “Señor, ¿cuántas veces tengo que perdonar las ofensas que me haga mi hermano? ¿Hasta siete veces?” <sup>22</sup>Dicele Jesús: “No te digo hasta siete veces, sino hasta setenta veces siete”.

## Parábola del siervo sin entrañas

<sup>23</sup>“Por eso el Reino de los Cielos es semejante a un rey que quiso ajustar cuentas con sus siervos. <sup>24</sup>Al comenzar a ajustarlas, le fue presentado uno que le debía diez mil talentos. <sup>25</sup>Como no podía pagar, ordenó el señor que fuese vendido él, su mujer y sus hijos y todo cuanto tenía, y que se le pagase. <sup>26</sup>Entonces el siervo se echó a sus pies, y prostrado le decía: ‘Ten paciencia conmigo, que todo te lo pagaré’. <sup>27</sup>Movido a compasión el señor de aquel siervo, le dejó marchar y le perdonó la deuda. <sup>28</sup>Al salir de allí aquel siervo, se encontró con uno de sus compañeros, que le debía cien denarios; le agarró y, ahogándole, le decía: ‘Paga lo que debes’, <sup>29</sup>Su compañero, cayendo a sus pies, le suplicaba: ‘Ten paciencia conmigo, que ya te pagaré’. <sup>30</sup>Pero él no quiso, sino que fue y le echó a la cárcel,



ron egidak, ordainduko dauat-eta". <sup>30</sup>Baiña, besteak ez eban nai izan; eta joanda, giltzapean sarrerazo eban, zorra ordaindu arte.

<sup>31</sup>Beste morroi-lagunak, jazotakoa ikustean, atseka-bez bete ziran, eta jazotako guztia euren ugazabari azaltzera joan ziran. <sup>32</sup>Orduan, bere ugazabak dei egin eta esan eutsan: "Morroi gaizto ori!: zor guztia parkatu euan nik iri, ik erreguz eskatu eustalako. <sup>33</sup>Ez ete-euan, ba, bidezko euk be ire morroi-lagunari erruki izatea, neu be iretzaz erruki izan nintzoanez?" <sup>34</sup>Eta ugazabak, asarratuta, morroia zigortzailleen eskuetan itxi eban, zor guztia ordaindu egian arte. <sup>35</sup>Orixe egingo dautsue zeuci'be zeruetako nire Aitak, bakotxak bere anaiari biotzez parkatzen ez ba'dautso".

## VI

## ZERUETAKO ERREIÑUA URR DAGO

## A. AZALTZE-ZATIA

## Ezkontza, askatu-eziña

(Mk. 10, 1-12)

**19** <sup>1</sup>Itzaldioak amaitu ebazanean, Jesus Galilea'tik urten eta Judea'ko lurraldera etorri zan, Jordan'ez beste aldera. <sup>2</sup>Laguntalde aundiak jarraitu eutsan, eta an osatzeak egin ebazan. <sup>3</sup>Eta pariseo batzuk urreratu yakozan, eta azpikeriz auxe esan eutsoen: "Bidezko yako senarrari, bere emaztea edozegaitik iztea?" <sup>4</sup>Jesus'ek erantzun eban: "Ez dozue irakurri Egi-lleak, asierarik, arra ta emea egin ebazala?, <sup>5</sup>eta auxe esan ebala: *Orregaitik, gizonak aita ta ama itxi egingo dauz, eta bere emazteari lotuko yako, eta biok aragi bat bakarra izango dira?* <sup>6</sup>Beraz, arrezkero ez dira bi, aragi bat bakarra baiño. Beraz, Jaungoikoak lotu ebana, ez begi gizonak askatu".

hasta que pagase lo que debía. <sup>31</sup>Al ver sus compañeros lo ocurrido, se entristecieron mucho, y fueron a contar a su señor todo lo sucedido. <sup>32</sup>Su señor entonces le mandó llamar y le dijo: 'Siervo malvado, yo te perdóné a ti toda aquella deuda porque me lo suplicaste. <sup>33</sup>¿No debías tú también compadecerte de tu compañero, como también yo me compadecí de ti?' <sup>34</sup>Y encolezado su señor, le entregó a los verdugos hasta que pagase todo lo que debía. <sup>35</sup>Esto mismo hará con vosotros mi Padre celestial, si no perdonáis de corazón cada uno a vuestro hermano".

## VI

## PROXIMA VENIDA DEL REINO DE LOS CIELOS

## A. SECCION NARRATIVA

## Indisolubilidad del matrimonio

(Mc. 10, 1-12)

**19** <sup>1</sup>Cuando acabó Jesús estos discursos, partió de Galilea y se fue a la región de Judea, al otro lado del Jordán. <sup>2</sup>Le siguió mucha gente, y los curó allí. <sup>3</sup>Y se le acercaron unos fariseos que, para ponerle a prueba, le dijeron: "¿Le es lícito a uno repudiar a su mujer por un motivo cualquiera?" <sup>4</sup>El respondió: "¿No habéis leído que el Creador, desde el principio, *los hizo varón y hembra,* <sup>5</sup>y que dijo: *Por eso dejará el hombre a su padre y a su madre y se unirá a su mujer, y los dos se harán una sola carne?* <sup>6</sup>De manera que ya no son dos, sino una sola carne. Pues bien, lo que Dios unió no lo separe el hombre". <sup>7</sup>Dicenle: "Entonces ¿por qué Moisés prescribió dar acta de divorcio y

<sup>7</sup>Areik dirautsoe: "Zegaitik agindu eban, ba, Moises'ek, izte-agiria emon eta emaztea bialtzeko?" <sup>8</sup>Jesus'ek erantzun eutsen: "Zeuen biotz gogorragaitik emon eutsen Moises'ek zuen emazteak izteko baimen ori; asieran, ostera, ez zan orrela izan. <sup>9</sup>Au onela dala, auxe dirautsuet: Aragikeriagaitik izan ezik\*, bere emaztea itxi ta beste bategaz ezkontzen danak, ezkontza loitu egiten dau".

### Garbitasuna norberaren gogoz

<sup>10</sup>Aren ikasleak dirautsoe: "Senar-emazteen auzia orrela ba'da, ez dakar irabazirik ezkontzeak". <sup>11</sup>Baiña, Jesus'ek erantzun eutsen: "Ez dabe guztiak izkera au ulertzen, ori emon yakenak bakarrik baiño. <sup>12</sup>Izan be, ba-dira irenak<sup>o</sup> amaren sabeletik orrela jaiokak, eta ba-dira irenak gizonak eginda, eta ba-dira irenak zeru-etako Erreiñuagaitik euren buruak orrela egin ebezanak. Ulertu al dagianak, ulertu dagiala\*.

### Jesus eta umeak

(Mc. 10, 13-16; Lk. 18, 15-17)

<sup>13</sup>Orduan, ume batzuk ekarri eutsuezan, arein gainean eskuak ezarri ta otoitz egin egian; baiña ikasleak asarre egiten eutsen. <sup>14</sup>Jesus'ek, ostera, auxe esan eutsen: "Itxi bakean umeak, eta ez egiezue galerazo nigana etorten: onelakoxeak diranena da zeruetako Erreiñuata". <sup>15</sup>Gero, eskuak ezarri eutsezan, eta alde egin eban andik.

<sup>19, 9</sup> Ezkon-alkartasuna askatu-ezifia da (cf. Gen. 1, 27; 2, 24). Aitaturiko eskubide berezian (cf. 5, 32), ba-daitete, bearbada, jatorra ez dan alkartzete bat izatea, edo-ta obeto, saldukeria (zintzotasun-eza); egoera orrek beste erabagi berezi bat eskatzen dau ("banantzea", cf. Kor. 1.<sup>a</sup>, 7, 11).

<sup>19, 12</sup> Erreiñuari bakarrik lotu nai dagienai, Jesus'ek betiko garbitasuna eskatzen dautse (cf. Kor. 1.<sup>a</sup>, 7, 1, 32).

<sup>o</sup> Irenak: eunucos.

repudiarla?" <sup>8</sup>Respondióles: "Moisés, teniendo en cuenta la dureza de vuestra cabeza, os permitió repudiar a vuestras mujeres; pero al principio no fue así. <sup>9</sup>Ahora bien, os digo que quien repudie a su mujer —salvo el caso de fornicación\*— y se case con otra, comete adulterio".

### La continencia voluntaria

<sup>10</sup>Dícnle sus discípulos: "Si tal es la condición del hombre respecto de su mujer, no trae cuenta casarse". <sup>11</sup>Mas él les respondió: "No todos entienden este lenguaje, sino solamente aquellos a quienes se les ha concedido. <sup>12</sup>Porque hay eunucos que nacieron así del seno materno, y hay eunucos hechos por los hombres, y hay eunucos que se hicieron tales a sí mismos por el Reino de los Cielos. Quien pueda entender, que entienda\*".

### Jesús y los niños

(Mc. 10, 13-16; Lk. 18, 15-17)

<sup>13</sup>Entonces le presentaron unos niños para que les impusiera las manos y orase; pero los discípulos les reñían. <sup>14</sup>Mas Jesús les dijo: "Dejad a los niños y no les impidáis que vengan a mí, porque de los que son como éstos es el Reino de los Cielos". <sup>15</sup>Después les impuso las manos y se fue de allí.

<sup>19, 9</sup> fornicación. La unión conyugal es indisoluble, cf. Gn. 1, 27; 2, 24. En la excepción prevista, cf. 5, 32, tal vez se trate de una unión ilegítima, o más bien la infidelidad, que exige una solución especial no concretada (la "separación", cf. 1. Co. 7, 11).

<sup>19, 12</sup> que entienda. Jesús invita a la continencia perpetua a los que quieran consagrarse exclusivamente al Reino, cf. 1 Co. 7, 1, 32s.



## Gazte aberatsa

(Mk. 10, 17-22; Lk. 18, 18-23)

<sup>16</sup>Orduan, norbaitek, urreraturik, auxe esan eutsan: "Irakasle, zer onik egingo dot betiko bizitza jaristeko?" <sup>17</sup>Jesus'ek erantzun eutsan: "Zegaitik itauntzen daustazu niri ona zer dan? Bat bakarra da Ona. Bizitzan sartu nai ba'dozu, barriz, bete egizuz aginduak". <sup>18</sup>"Zeintzuk?", esan eban arek. Eta Jesus'ek esan eutsan: "Ez dozu iñor ilgo, ez dozu ezkontzarik loituko, ez dozu lapurretarik egingo, ez dozu guzurrezko autorrik esango, <sup>19</sup>zure aita ta ama aintzat artuko dozuz, eta zure lagun-urkoa zeure burua lez izango dozu maite".

<sup>20</sup>Orduan, gazteak dirautso: "Bete dot nik guzti ori; zer ez dot oraindiño?" <sup>21</sup>Jesus'ek esan eutsan: "Guztiz bikaiña izan nai ba'dozu, zoaz, daukazun guztia saldu ta emon egiezu beartsuai, eta zeruetan ondasuna (dirutza) eukiko dozu; gero, etorri zaitez eta jarraitu egidazu"\*. <sup>22</sup>Berbok entzutean, gaztea saminduta joan zan, ondasun asko eukazan-eta.

## Aberastasunen arriskua

(Mk. 10, 23-27; Lk. 18, 24-27)

<sup>23</sup>Orduan, Jesus'ek bere ikasleai auxe esan eutsen: "Benetan dirautsuet: nekez sartuko da aberatsa zeruetako Erreiñuan. <sup>24</sup>Barrero he ba-dirautsuet: errazago da gamelua jostorratz-zulotik sartzea, aberatsa zeruetako Erreiñuan sartzea baiño". <sup>25</sup>Ori entzutean, ikasleak zearo arritzen ziran, eta auxe iñoen: "Nor zeruratu daiteke, ba?" <sup>26</sup>Jesus'ek, arekana begira-begira jarririk, auxe esan eban: "Ori gizonentzat eziña da; Jaungoikoarentzat, ostera, guztia da eginkor".

19, 21 Aginduak beteaz gaiñera (Ex. 20, 12; Leb. 19, 18), norbere gogozko txirotasunerako deia Jesus'i jarraitzeko (5, 3).

## El joven rico

(Mc. 10, 17-22; Lc. 18, 18-23)

<sup>16</sup>En esto se le acercó uno y le dijo: "Maestro, ¿qué he de hacer yo de bueno para conseguir vida eterna?" <sup>17</sup>Respondióle: "¿Por qué me preguntas acerca de lo bueno? Uno solo es el Bueno. Mas si quieres entrar en la vida, guarda los mandamientos". <sup>18</sup>"¿Cuáles?" —replicó él. Y Jesús le dijo: "No matarás, no cometerás adulterio, no robarás, no levantarás testimonio falso, <sup>19</sup>honra a tu padre y a tu madre, y amarás a tu prójimo como a ti mismo". <sup>20</sup>Dícele entonces el joven: "Todo eso lo he guardado; ¿qué más me falta?" <sup>21</sup>Jesús le dijo: "Si quieres ser perfecto, vete, vende lo que tienes y dáselo a los pobres, y tendrás un tesoro en los cielos; luego ven, y sígueme\*". <sup>22</sup>Al oír estas palabras, el joven se marchó apenado, porque tenía muchos bienes.

## Peligro de las riquezas

(Mc. 10, 23-27; Lc. 18, 24-27)

<sup>23</sup>Entonces dijo Jesús a sus discípulos: "Yo os aseguro que es difícil que un rico entre en el Reino de los Cielos. <sup>24</sup>Os lo repito, es más fácil que un camello entre por el ojo de una aguja, que el que un rico entre en el Reino de los Cielos". <sup>25</sup>Al oír esto, los discípulos se asombraban mucho y decían: "Entonces ¿quién se podrá salvar?" <sup>26</sup>Jesús, mirán道les fijamente, dijo: "Para los hombres eso es imposible, mas para Dios todo es posible".

19, 21 sígueme. Superando los mandamientos, Ex. 20, 12s; Lv. 19, 18, una llamada a la pobreza voluntaria para seguir a Jesús, 5, 3+.

## Esku-zabalentzat agintako saria

(Mk. 10, 28-31; Lk. 18, 28-30)

<sup>27</sup>Orduan Pedro'k, berba-lagun sarturik, auxe esan eutsan: "Ikusten dozu: guk guztia itxi ta zeuri jarraitu dautsugu; zer artuko dogu, ba?" <sup>28</sup>Jesus'ek esan eban: "Benetan dirautsuet: niri jarraitu daustazuenok, bizitza barrian\*, Gizasemea bere aintzazko aulkian jesarri daitenean, zuek be amabi aulkitan jesarriko zaree, Israel'go amabi jatorriak epaitzeko. <sup>29</sup>Eta etxeak, anai-arrebak, aita, ama, seme-alabak, naiz etxaldea<sup>o</sup>, neure izenagaitik itxi dauzanak eun bidar geiago artu ta betikiko bizitza jadetsiko dau.

(Lk. 13, 30)

<sup>30</sup>Eta lenen diran asko, azken izango dira; eta azken diran asko, lenen.

## Maastiko langilleak\*

**20** <sup>1</sup>Izan bere, zeruetako Erreiñua, goizean-goiz bere maastirako langille-billa urten zan etxagunaren antzekoa da. <sup>2</sup>Eta lan-saritzat eguneko denario diru bana langilleakaz itunduta (*berbatuta*), bere maastira bialdu ebazan. <sup>3</sup>Irugarren orduan-edo, barriro urten zan; eta, beste batzuk plazan geldituz eozala ikusirik, <sup>4</sup>auxe esan eutsen: "Zoaze zuek be nire maastira, eta emongo dautsuet bidezko dana". <sup>5</sup>Eta joan egin ziz-

19, 28 bizitza barria. Mesias-aldia da, Elizan Kristo'ren biztueraz asia (cf. Ap. Eg. 21, 1).

20 Maastiko langilleak. Ugazabak utsean egiten dau dei, eta bakotxari askatasunez emoten dautso ordaiña; orregaitik, zuzentzen sunaren gaitetiko ontasuna agertzen dau. Judarak izan ziran lenengo deituak; beraz, ez dabe gaizpiderik artu bear, geroago pekatariak eta jentillak egindako deia dala-ta (cf. Errom. 9, 14).

<sup>o</sup> Etxalde: hacienda propia, propiedad.

## Recompensa prometida al desprendimiento

(Mc. 10, 28-31; Lc. 18, 28-30)

<sup>27</sup>Entonces Pedro, tomando la palabra, le dijo: "Ya lo ves, nosotros lo hemos dejado todo y te hemos seguido; ¿qué recibiremos por tanto?" <sup>28</sup>Jesús les dijo: "Yo os aseguro que vosotros que me habéis seguido, en la regeneración\*, cuando el Hijo del hombre se siente en el trono de su gloria, os sentaréis también vosotros en doce tronos, para juzgar a las doce tribus de Israel. <sup>29</sup>Y todo aquel que haya dejado casas, hermanos, hermanas, padre, madre, hijos o hacienda por mi nombre, recibirá el ciento por uno y heredará vida eterna.

(Lc. 13, 30)

<sup>30</sup>"Y muchos primeros serán últimos y muchos últimos, primeros".

## Parábola de los obreros de la viña\*

**20** <sup>1</sup>"En efecto, el Reino de los Cielos es semejante a un propietario, que salió a primera hora de la mañana a contratar obreros para su viña. <sup>2</sup>Habiéndose ajustado con los obreros en un denario al día, los envió a su viña. <sup>3</sup>Salió luego hacia la hora tercera y, al ver a otros que estaban en la plaza parados, <sup>4</sup>les dijo: 'Id también vosotros a mi viña. y os

19, 28 regeneración. Es la era mesiánica ya inaugurada en la Iglesia con la resurrección de Cristo, cf. Ap. 21, 1+.

20, Parábola de los obreros de la viña. Con la gratuidad de su llamada y con la libertad en la remuneración, el dueño de la viña manifiesta una bondad que sobrepasa la justicia. Los judíos, los primeros en ser llamados, no deben escandalizarse por la llamada dirigida más tarde a los pecadores y a los paganos, cf. Rm. 9, 14.



ran. Seigarren eta bederatzigarren orduan be barriri urten zan, eta beste arenbeste egin eban. <sup>6</sup>Amaikagarren oduan-edo be urten egin zan; eta, beste batzuk antxe egozala ikusirik, ba-dirautse: “Zegaitik zagoze emen egun osoan geld?” <sup>7</sup>Areik auxe dirautsoe: “Inok ez gaitu lanerako artu-ta...”. Etxagunak dirautse: “Zoa-ze zuek be nire maastira”. <sup>8</sup>Illuntzean, maasti-jabeak bere kontuartzailleari dirautso: “Dei egin langilleai ta emon egiezu lan-saria, azkenengoetatik asi ta lenengoetaraino”.

<sup>9</sup>Etorri ziran, ba, amaikagarren orduan joanda-koak, eta denario bana artu eben. <sup>10</sup>Lenengoak etorri ziranean, geiago jasoko ebela uste izan eben; baiña, eurak be denario bana artu eben. <sup>11</sup>Eta denarioa artu ebenean, etxagunaren aurka mormoxetan ziarduen, <sup>12</sup>esanez: “Ordubete baiño ez dabe lan egin azkenengo orreik, eta guk egun bateko nekea ta beroa eroan doguzanarren, geuri legetxe emon dautsezu ordain-saria”. <sup>13</sup>Baiña, etxagunak aretariko bati auxe erantzun eutsan: “Adiskide, ez dautsut zuri bidebagekeririk egiten. Ez zenduan, ba, nigaz bat egin lan-saritzat denario bat jasoteko? <sup>14</sup>Artu egizu, ba, zurea, ta zoaz. Azkenengo orri be, zeuri aiña emon nai dautsat. <sup>15</sup>Ala, ezin egin ete-daiket nireaz nai dodanik? Ala, ni ona nazalako, zure begia okerra izango ete-da?” <sup>16</sup>Olan, ba, azkenengoak lenengo izango dira, eta lenengoak azken. (*Deituak asko dira-ta; gutxi, ostera, aukeratuak*)\*.

### Bere Nekaldia irugarrenez iragarten dau

(Mk. 10, 32-34; Lk. 18, 31-33. Cf. Mt. 16, 21; 17, 12, 22-23)

<sup>17</sup>Jerusalen'era igoten ziarduala, Jesus'ek amabi ikasleak bakarrean artu ta auxe esan eutsen: <sup>18</sup>“Begira: Jerusalen'era igoten diardugu, eta Gizasemea abadeburu ta idazlarien eskuetan itxia izango da; eriotzarako galduko dabe <sup>19</sup>eta sinisbageen eskuetan itxiko dabe, irain-

20, 16 Geitua, 22, 14'garrenetik artuta.

daré lo que sea justo'. <sup>5</sup>Y ellos fueron. Volvió a salir hacia la hora sexta y nona e hizo lo mismo. <sup>6</sup>Todavía salió a eso de la hora undécima y, al encontrar a otros que estaban allí, les dice: '¿Por qué estáis aquí todo el día parados?' <sup>7</sup>Dícnle: 'Es que nadie nos ha contratado'. Díceles: 'Id también vosotros a mi viña'. <sup>8</sup>Al atardecer, dice el dueño de la viña a su administrador: 'Llama a los obreros y págalos el jornal, empezando por los últimos hasta los primeros'. <sup>9</sup>Vinieron, pues, los de la hora undécima y recibieron un denario cada uno. <sup>10</sup>Cuando les tocó a los primeros pensaron que cobrarían más, pero ellos también recibieron un denario cada uno. <sup>11</sup>Y al tomarlo, murmuraban contra el propietario, <sup>12</sup>diciendo: 'Estos últimos no han trabajado más que una hora, y les pagas como a nosotros, que hemos aguantado el peso del día y el calor'. <sup>13</sup>Pero él contestó a uno de ellos: 'Amigo, no te hago ninguna injusticia. ¿No te ajustaste conmigo en un denario?' <sup>14</sup>Pues toma lo tuyo y vete. Por mi parte, quiero dar a este último lo mismo que a ti. <sup>15</sup>¿Es que no puedo hacer con lo mío lo que quiera? ¿O va a ser tu ojo malo porque yo soy bueno?' <sup>16</sup>Así, los últimos serán primeros y los primeros, últimos”.

### Tercer anuncio de la Pasión

(Mc. 10, 32-34; Lc. 18, 31-33; Cf. Mt. 16, 21; 17, 12, 22-23)

<sup>17</sup>Cuando iba subiendo Jesús a Jerusalén, tomó aparte a los Doce, y les dijo por el camino: <sup>18</sup>“Mirad que subimos a Jerusalén, y el Hijo del hombre será entregado a los sumos sacerdotes y escribas; le condenarán a muerte <sup>19</sup>y le entregarán a los gentiles, pa-

du, zigorkadaz astindu ta gurutzean josi dagien; eta irugarren egunean biztu egingo da”.

### Zebedeo'ren semeen amaren eskaria

(Mk. 10, 35-40)

<sup>20</sup>Orduan, Zebedeo'ren semeen ama urreratu yakon, bere semeakaz batera; eta auzpazturik, zerbait eskatu nai eutsan. <sup>21</sup>Jesus'ek esan eutsan: “Zer gura dozu?” Amak dirautso: “Nire seme biok, zure Erreiñuan, bata zeure eskumaldean eta bestea zeure ezkerrekaldean jesarri daitezala agindu egizu”. <sup>22</sup>Jesus'ek auxe erantzun eban: “Ez dakizue zer eskatzen dozuen. Nik edan bear dodan edontzia, edan daikezue zuek?” Areik dirautsoe: “Bai, edan daikegu”. <sup>23</sup>Jesus'ek dirautse: “Nire edontzia edango dozue, bai; baiña, nire eskumaldean naiz ezkerrekaldean jarrerazoteko eskubiderik ez dot nik: neure Aitak atondu dautsenentzat da ori”\*.

### Buru diramak serbitzari izan bear dabe

(Mk. 10, 41-45; Lk. 22, 25-27).

<sup>24</sup>Beste amarrak ori entzutean, anai bien aurka asarratu egin ziran. <sup>25</sup>Baiña, Jesus'ek deitu ta esan eutsen: “Ba-dakizue errietako agintariak erria euren menpean daukena, eskubide osodun jaunak lez, eta aundiak erria nausikeriz erabilten dabena. <sup>26</sup>Zuen artean, barriz, ez da orrela izan bear, bestetara baiño: zuen artean aundi izan nai dagiana, zeuen serbitzari izan daitela, <sup>27</sup>eta zuen artean lenen izan nai dagiana, zeuen serbitzari izan daitela: <sup>28</sup>Gizasemea be ez zan morroiak eukitera etorri-ta, serbitzari izatera eta bere bizia askoren alde ordaintzat emotera baiño”\*.

20, 23 Aintzaz jasoak izan bearrean, anai biak Maisu baten lagunkide izango dira oiñazeetarako (cf. 26, 39; Mk. 10, 38); Maisu orrek ez ditu sarituko mundu onetan.

20, 28 Jesus'ek gizonak pekatutik eta eriotzatik atara egiten

ra burlarse de él, azotarle y crucificarle, y al tercer día resucitará”

### Petición de la madre de los hijos de Zebedeo

(Mc. 10, 35-40)

<sup>20</sup>Entonces se le acercó la madre de los hijos de Zebedeo con sus hijos, y se postró como para pedirle algo. <sup>21</sup>El le dijo: “¿Qué quieres?” Dícele ella: “Manda que estos dos hijos míos se sienten en tu Reino, uno a tu derecha y el otro a tu izquierda”. <sup>22</sup>Replicó Jesús: “No sabéis lo que pedís. ¿Podéis beber el cáliz que yo voy a beber?” Dícenle: “Sí, podemos”. <sup>23</sup>Díceles: “Mi cáliz, sí lo beberéis; pero, sentarse a mi derecha y a mi izquierda no es cosa mía el concederlo, sino que es para quienes está preparado por mi Padre”.

### Los jefes deben servir

(Mc. 10, 41-45; Lc. 22, 25-27)

<sup>24</sup>Al oír esto los otros diez, se indignaron contra los dos hermanos. <sup>25</sup>Mas Jesús los llamó y dijo: “Sabéis que los jefes de las naciones la gobiernan como señores absolutos, y los grandes las oprimen con su poder. <sup>26</sup>Pero no ha de ser así entre vosotros, sino que el que quiera llegar a ser grande entre vosotros, sea vuestro servidor, <sup>27</sup>y el que quiera ser el primero entre vosotros, sea esclavo vuestro; <sup>28</sup>de la misma manera que el Hijo del hombre no ha venido a ser servido, sino a servir y a dar su vida como rescate por muchos”.

20, 23 preparado por mi Padre. En lugar de una exaltación gloriosa, los dos hermanos se verán asociados a los sufrimientos, cf. 26, 39; Mc. 10, 38, de un Maestro que no tiene por qué recompensarles en la tierra.

20, 28 muchos. Jesús libra a los hombres del pecado y de la



### Jeriko'ko itsu biak

(Mk. 10, 46-52; Lk. 18, 35-43)

<sup>20</sup>Jeriko'tik urtetean, laguntalde aundiak jarraitu eutsan. <sup>30</sup>Onetan, bide-baztarrean jesarrita egozan itsu bi, Jesus igaroten zala entzutean, deadarka asi ziran: "Jauna, Dabid'en Seme ori, erruki zakiguz!" <sup>31</sup>Laguntaldeak asarre egiten eutsen, isildu zeitezan; baiña areik erri-meago egiten eben deadar: "Jauna, Dabid'en Seme ori, erruki zakiguz!" <sup>32</sup>Orduan, Jesus gelditu egin zan, arei dei egin eta esan eutsen: "Zer nai dozue egin dagitzuedan?" <sup>33</sup>Itsuak dirautsoe: "Jauna, gure begiok zabaldu daitezala!" <sup>34</sup>Jesus'ek, aretaz errukituta, begiak ikutu eutsezan, eta bat-batean ikustea artu eben barriro. Eta jarraitu egin eutsoen.

### Jesus, Mesias lez sartzen da Jerusalem'en

(Mk. 11, 1-11; Lk. 19, 28-38; Yn. 12, 12-16)

**21** <sup>1</sup>Jerusalen'era urreratzean, Oriomendi-barreneko Betfaje'ra eldu ziranean, Jesus'ek bere ikasle bi bialdu ebazan, <sup>2</sup>esanez: "Zoaze zuen aurrean dagoan erritxo orretara; eta bereala, astoama bat aurkituko dozue lotuta, eta astakume bat beragaz; askatu ta ekarri egidazuez. <sup>3</sup>Eta iñok ezer ba'dirautesue, Jaunak bear dauzala ta berealaxe biurtuko dauzala erantzungo dozue". <sup>4</sup>Ori, igarleak aurretiaz esandako au bete zedin jazo zan:

<sup>5</sup>*Esan egiozu Sion'go alab(e)ari: Orra nun dator-kizun zure erregea, otzan-otzan eta astoama baten gainean, eta buztarpeko aberearen ume-gaiñean jesarrita\*.*

dauz (Mk. 10, 45; Kor. 1.<sup>a</sup>, 15, 56-57; Gal. 3, 13; 4, 5), bere odolaren ordain-saria emonik (Errom. 3, 25; Kor. 1.<sup>a</sup>, 6, 20; Gal. 3, 13. "Asko" itzak (cf. Is. 53, 11) aurrez-aurre jarten dau Erosle bakarra askatuen talde andiaz (cf. 26, 28).

<sup>21</sup> 5 Jesus'ek, Isaias'ek (62, 11) eta Zakarias'ek (9, 9) aurretiaz egindako igarpena, bere buruarentzat artzen dau. Azkenengo onek, bein eta barriro, Mesias Erregearen bake-apaltasuna azaltzen dau.

### Los dos ciegos de Jericó

(Mc. 10, 46-52; Lc. 18, 35-43)

<sup>29</sup>Cuando salían de Jericó, le siguió una gran muchedumbre. <sup>30</sup>En esto, dos ciegos que estaban sentados justo al camino, al enterarse que Jesús pasaba, se pusieron a gritar: "¡Señor, ten compasión de nosotros, Hijo de David!" <sup>31</sup>La gente les increpó para que se callaran, pero ellos gritaron más fuerte: "¡Señor, ten compasión de nosotros, Hijo de David!" <sup>32</sup>Entonces Jesús se detuvo, los llamó y dijo: "¿Qué queréis que os haga?" <sup>33</sup>Dicenle: "¡Señor, que se abran nuestros ojos!" <sup>34</sup>Movido a compasión Jesús les tocó los ojos, y al instante recobraron la vista. Y le siguieron.

### Entrada mesiánica en Jerusalén

(Mc. 11, 1-11; Lc. 19, 28-38; Jn. 12, 12-16)

**21** <sup>1</sup>Cuando se aproximaban a Jerusalén, al llegar a Betfagé, al pie del monte de los Olivos, envió Jesús a dos discípulos, <sup>2</sup>diciéndoles: "Id al pueblo que está enfrente de vosotros, y en seguida encontraréis un asna atada y un pollino con ella; desatadla y traédmelos. <sup>3</sup>Y si alguien os dice algo, diréis: El Señor los necesita; en seguida los devolverá". <sup>4</sup>Esto sucedió para que se cumpliese el oráculo del profeta:

<sup>5</sup>*Decid a la hija de Sión: He ahí que tu Rey viene a ti, manso y montado en un asno y un pollino, hijo de animal de yugo\*.*

muerte, Mc. 10, 45; 1 Co. 15, 56-57; Ga. 3, 13; 4, 5, dando el precio de su sangre, Rm. 3, 25+; 1 Co. 6, 20; Ga. 3, 13. El término "muchos", cf. Is. 53, 11s, contraponen el único Redentor al gran número de los rescatados, cf. 26, 28+.

<sup>21</sup> 5 animal de yugo. Jesús se aplica la profecía de Is. 62, 11 y Za. 9, 9. Esta última insiste en la pacífica humildad del rey mesiánico.



<sup>6</sup>Joan ziran, ba, ikasleak, eta Jesus'ek agindu eutsenez egin eben: <sup>7</sup>astoama ta astakumea ekarri ebezan; gero, arein gaiñean euren soin-gaiñekoak ezarri ebezan, eta Jesus gaiñean jesarri zan. <sup>8</sup>Laguntaldeak, ugari be ugari, euren soin-gaiñekoak bidean zear zabaldu ebezan; beste batzuek arboletako adarrak ebagi ta bidean zear zabaltzen ebezan. <sup>9</sup>Eta Jesus'en aurretik eta atzetik yoian laguntaldeak deadarka iñoan:

“Hosanna (aintza) Dabid'en Semeari!\* Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena! Hosanna (aintza) goietan!”

<sup>10</sup>Eta Jesus Jerusalem'en sartu zanean, uri guztia artegatu egin zan, esanez: “Nor da au?” <sup>11</sup>Eta laguntaldeak erantzuten eban: “Jesus igarlea da au, Galilea'ko Nazaret'ekoa”.

#### Saltzailleak Eliza Nagusian

(Mk. 11, 11, 15-17; Lk. 19, 45-46; Yn. 2, 14-16)

<sup>12</sup>Jesus, Jaunaren Etxean sartu zan, eta saltzen eta erosten ziarduen guztiak kanpora jaurti ebazan; diru-aldatzailleen maiak eta uso-saltzailleen jarlekuak itxuli egin ebazan. <sup>13</sup>Eta auxe esan eutsen: “Idatzita dago: *Nire Etxea otoitz-etxe izango da*; baiña zuek *lapur-zulo* egiten diarduzue”\*. <sup>14</sup>Baita itsuak eta errenak be urreratu yakozen Jaunaren Etxean, eta osatu egin ebazan. <sup>15</sup>Abadeburuak eta idazlariak, ostera, egiten ebazan mirariak ikustean, eta umeak “Hosanna (aintza) Dabid'en Semeari” deadarka ziarduela entzutean, asarrebisetan jarri ziran, <sup>16</sup>eta auxe esan eutsoen: “Entzuten dozu orreik diñoena?” “Bai, orixe! —erantzun eutsen Jesus'ek—. Ez dozue iñoiz be irakurri, “*Umeen eta bularrekoen agotik atara dozu gorapena?*”\* <sup>17</sup>Eta areik alde batera itxirik, uritik Betania'ra urten eta anxe igaro eban gaba.

21, 9 Hosanna. Gerkar-oiua (“Askatu,ba”) (Sal. 118, 25-26).

21, 13 Berez oitura jatorra izanik, geikerien aurka jarten da Jesus (Is. 56, 7; Jer. 7, 11).

21, 16 Sal. 8, 3 (LXX).

<sup>6</sup>Fueron, pues, los discípulos e hicieron como Jesús les había encargado: <sup>7</sup>trajeron el asna y el pollino. Luego pusieron sobre ellos sus mantos, y él se sentó encima de ellos. <sup>8</sup>La gente, muy numerosa, extendió sus mantos por el camino; otros cortaban ramas de los árboles y las tendían por el camino. <sup>9</sup>Y la gente que iba delante y detrás de él gritaba:

“¡Hosanna\* al Hijo de David! ¡Bendito el que viene en nombre del Señor! ¡Hosanna en las alturas!”.

<sup>10</sup>Y al entrar él en Jerusalén, toda la ciudad se conmovió. “¿Quién es éste?” —decían. <sup>11</sup>Y la gente respondía: “Este es el profeta Jesús, de Nazaret de Galilea”.

#### Expulsión de los vendedores del Templo

(Mc. 11, 11, 15-17; Lc. 19, 45-46; Jn. 2, 14-16)

<sup>12</sup>Entró Jesús en el Templo y echó fuera a todos los que vendían y compraban en el templo: volcó las mesas de los cambistas y los puestos de los vendedores de paloma. <sup>13</sup>Y les dijo: “Está escrito: *Mi casa será llamada Casa de oración*. ¡Pero vosotros estáis haciendo de ella una *cueva de bandidos*\*!” <sup>14</sup>También en el Templo se acercaron a él algunos ciegos y cojos, y los curó. <sup>15</sup>Mas los sumos sacerdotes y los escribas, al ver los milagros que había hecho, y al oír que los niños gritaban en el Templo: “¡Hosanna al Hijo de David!”, se indignaron <sup>16</sup>y le dijeron: “¿Oyes lo que dicen éstos?” “Sí —les respondió Jesús. ¿No habéis leído nunca que *De la boca de los niños y de los que aún maman te preparaste alabanza*\*?”

<sup>17</sup>Y dejándolos, salió fuera de la ciudad, a Betania, donde pasó la noche.

21, 9 Hosanna. Aclamación hebrea (“Salva, pues”), Sal. 118, 25-26.

21, 13 bandidos. Protesta, Is. 56, 7; Jr. 7, 11, contra los abusos que se originaban de una práctica legítima.

21, 16 alabanza. Cita del Sal. 8, 3 (LXX).



**Pikondo agorra, igartuta. — Sinismena ta otoitza**

(Mk. 11, 12-14, 20-24)

<sup>18</sup>Egunsentian, barrero urira yoiala, Jesus gose izan zan; <sup>19</sup>eta, bide-baztarrean pikondo bat ikusirik, bertara urreratu zan, baiña orriak baiño ez eutsazan aurkitu. Orduan, pikondoari dirautso: "Ez dakiala iñoiz be fruturik sortu!" Eta bat-batean, pikondoa igartu egin zan\*. <sup>20</sup>Ori ikusirik, ikasleak arritu egin ziran, eta auxe iñoen: "Zelan igartu da bat-batean pikondoa?" <sup>21</sup>Jesus'ek erantzun eutsen: "Benetan dirautsuet: ez bai bagariko sinistea ba'daukazue, pikondo orrena bakarrik ez dozue egingo; baita mendi orri "kendu adi orrik eta jausi adi itxasora" ba'dirautsazue be, orrelaxe egingo da. <sup>22</sup>Eta otoitzean sinismenez eskatu dagizuen edozer, artu egingo dozue".

**Jesus'en eskubidea**

(Mk. 11, 27-33; Lk. 20, 1-8)

<sup>23</sup>Jaunaren Etxera elduta, irakasten ziarduala, abadeburu ta erriko zaarrak urreratu yokozan, esanez: "Ze eskubidez egiten dozu, ba, ori? Eta nok emon dautsu eskubide ori?" <sup>24</sup>Jesus'ek erantzun eutsen: "Neuk be itaun bat egingo dautsuet; erantzuten ba'daustazue, neuk be esango dautsuet au ze eskubidez egiten dodan: <sup>25</sup>Yon' en bateoa, nundikoa zan?: zerutikoa, ala gizonakandikoa?" Areik alkarregaz esaten ziarduen: "Zerutikoa zala ba'diñogu, 'zegaitik ez zeutsoen, ba, sinistu?', esango dausku: <sup>26</sup>gizonakandikoa zala ba'diñogu, barriz, laguntaldearen bildur gara: guztiak Yon igarletzat dabeta". <sup>27</sup>Beraz, Jesus'i auxe erantzun eutsoen: "Ez dakigu". Orduan, Jesus'ek erantzun eutsen: "Neuk be ez dirautsuet au ze eskubidez egiten dodan".

21, 19 Pikondoa. Pikondoak Israel dirudi, beronen agortasuna gaitik zigortua. Ikusi Lk. 13, 6 ta urrengoak.

**La higuera estéril y seca. Fe y oración**

(Mc. 11, 12-14, 20-24)

<sup>18</sup>Al amanecer, cuando volvía a la ciudad, sintió hambre; <sup>19</sup>y viendo una higuera junto al camino, se acercó a ella, pero no encontró en ella más que hojas. Entonces dice a la higuera: "¡Que nunca jamás brote fruto de ti!" Y al momento se secó la higuera\*. <sup>20</sup>Al verlo los discípulos se maravillaron y decían: "¿Cómo al momento quedó seca la higuera?" <sup>21</sup>Jesús les respondió: "Yo os aseguro: si tenéis fe y no vaciláis, no sólo haréis lo de la higuera, sino que si decís a este monte: 'Quitate y arrójate al mar', así sucederá. <sup>22</sup>Y todo cuanto pidáis con fe en la oración, lo recibiréis".

**Controversia sobre la autoridad de Jesús**

(Mc. 11, 27-33; Lc. 20, 1-8)

<sup>23</sup>Llegado al Templo, mientras enseñaba se le acercaron los sumos sacerdotes y los ancianos del pueblo diciendo: "¿Con qué autoridad haces esto? Y ¿quién te ha dado tal autoridad?" <sup>24</sup>Jesús les respondió: "También yo os voy a preguntar una cosa; si me contestáis a ella, yo os diré a mi vez con qué autoridad hago esto. <sup>25</sup>El bautismo de Juan ¿de dónde era? ¿del cielo o de los hombres?". Ellos comentaban entre sí: "Si decimos: 'Del cielo' nos dirá: 'Entonces ¿por qué no creísteis en él?'. <sup>26</sup>Y si decimos: 'De los hombres', tenemos miedo a la gente, porque todos tienen a Juan por profeta". <sup>27</sup>Respondieron, pues, a Jesús: "No sabemos". Y él entonces les replicó: "Tampoco yo os digo con qué autoridad hago esto".

21, 19 la higuera. La higuera representa a Israel castigada por su esterilidad. Comparar Lc. 13, 6s.

### Maastira bialdutako seme biak\*.

<sup>28</sup>“Eta, zer deritxazue? Gizon batek seme bi ebazan. Lenengoagana urreraturik, auxe esan eutsan: “Seme, zoaz gaur nire maastian lan egitera”. <sup>29</sup>Semeak erantzun eutsan: “Ez dot nai”. Gero, barriz, damutu ta joan egin zan. <sup>30</sup>Gero, bigarrenagana urreratu ta bardin esan eutsan. Eta arek erantzun eutsan: “Bai, jauna”; baiña ez zan joan. <sup>31</sup>Biotarik nok egin eban aitaren gogoa?” “Lenengoak”, erantzun eben. Jesus’ek dirautse: “Benetan dirautsuet: zerga-batzailleak eta emagalduak zuek baiño lenago eltzen dira Jaungoikoaren Erreñura.

(Lk. 7, 29-30)

<sup>32</sup>Izan be, santutasun-bidetik etorri yatzuen Yon, eta ez zenduen zuek aregan sinistu; zerga-batzailleak eta emagalduak, barriz, beragan sinistu eben. Eta zuek, bera ikusita be, ez zintzazen gero be garbatu, aregan sinisteko”.

### Maastiko langille odolzaleak

(Mk. 12, 1-12; Lk. 20, 9-19)

<sup>33</sup>“Entzun egizue beste ipuin bat. Etxagun batek maasti bat landu eban, eta inguruan esi bat egin eutsan; dolara\* bat bertan egin eta torre bat jaso eban; eta nekazari batzui alogeran (*errentan*) itxi, eta urrun joan zan. <sup>34</sup>Maatsaroa eldu zanean, nekazariakana bere morroiak bialdu ebazan, maatsaren irabazia jaso egien. <sup>35</sup>Baiña nekazariak, morroiak eldu, eta bata makillaka astindu, bestea il eta besteari arrika egin eutsoen. <sup>36</sup>Ba-

21, 28 Seme bien ipuiña. Urrengo ipuiñak lez, onek be Israel’ en errua ta zigorra jakiñerazoten dau, Jaungoikoaren bialduak eta Beronen semea dan Jesus ukatzen ebazalako.

\* Dolara: lagar.

### Parábola de los dos hijos\*

<sup>28</sup>“Pero ¿qué os parece? Un hombre tenía dos hijos. Llegándose al primero, le dijo: ‘Hijo, vete hoy a trabajar a la viña’. <sup>29</sup>Y él respondió: ‘No quiero’, pero después se arrepintió y fue. <sup>30</sup>Llegóse luego al segundo, y le dijo lo mismo. Y él respondió: ‘Sí señor’, y no fue. <sup>31</sup>¿Cuál de los dos hizo la voluntad del padre?” —“El primero”, contestaron. Dices Jesús: “En verdad os digo, los publicanos y las rameraas llegan antes que vosotros al Reino de Dios.

(Lc. 7, 29-38)

<sup>32</sup>Porque vino Juan a vosotros caminando en justicia y no creísteis en él, mientras que los publicanos y las rameraas creyeron en él. Y vosotros ni viéndolo os arrepentisteis después para creer en él”.

### Parábola de los viñadores homicidas

(Mc. 12, 1-12; Lc. 20, 9-19)

<sup>33</sup>“Escuchad otra parábola. Era un propietario que plantó una viña, la rodeó de una cerca, cavó en ella un lagar y edificó una torre; la arrendó a unos labradores y se marchó lejos. <sup>34</sup>Cuando llegó el tiempo de los frutos, envió sus siervos a los labradores para recibir sus frutos. <sup>35</sup>Pero los labradores agarraron a los siervos, y a uno le golpearon, a otro le mataron, a otro le apedrearón. <sup>36</sup>De nuevo envió otros siervos en mayor número que los primeros; pero los trataron de la misma ma-

21, 28 Parábola de los dos hijos. Como la siguiente, ilustra la culpabilidad y el castigo de Israel, rechazando a los enviados de Dios y a su hijo Jesús.



rriro be, beste morroi batzuk bialdu eutsezan, lenen-  
goak baiño geiago; baiña arei be bardin egin eutseen.  
<sup>37</sup>Azkenez, bere semea bialdu eutsen, berekautan iñoala:  
'Nire semeari, beintzat, lotsa izango dautsoe'. <sup>38</sup>Bai-  
ña nekazariak, semea ikustean, alkarri auxe esan eu-  
tsoen: 'Orixe da oiñordekoa. Goazan, il dagigun, eta  
geu geldituko gara orren oiñordekotasunaz'. <sup>39</sup>Ari el-  
du, maastitik kanpora jaurti, eta il egin eben. <sup>40</sup>Beraz,  
maasti-jabea etorri daitenean, zer egingo ete-dautse ne-  
kazari arei?' <sup>41</sup>Areik dirautsoe: "Gaizto orrei eriotz  
gogorra emongo dautse, eta maatsaren irabazia bere sa-  
soiz ordaindu dagioen beste nekazari batzui emongo  
dautse alogeran (errentan) bere maastia". <sup>42</sup>Eta Jesus'  
ek dirautse: "Ez dozue Liburu Santuetan iñoiz be ira-  
kurri:

*Etxegilleak baztartutako arria, giltzarri biurtu da;  
Jauna izan zan ori egin ebana, eta ikusgarria da gure  
begiontzat?\**

<sup>43</sup>Orrexegaitik dirautsuet: Jaungoikoaren Erreiñua  
zuei kendu ta frutua ekarri dagian erriari emongo yako.  
(<sup>44</sup>Eta arri orren gaiñera jausi daitena, zatitu egingo  
da; eta arri ori gaiñera jausi dakiona, zapalduta gel-  
dituko da")\*.

<sup>45</sup>Abadeburuak eta pariseuak, Jesus'en ipuiñok en-  
tzutean, eurentzat esaten ziarduala igarri eutsoen. <sup>46</sup>Ari  
eskuak ezartea nai eben, baiña laguntaldeari bildur eu-  
tsoen, izarletzat euken-eta.

21, 42 Sal. 118, 22-23; cf. Ap. Eg. 4, 11; Pedr. 1.<sup>a</sup>, 2, 7.

21, 44 Geitua, Lukas'enetik artuta: 20, 15.

nera. <sup>37</sup>Finalmente les envió a su hijo, diciéndose: 'Res-  
petarán a mi hijo'. <sup>38</sup>Pero los labradores, al ver al hijo,  
se dijeron entre sí: 'Este es el heredero. Vamos, ma-  
témosle y nos quedaremos con su herencia'. <sup>39</sup> Le aga-  
raron, le echaron fuera de la viña y le mataron.  
<sup>40</sup>Cuando venga, pues, el dueño de la viña, ¿qué hará  
con aquellos labradores?'. <sup>41</sup>Dícenle: "A esos miserables  
les dará una muerte miserable y arrendará la viña a  
otros labradores, que le paguen los frutos a su tiempo".  
<sup>42</sup>Y Jesús les dice: "¿No habéis leído nunca en las Es-  
crituras:

*La piedra que los constructores desecharon,  
en piedra angular se ha convertido;  
fue el Señor quien hizo esto  
y es maravilloso a nuestros ojos?\**

<sup>43</sup>Por eso os digo: Se os quitará el Reino de Dios  
para dárselo a un pueblo que rinda sus frutos".\*

<sup>45</sup>Los sumos sacerdotes y los fariseos, al oír sus pa-  
rábolas, comprendieron que se estaba refiriendo a ellos.  
<sup>46</sup>Y trataban de detenerle, pero tuvieron miedo a la  
gente porque le tenían por profeta.

21, 42 a nuestros ojos. Cita del Sal. 118, 22-23; cf. Hch. 4, 11;  
1 P. 2, 7.

21, 43 sus frutos. Se omite el v. 44.

## Errege-etzeguak\*

(Lk. 14, 16-24)

**22** <sup>1</sup>Jesús'ek barrero itza arturik, ipuiñetan egin eutsen berba, esanez: <sup>2</sup>“Zeruetako Erreñua, bere semearen etzegua egin eban erregearen antzekoa da. <sup>3</sup>Eta bere morroiak bialdu ebazan, etzegurakoai dei egitera; baiña oneik ez eben etorri nai izan. <sup>4</sup>Barrero beste morroi batzuk bialdu ebazan, mandatu onezaz: Esan egiezu deituai: ‘Begira, etzegua gertu dago, zekor eta abere gizenduak ilda daukadaz, eta guztia gertu dago; etorri zaitete etzegura’. <sup>5</sup>Baiña areik, jaramon egin bagarik, joan egin ziran: bata bere solora, bestea bere arazoetara; <sup>6</sup>eta enparauk aren morroiari eldu, iraindu ta il egin ebezan. <sup>7</sup>Orduan, erregea, asarre-bitsetan, bere gudariak bialdu, odolzale arei eriotza emon, eta arein uruari sua emon eutsan. <sup>8</sup>Gero, bere morroiari auxe esan eutsen: ‘Eztegua gertu dago, baiña deituak ez ziran gai. <sup>9</sup>Zoaze, ba, bide-gurutzetara eta dei egiezu etzegura aurkitu dagizuezan guztiai’. <sup>10</sup>Morroiak bideetara urten eta aurkitu ebezan guztiak batu ebezan, on eta gaizto; eta etzegu-tokia mai-lagunez bete zan.

<sup>11</sup>Orduan, erregea mai-lagunak ikustera sartu zan; eta an etzegu-jantzirik ez ekarren bat egoala konturatirik. <sup>12</sup>auxe esan eutsan: ‘Adiskide, zelan sartu zara emen etzegu-jantzi bagarik?’ Arek, barriz, berbarik be ez. <sup>13</sup>Orduan, erregeak bere mai-laguntzailleai auxe esan eutsen: ‘Anka ta esku lotu, eta jaurti egizue kanpoko illunetara: an izango da negarra ta agin-karraskada!’ <sup>14</sup>Deituak asko dira-ta; aukeratuak, ostera, gutxi”.

22 Errege-etzeguak. Ipuin au aurrekoaren antzekoa da. 11'garren ataltxotik aurrera Azken-auziari dagokio.

## Parábola del banquete nupcial\*

(Lc. 14, 16-24)

**22** <sup>1</sup>Tomando Jesús de nuevo la palabra les habló en parábola, diciendo: <sup>2</sup>“El Reino de los Cielos es semejante a un rey que celebró el banquete de bodas de su hijo. <sup>3</sup>Y envió sus siervos a llamar a los invitados a la boda, pero no quisieron venir. <sup>4</sup>Envío todavía otros siervos, con este encargo: ‘Mirad, mi banquete está preparado, se han matado ya mis novillos y animales cebados, y todo está a punto; venid a la boda’. <sup>5</sup>Pero ellos, sin hacer caso, se fueron el uno a su campo, y otro a su negocio; <sup>6</sup>y los demás agarraron a los siervos, los escarnecieron y los mataron. <sup>7</sup>Entonces el rey, airado, envió sus tropas, dio muerte a aquellos asesinos y prendió fuego a su ciudad. <sup>8</sup>Después dijo a sus siervos: ‘La boda está preparada, pero los invitados no eran dignos. <sup>9</sup>Id, pues, a los cruces de los caminos y, a cuantos encontréis, invitadlos a la boda’. <sup>10</sup>Los siervos salieron a los caminos, reunieron a todos los que encontraron, malos y buenos, y la sala de bodas se llenó de comensales.

<sup>11</sup>“Entró entonces el rey a ver a los comensales, y al advertir que había allí uno que no llevaba traje de boda, <sup>12</sup>le dijo: ‘Amigo, ¿cómo has entrado aquí sin traje de boda?’ Y él se quedó callado. <sup>13</sup>Entonces el rey dijo a los sirvientes: ‘Atadle de pies y manos, y echadle a las tinieblas de fuera; allí será el llanto y el rechinar de dientes’. <sup>14</sup>Porque muchos son llamados, mas pocos escogidos”.

22. Parábola del banquete nupcial. Parábola afín a la anterior. A partir del v. 11 la escena cambia: se trata del Juicio final.



### Jaungoikoarena ta Zesar'ena

(Mk. 12, 13-17; Lk. 20, 20-26)

<sup>15</sup>Orduan, pariseuak joan eta Jesus herbaren baten zelan-alan artzeko alkartu ziran. <sup>16</sup>Eta euren ikasleak bialtzen dautsoez, Erodes'en aldekoakaz batera\*, esanez: "Irakasle, ba-dakigu egizale zarana ta Jaungoikoaren bidea zuzen-zuzen irakasten dozuna, eta inoren ardurarik ez dozuna, ez dozu nor nor dan begiratzen-eta. <sup>17</sup>Esan egiguzu, ba: zer deritxazu? Zesar'i zerga (*edo kontribuziñoa*) emotea, bidezko da, ala ez?" <sup>18</sup>Baiña Jesus'ek, arein asmo txarra igarririk, esan eban: "Zegaitik zirikatzan nozue, azalutsok? <sup>19</sup>Erakutsi egidazue zerga-txanpona". Areik denario bat eskiñi outsoen. <sup>20</sup>Eta Jesus'ek dirautse: "Norenak dira irudi au ta idazkun au?" <sup>21</sup>"Zesar'enak", dirautsoe. Orduan, Jesus'ek dirautse: "Ordaindu egiozue, ba, Zesar'i Zesar'ena, eta Jaungoikoari Jaungoikoarena"\*." <sup>22</sup>Ori entzutean, arrituta gelditu ziran; eta, Jesus itxirik, alde egin eben.

### Ildakoen biztuera\*

(Mk. 12, 18-27; Lk. 20, 27-40)

<sup>23</sup>Egun aretan, biztuerarik ez dagoala diñoen saduzeuak urreratu yakozan Jesus'i, eta itaun au egin outsoen: <sup>24</sup>"Irakasle, Moises'ek auxe esan eban: Iñor semerik euki bagarik ilten ba'da, bere anaia ezkonduko da alargunaz, anaiari ondorengoa izteko. <sup>25</sup>Alan ba,

22, 16 **Edodes'en aldekoak.** Erodes erregearen eta erromar-agintarien aldekoak (Mk. 3, 6).

22, 21 **Erromar-agintariak zor yaken menpetasunak eta zergak** (Errom. 13, 1) ez dautsoe ezer kentzen gaiñetik dagoan Jaungoikoaren aginpideari.

22, 23 **Ildakoen biztuera.** Saduzeuak (3, 7) ez eben aurkitzen tradiziño idatzian aragiaren biztuerarik (Mak. 2.<sup>a</sup>, 7, 9). Onetan, pariseuak saduzeuen aurka egozan (Ap. Eg. 4, 1; 23, 8).

### El tributo debido al César

(Mc. 12, 13-17; Lc. 20, 20-26)

<sup>56</sup>María permaneció con ella unos tres meses, y se volvió a su casa.

### Nacimiento de Juan el Bautista

<sup>57</sup>Le llegó a Isabel el tiempo de dar a luz, y tuvo un hijo. <sup>58</sup>Oyeron sus vecinos y parientes que el Señor le había hecho gran misericordia, y se congratulaban con ella.

### Circuncisión de Juan el Bautista

<sup>59</sup>Al octavo día fueron a circuncidar al niño, y querían ponerle el nombre de su padre, Zacarías, <sup>60</sup>pero su madre, tomando la palabra, dijo: "No; se ha de llamar Juan". <sup>61</sup>Le decían: "No hay nadie en tu parentela que tenga ese nombre". <sup>62</sup>Y preguntaban por señas a su padre cómo quería que se le llamase. <sup>63</sup>El pidió una tablilla y escribió: "Juan es su nombre". Y todos quedaron admirados. <sup>64</sup>Y al punto se abrió su boca y su lengua, y hablaba bendiciendo a Dios. <sup>65</sup>Invadió el temor a todos sus vecinos, y en toda la montaña de Judea se comentaban todas estas cosas; <sup>66</sup>todos los que las oían las grababan en su corazón, diciendo: "Pues ¿qué será este niño?". Porque en efecto, la mano del Señor estaba con él.

### El "Benedictus"

<sup>67</sup>Zacarias, su padre, quedó lleno del Espíritu Santo, y profetizó\* diciendo:

<sup>68</sup>"*Bendito el Señor Dios de Israel porque ha visitado y redimido a su pueblo*, <sup>69</sup>y nos ha suscitado una fuerza salvadora en la casa de David, su siervo, <sup>70</sup>como

1, 67 profetizó. Himno de acción de gracias, 68-75, y después una visión del futuro, 76-79; la Alianza va a estar en una nueva etapa, Sal. 105, 8-9; 111, 9; Lv. 26, 42; Is. 9, 1; 42, 7, etc.



tatzaille guztiakandik onik atarako genduzala <sup>72</sup>gure gurasoai erruki izanik eta *bere alkartasun* santua gogoraturik, <sup>73</sup>baita gure aita Abraham'i zin-berbaz egin eutsan aginduriko au be <sup>74</sup>beteko euskula: gure arerioen eskuetatik askatuta, Bera otseinduko genduala bildur bagarik, <sup>75</sup>santutasun eta zuzentasunez, bere aurrean, gure egun guztietan. <sup>76</sup>Eta zuri, umetxo orri, izena Gorengoaren profeta emongo dautsue, Jaunaren aurretik joango zara-ta, Aren bideak atontzeko <sup>77</sup>eta Aren erriari osasun-bidea erakusteko, euren pekatuen parkamen-bidez, <sup>78</sup>Jaungoikoaren errukizko erraiñai eskerrak, goitik egingo dauku ikustaldi bat Argi batek: <sup>79</sup>*illunetan eta eriotz-gerizpean jesarrita dagozanai* argi egiteko, eta gure oinkadak (*pausuak*) bakearen bidetik zuzentzeko".

#### Yon Bateatzaillearen bizitza ezkutua

<sup>80</sup>Yon azi egiten zan, eta aren espiritu indartu; barkatadeetan bizi izan zan, Israel'i agertu yakon egunerarte.

#### Jesus'en jaiotza eta artzañen ikustaldia

**2** <sup>1</sup>Egun areitan, Zesar Augusto'ren erabagi bat urten zan, lur osoak izena emon egiala aginduez. <sup>2</sup>Lenengo izen-emote au, Siria'ko erriburu Zirino zala egin zan. <sup>3</sup>Guztiak yoiazan izena emotera, bakotxa bere urira. <sup>4</sup>Jose be, Dabid'en etxeko ta sendikoa zan ezkerero, Galilea'ko Nazaret uritik Judea'ra igo zan, Belen deritxon Dabid'en urira, <sup>5</sup>bere emazte Maria'gaz batera izena emotera; Maria, barriz, seindun egoan. <sup>6</sup>Eta an egozala, umea egiteko egunak bete yakozan Maria'ri; <sup>7</sup>eta bere len-semea<sup>o</sup> izan\*, oialakaz batu, eta aska baten etzun eban, oneintzat ostatuan tokirik ez egoan-eta.

2. 7 *Len-semea*. Berba onek umearen nagusitza eta eskubideak sendotzen dauz, nai-ta nai-ez beragaz anai txikiagoak datozala adierazo bagarik.

<sup>o</sup> Len-semea, edo-ta bardin dana: *lenen jaioa* esaten dan semea.

había prometido desde tiempos antiguos, por boca de sus profetas, <sup>71</sup>que nos salvaría de nuestros enemigos y de las manos de todos los que nos odiaban <sup>72</sup>haciendo misericordia a nuestros padres y *recordando su santa alianza* <sup>73</sup>y el juramento que juró a Abraham nuestro padre, de concedernos <sup>74</sup>que, libres de manos enemigas, podamos servirle sin temor <sup>75</sup>en santidad y justicia delante de él todos nuestros días. <sup>76</sup>Y tú, niño, serás llamado profeta del Altísimo, pues irás delante del Señor para preparar sus caminos <sup>77</sup>y dar a su pueblo conocimiento de salvación por el perdón de sus pecados, <sup>78</sup>por las entrañas de misericordia de nuestro Dios, que harán que nos visite una Luz de la altura, <sup>79</sup>a fin de iluminar a los *que habitan en tinieblas y sombras de muerte y guiar nuestros pasos por el camino de la paz*".

#### Vida oculta de Juan el Bautista

<sup>80</sup>El niño crecía y su espíritu se fortalecía; vivió en los desiertos hasta el día de su manifestación a Israel.

#### Nacimiento de Jesús y visita de los pastores

**2** <sup>1</sup>Por aquellos días salió un edicto de César Augusto ordenando que se empadronase todo el mundo. <sup>2</sup>Este primer empadronamiento tuvo lugar siendo gobernador de Siria Cirino. <sup>3</sup>Iban todos a empadronarse, cada uno a su ciudad. <sup>4</sup>Subió también José desde Galilea, de la ciudad de Nazaret, a Judea, a la ciudad de David, que se llama Belén, por ser él de la casa y familia de David, <sup>5</sup>para empadronarse con María, su esposa, que estaba encinta. <sup>6</sup>Y sucedió que, mientras ellos estaban allí, se le cumplieron los días del alumbramiento, <sup>7</sup>y dio a luz a su hijo primogénito\*, lo envolvió en pañales y lo acostó en un pese-

2. 7 *primogénito*. La palabra subraya la dignidad y los derechos del niño, sin que implique necesariamente hermanos menores.



<sup>8</sup>Lurralde aretan artzain batzuk egozan, kanpoan lo egiten ebenak, eta euren artaldea gabez txandaka zaintzen ebenak. <sup>9</sup>Jaunaren aingeru bat agertu yaken, eta Jaunaren edertasunak inguratu ebazan bere argitan; eta bildurrez heterik gelditu ziran. <sup>10</sup>Aingeruak auxe esan eutsen: "Ez bildurtu, erri guztiarentzat poz aundia izango dan barri bat dakartsuet-eta: <sup>11</sup>Salbatzaillea jaio yatzue gaur Dabid'en urian, Kristo Jauna dana\*; <sup>12</sup>eta auxe izango dozue ezaugarritzat: ume bat oialakaz batu-eta eta askan etzunda arkituko dozue". <sup>13</sup>Eta bat-batean, aingeruagaz zeruko talde aundi bat alkartu zan, Jaungoikoa goratzen eta auxe iñoela:

<sup>14</sup>"Aintza Jaungoikoari goietan, eta bakea lurrean Aren gogoko diran gizonai"\*.

<sup>15</sup>Aingeruak, areik itxita, zerura joan ziranean, artzaiñak alkarri auxe zirautsoen: "Goazan, ba, Belen' eraiño, eta ikusi dagigun jazo dana ta Jaunak agertu dauskuna". <sup>16</sup>Eta lenbailen joan ziran, eta Maria, Jose, eta askan etzunda egoan umea aurkitu ebezan. <sup>17</sup>Umea ikustean, ume aretzaz esan eutseena adierazo eben: <sup>18</sup>eta ori entzun eben guztiak, artzaiñek zirautseenaz arrituta egozan. <sup>19</sup>Maria'k, barriz, gorde egiten ebazan berba guztiok eta bere biotzean ausnartzen ebazan. <sup>20</sup>Artzaiñak, entzun eta ikusi izan eben guztiagaitik, Jaungoikoa goratzen eta ospatzen biurtu ziran: esan eutseenez jazo zan guztia-ta.

### Jesús'en erdaintzuntza

<sup>21</sup>Umea erdaintzeko zortzi egunak bete ziranean, izena Jesús ezarri eutsoen, amaren sabelean sortu izan baiño len aingeruak esandako izena.

2. 11 Kristo Jauna. Kristo'ak, Jaunaren Gantzatuak (Ex. 30. 22; Sam. 1.<sup>a</sup>, 24. 7; cf. Lk. 2, 26), aparteko eginkizunerako zuzenduak (Is. 45. 1), Jauna, Jaungoikozko izenordea, artzen dau.

2. 14 Aren gogoko diran gizonai. Itzez-itzez: "Jainko-biozperatasunaren gai (diran) gizonai".

bre, porque no había sitio para ellos en la posada.

<sup>8</sup>Había en la misma comarca unos pastores, que dormían al raso y vigilaban por turno durante la noche su rebaño. <sup>9</sup>Se les presentó el Ángel del Señor, y la gloria del Señor los envolvió en su luz; y se llenaron de temor. <sup>10</sup>El ángel les dijo: "No temáis, pues os anuncio una gran alegría, que lo será para todo el pueblo: <sup>11</sup>os ha nacido hoy, en la ciudad de David, un salvador, que es el Cristo Señor\*; <sup>12</sup>y esto os servirá de señal: encontraréis un niño envuelto en pañales y acostado en un pesebre". <sup>13</sup>Y de pronto se juntó con el ángel una multitud del ejército celestial, que alababa a Dios, diciendo:

<sup>14</sup>"Gloria a Dios en las alturas y en la tierra paz a los hombres en quienes él se complace\*".

<sup>15</sup>Cuando los ángeles, dejándoles, se fueron al cielo, los pastores se decían unos a otros: "Vayamos, pues, hasta Belén y veamos lo que ha sucedido y el Señor nos ha manifestado". <sup>16</sup>Y fueron a toda prisa, y encontraron a María y a José, y al niño acostado en el pesebre. <sup>17</sup>Al verlo, dieron a conocer lo que les habían dicho acerca de aquel niño; <sup>18</sup>y todos los que lo oyeron se maravillaban de lo que los pastores se decían. <sup>19</sup>María, por su parte, guardaba todas estas cosas, y las meditaba en su corazón. <sup>20</sup>Los pastores se volvieron glorificando y alabando a Dios por todo lo que habían oído y visto, conforme a lo que se les había dicho.

### Circuncisión de Jesús

<sup>21</sup>Cuando se cumplieron los ocho días para circuncidarle, se le dio el nombre de Jesús, el que le dio el ángel antes de ser concebido en el seno.

2. 11 el Cristo Señor. El Cristo, Ungido del Señor, Ex. 30, 22+; 1 S. 24, 7; cf. Lc. 2, 26, consagrado para una misión excepcional, Is. 45, 1, recibe el título divino de Señor.

2. 14 en quienes él se complace. Lit.: "a los hombres objeto de la benevolencia divina".



### Jesus, Eliza Nagusira daroe\*

<sup>22</sup>Moises'en legez, garbikuntzako egunak bete yakezanean, Jesus Jerusalem'era eroan eben Jaunari eskintzeko, <sup>23</sup>Jaunaren Legean idatzita dagoanez: *Lenengo gizonetzkoa Jaunari eskiñia* izango da; <sup>24</sup> eta oparitzat eskintzeko, *uso-turtura bi edo usakume bi*, Jaunaren Legean esaten danez.

<sup>25</sup>Simeon izeneko bat zan Jerusalem'en; gizon au, zintzoa ta Jaungoiko-zalea zan, eta Israel'en pozkillearen zain egoan; eta aregan Espiritu Santua egoan. <sup>26</sup>Jaunaren Kristo'a ikusi baiño len ez ebalá eriotzarik ikusiko, adierazo eutsan Espiritu Santuak. <sup>27</sup>Espiritu Santuak eragin-da, Jaunaren Etxera etorri zan; eta umeari buruz Legeak agintzen dauana betetera, gurasoak Jesus umea sartu ebanean, <sup>28</sup>berak artu besoetan eta Jaungoikoa goratu eban, esanaz:

### Simeon'en abestia: "Nunc dimittis"

<sup>29</sup>"Orain, Jauna, itxi daikeozu morroi oni bakean joaten, berba emon zeutsanez; <sup>30</sup>ikusidabe nire begiak zure osasuna-ta, <sup>31</sup>erri guztien aurrean gertu dozun osasuna: <sup>32</sup>jentillak argitzeko argia, eta zure erri Israel'en aintza"\*.

### Simeon'en igarpena

<sup>33</sup>Jesus'en aita ta ama arrituta egozan, Aretzaz iñoenaz. <sup>34</sup>Simeon'ek bedeinkatu egin ebazan, eta Jesus'en ama Maria'ri auxe esan eutsan: "Ume au askoren jaus-terako ta gorapenerako dago jarria Israel'en, baita ukatuko dabenen ezaugarrirako be; <sup>35</sup>eta zeuri be, ezpata

2, 22 Jesus'en gurasoak zintzo-zintzo jarten dira Legeko araupe-tan (Leb. 12, 2; Ex. 13, 2).

2, 32 Azken onek Isasias'enetik artzen dau argia (Is. 42, 6; 49, 6 eta abar; cf. Ap. Eg. 13, 47).

### Presentación de Jesús en el Templo\*

<sup>22</sup>Cuando, según la Ley de Moisés, se cumplieron los días de la purificación de ellos, subieron a Jesús a Jerusalén para presentarle al Señor, <sup>23</sup>como está escrito en la Ley del Señor: *Todo varón primogénito será consagrado al Señor* <sup>24</sup>y para ofrecer en sacrificio *un par de tórtolas o dos pichones*, conforme a lo que se dice en la Ley del Señor.

<sup>25</sup>Había en Jerusalén un hombre llamado Simeón; este hombre era justo y piadoso, y esperaba la consola-ción de Israel; y estaba en él el Espíritu Santo.

<sup>26</sup>Le había sido revelado por el Espíritu Santo que no vería la muerte antes de haber visto al Cristo del Señor. <sup>27</sup>Movido por el Espíritu, vino al Templo; y cuando los padres introdujeron al niño Jesús, para cumplir lo que la Ley prescribía sobre él, <sup>28</sup>le tomó en brazos y bendijo a Dios diciendo:

### El "Nunc dimittis"

<sup>29</sup>"Ahora, Señor, puedes, según tu palabra, dejar que tu siervo se vaya en paz, <sup>30</sup>porque han visto mis ojos tu salvación, <sup>31</sup>la que has preparado a la vista de todos los pueblos, <sup>32</sup>luz para iluminar a los gentiles y gloria de tu pueblo Israel"\*.

### Profecía de Simeón

<sup>33</sup>Su padre y su madre estaban admirados de lo que se decía de él. <sup>34</sup>Simeón les bendijo y dijo a María, su madre: "Este está puesto para caída y elevación de mu-chos en Israel, y para ser señal de contradicción —<sup>35</sup>y

2, 22 Presentación de Jesús en el Templo. Los padres de Jesús se sujetan con fidelidad a las prescripciones de la Ley, Lv. 12, 2s; Ex. 13, 2.

2, 32 Israel. El final se inspira en Is. 42, 6; 49, 6, etc.; cf. Hch. 13, 47+.

batek zulatuko dautsu arim(e)a alderik alde, biotz askoren asmoak agirian gelditu daitezaz”.

### Ana'ren igarpena

<sup>36</sup>Emakume igarle bat be ba-zan: Ana, Fanuel'en alaba, Aser'en jatorrikoa, urteetan eldua; ezkondata gero, bere senarragaz bizi izan zan, <sup>37</sup>eta larogeta lau urterarte alargun iraun eban; ez eban Jaunaren Etxetik alde egiten, barau ta otoitz, gau ta egun Jaungoikoa otseintzen. <sup>38</sup>Une aretan bertan etorririk, Jaungoikoa goratzen ziarduan, eta Jerusalem'en askatusunaren zain egozan guztiai, umeari buruz egiten eutsen berba.

### Jesus'en bizitza ezkutua Nazaret'en

<sup>39</sup>Jaunaren Legeak agintzen eban guztia bete ebenean, Galilea'ra biurtu ziran, euren erri Nazaret'era. <sup>40</sup>Umea azi ta gogortu egiten zan, jakituriz beteten zala; eta Jaungoikoaren grazia Aren gainean egoan.

### Jesus, irakasleen artean

<sup>41</sup>Aren gurasoak Jerusalem'era yoiazan urte oro, Pazko-jaietara. <sup>42</sup>Jesus'ek amabi urte bete ebazanean, areik jaietara igo ziran, oitura ebenez; <sup>43</sup>eta, egunak amaituta, etxerakoan, Jesus umea Jerusalem'en gelditu zan, gurasoak jakin bagarik. <sup>44</sup>Baiña, bide-lagunen artean egongo zelakoan, egun bateko bidea egin eben; eta Aren billa ebizan senideen eta ezagunen artean; <sup>45</sup>baiña, aurkitu ez ebenean, Jerusalem'era biurtu ziran Jesus'en billa. <sup>46</sup>Iru egun geroago, Jaunaren Etxean aurkitu eben, irakasleen erdian jesarrita, arei entzuten eta itaunak egiten. <sup>47</sup>Ari entzuten eutsoen guztiak, ikaratuta egozan, Aren adimena ta erantzunak zirala-ta. <sup>48</sup>Aren gurasoak ikusi ebenean, arrituta gelditu ziran, eta Aren amak auxe esan eutsan: “Seme, zegaitik egin dauskuzu ori? Begira: estu ta larri ibili gara zure billa zure aita ta ni”.

a ti misma una espada te atravesará el alma!— a fin de que queden al descubierto las intenciones de muchos corazones”.

### Profecía de Ana

<sup>36</sup>Había también una profetisa, Ana, hija de Fanuel, de la tribu de Aser, de edad avanzada; después de casarse había vivido siete años con su marido, <sup>37</sup>y permaneció viuda hasta los ochenta y cuatro años; no se apartaba del Templo, sirviendo a Dios noche y día en ayunos y oraciones. <sup>38</sup>Como se presentase en aquel preciso momento, alababa a Dios y hablaba del niño a todos los que esperaban la redención de Jerusalén.

### Vida oculta de Jesús en Nazaret

<sup>39</sup>Así que cumplieron todas las cosas según la ley del Señor, volvieron a Galilea, a su ciudad de Nazaret. <sup>40</sup>El niño crecía y se fortalecía, llenándose de sabiduría; y la gracia de Dios estaba sobre él.

### Jesús entre los doctores

<sup>41</sup>Sus padres iban todos los años a Jerusalén a la fiesta de la Pascua. <sup>42</sup>Cuando tuvo doce años, subieron ellos como de costumbre a la fiesta <sup>43</sup>y, al volverse, pasados los días, el niño Jesús se quedó en Jerusalén, sin saberlo sus padres. <sup>44</sup>Pero creyendo que estaría en la caravana, hicieron un día de camino, y le buscaron entre los parientes y conocidos; <sup>45</sup>pero al no encontrarle, se volvieron a Jerusalén en su busca.

<sup>46</sup>Al cabo de tres días, lo encontraron en el Templo sentado en medio de los maestros, escuchándoles y preguntándoles; <sup>47</sup>todos los que le oían, estaban estupefactos por su inteligencia y sus respuestas. <sup>48</sup>Cuando le vie-



<sup>49</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: "Zegaitik ibili zaree, ni-re billa? Ez zekien, ba, neure Aitaren gauzetan jardun bear nebana nik?"\*. <sup>50</sup>Baiña areik ez eben ulertu *Jesus'ek* emon eutsen erantzuna.

### Bizitza ezkutuz zerbait geiago

<sup>51</sup>Arekaz batera jatsi ta Nazaret'era etorri zan, eta arein menpean bizi zan. Jesus'en amak berba guztiok bere biotzean arduraz gordeten ebazan. <sup>52</sup>Jesus azi egiten zan jakituriz eta gorputzez eta graziz (*edertasunez*) Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.

## II

### JESUS'EN EGINKIZUNA GERTATZEN

#### Yon Bateatzaillearen irakatsia\*

(Mt. 3, 1-12; Mk. 1, 1-8)

**3** <sup>1</sup>Tiberio Zesar'en agintaritzako amabosgarren urtean, Judea'ko erriburu Pontzio Pilato zala, eta Galilea'ko tetrarka, Erodes; Iturea ta Trakonitida'ko tetrarka, Erodes'en anai Filipino; Abilene'ko tetrarka, Lisania; <sup>2</sup>Anas eta Kaifas'en abade-nagusitzaldian: Jaungoikoak Zakarias'en seme Yon'i berba egin eutsan basamortuan. <sup>3</sup>Eta (*Yon*) Jordan-lurralde guztian zear joan zan, pekatuen parkamenerako damu-bateoa iragarten, <sup>4</sup>Isaias igarlearen itzaldi-liburuan idatzita dagoanez:

*Basamortuan deadarka diarduan abotsa: Atondu egizue Jaunaren bidea, zuzendu Aren bide-zidorrak; sakon guztiak beteak izango dira barriro, mendi ta muru\**

2. <sup>49</sup> Jesus'ek, bere Aitari buruzko eginbearren jakitun izanik, eginbearrok beteteko buru-jabetasun osoa eskatzen dau.

3 Bateratasun barria, beteagoa (cf. 1, 5; 2, 1-3), giza-istoriaren eta salbamen-istoriaren artekoa: profeten eratarra (Os. 1, 1; Jer. 1, 2 eta abar), eta Isaias'en ikuspegi orokarrak amaitzen da (Is. 40, 3-5).

\* Muru: colina.

ron, quedaron sorprendidos, y su madre le dijo: "Hijo, ¿por qué nos has hecho esto? Mira, tu padre y yo, angustiados, te andábamos buscando". <sup>49</sup>El les dijo: "Y ¿por qué me buscabais? ¿No sabíais que yo debía estar en las cosas de mi Padre?". <sup>50</sup>Pero ellos no comprendieron la respuesta que les dio.

### Más sobre la vida oculta

<sup>51</sup>Bajó con ellos y vino a Nazaret, y vivía sujeto a ellos. Su madre conservaba cuidadosamente todas las cosas en su corazón. <sup>52</sup>Jesús progresaba en sabiduría, en estatura y en gracia ante Dios y ante los hombres.

## II

### PREPARACION DEL MINISTERIO DE JESUS

#### Predicación de Juan el Bautista\*

(Mt. 3, 1-12; Mc. 1, 1-8)

**3** <sup>1</sup>En el año quince del imperio de Tiberio César, siendo Poncio Pilato procurador de Judea, y Herodes tetrarca de Galilea; Filipino, su hermano, tetrarca de Iturea y de Traconitida, y Lisania tetrarca de Abilene; <sup>2</sup>en el pontificado de Anás y Caifás, fue dirigida la palabra de Dios a Juan, hijo de Zacarías, en el desierto. <sup>3</sup>Y se fue por toda la región del Jordán proclamando un bautismo de conversión para perdón de los pecados, <sup>4</sup>como está escrito en el libro de los oráculos del profeta Isaias:

2, 49 de mi Padre. Jesús, consciente de los deberes para con su Padre, exige una independencia absoluta para cumplirlos.

3, Predicación de Juan el Bautista. Nuevo sincronismo, más solemne. cf. 1, 5; 2, 1-3, entre la historia profana y la historia de la salvación, que acaba al estilo de los profetas, Os. 1, 1; Jr. 1, 2, etc., y con la perspectiva universalista de Is. 40, 3-5.

guztiak beeratuak; okertua zuzendu egingo da, eta bide latzak bide-lau izango dira. <sup>6</sup>Eta gizaki guztiak ikusiko dabe Jaungoikoaren osasuna.

<sup>7</sup>Auxe zirautsen, ba, bateoa artzera etorkiozan laguntaldeai: "Nok irakatsi dautsue zuei, sugekumeoi, gainean dozuen asarreari iges egiten? <sup>8</sup>Egizuez, ba, damu-frutu egokiak, eta ez jardun zuen barruan esaten: 'Abraham dogu Aita'; ba-dirautsuet-eta: Jaungoikoak arri oneitatik be emon daikeoz Abraham'i semeak; <sup>9</sup>eta aizkor(e)a, onezkero, arboletako-zusterrari ezarrita dago. Eta frutu onik ekarri ez dagian edozein arbola, ebagia ta sutara jaurtia izango da".

<sup>10</sup>Laguntaldeak itaun au egiten eutsan: "Zer egin bear dogu, ba?" <sup>11</sup>Eta Yon'ek erantzuten eutsen: "Soin-gaiñeko bi daukazanak, emon dagiola bat ez daukanari; jatekorik daukanak, bardin egin dagiala". <sup>12</sup>Zerga-batzailleak be bateatuak izatera etorri ziran, eta auxe esan eutsoen: "Iraskasle, zer egin bear dogu guk?" <sup>13</sup>Yon'ek auxe esan eutsen: "Ez iñori eskatu agindu yatzuen negurritik gora". <sup>14</sup>Gudari batzuek be itaun au egin eutsoen: "Eta guk, zer egin bear dogu?" Eta auxe esan eutsen: "Ez egin iñori indarkeririk, ez egin guzurrezko salakuntzarik, eta zuen gudari-sariaz naikoa izan".

<sup>15</sup>Erria zain egoan ezkeru, Yon'i buruz guztiak euren biotzetan pentzatzan ziarduen, ia Yon Kristo'a izan zeitekean. <sup>16</sup>Yon'ek guztiai auxe erantzun eutsen: "Nik uraz bateatzen zaituet; baiña ba-dator ni baiño indartsuago dana, eta Aren oiñetako lokarriak askatzeko be ez naz ni gai; berak bateatuko zaitue Espiritu Santuz eta Suaz; <sup>17</sup>bere eskuan dauko sard(e)a, bere larraña garbitzeko ta garia bere garautegian batzeko; lastoa, barriz, itxungiten (atzamatzen) ez dan sutan erreko dau". <sup>18</sup>Eta beste burubide askoaz, erriari Barri Ona iragarten eutsan.

*Voz que clama en el desierto: Preparad el camino del Señor, rectificad sus sendas; <sup>5</sup>todo barranco será rellenado, todo monte y colina será rebajado, lo tortuoso se hará recto y las asperezas serán caminos llanos. <sup>1</sup>Y todos verán la salvación de Dios.*

<sup>7</sup>Decían, pues, a la gente que venía para ser bautizada por él; "Raza de víboras, ¿quién os ha enseñado a huir de la ira inminente? <sup>8</sup>Dad, pues, dignos frutos de conversión, y no andéis diciendo en vuestro interior: 'Tenemos por padre a Abraham'; porque os digo que puede Dios de estas piedras dar hijos a Abraham. <sup>9</sup>Y ya está el hacha puesta a la raíz de los árboles; y todo árbol que no dé buen fruto, será cortado y arrojado al fuego".

<sup>10</sup>La gente le preguntaba: "Pues ¿qué debemos hacer?" <sup>11</sup>Y él les respondía: "El que tenga dos túnicas, que las reparta con el que no tiene; el que tenga para comer, que haga lo mismo". <sup>12</sup>Vinieron también publicanos a bautizarse, y le dijeron: "Maestro, ¿qué debemos hacer?" <sup>13</sup>El les dijo: "No exijáis más de lo que os está fijado". <sup>14</sup>Preguntáronle también unos soldados: "Y nosotros ¿qué debemos hacer?" El les dijo: "No hagáis extorsión a nadie, no hagáis denuncias falsas, y contentaos con vuestra soldada".

<sup>15</sup>Como el pueblo estaba a la espera, andaban todos pensando en sus corazones acerca de Juan, si no sería él el Cristo; <sup>16</sup>respondió Juan a todos, diciendo: "Yo os bautizo con agua; pero viene el que es más fuerte que yo, y no merezco desatarle la correa de sus sandalias. El os bautizará en el Espíritu Santo y en el fuego. <sup>17</sup>En su mano tiene el biello para limpiar su era y recoger el trigo en su granero; pero la paja la quemará con fuego que no se apaga". <sup>18</sup>Y, con otras muchas exhortaciones, anunciaba al pueblo la Buena Nueva.



**Yon Bateatzaillea, giltzapean**

(Mt. 14, 3-12; Mk. 6, 17-29)

<sup>19</sup>Baiña Erodes tetrarkak, bere anaiaren emazte Ero- dias'egaitik eta Erodes'ek berak egindako gaiztakeriakai- tik Yon'ek agiraka egin eutsala-ta, <sup>20</sup>lengo gaiztakeri guz- tiai beste au ezarri eutsen : Yon giltzapean sartzea.

**Jesus'en bateoa**

(Mt. 3, 13-17; Mk. 1, 9-11)

<sup>21</sup>Erri gutzia bateoa artzen ziarduan artean, Jesus be bateatuta eta otoitz egiten jarrita, zerua zabaldu zan, <sup>22</sup>eta gorputz-irudiz, uso-itxuraz, Espiritu Santua jatsi ya- kon; eta abots au etorri zan zerutik : "Zu, neure Seme maitea zara; zeugan dot nire atsegiña".

**Jesus'en jatorria\***

(Mt. 1, 1-17)

<sup>23</sup>Jesus agertzen asi zanean, ogetamarren bat urtekoa zan, <sup>24</sup>eta, uste zanez, Jose'ren semea zan, eta au Eli'rena, eta au Matat'ena, eta au Lebi'rena, eta au Melki'rena, eta au Janai'rena, eta au Jose'rena, <sup>25</sup>eta au Matatias'ena, eta au Amos'ena, eta au Naum'en, eta au Eslí'rena, eta au Nangai'rena, <sup>26</sup>eta au Maaz'ena, eta au Matatias'ena, eta au Semein'ena, eta au Josek'ena, eta au Joda'rena, <sup>27</sup>eta au Joanan'ena, eta au Erresa'rena, eta au Zoroba- bel'ena, eta au Salatiel'ena, eta au Neri'rena, <sup>28</sup>eta au Melki'rena, eta au Addi'rena, eta au Kosam'ena, eta au Elmadañ'ena, eta au Er'ena, <sup>29</sup>eta au Jesus'ena, eta au Eliezer'ena, eta au Jorim'ena, eta au Mattat'ena, eta au Lebi'rena, <sup>30</sup>eta au Simeon'ena, eta au Juda'rena, eta au Jose'rena, eta au Jonam'ena, eta au Eliakim'ena,

3, 23 **Jesus'en jatorria.** Lukas'ek dakarren jatorria Mateo'rena baiño orokarragoa da (L. 1-7), gizadiaren buru dan Adan'erañño igoten da.

**Prisión de Juan el Bautista**

(Mt. 14, 3-12; Mc. 6, 17-29)

<sup>19</sup>Pero Herodes, el tetrarca, reprendido por él a causa de Herodías, la mujer de su hermano, y a causa de todas las malas acciones que había hecho, <sup>20</sup>añadió a todas ellas la de encerrar a Juan en la cárcel.

**Bautismo de Jesús**

(Mt. 3, 13-17; Mc. 1, 9-11)

<sup>21</sup>Después de ser bautizado todo el pueblo, bauti- zado también Jesús y puesto en oración, se abrió el cie- lo, <sup>22</sup>y bajó sobre él el Espíritu Santo en forma corpor- al, como una paloma; y vino una voz del cielo : "Tú eres mi Hijo amado; en ti me complazco".

**Genealogía de Jesús\***

(Mt. 1, 1-17)

<sup>23</sup>Tenía Jesús, al comenzar, unos treinta años, y era, según se creía, hijo de José, hijo de Helí, <sup>24</sup>hijo de Mattat, hijo de Leví, hijo de Melkí, hijo de Jannái, hijo de José, <sup>25</sup>hijo de Mattatías, hijo de Amós, hijo de Naúm, hijo de Eslí, hijo de Nangay, <sup>26</sup>hijo de Maaz, hijo de Mattatías, hijo de Semein, hijo de Josec, hijo de Jodá, <sup>27</sup>hijo de Joanán, hijo de Resá, hijo de Zoro- babel, hijo de Salatiel, hijo de Neri, <sup>28</sup>hijo de Melkí, hi- jo de Addí, hijo de Cosam, hijo de Elmadañ, hijo de Er, <sup>29</sup>hijo de Jesús, hijo de Eliezer, hijo de Jorim, hijo de Mattat, hijo de Leví <sup>30</sup>hijo de Simeón, hijo de Judá, hijo de José, hijo de Jonam, hijo de Eliaquim, <sup>31</sup>hijo de Meleá, hijo de Menná, hijo de Mattatá, hijo de Natán, hijo de David,

3, 23 **Genealogía de Jesús.** La genealogía de Lc., más universa- lista que la de Mt. 1, 1-17, se remonta a Adán, cabeza de la huma- nidad.

<sup>31</sup>eta au Melea'rena, eta au Menna'rena, eta au Matta'rena, eta au Natan'ena, eta au Dabid'ena,

<sup>32</sup>eta au Jese'rena, eta au Obed'ena, eta au Booz'ena, eta au Sala'rena, eta au Naasson'ena, <sup>33</sup>eta au Aminadab'ena, eta au Admin'ena, eta au Arni'rena, eta au Esrom'ena, eta au Fares'ena, eta au Juda'rena, <sup>34</sup>eta au Jakob'ena, eta au Isaak'ena, eta au Abraham'ena, eta au Tara'rena, eta au Najor'ena,

<sup>35</sup>eta au Seruk'ena, eta au Ragau'rena, eta au Falek'ena, eta au Eber'ena, eta au Sala'rena, <sup>36</sup>eta au Kainam'ena, eta au Arfaxad'ena, eta au Sem'ena, eta au Noe'rena, eta au Lamek'ena, <sup>37</sup>eta au Matusalen'ena, eta au Enok'ena, eta au Jaret'ena, eta au Maleleel'ena, eta au Kainan'ena, <sup>38</sup>eta au Enos'ena, eta au Set'ena, eta au Adan'ena, eta au Jaungoikoarena.

#### Tentaldiak basamortuan\*

(Mt. 4, 1-11; Mk. 1, 12-13)

**4** <sup>1</sup>Jesus, Espiritu Santuz beterik, Jordan'dik barriro etorri zan, eta Espiritu Santuak basamortura eroan eban; <sup>2</sup>eta an deabruak zirikatu egin eban, berrogei egunez. Egun areitan ez eban ezer be jan; eta egunok igaro ziranean, gose izan zan. <sup>3</sup>Orduan, deabruak auxe esan utsan: "Jaungoikoaren Seme ba'zara, esan egiozu arri oni ogi biurtu daitela". <sup>4</sup>Jesus'ek erantzun utsan: "Idatzita dago: *Ez da gizona ogi utsez bizi*".

<sup>5</sup>Mendi-bizkar batera eroanik, bat-batean lureko erreñu guztiak erakutsi utsazan; <sup>6</sup>eta auxe esan utsan. "Erreñu guztien aal-izate eta aintza guztia emongo dautsudaz nik, neuri izan yataz emonak-eta; emon, barriz, nai dautsadanari emoten dautsada. <sup>7</sup>Orra, ba: gurtzen ba'nozu, guzti au zeurea izango da". <sup>8</sup>Jesus'ek auxe eran-

4 Tentaldiak basamortuan. Markos'ek diñoanari (berrogei tentaldi-egun) Mateo'k diñoana ezarten yako (berrogei eguneko barau-ondoren, iru tentaldi). (Deut. 8, 3; 6, 13; Sal. 91, 11-12; Deut. 6, 16).

<sup>32</sup>hijo de Jesé, hijo de Obed, hijo de Bioz, hijo de Sala, hijo de Naassón, <sup>33</sup>hijo de Aminadab, hijo de Admín, hijo de Arní, hijo de Esrom, hijo de Fares, hijo de Judá, <sup>34</sup>hijo de Jacob, hijo de Isaac, hijo de Abraham,

hijo de Tara, hijo de Najor, <sup>35</sup>hijo de Serug, hijo de Ragáu, hijo de Fálek, hijo de Eber, hijo de Sala, <sup>36</sup>Hijo de Cainam, hijo de Arfaxad, hijo de Sem, hijo de Noé, hijo de Lámek, <sup>37</sup>hijo de Matusalén, hijo de Henoc, hijo de Járet, hijo de Meleleel, hijo de Cainam, <sup>38</sup> hijo de Enós, hijo de Set, hijo de Adam, hijo de Dios.

#### Tentaciones en el desierto\*

(Mt. 4, 1-11; Mc. 1, 12-13)

**4** <sup>1</sup>Jesús, lleno del Espíritu Santo, se volvió del Jordán, y fue llevado por el Espíritu al desierto, <sup>2</sup>donde fue tentado por el diablo durante cuarenta días. No comió nada durante aquellos días y, al cabo de ellos, sintió hambre. <sup>3</sup>Entonces el diablo le dijo: "Si eres Hijo de Dios, di a esta piedra que se convierta en pan". <sup>4</sup>Jesús le respondió: "Está escrito: *No sólo de pan vive el hombre*".

<sup>5</sup>Llevándole a una altura, le mostró en un instante todos los reinos de la tierra; <sup>6</sup>y le dijo el diablo: "Te daré todo el poder y la gloria de estos reinos, porque a mí me ha sido entregado, y se lo doy a quien quie-

4. Tentaciones en el desierto. A los datos de Mc. (cuarenta días de tentación) se añaden los de Mt. (tres tentaciones después de un ayuno de cuarenta días). Citas de Dt. 8, 3; 6, 13; Sal. 91, 11-12; Dt. 6, 16.



tzun eutsan: "Idatzita dago: Zeure Jaungoiko Jauna gurtuko dozu ta Berari bakarrik emongo dautsazu gurtza".

<sup>9</sup>Jerusalen'era eroan eta Jaunaren Etxeko gaillurrean jarri eban, eta auxe esan eutsan: "Jaungoikoaren Seme ba'zara, jaurti zure burua emendik beera; <sup>10</sup>idatzita dago-ta: Bere aingeruai agindu dautse zaindu zagiezan, <sup>11</sup>eta euren eskuetan eroango zaitue, zure oiñak arriren baten labanik egin ez dagian". <sup>12</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: "Esanda dago: Ez dozu zure Jaungoiko Jauna zirikatuko".

<sup>13</sup>Guztietariko zirikaldiak amaituta, alde egin eban txerrenak Aregandik, beste aldi egokiren bat arte.

## III

## JESUS'EN EGINKIZUNA GALILEA'N

Jesus Barri Ona zabaltzen asten da

(Mt. 4, 12-17, 23; Mk. 1, 14-15, 39; Lk. 4, 44)

<sup>14</sup>Jesus, Espiritu (Santuaren) eragiñez, Galilea'ra etorri zan barrero; eta bere entzutea lurralde guztian zear zabaldu zan. <sup>15</sup>Jesus'ek arein sinagogetan irakatsi egiten eban, eta guztiak goratu egiten eben.

Jesus, Nazaret'en\*

(Mt. 13, 53-58; Mk. 6, 1-6)

<sup>16</sup>Eta Nazaret'era etorri zan, bera azi izan zan lekura; eta, oi ebanez, zapatu-egunez sinagogan sartu zan, eta irakurtera jagi zan. <sup>17</sup>Isaias igarlearen liburua emon

4, 16 Jesus Nazaret'en. Iru ikustaldi alkartzen dira emen: lenengo, Mateo'rena (4, 13) Isaias'enagaz (61, 1-2); bigarrena, cf. Mt. 13, 53; Mk. 6, 1, eta azkenez, Jesus'i egiten yakon zemakuntza. Olan-txe agertzen dira erabat Jesus'en eginkizuna eta Beronen erriak emon eutsan ezezkoa.

ro. <sup>7</sup>Si, pues, me adoras, todo será tuyo". <sup>8</sup>Jesús le respondió: "Está escrito:

*Adorarás al Señor tu Dios y sólo a él darás culto*".

<sup>9</sup>Le llevó a Jerusalén, y le puso sobre el alero del Templo, y le dijo: "Si eres Hijo de Dios, tírate de aquí abajo; <sup>10</sup>porque está escrito:

*A sus ángeles te encomendará para que te guarden.*

<sup>11</sup>Y: *Te llevarán en sus manos para que no tropiece tu pie en piedra alguna*". <sup>12</sup>Jesús le respondió: "Se ha dicho: *No tentarás al Señor tu Dios*".

<sup>13</sup>Acabado todo género de tentación, el diablo se alejó de él hasta un tiempo oportuno.

## III

## MINISTERIO DE JESUS EN GALILEA

Comienzo de la predicación

(Mt. 4, 12-17, 23; Mc. 1, 14-15, 39; Lc. 4, 44)

<sup>14</sup>Jesús volvió a Galilea por la fuerza del Espíritu, y su fama se extendió por toda la región. <sup>15</sup>El iba enseñando en sus sinagogas, alabado por todos.

Jesús en Nazaret\*

(Mt. 13, 53-58; Mc. 6, 1-6)

<sup>16</sup>Vino a Nazará, donde se había criado y, según su costumbre, entró en la sinagoga el día del sábado, y se levantó para hacer la lectura. <sup>17</sup>Le entregaron el libro

4, 16 Jesús en Nazaret. Una escena en que se combinan tres visitas: una, relacionada con Mt. 4, 13 con la cita de Is. 61, 1-2; otra, cf. Mt. 13, 53s; Mc. 6, 1s, y finalmente, una tercera en que Jesús es amenazado. Así se presentan en síntesis la misión de Jesús y la negativa de su pueblo.

eutsoen; eta liburu biribildua zabaldurik, idatzita egoan txatal au aurkitu eban:

<sup>18</sup>Jaunaren Arnasa nire gainean; orregaitik; igurtzi (bedeinkatu) egin nau. Beartsuai Barri Ona ekartera bialdu nau; giltzapekoai erospena ta itsuai ikusmena iragartera; zapalduai askatasuna emotera, <sup>19</sup>eta Jaunaren errukizko urtea iragartera.

<sup>20</sup>Liburua biribilduta, arduradunari biurtu eutsan, eta jesarri egin zan. Sinagogan, begi guztiak Ari begira-begira egozan. <sup>21</sup>Eta auxe esaten asi yaken: "Gaur bete da oraintxe entzun dozuen idatzitako au". <sup>22</sup>Eta guztiak autor egiten eutsoen; eta, Jesus'en agotik urteten ziran edertasunez beteriko berbak zirala-ta, guztiak arrituta egozan.

Eta auxe iñoen: "Au ez da, ba, Jose'ren semea?" <sup>23</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: "Esakera au esango daustazue, urrean: 'Osagille, osatu egizu zeure burua'; Kafarnaun'en egin ei'dozun guztia, egizu ementxe be, zeure lurraldean". <sup>24</sup>Eta auxe esan eban gainera: "Benetan dirautsuet: Ez da igarlerik onartua izaten bere lurraldean".

<sup>25</sup>"Benetan dirautsuet: emakume alargun asko ziran Israel'en Elias'en egunetan, iru urte ta sei illebetean zerua itxi ta lurralde osoan gosete gorria izan zanean; <sup>26</sup>eta areitariko iñogana be ez zan bialdua izan Elias, Sidon'go Sarepta'ko emakume alargun bategana izan ezik. <sup>27</sup>Eta legenardun asko ziran Israel'en Eliseo igarlearen aldian, eta areitariko iñor be ez zan osatua izan, Naaman Siriarrak izan ezik".

<sup>28</sup>Berbok entzunik, sinagogako guztiak asarre bizi-tan jarri ziran; <sup>29</sup>eta, jagirik, uritik kanpora jaurti ta euren uria jasota egoan mendiaren gaillur batera eroan eben, andik beera jaurtiteko. <sup>30</sup>Bera, barriz, arein artetik zear igarorik, joan egin zan.

del profeta Isaías, y desenrollando el volumen, halló el pasaje donde estaba escrito:

<sup>18</sup>El Espíritu del Señor sobre mí, porque me ha enviado. Me ha enviado a anunciar a los pobres la Buena Nueva, a proclamar la liberación a los cautivos y la vista a los ciegos, para dar la libertad a los oprimidos <sup>19</sup>y proclamar un año de gracia del Señor.

<sup>20</sup>Enrollando el volumen lo devolvió al ministro, y se sentó. En la sinagoga todos los ojos estaban fijos en él. <sup>21</sup>Comenzó, pues, a decir: "Esta Escritura, que acabáis de oír, se ha cumplido hoy". <sup>22</sup>Y todos daban testimonio de él y estaban admirados de las palabras llenas de gracia que salían de su boca.

Y decían: "¿No es éste el Hijo de José?". <sup>23</sup>El les dijo: "Seguramente me vais a decir el refrán: Médico, cúrate a ti mismo. Todo lo que hemos oído que has hecho en Cafarnaúm, hazlo también aquí en tu tierra". <sup>24</sup>Y añadió: "En verdad os digo que ningún profeta es bien recibido en su tierra".

<sup>25</sup>"Os digo de verdad: Muchas viudas había en Israel en los días de Elías, cuando se cerró el cielo por tres años y seis meses, y hubo gran hambre en todo el país; <sup>26</sup>y a ninguna de ellas fue enviado Elías, sino a una mujer viuda de Sarepta de Sidón. <sup>27</sup>Y muchos leprosos había en Israel cuando el profeta Eliseo, y ninguno de ellos fue curado, sino Naamán, el sirio".

<sup>28</sup>Oyendo estas cosas, todos los de la sinagoga se llenaron de ira; <sup>29</sup>y, levantándose, le arrojaron fuera de la ciudad, y le llevaron a una altura escarpada del monte sobre el cual estaba edificada su ciudad para despeñarle. <sup>30</sup>Pero él, pasando por medio de ellos, se marchó.



**Jesus'ek Kafarnaun'en irakasten diardu.  
Deabrudun bat osatzen dau**

(Mk. 1, 21-28; Mt. 7, 28-29)

<sup>31</sup>Galilea'ko uria dan Kafarnaun'era jatsi zan, eta zapatuetan irakatsi egiten eutsen. <sup>32</sup>Aren irakaspenez ikararuta gelditu ziran, aginpidez egiten eban berba-ta.

<sup>33</sup>Deabru zikiñaren gogoia eukan gizon bat egoan sinagogan, eta deadarka baten asi zan: <sup>34</sup>“Oi!, zer dauka-zu zuk gugaz, Nazaret'eko Jesus orrek? Gu ondatzera etorri zara? Ba-dakit nor zar(e)an: Jaungoikoaren Santua”. <sup>35</sup>Orduan, Jesus'ek agiraka agindu eutsan: “Isilik ago, eta urten adi orregandik!” Eta deabruak gizona erdira jaurtirik, txerrena urten egin zan aregandik, ari kalterik auxe zirautsoen: “Auxe bai itza! Eskubidez eta aal-izatez agintzen dautse gogo zikiñai, eta oneik urten egiten dira”. <sup>37</sup>Eta Jesus'en entzutea lurralde aretako toki guztietan zear zabaldu zan.

**Simon'en amagiñarreba osatzen dau**

(Mt. 8, 14-15; Mk. 1, 29-31)

<sup>38</sup>Jesus, sinagogatik urtenda, Simon'en etxean sartu zan. Simon'en amagiñarreba berebiziko sukarraz<sup>o</sup> egoan, eta aren alde erregutu eutsoen. <sup>39</sup>Jesus'ek, aregana makurturik, sukarrari agindu, eta sukarrak andreagandik alde egin eban; eta berealaxe jagirik, neskame-lanetan asi yaken.

**Beste osatze batzuk**

(Mt. 8, 16-17; Mk. 1, 32-34)

<sup>40</sup>Illunabarrean, edozetariko gatxez jotako geisoak eukezanak, Jesus'i ekarten eutsoezan; eta Onek, areitariko bakotxari gaiñean eskuak ezarririk, osatu egiten eba-

<sup>o</sup> Sukar: fiebre.

**Jesús enseña en Cafarnaúm y cura a un endemoniado**

(Mc. 1, 21-28; Mt. 7, 28-29)

<sup>31</sup>Bajó a Cafarnaúm, ciudad de Galilea, y los sábados les enseñaba. <sup>32</sup>Quedaron asombrados de su doctrina, porque hablaba con autoridad.

<sup>33</sup>Había en la sinagoga un hombre que tenía el espíritu de un demonio inmundo, y se puso a gritar a grandes voces: <sup>34</sup>“¡Ah! ¿Qué tienes tú con nosotros, Jesús de Nazaret? ¿Has venido a destruirnos? Sé quién eres tú: el Santo de Dios”. <sup>35</sup>Jesús entonces le conminó diciendo: “Cállate, y sal de él”. Y el demonio, arrojándole en medio, salió de él sin hacerle ningún daño. <sup>36</sup>Quedaron todos pasmados, y se decían unos a otros: “¡Qué palabra ésta! Manda con autoridad y poder a los espíritus inmundos, y salen”. <sup>37</sup>Y su fama se extendió por todos los lugares de la región.

**Curación de la suegra de Simón**

(Mt. 8, 14-15; Mc. 1, 29-31)

<sup>38</sup>Saliendo de la sinagoga entró en casa de Simón. La suegra de Simón estaba con una gran calentura, y le rogaron por ella. <sup>39</sup>Inclinándose sobre ella, conminó a la fiebre, y la fiebre la dejó; ella, levantándose al punto, se puso a servirles.

**Numerosas curaciones**

(Mt. 8, 16-17; Mc. 1, 32-34)

<sup>40</sup>A la puesta del sol, todos cuantos tenían enfermos de diversas dolencias se los llevaron; y, poniendo él las manos sobre cada uno de ellos, los curaba. <sup>41</sup>Salían tam-

zan. <sup>41</sup>Deabruak be urten egiten ziran askogandik, dea-  
darka ta esanaz: "Jaungoikoaren Semea zara zu". Baiña,  
Jesus'ek agiraka egin eta ez eutsen berbarik egiten iz-  
ten: ba-ekien Bera Kristo'a zana-ta\*.

Jesus Kafarnaun'dik isillean urten eta  
Judea'ra doa

(Mk. 1, 35-39)

<sup>42</sup>Egundu zanean, andik urten eta bakartade batera  
joan zan. Laguntaldea Jesus'en billa ebillen; eta Arega-  
na eldurik, eurakaz gelditu zeitela eskatzen eutsen, itxi  
ez egizan. <sup>43</sup>Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: "Beste uri  
batzui be iragarri egin bear dautset Jaungoikoaren Errei-  
ñuko Barri Ona, onetarakoxe izan naz bialdua-ta". <sup>44</sup>Eta  
Judea'ko sinagogetan zear ziarduan irakasten.

Lenengo lau ikasleak

(Mt. 4, 18-22; Mk. 1, 16-20)

**5** <sup>1</sup>Jesus Jenesaret'eko zingira-ertzean<sup>o</sup> egoala, eta la-  
guntaldea Jaungoikoaren itza entzuteko pilloka ba-  
tu yakonean, <sup>2</sup>ur-ertzean egozan txalupa bi ikusi ebazan;  
arrantzaleak txalupa areitatik jatsi ta sareak garbitzen  
ziarduen. <sup>3</sup>Txalupa bat Simon'ena zan; eta bertara igo-  
rik, legorretik zerbait alde egiala eskatu eutsan; eta, je-  
sarririk, laguntaldeari txalupatik irakasten ziarduan.

<sup>4</sup>Itzaldia amaitu ebanean, Simon'i auxe esan eutsan:  
"Jo itxaso zabalera, eta jaurti zuen sareak arrantzarako".  
<sup>5</sup>Simon'ek auxe erantzun eutsan: "Irakasle, gau osoan  
ekin dautsagu, eta ez dogu arrain bat be atara; baiña,  
zeuk diñozun ezkerro, botako dodaz, ba, sareak". <sup>6</sup>Eta  
alan egiñik, sareak urratzeraiñoko arrain-pillo aundia  
atara eben. <sup>7</sup>Laguntzera etorteko eskatu eutseen kiñuka  
beste txalupako lagunai. Etorri ziran, ba, eta ondatzeko  
zorian bete ebezan txalupa biak.

4. 41 Mesias-misteriori buruz, cf. Mk. 1. 34.

<sup>o</sup> Zingira: pantano.

bién demonios de muchos, gritando y diciendo: "Tú  
eres el Hijo de Dios". Pero él, les conminaba y no les  
permitía hablar, porque sabían que él era el Cristo\*.

Jesús sale ocultamente  
de Cafarnaúm y recorre Judea

(Mc. 1, 35-39)

<sup>42</sup>Al hacerse de día, salió y se fue a un lugar soli-  
tario. La gente le andaba buscando y, llegando donde  
él, trataban de retenerle para que no les dejara. <sup>43</sup>Pero  
él les dijo: "También a otras ciudades tengo que  
anunciar la Buena Nueva del Reino de Dios, porque  
a esto he sido enviado". <sup>44</sup>E iba predicando por las  
sinagogas de Judea.

Vocación de los  
cuatro primeros discípulos

(Mt. 4, 18-22; Mc. 1, 16-20)

**5** <sup>1</sup>Estaba él a la orilla del lago Genesaret y la gente  
se agolpaba sobre él para oír la Palabra de Dios,  
<sup>2</sup>cuando vio dos barcas que estaban a la orilla. Los  
pescadores habían bajado de ellas, y lavaban las re-  
des. <sup>3</sup>Subiendo a una de las barcas, que era de Simón, le  
rogó que se alejara un poco de tierra; y, sentándose, en-  
señaba desde la barca a la muchedumbre.

<sup>4</sup>Cuando acabó de hablar, dijo a Simón: "Boga mar  
adentro, y echad vuestras redes para pescar". <sup>5</sup>Simón le  
respondió: "Maestro, hemos estado bregando toda la  
noche y no hemos pescado nada; pero, en tu palabra,  
echaré las redes". <sup>6</sup>Y, haciéndolo así, pescaron gran  
cantidad de peces, de modo que las redes amenazaban  
romperse. <sup>7</sup>Hicieron señas a los compañeros de la otra  
barca para que vinieran en su ayuda. Vinieron, pues, y  
llenaron tanto las dos barcas, que casi se hundían.

4. 41 el Cristo. Sobre el secreto mesiánico, cf. Mc. 1, 34+.



<sup>8</sup>Ori ikusita, Simon Pedro Jesus'en oiñetan auzpaztu zan, esanaz: "Alde egizu, Jauna, nigandik, gizon pekataria naz-ta". <sup>9</sup>Izan be, atara ebezan arraiñak zirala-ta, arrituta egoan, baita beragaz egozan guztiak be. <sup>10</sup>Eta bardin Simon'en lagunak ziran Santiago ta Yon, Zebedeo'ren semeak be. Jesus'ek Simon'i auxe esan eutsan: "Ez bildurtu: aurrerantzean, gizon-arrantzale izango zara". <sup>11</sup>Txalupak legorrera eroan ebezan; eta, guztia itxirik, jarraitu egin eutsan.

#### Legenardun bat osatzen dau

(Mt. 8, 1-4; Mk. 1, 40-45)

<sup>12</sup>Bein, uri baten egoala, legenarrez jositako gizon bat etorri zan; eta, Jesus ikustean, auzpaztu ta erregutu egin eutsan, esanez: "Jauna, nai ba'dozu, garbitu naikezu". <sup>13</sup>Jesus'ek eskua luzatu, gizona ikutu, eta auxe esan eban: "Nai dot; garbi gelditu zaitez". Eta bat-batean, legenarrak alde egin eutsan. <sup>14</sup>Eta iñori be ez esateko agindu eutsan Jesus'ek; eta auxe esan eutsan gainera: "Zoaz, aurkeztu zaitez abadeagana ta egizu oparia zure garbitzeagaitik, Moises'ek aginduta daukanez, agiritzat izan dakien".

<sup>15</sup>Jesus'en entzutea gero ta geiago zabaltzen zan, eta laguntalde aundia etorkion entzutera ta euren geisoetatik osatuak izatera. <sup>16</sup>Bera, barriz, toki ezkutuetara bazartzen zan, eta an otoitz egiten eban.

#### Elbarridun bat osatzen dau

(Mt. 9, 1-8; Mk. 2, 1-12)

<sup>17</sup>Irakasten ziarduan egun baten, Galilea'ko eta Judea'ko erri guztietatik, baita Jerusalem'dik be etorritako pariseo ta lege-irakasle batzuk egozan jesarrita. Jaunaren indarrak osakuntzak egiteko egiten eutsan bultza. <sup>18</sup>Onetan, gizon batzuek elbarridun bat ekarri eutsan, ogetxo baten; eta barrura sartzeko alegiñak egiten ebezan, Je-

<sup>8</sup>Al verlo Simón Pedro, cayó a las rodillas de Jesús, diciendo: "Aléjate de mí, Señor, que soy un hombre pecador". <sup>9</sup>Pues el asombro se había apoderado de él y de cuantos con él estaban, a causa de los peces que habían pescado. <sup>10</sup>Y lo mismo de Santiago y Juan, hijos de Zebedeo, que eran compañeros de Simón. Jesús dijo a Simón: "No temas. Desde ahora serás pescador de hombres". <sup>11</sup>Llevaron a tierra las barcas y, dejándolo todo, le siguieron.

#### Curación de un leproso

(Mt. 8, 1-4; Mc. 1, 40-45)

<sup>12</sup>Sucedió que, estando en una ciudad, se presentó un hombre cubierto de lepra que, al ver a Jesús, se echó rostro en tierra, y le rogó diciendo: "Señor, si quieres, puedes limpiarme". <sup>13</sup>El extendió la mano, le tocó, y dijo: "Quiero, queda limpio". Y al instante le desapareció la lepra. <sup>14</sup>Y él le ordenó que no se lo dijera a nadie. Y añadió: "Vete, muéstrate al sacerdote y haz la ofrenda para tu purificación como prescribió Moisés para que les sirva de testimonio".

<sup>15</sup>Su fama se extendía cada vez más y una numerosa multitud afluía para oírle y ser curados de sus enfermedades. <sup>16</sup>Pero él se retiraba a los lugares solitarios, donde oraba.

#### Curación de un parálítico

(Mt. 9, 1-8; Mc. 2, 1-12)

<sup>17</sup>Un día que estaba enseñando, había sentados algunos fariseos y doctores de la ley que habían venido de todos los pueblos de Galilea y Judea, y de Jerusalén. El poder del Señor le hacía obrar curaciones. <sup>18</sup>En esto, unos hombres trajeron en una camilla a un parálítico y trataban de introducirlo, para ponerlo de-

sus'en aurrean jarteko. <sup>19</sup>Baiña, laguntaldea zala-ta, nundik sartu ikusi eziñik, etxe-gaiñera igo, geisoa ogetxoan teillartetik eratsi, eta erdian jarri eben, Jesus'en aurrean. <sup>20</sup>Jesus'ek, arein sinismena ikusirik, auxe esan eban: "Gizon, parkatuta gelditzen yatzuz zure pekatuak". <sup>21</sup>Idazlari ta pariseuak eurokautan asmatzen asi ziran: "Nor da biraoak diñozan au? Nok parkatu daikez pekatuak, Jaungoikoak bakarrik izan ezik?" <sup>22</sup>Jesus'ek, arein bururakizunak ezagaturik, auxe esan eutsen: "Zer diarduzue asmatzen zuen biotzetan? <sup>23</sup>Zer da errazago, 'parkatuta dozuz pekatuak' esatea?, ala, 'jagi ta zoaz' esatea? <sup>24</sup>Beraz, lurrean pekatuak parkatzeko eskubi-dea Gizasemeak ba-dauala jakin dagizuen, 'Neuk dirautsut —esan eutsan elbarridunari—: jagi zaitez, artu zure ogetxoa ta zoaz zure etxera". <sup>25</sup>Eta bat-batean, geisoa euren aurrean jagirik, bera etzunda egoan ogetxoa artu ta bere etxera joan zan, Jaungoikoa goratuez. <sup>26</sup>Guztiak arrituta egozan, eta Jaungoikoa goratzen eben. Eta bildurrez beterik, auxe iñoen: "Arritzekoak ikusi doguz gaur!"

### Lebi'ri deia

(Mt. 9, 9; Mk. 2, 13-14)

<sup>27</sup>Onen ondoren, andik urten eta Lebi izenekoa zerga-batzaille bat ikusi eban, zergategian jesarrita; eta auxe esan eutsan: "Jarraitu egidazu". <sup>28</sup>Eta guztia itxirik, jagi ta jarraitu egin eutsan.

### Lebi'ren etxean pekatariakaz jaten

(Mt. 9, 10-12; Mk. 2, 15-17)

<sup>29</sup>Lebi'k bere etxean bazkari eder bat eskiñi eutsan. Ugari be ugari ziran zerga-batzailleak, baita bestetariakoak be, arekaz batera maian egozanak. <sup>30</sup>Pariseuak eta onein idazlariak mormoxetan ziarduen, eta ikasleai auxe zirautesen: "Zegaitik jan-edaten dozue zerga-batzaille ta pekatariakaz?" <sup>31</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsen: "Osa-

lante de él. <sup>19</sup>Pero no encontrando por dónde meterle, a causa de la multitud, subieron al terrado, le descolgaron con la camilla a través de las tejas, y le pusieron en medio, delante de Jesús. <sup>20</sup>Viendo Jesús la fe de ellos, dijo: "Hombre, tus pecados te son perdonados".

<sup>21</sup>Los escribas y fariseos empezaron a pensar: "¿Quién es éste, que dice blasfemias? ¿Quién puede perdonar pecados, sino sólo Dios?". <sup>22</sup>Conociendo Jesús sus pensamientos, les dijo: "¿Qué estáis pensando en vuestros corazones? <sup>23</sup>¿Qué es más fácil, decir: 'Tus pecados te son perdonados', o decir: 'Levántate y anda'? <sup>24</sup>Pues para que sepáis que el Hijo del hombre tiene en la tierra poder de perdonar pecados —dijo al paralítico—: 'A tí te digo, levántate, toma tu camilla y vete a tu casa'". <sup>25</sup>Y al instante, levantándose delante de ellos, tomó la camilla en que yacía y se fue a su casa, glorificando a Dios.

<sup>26</sup>El asombro se apoderó de todos y glorificaban a Dios. Y llenos de temor, decían: "Hoy hemos visto cosas increíbles".

### Vocación de Leví

(Mt. 9, 9; Mc. 2, 13-14)

<sup>27</sup>Después de esto, salió y vio a un publicano llamado Leví, sentado en el despacho de impuestos, y le dijo: "Sígueme". <sup>28</sup>El, dejándolo todo, se levantó y le siguió.

### Comida con los pecadores en casa de Leví

(Mt. 9, 10-12; Mc. 2, 15-17)

<sup>29</sup>Leví le ofreció en su casa un gran banquete. Había un gran número de publicanos, y de otros que estaban a la mesa con ellos. <sup>30</sup>Los fariseos y sus escribas murmuraban y decían a los discípulos: "¿Por



sundunak ez dabe osagillerik bear, makalak baiño. <sup>32</sup>Ez naz ni damu-deika zintzoakana etorri, pekatariakana baiño”.

### Baraua zala-ta eztabaidan

(Mt. 9, 14-17; Mk. 2, 18-22)

<sup>33</sup>Areik auxe esan eutsoen: “Yon'en ikasleak sarritan egiten dabe barau, baita oititz be; pariseuen ikasleak be bardin; zureak, barriz, jan eta edan egiten dabe”. <sup>34</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsen: “Barau eragin ete-dai-keezue eztegurako deituai, senargeia eurakaz dagoan artean? <sup>35</sup>Etorriko dira, bai, senargeia kenduko yaken egunak; orduantxe egingo dabe barau, egun areitan”.

<sup>36</sup>Ipuin au be esan eutsen: “Iñok ez dau soñeko barririk zatitzen soñeko zaarrari ipingirik ezarteko; bes-tela, barria zatitu bai, eta barriaren ipingiak ez dautso zaarrari ondo emoten. <sup>37</sup>Eta zaragi zaarretan be ez dau iñok ardao barririk sartzen; bestela, ardao barriak zaragia lertu egingo dau, ardaoa isuri egingo da, eta zaragiak ondatu egingo dira; <sup>38</sup>bestetara baiño: ardao barria zaragi barrietan sartu bear da. <sup>39</sup>Ardao zaarra edan ondoren, ez dau iñok ardao barririk nai, “zaarra obea da”\*, diño-ta”.

### Zapatuz artutako galburuak

(Mt. 12, 1-8; Mk. 2, 23-28)

**6** <sup>1</sup>Zapatu baten, Jesus gari-soloetan zear yoian; Aren ikasleak galburuak artu ta, urkuldurik, jan egiten ebezan. <sup>2</sup>Pariseuen arteko batzuek auxe esan eben: “Zegaitik egiten dozue zapatuz bidezko ez dana?” <sup>3</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsen: “Dabid'ek egin ebana be ez dozue irakurri?, bera ta beragaz egozanak gosetu ziranean?, <sup>4</sup>zelan sartu zan Jaunaren Etxean, eta abadeak baiño iñok

5, 39 Bere espiritu barria ez dabela guztiak aintzat artzen ikusten dau Jesus'ek.

qué coméis y bebéis con los publicanos y pecadores?”. <sup>31</sup>Les respondió Jesús: “No necesitan médico los sanos, sino los que se encuentran mal. <sup>32</sup>No he venido a llamar a conversión a justos, sino a pecadores”.

### Discusión sobre el ayuno

(Mt. 9, 14-17; Mc. 2, 18-22)

<sup>33</sup>Ellos le dijeron: “Los discípulos de Juan ayunan frecuentemente y recitan oraciones, igual que los de los fariseos, pero los tuyos comen y beben”. <sup>34</sup>Jesús les contestó: “¿Podéis acaso hacer ayunar a los invitados a la boda mientras el novio está con ellos? <sup>35</sup>Días vendrán en que les será arrebatado el novio; ya ayunarán en esos días”.

<sup>36</sup>Les dijo también una parábola: “Nadie rompe un vestido nuevo para poner un remiendo a uno viejo; de otro modo, rompería el nuevo, y al viejo no le iría el remiendo del nuevo.

<sup>37</sup>“Nadie echa tampoco vino nuevo en pellejos viejos; de otro modo, el vino nuevo reventaría los pellejos, el vino se derramaría, y los pellejos se perderían; <sup>38</sup>sino que el vino nuevo debe echarse en pellejos nuevos. <sup>39</sup>Nadie, después de beber el vino añejo, quiere del nuevo, porque dice: “El añejo es el bueno”\*.

### Las espigas arrancadas en sábado

(Mt. 12, 18-1 Mc. 2, 23-28)

**6** <sup>1</sup>Atravesaba en sábado por unos sembrados; sus discípulos arrancaban espigas y, desgranándolas con las manos, las comían. <sup>2</sup>Algunos de los fariseos dijeron: “¿Por qué hacéis lo que no es lícito en sábado?” <sup>3</sup>Y Jesús les respondió: “¿Ni siquiera habéis leído lo que hizo David, cuando sintió hambre él y los

5, 39 es el bueno. Jesús observa que no todos aprecian su nuevo espíritu.

ezin jan daikezan opari-ogiak arturik, zelan jan ebazan, eta beragaz egozanai be zelan emon eutsezan?" <sup>5</sup>Eta auxe esan eutsen: "Gizasemea zapatuaren jabea be ba-da".

### Gizon esku-igarra osatzen dau

(Mt. 12, 9-14; Mk. 3, 1-6)

<sup>6</sup>Beste zapatu baten, Jesus sinagogan sartu ta irakasten asi zan. Eskumako eskua igartuta eukan gizon bat egoan an. <sup>7</sup>Idazlariak eta pariseuak Jesus zaintzen ziarduen adi-adi, zapatuz osatuko ete-eban, gero salatu aal izateko. <sup>8</sup>Baiña Jesus'ek, arein bururakizunak ezaguturik, eskua igartuta eukan gizonari auxe esan eutsan: "Jagi ta jarri zaitetz zutik or erdian". Gizona, jagirik, zutik gelditu zan. <sup>9</sup>Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsen: "Nik itaun au egiten dautsuet: Bidezko da zapatuz txarra egin bearrean on egitea?, bizia ondatu bearrean gordetea?" <sup>10</sup>Eta guztiai begiraturik, gizonari auxe esan eutsan: "Zabaldu esku ori". Arek zabaldu egin eban, eta eskua osatuta gelditu yakon. <sup>11</sup>Areik asarratu egin ziran, eta Jesus'i zer egingo ete-eutsoen asmatzen ziarduen alkarregaz.

### Amabiak aukeratzea

(Mt. 10, 1-4; Mk. 3, 13-19)

<sup>12</sup>Egun areitan, Jesus mendira joan zan otoitz egitera. eta gau osoa Jaungoikoari otoitz egiten igaro eban. <sup>13</sup>Egundu zanean, bere ikasleai dei egin eta amabi aukeratu ebazan arein artetik, eta Apostolu izena be emon eutsen. <sup>14</sup>Simon, izena Pedro ezarri eutsana, eta Ander, onen anaia; Santiago ta Yon, Felipe ta Bartolome, <sup>15</sup>Mateo ta Tomas, Santiago Alfeo'rena, eta Zelotes eritxon Simon; <sup>16</sup>Judas Santiago'rena, eta Judas Iskariote, salzaillea izan zana.

que le acompañaban, 'cómo entró en la Casa de Dios, y tomando los panes de la proposición, que no es lícito comer sino sólo a los sacerdotes, comió él y dio a los que le acompañaban?' <sup>5</sup>Y les dijo: "Señor es del sábado el Hijo del hombre".

### Curación del hombre de la mano paralizada

(Mt. 12, 9-14; Mc. 3, 1-6)

<sup>6</sup>Entró Jesús otro sábado en la sinagoga y se puso a enseñar. Había allí un hombre que tenía la mano derecha paralizada. <sup>7</sup>Estaban al acecho los escribas y fariseos por si curaba en sábado, para encontrar de qué acusarle. <sup>8</sup>Pero él, conociendo sus pensamientos, dijo al hombre que tenía la mano paralizada, "Levántate y ponte ahí en medio". El, levantándose, se puso allí. <sup>9</sup>Entonces Jesús le dijo: "Yo os pregunto si en sábado es lícito hacer el bien en vez del mal, salvar una vida en vez de destruirla". <sup>10</sup>Y mirando a todos ellos, le dijo: "Extiende tu mano". El lo hizo, y quedó restablecida su mano. <sup>11</sup>Ellos se ofuscaron, y deliberaban entre sí qué harían a Jesús.

### Elección de los Doce

(Mt. 10, 1-4; Mc. 3, 13-19)

<sup>12</sup>Por aquellos días se fue él al monte a orar, y se pasó la noche en la oración de Dios. <sup>13</sup>Cuando se hizo de día, llamó a sus discípulos, y eligió doce de entre ellos, a los que llamó también apóstoles. <sup>14</sup>A Simón, a quien llamó Pedro, y a su hermano Andrés; a Santiago y Juan, a Felipe y Bartolomé, <sup>15</sup>a Mateo y Tomás, a Santiago de Alfeo y Simón, llamado Zelotes; <sup>16</sup>a Judas de Santiago, y a Judas Iscariote, que fue el traidor.



### Laguntaldeak Jesus'i jarraitzen dautso

(Mt. 4, 24-25; Mk. 3, 7-12)

<sup>17</sup>Arekaz jatsirik, leku lau baten gelditu zan; bere ikasle asko ta erriko laguntalde aundia egozan, Judea guztitik, Jerusalem'dik, eta Tiro ta Sidon'go itxasaldetik <sup>18</sup>Jesus'en itza entzutera ta euren geisoetatik osatzera etorri ziranak. Gogo zikiñak atsekabetutakoak be, osatuta gelditzen ziran. <sup>19</sup>Laguntalde guztiak Jesus ikutu nairik ziarduan: Ari erion indarrak guzti-guztiak osatzen eban-eta.

#### Asiera-itzaldia\*. Zoriontasunak

(Mt. 5, 1, 3, 6, 5, 11-12)

<sup>20</sup>Bere ikasleakana begiak jasorik, auxe esan eban\*: "Zoriontsuak txirook (*beartsuok*), Jaungoikoaren Erreina zeuena da-ta <sup>21</sup>Zoriontsuak orain gose zarenok, beteak izango zaree-ta. <sup>21</sup>Zoriontsuak orain negar egiten do-zuenok, barre egingo dozue-ta. <sup>22</sup>Zoriontsu izango zaree, Gizasemea dala-ta, gizonak gorroto dagitzuenean, eura-kandik baztatu ta iraindu zagiezenean, eta zuen izena gaiztotzat artu dagienean. <sup>23</sup>Poztu ta alaitu zaiteze egun orretan, zuen saria zeruan aundia izango da-ta. Igarleai be arein gurasoak beste arenbeste egin eutseen-eta".

#### Aiñenak°

<sup>24</sup>"Zuen zoritxarra, ostera, aberatsok!, artu dozue zuen pozbidea-ta. <sup>25</sup>Zuen zoritxarra, orain beteta zago-

6, 20 (a) *Asiera-itzaldia*. Lukas'ek ez dau eraskiñik sartu (cf. 5, 1); bere irakurleentzat judar-kutsu larregi eukana baztatu egiten dau.

6, 20 (b) Lukas'en atal onetan —Mateo'renean ez—, Jesus'ek bere entzuleakana zuzen-zuzen jotzen dau: bizikera ta norberaren barruko izaerak loturik, munduko espiritua (24-26); cf. Is. 5, 8-25) eta Kristo'ren espiritua aurrez-aurre jarten dauz.

\* Aiñenak: maldiciones.

### La muchedumbre sigue a Jesús

(Mt. 4, 24-25; Mc. 3, 7-12)

<sup>17</sup>Bajando con ellos, se detuvo en un paraje llano; había una gran multitud de discípulos suyos y gran muchedumbre del pueblo, de toda Judea, de Jerusalén, y de la región costera de Tiro y Sidón. <sup>18</sup>que habían venido para oírle y ser curados de sus enfermedades. Y los que eran molestados por espíritus inmundos, quedaban curados. <sup>19</sup>Toda la gente procuraba tocarle, porque salía de él una fuerza que sanaba a todos.

#### Discurso inaugural\*. Las Bienaventuranzas

(Mt. 5, 1, 3, 6, 5, 11-12)

<sup>20</sup>Alzando los ojos hacia sus discípulos, dijo\*: "Bienaventurados los pobres, porque vuestro es el Reino de Dios. <sup>21</sup>Bienaventurados los que tenéis hambre ahora, porque seréis saciados. Bienaventurados los que lloráis ahora, porque reiréis. <sup>22</sup>Bienaventurados seréis cuando los hombres os odien, cuando os expulsen, os injurien y proscriban vuestro nombre como malo, por causa del Hijo del hombre. <sup>23</sup>Alegraos ese día y saltad de gozo, que vuestra recompensa será grande en el cielo. Porque de ese modo trataron sus padres a los profetas.

#### Las maldiciones

<sup>24</sup>"Pero ¡ay de vosotros, los ricos!, porque habéis recibido vuestro consuelo.

6, 20 (a) *Discurso inaugural*. Lc. no ha incluido adiciones, cf. Mt. 5, 1+; ha eliminado lo que tenía demasiado sabor judío para sus lectores.

6, 20 (b) *dijo*. En Lc, a diferencia de Mt., Jesús se dirige directamente a sus oyentes: apunta condiciones de vida que comprometen las disposiciones internas y que contraponen el espíritu del mundo, vv. 24-26; cf. Is. 5, 8-25, al espíritu de Cristo.

zenok!, gose izango zaree-ta. Zuen zoritxarra, orain barre egiten dozenok!, antzi ta negar egingo dozue-ta. <sup>26</sup>Zuen zoritxarra, gizon guztiak zuei buruz ondo berba egin dagienean!, sasi-igarleai arein gurasoak olantxe egin eutseen-eta”.

### Arerioak maitatu

(Mt. 5, 44, 39-40; 7, 12; 5, 46.45)

<sup>27</sup>“Nik, barriz, entzuten nozuenoi auxe dirautsuet: Maite egizue zuen arerioak, on egiezue gorrotoa dautsuenai, <sup>28</sup>bedeinkatu egizuez madarikatzen zaituenak. Erregutu egizue txarto zarabillezen alde. <sup>29</sup>Matrailla baten zauritzen zaituanari, eskiñi egiozu bestea be; eta soingaiñekoa kendu dagitzunari, ez ukatu barruko jantzia. <sup>30</sup>Emon egiozu eskatzen dautsun edonori; eta zeurea dana artu dagianari, ez egiozu barrero eskatu. <sup>31</sup>Gizonak zuei egin dagitzuen nai dozuena, egiezue orrelaxe zeuek be. <sup>32</sup>Maite zaituenak maite ba’dozue, zer irabaziko dozue? Pekatariak be maite dabez euren maitatzailleak-eta. <sup>33</sup>Eta zuei on egiten dautsuenai on egiten ha’ dautsezue, zer irabaziko dozue? Pekatariak be egiten da-be beste orrenbeste! <sup>34</sup>Atzera biurtuko dautsuenai aurretiaz emoten ba’ dautsezue, zer irabazi dozue? Pekatariak be emoten dautsee aurretiaz pekatariak, beste arenbeste artzeco. <sup>35</sup>Zuek, barriz, maite egizue zuen arerioak; on egin, eta emon egizue aurretiaz, ordaiñaren usterik izan bagarik; eta aundia izango da zuen saria, eta Gorengoaren seme izango zaree: Bera be esker-txarreko ta gaiztoai buruz ona da-ta”.

### Errukia ta on egitea

(Mt. 7, 1, 2; Mk. 4, 24)

<sup>36</sup>“Izan zaitze errukiorrak, zuen Aita errukiorra denez. <sup>37</sup>Ez epaitu, eta ez zaree epaituak izango; ez emon galtzeko epairik, eta ez zaree galduak izango. Parkatu egi-

<sup>25</sup>¡Ay de vosotros, los que ahora estáis hartos!, porque tendréis hambre.

¡Ay de los que reís ahora!, porque tendréis aflicción y llanto.

<sup>26</sup>¡Ay cuando todos los hombres hablen bien de vosotros!, porque de ese modo trataron sus padres a los falsos profetas.

### Amor a los enemigos

(Mt. 44, 39-40, 42; 7, 12; 5, 46, 45)

<sup>27</sup>“Pero yo os digo a los que me escucháis: Amad a vuestros enemigos, haced bien a los que os odian, <sup>28</sup>benedicid a los que os maldigan, rogad por los que os maltratan. <sup>29</sup>Al que te hiera en una mejilla, preséntale también la otra; y al que te quite el manto, no le niegues la túnica. <sup>30</sup>A todo el que te pida da, y al que tome lo tuyo, no se lo reclames. <sup>31</sup>Y lo que queráis que os hagan los hombres, hacédselo vosotros igualmente. <sup>32</sup>Si amáis a los que os aman, ¿qué mérito tenéis? Pues también los pecadores aman a los que les aman. <sup>33</sup>Si hacéis bien a los que os lo hacen a vosotros, ¿qué mérito tenéis? ¡También los pecadores hacen otro tanto! <sup>34</sup>Si prestáis a aquellos de quienes esperáis recibir, ¿qué mérito tenéis? También los pecadores prestan a los pecadores para recibir lo correspondiente. <sup>35</sup>Más bien, amad a vuestros enemigos; haced el bien, y prestad sin esperar nada a cambio; y vuestra recompensa será grande y seréis hijos del Altísimo, porque él es bueno con los ingratos y los perversos.

### Misericordia y beneficencia

(Mt. 7, 1, 2; Mc. 4, 24)

<sup>36</sup>“Sed misericordiosos, como vuestro Padre es misericordioso. <sup>37</sup>No juzguéis y no seréis juzgados, no con-



zue, eta parkatuak izango zaree. <sup>38</sup>Emon egizue, eta emon egingo yatzue: negurri ona, sakatua, gaiñez egite-raino astindua jarriko dabe zuen jantzien altzoan. Negurtu dagizuen negurri berberaz izango zaree negurtuak-eta”.

### Ardura eratsua

(Mt. 15, 14; 10, 24-25; Yn. 13, 16; 15, 20)

<sup>39</sup>Ipuin au esan eutsen gaiñera: “Itsuak itsuari bi-dea erakutsi ete-daikoe? Ez ete-dira biok zuloan jausi-ko? <sup>40</sup>Ikaslea ez da irakaslea baiño geiago. Ondo irakatsita dagoan edonor, bere irakaslea lakoxea da. <sup>41</sup>Zegaitik begirutzen dozu zure anaiaren begian dagoan samarra, eta ez dozu somatzen zeure begian dagoan abea? <sup>42</sup>Zelan esan daikoezu zure anaiari: ‘Anaia, itxi egidazu zure begian dagoan samarra ataraten’, zeure begian dagoan abea zeuk ikusten ez dozula? Azaluts ori!; atara egizu lenen abea zure begitik, eta orduantxe ikusiko dozu garbi, zure anaiaren begian dagoan samarra atarateko.

(Mt. 12, 33-35; 7, 16-18)

<sup>43</sup>“Frutu txarrik emon dagian arbola onik ez dago-ta, ezta frutu onik emon dagian arbola txarrik be. <sup>44</sup>Arbola bakotxa bere frututik ezagutzen da. Elorrietatik ez da pikurik batzen, ezta sasitik maatsik be. <sup>45</sup>Gizon zintzoak, bere biotzeko ondasuntegitik, zintzotasuna ataraten dau; eta gizon gaiztoak, txarretik, gaiztakeria ataraten dau. Biotzari gaiñez dariona egiten dau berba bere agoak-eta.

### Egintzak egin-bearra

(Mt. 7, 21, 24-27)

<sup>46</sup>“Zegaitik egiten daustazue dei, ‘Jauna, Jauna!’, eta ez dozue nik diñodanik egiten?

6. 39 Ataltxo onek eta 44-45 garrenak, Mateo'renean pariseuak buruz esaten dana ikasleak ezarten dautsee.

denéis y no seréis condenados. Perdonad y seréis perdonados. <sup>38</sup>Dad y se os dará: una medida buena, apretada, remecida hasta rebasar, pondrán en el halda de vuestros vestidos. Porque con la medida con que midáis se os medirá a vosotros”.

### Celo bien ordenado

(Mt. 15, 14; 10, 24-25; Jn. 13, 16; 15, 20)

<sup>39</sup>Les añadió una parábola: “¿Podrá un ciego guiar a otro ciego? ¿No caerán los dos en el hoyo\*? <sup>40</sup>No está el discípulo por encima del maestro. Todo el que esté bien formado, será como su maestro. <sup>41</sup>¿Cómo es que miras la brizna que hay en el ojo de tu hermano, y no reparas en la viga que hay en tu propio ojo? <sup>42</sup>¿Cómo puedes decir a tu hermano: ‘Hermano, deja que saque esa brizna que hay en tu ojo’, no viendo tú mismo la viga que hay en el tuyo? Hipócrita, saca primero la viga de tu ojo, y entonces podrás ver para sacar la brizna que hay en el ojo de tu hermano.

(Mt. 12, 33-35; 7, 16-18)

<sup>43</sup>“Porque no hay árbol bueno que dé fruto malo y, a la inversa, no hay árbol malo que dé fruto bueno. <sup>44</sup>Cada árbol se conoce por su fruto. No se recogen higos de los espinos, ni de la zarza se vendimian uvas. <sup>45</sup>El hombre bueno, del buen tesoro del corazón saca lo bueno, y el malo, del malo saca lo malo. Porque de lo que rebosa el corazón habla su boca.

### Necesidad de las obras

(Mt. 7, 21, 24-27)

<sup>46</sup>“¿Por qué me llamáis: ‘Señor, Señor’, y no hacéis lo que digo?

6. 39 el hoyo. Este versículo y los vv. 44-45 aplican a los discípulos lo que se dice de los fariseos en Mt. 15, 14; 7, 16s.

<sup>47</sup>“Erakutsiko dautsuet, nigana etorri ta nire berbak entzuten eta egiñez beteten dauzana, noren antzekoa dan: <sup>48</sup>Etxe bat egitean, sakon-sakon zulatu ta oñarriak arkaitz-gaiñean jarri ebazan gizonaren antzekoa da. Uriola bat etortean, ur-boladeak etxea jo, bai, jo egin eban, baiña ezin ondatu izan eban, etxea ondo eginda egoan-eta.

<sup>49</sup>Entzun bai, eta egiñez beteten ez dauana, barriz, etxea oiñarri begariko lur-gaiñean jasoten dauan gizonaren antzekoa da: ur-bolad(e)ak etxea jo ta bat-batean jausi zan lurrera, eta etxe aren ondamentia aundia izan zan”.

#### Euntariaren morroia osatzen dau

(Mt. 8, 5-10, 13; Yn. 4, 46-54)

**7** <sup>1</sup>Erriari berba guztiok esanda gero, Kafarnaun'en sartu zan. <sup>2</sup>Euntari batek oso maite eban morroi bat geisorik eta il-zorian egoan. <sup>3</sup>Jesus'en barri entzunda, judarren arteko zaar batzuk bialdu eutsazan, etorri zeitela ta bere morroia osatu egiala eskatzera.

<sup>4</sup>Oneik, Jesus'egana eldurik, erregu ta erregu egiten etsoen, esanez: “Zugandik ori lortzeko gai ba-da, <sup>5</sup>maite dau gure erria-ta; sinago(e)a be berak jaso dausku”. <sup>6</sup>Ba-yoian Jesus arekaz batera; eta etxetik urr samar egoala, euntariak adiskide batzuk bialdu eutsazan, auxe esan egioen: “Jauna, ez artu nekerik, ni ez naz nor zu neure aterpean sartu zaitezana-eta; <sup>7</sup>orregaitik, zugana joateko be nor ez nintzalakoan nengoan. Agindu egizu berbaz, eta nire morroia osatua izango da. <sup>8</sup>Neuk be, iñoren menpeko nazararren, ba-dodaz gudariak nire agindupean; eta bati, 'oa!' dirautsat, eta joan egiten da; eta besteari, 'ator!' eta etorri egiten da; eta nire morroiari, 'au egik!', eta egin egiten dau”.

<sup>9</sup>Ori entzutean, Jesus aretzaz arrituta gelditu zan; eta, jarraitzen eutsan laguntaldeagana biurturik, auxe esan eban: “Benetan dirautsuet: Israel'en bertan be ez

<sup>47</sup>“Todo el que venga a mí y oiga mis palabras y las ponga en práctica, os voy a mostrar a quién es semejante: <sup>48</sup>Es semejante a un hombre que, al edificar una casa, cavó profundamente y puso los cimientos sobre roca. Al sobrevenir una inundación, rompió el torrente contra aquella casa, pero no pudo destruirla por estar bien edificada. <sup>49</sup>Pero el que haya oído y no haya puesto en práctica, es semejante a un hombre que edificó una casa sobre tierra, sin cimientos, contra la que rompió el torrente y al instante se desplomó. y fue grande la ruina de aquella casa”.

#### Curación del siervo del centurión

(Mt. 8, 5-10; Jn. 4, 46-54)

**7** <sup>1</sup>Cuando hubo acabado de dirigir todas estas palabras al pueblo, entró en Cafarnaúm. <sup>2</sup>Se encontraba mal y a punto de morir un siervo de un centurión, muy querido de éste. <sup>3</sup>Habiendo oído hablar de Jesús, envió donde él unos ancianos de los judíos, para rogarle que viniera y salvara a su siervo.

<sup>4</sup>Estos, llegando donde Jesús, le suplicaban insistentemente diciendo: “Merece que se lo coscedas, <sup>5</sup>porque ama a nuestro pueblo, y él mismo nos ha edificado la sinagoga”. <sup>6</sup>Iba Jesús con ellos y estando ya no lejos de la casa, envió el centurión a unos amigos a decirle: “Señor, no te molestes, porque no soy digno de que entres bajo mi techo, <sup>7</sup>por eso ni siquiera me consideré digno de salir a tu encuentro. Mándalo de palabra, y mi criado quedará sano. <sup>8</sup>Porque también yo, que soy un subalterno, tengo soldados a mis órdenes, y digo a éste: ‘Vete’, y va; y a otro: ‘Ven’, y viene; y a mi siervo: ‘Haz esto’, y lo hace”. <sup>9</sup>Al oír esto Jesús, quedó admirado de él, y volviéndose dijo a la muchedumbre que le seguía: “Os digo que ni en Is-



'dot onesbesteko sinismenik aurkitu". <sup>10</sup>Bialdutakoak etxera biurtu ziranean, morroia osatuta aurkitu eben.

#### Naim'go emakume alargunaren semea biztuten dau

<sup>11</sup>Jarraian, Naim izeneko urira yoian, eta beragaz batera bere ikasleak eta laguntalde aundia yoiazan. <sup>12</sup>Uriko atera urreratzen zala, ildako bat ataraten eben illobiratzera, ama alargun baten semea bera; eta uriko laguntalde aundia yoian alargunagaz. <sup>13</sup>Jaunak alarguna ikustean\*, erruki izan yakon, eta auxe esan eutsan: "Ez negarrik egin". <sup>14</sup>Eta urreraturik, ilkutxa<sup>o</sup> ikutu egin eban. Ilkutxa eroienak gelditu egin ziran; eta Jesus'ek auxe esan eban: "Gazte, zeuri dirautsut: jagi zaitetz". <sup>15</sup>Ildakoa jagi ta berba egiten asi zan; eta Jesus'ek amari emon eutsan\*. <sup>16</sup>Guztiak bildurrak artu ebazan, eta Jaungoikoa goratzen eben, esanez: "Profeta aundi bat agertu da gure artean", eta "Jaungoikoak bere erriari ikustaldia egin dautso". <sup>17</sup>Eta Judea osoan eta inguruko lurralde guztian zear zabaldu zan Jesus'i buruz esaten zana.

#### Yon Bateatzaillearen itauna eta Jesus'en autorra

(Mt. 11, 2-15)

<sup>18</sup>Barri guztiok eroan eutsoezan Yon'i beronen ikasleak. Orduan Yon'ek areitariko biri dei egiñik, <sup>19</sup>Jaunari auxe esatera bialdu ebazan: "Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?" <sup>20</sup>Gizon areik, Jesus'egana eldurik, auxe esan eutsoen: "Zuri auxe esan dagitzugun bialdu gaitu Yon Bateatzailleak: 'Zeu zara etortekoa, ala beste baten zain egon bear dogu?'"

7, 13 Jaunak ikustean. Azalpen onetan, lenengoz ezarten yako Jesus'i Jaungoikozko izenorde au (Jauna) eta aurrerantzean Aren berarizko izena izango da.

7, 15 Cf. Erreg. 1.<sup>a</sup>, 17, 23.

<sup>o</sup> Ilkutxa: ataúd.

rael he encontrado una fe tan grande". <sup>10</sup>Cuando los enviados volvieron a la casa, hallaron al siervo sano.

#### Resurrección del hijo de la viuda de Naím

<sup>11</sup>A continuación se fue a una ciudad llamada Naím, e iban con él sus discípulos y una gran muchedumbre. <sup>12</sup>Cuando se acercaba a la puerta de la ciudad, sacaban a enterrar a un muerto, hijo único de su madre, que era viuda, a la que acompañaba mucha gente de la ciudad. <sup>13</sup>Al verla el Señor\*, tuvo compasión de ella, y le dijo: "No llores". <sup>14</sup>Y, acercándose, tocó el féretro. Los que lo llevaban se pararon, y él dijo: "Joven, a ti te digo: Levántate". <sup>15</sup>El muerto se incorporó y se puso a hablar, y él se lo dio a su madre\*. <sup>16</sup>El temor se apoderó de todos, y glorificaban a Dios, diciendo: "Un gran profeta ha surgido entre nosotros", y "Dios ha visitado a su pueblo". <sup>17</sup>Y lo que se decía de él, se propagó por toda Judea y por toda la región circunvecina.

#### Pregunta del Bautista y testimonio de Jesús

(Mt. 11, 2-15)

<sup>18</sup>Sus discípulos llevaron a Juan todas estas noticias. Entonces él, llamando a dos de ellos, <sup>19</sup>los envió a decir al Señor: "¿Eres tú el que ha de venir, o debemos esperar a otro?" <sup>20</sup>Llegando donde él aquellos hombres, dijeron: "Juan el Bautista nos ha enviado a decirte: ¿Eres tú el que ha de venir o debemos esperar a otro?" <sup>21</sup>En aquel momento curó a muchos de sus enfermedades y dolencias, y de malos espíritus, y dio vista a muchos ciegos. <sup>22</sup>Y les respondió: "Id y contad

7, 13 el Señor. Primera aplicación a Jesús, en el relato, de este título divino que se convertirá en su nombre propio, Hch. 2, 36+.

7, 15 a su madre. Cf. 1 R. 17, 23.

<sup>21</sup>Orduantxe bertan, Jesus'ek askoak osatu ebazan euren geiso ta gatzetatik, eta gogo gaiztoetatik, eta itsu askoi ikusmena emon eutsen. <sup>22</sup>Eta auxe erantzun eutsen: "Zoaze, eta esan egiozue Yon'i ikusi ta entzun dozuena: Itsuak ikusi egiten dabe, errenak ba-dabiz, legenardunak garbi gelditzen dira, gorrak entzun egiten dabe, ildakoak biztu egiten dira, beartsuai Barri Ona iragarten yake. <sup>23</sup>Eta zoriotsua, nigan galbiderik izan ez dagiana!"

<sup>24</sup>Yon'ek bialdutakoak urrundu ziranean, Jesus la-guntaldeari Yon'i buruz berba egiten asi yakon: "Zer ikustera urten zaree basamortura? Aizeak darabillen kai-ñaberen bat? <sup>25</sup>Zer ikustera urten zaree, bestela? Apain jantzitako gizonen bat? Ez! Apain-apain jazten eta bi-gunkrietan bizi diranak, jauregietan egoten dira. <sup>26</sup>Zer ikustera urten zaree, ba? Igarleren bat? Bai, benetan di-rautsuet, baita igarlea baiño aundiagoa be. <sup>27</sup>Auxe berau da beronetaz idatzita dagoan au:

*Begira: neure aingerua bialtzen dot zure aurretik\*, aurretiaz bidea atonduko dautsuna.*

<sup>28</sup>Auxe dirautsuet: emakumegandik jaiotakoen ar-tean, ez da iñor Yon baiño aundiagorik. Alan be, Jaun-goikoaren Erreiñuan txikiena, a baiño aundiagoa da".

(Mt. 21, 31-32)

<sup>29</sup>Ori entzun eutsan erri guztiak, baita zerga-batzai-lleak be, Jaungoikoaren zuzentasuna ontzat artu eben, Yon'en bateoa arturik. <sup>30</sup>Pariseuak eta lege-irakasleak, barriz, Yon'en bateoa ez artzeaz, euronganako Jaungoi-koaren asmoa ondatu egin eben.

### Bere gizaldia epaitzen

(Mt. 11, 16-19)

<sup>31</sup>"Noren parean jarriko dodaz gizaldi onetako gizo-nak? Eta noren antzeko dira? <sup>32</sup>Plazan jesarrita dagozan

7. 27 Mat. 3. 1.

a Juan lo que habéis visto y oído: Los ciegos ven, los cojos andan, los leprosos quedan limpios, los sordos oyen, los muertos resucitan, se asuncia a los pobres la Buena Nueva; <sup>23</sup>y dichoso aquel que no se escandalice de mí!"

<sup>24</sup>Cuando los mensajeros de Juan se alejaron, se pu-so a hablar de Juan a la gente: "¿Qué salisteis a ver en el desierto? ¿Una caña agitada por el viento? <sup>25</sup>¿Qué salisteis a ver si no? ¿Un hombre vestido con ropas elegantes? ¡No! Los que visten magníficamente y viven con molicie están en los palacios. <sup>26</sup>Entonces, ¿qué sa-listeis a ver? ¿Un profeta? Sí, os lo aseguro, y más que profeta. <sup>27</sup>Este es de quien está escrito:

*He aquí que envío mi mensajero delante de ti\*, el cual te preparará por delante el camino.*

<sup>28</sup>"Os digo: Entre los nacidos de mujer no hay ninguno mayor que Juan; sin embargo el más pequeño en el Reino de Dios es mayor que él.

(Mt. 21, 31-32)

<sup>29</sup>Todo el pueblo que le escuchó, incluso los publi-canos, reconocieron la justicia de Dios, haciéndose bau-tizar con el bautismo de Juan. <sup>30</sup>Pero los fariseos y los legistas, al no dejarse bautizar por él, frustraron el plan de Dios sobre ellos.

### Jesús juzga a su generación

(Mt. 11, 16-19)

<sup>31</sup>"¿Con quién, pues, compararé a los hombres de esta generación? Y ¿a quién se parecen? <sup>32</sup>Se parecen a

7. 27 delante de ti. Cita de Mt. 3. 1.



mutikoen antzekoak dira, alkarri deadarka dirautsoenean: *Guk txistua jo dautsuegu, eta zuek ez dozue dantzarik egin; guk negar-soiñuak asi, eta zuek negarrik egin ez.* <sup>33</sup>Izan be, etorri da Yon Bateatzaillea, ez ogirik jaten, ez ardaorik edaten ez ebalá, eta 'Deabrua dauko', diño-zue zuek. <sup>34</sup>Etorri da Gizasemea, jan-edan egiten dauala, eta 'Orra gizon jatun eta moskorra, zerga-batzailleen eta pekatarien adiskidea', diño-zue. <sup>35</sup>Eta Jakiturari<sup>o</sup> bere seme guztiak emon dautsoe izen ona".

#### Emakume pekataria, parkatua\*

<sup>36</sup>Pariseo batek beragaz bazkaldu egiala eskatu eutsan Jesus'i; eta, pariseuaren etxean sarturik, maian jarri zan. <sup>37</sup>Urian emagaldú bat zan; eta Jesus'ek pariseuaren etxean bazkaltzen ziarduala jakitean, usaingarriz heteriko artzuri-ontzi<sup>o</sup> bat artu eban; <sup>38</sup>eta atzean Jesus'en oiñetan jarrita, negarrez asi zan; eta oiñak bere negar-malkoakaz bustiten eutsazan eta bere buruko uleakaz sikatzen; Aren oiñai mun egiten eutsen eta usaingarriaz igurtziten ebazan.

<sup>39</sup>Jesus'i dei egin eutsan pariseuak ori ikustean, auxe iñoan berekautan: "Au igarle ba'litz, jakingo leuke onek nor eta zelako emakumea dan ikutzen dautsan emakume ori, emakume pekataria da-ta". <sup>40</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: "Simon, ba-dot, ba, zerbait zuri esateko". "Esan, ba, Irakasle", esan eban Simon'ek. <sup>41</sup>"Diru-aurreratzaille batek zordun bi ebazan. Batek bosteun denario zor eutsazan, eta besteak berrogetamar. <sup>42</sup>Zorra garbitzekorik ez eben-eta, biai parkatu egin eutsen. Bi-

7, 36 Emakume pekataria, parkatua. Lukas'ek azaltzen dauan jazonen au eta Betania'koa (Mt. 26, 6; Mk. 14, 3; Yn. 12, 1) ez dira bardiñak. Emakumea ez da Magdala'ko Mari (8, 2), ezta Marta'ren aizta be (10, 39; Yn. 11-12).

\* Jakiturari = Jaungoikoari.

\* Artzuri-ontzi: frasco de alabastro.

los chiquillos que están sentados en la plaza y se gritan unos a otros diciendo: 'Os hemos tocado la flauta, y no habéis bailado, os hemos entonado endechas, y no habéis llorado'.

<sup>33</sup>"Porque ha venido Juan el Bautista, que no comía pan ni bebía vino, y decís: 'Demonio tiene'. <sup>34</sup>Ha venido el Hijo del hombre, que come y bebe, y decís: 'Ahí tenéis a un comilón y un borracho, amigo de publicanos y pecadores'. <sup>35</sup>Y la Sabiduría se ha acreditado por todos sus hijos".

#### La pecadora perdonada\*

<sup>36</sup>Un fariseo le rogó que comiera con él; y, entrando en la casa del fariseo, se puso a la mesa. <sup>37</sup>Había en la ciudad una mujer pecadora pública, quien al saber que estaba comiendo en casa del fariseo, tomó un frasco de alabastro de perfume, <sup>38</sup>y poniéndose detrás, a los pies de él, comenzó a llorar, y con sus lágrimas le mojaba los pies y con los cabellos de su cabeza se los secaba, besaba su pie y los ungía con el perfume.

<sup>39</sup>Al verlo el fariseo que le había invitado, se decía para sí: "Si éste fuera profeta, sabría quién y qué clase de mujer es la que le está tocando, pues es una pecadora". <sup>40</sup>Jesús le respondió: "Simón, tengo algo que decirte". El dijo: "Di, maestro". <sup>41</sup>Un acreedor tenía dos deudores; uno debía quinientos denarios y el otro cincuenta. <sup>42</sup>Como no tenían para pagarle, perdonó a los dos. ¿Quién de ellos le amará más?" <sup>43</sup>Respondió Simón: "Supongo que aquel a quien perdonó más".

7, 36 La pecadora perdonada. Episodio propio de Lc., distinto de la unción de Betania, Mt. 26, 6s; Mc. 14, 3s; Jn. 12, 1s. La mujer no es María de Magdala, 8, 2, ni la hermana de Marta, 10, 39; Jn. 11-12.

etarik nok izango ete-dau a maiteago?" <sup>43</sup>"Nire ustez, geiago parkatu yakonak", erantzun eutsan Simon'ek. "Ondo ebatzi dozu", esan eutsan Jesus'ek.

<sup>44</sup>Eta emakumeagana bihurturik, Simon'i auxe esan eutsan: "Ikusten dozu emakume au? Ni zure etxean sartzean, ez daustazu oiñetarako urik emon; onek, osterá, nire oiñak bere negar-malkoakaz busti ta bere uleakaz sikatu dauz. <sup>45</sup>Ez daustazu laztanik emon; au, osterá, sartu danetik, ez da aspertu nire oiñai mun egitez. <sup>46</sup>Zuk ez daustazu burua orioaz igurtzi; onek, osterá, oiñak usaingarriaz igurtzi daustaz. <sup>47</sup>Orregaitik, auxe dirautsut nik: maitasun aundia agertu daualako, bere pekatu ugariak perkatuta gelditzen yakoz\*. Gutxi parkatzen yakonak, maitasun gutxi agertzen dau". <sup>48</sup>Eta emakumeari auxe esan eutsan: "Parkatuta gelditzen dira zure pekatuak". <sup>49</sup>Mai-lagunak eurokautan esaten asi ziran: "Nor da pekatuak be parkatzen dauzan au?" <sup>50</sup>Baiña Jesus'ek emakumeari auxe esan eutsan: "Zeure sinismenak salbatu zaitu. Zoaz bakean".

### Jesus'i lagun egiten eutsoen emakumeak

(Mt. 4, 23; 9, 35; Mk. 1, 39. Cf. Lk. 43-44)

**8** <sup>1</sup>Gero, uri ta errietan zear Jaungoakoaren Erreiña iragarten eta zabaltzen ziarduan; Amabiak yozazan Jesus'egaz, <sup>2</sup>baita gogo gaizto ta geisoetatik osatutako emakume batzuk be; Madalen eritxon Mari, zazpi debru urten izan yakozana, <sup>3</sup>eta Yone, Erodos'en etxezain Kusa'ren emaztea; Susana, eta beste asko, euren ondasunakaz Jesus'i lagun egiten eutsoenak.

### Ereillearen ipuiña

(Mt. 13, 1-9; Mk. 4, 1-9)

<sup>4</sup>Laguntalde aundia batu zala, eta uri guztietatik

<sup>7, 47</sup> Edo-ta bardin dana: maitasun andia agertzen ba'dau, bere pekatuak parkatu yakozalako da.

El le dijo: "Has juzgado bien"; <sup>44</sup>y volviéndose hacia la mujer, dijo a Simón: "¿Ves a esta mujer? Al entrar en tu casa no me diste agua para los pies. Ella, en cambio, ha mojado mis pies con lágrimas y los ha secado con sus cabellos. <sup>45</sup>No me diste el beso. Ella, desde que entró, no ha dejado de besarme los pies. <sup>46</sup>No ungiste mi cabeza con aceite. Ella ha ungido mis pies con perfume. <sup>47</sup>Por eso te digo que quedan perdonados sus muchos pecados, porque ha mostrado mucho amor\*. A quien poco se le perdona, poco amor muestra". <sup>48</sup>Y le dijo a ella: "Tus pecados quedan perdonados". <sup>49</sup>Los comensales empezaron a decirse para sí: "¿Quién es éste que hasta perdona los pecados?" <sup>50</sup>Pero él dijo a la mujer: "Tu fe te ha salvado. Vete en paz".

### Mujeres que acompañaban a Jesús

(Mt. 4, 23; 9, 35; Mc. 1, 39; Cf. Lc. 43-44)

**8** <sup>1</sup>A continuación iba por ciudades y pueblos, proclamando y anunciando la buena nueva del Reino de Dios; le acompañaban los Doce, <sup>2</sup>y algunas mujeres que habían sido curadas de espíritus malignos y enfermedades: María, llamada Magdalena, de la que habían salido siete demonios, <sup>3</sup>Juana, mujer de Cusa, un administrador de Herodes, Susana y otras muchas que les servían con sus bienes.

### Parábola del sembrador

(Mt. 13, 1-9; Mc. 4, 1-9)

<sup>4</sup>Habiéndose reunido mucha gente, y viniendo a él

<sup>7, 47</sup> mucho amor. Es decir: si muestra mucho amor es porque se le han perdonado sus pecados.



Beragana etorririk, ipuiñetan auxe esan eban: <sup>5</sup>“Ereille bat bere azia ereitera urten zan; eta azia ereitean, azi batzuk bide-ondoan jausi ziran, zapalduak izan ziran, eta zeruko egaztiak jan egin ebezan: <sup>6</sup>beste azi batzuk arkaitz-gaiñean jausi ziran; eta erneta gero, igartu egin ziran, bustirik ez eben-eta; <sup>7</sup>beste batzuk sasi-artean jausi ziran; eta arekaz batera sasiak azirik, ito egin ebezan. <sup>8</sup>Eta beste azi batzuk lur onean jausi ziran, eta azirik, bateko eun emon eben”. Au esanda, deadarka esan eban: “Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala”.

### Zegaitik egiten dautse berba ipuiñetan?

(Mt. 13, 10-11; Mk. 4, 10-12)

<sup>9</sup>Ipuin onek zer adierazo eikean itauntzen eutsoen bere ikasleak; <sup>10</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: “Jaungoikoaren Erreiñuko ezkutuatik ezagutzea emon yatzue zuei; besteai, ipuiñetan emoten yake: *ikusirik, ikusi ez dagian, eta entzunik, ulertu ez dagian*\*.

### Ereillearen ipuiña azaltzen dautse

(Mt. 13, 18-23; Mk. 4, 14-20)

<sup>11</sup>“Ipuin onek auxe adierazoten dau: Azia, Jaungoikoaren berb(e)a da. <sup>12</sup>Bide-ondoan jausitakoak, berba ori entzun dabenak dira: gero, deabrua ba-dator eta ba-daroa berba ori arein biotzetik: bada-epada be sinistu ta zeruratu (*salbatu*) ez daitezan. <sup>13</sup>Arkaitz-gaiñekoak, itza entzutean, pozik artzen dabenak dira; baiña oneik ez dauke zusterrik; sinistu, bai, egiten dabe apur baten, baiña zirikalduan (*tentaldian*) atzeruntz egiten dabe. <sup>14</sup>Sasietan jausi zan azia, itza entzun ebenak dira; baiña, bidean doazala, bizitzako buruauste, aberastasun eta atsegiñak dirala-ta, ito egiten dira, eta ez dira eltzen.

de todas las ciudades, dijo en parábola:

<sup>5</sup>“Salió un sembrador a sembrar su simiente; y al sebrar, una parte cayó a lo largo del camino, fue pisada, y las aves del cielo se la comieron; <sup>6</sup>otra cayó sobre la roca, y después de brotar, se secó, por no tener humedad; <sup>7</sup>otra cayó en medio de abrojos, y creciendo con ella los abrojos, la ahogaron. <sup>8</sup>Y otra cayó en tierra buena, y creciendo dio fruto centuplicado”. Dicho esto exclamó: “El que tenga oídos para oír, que oiga”-

### Por qué habla Jesús en parábolas

(Mt. 13, 10-11; 13; Mc. 4, 10-12)

<sup>9</sup>Le preguntaban sus discípulos qué significaba esta parábola, <sup>10</sup>y él dijo: “A vosotros se os ha dado el conocer los misterios del Reino de Dios; a los demás sólo en parábolas, para que *viendo, no vean y oyendo, no entiendan*\*.

### Explicación de la parábola del sembrador

(Mt. 13, 18-23; Mc. 4, 14-20)

<sup>11</sup>“La parábola quiere decir esto: La simiente es la Palabra de Dios. <sup>12</sup>Los de a lo largo del camino, son los que han oído; después viene el diablo y se lleva de su corazón la Palabra, no sea que crean y se salven. <sup>13</sup>Los de sobre la roca son los que, al oír la Palabra, la reciben con alegría; pero éstos no tienen raíz; crecen por algún tiempo, pero a la hora de la prueba desisten. <sup>14</sup>Lo que cayó entre los abrojos, son los que han oído, pero a lo largo de su caminar son ahogados por las preocupaciones, las riquezas y los placeres de la vida, y no llegan a madurez. <sup>15</sup>Lo que en buena tierra, son los que, después de haber oído, conservan la Palabra

<sup>15</sup>Lur onekoa, itza entzunda gero, biotz onez eta zuzenez gordeten dabenak dira; eta oneik, ekiñez-ekiñez, frutua dakarre.

#### Argi-ontziaren ipuiña

(Mk. 4, 21-22; Mt. 5, 15; Lk. 11, 33; Mt. 10, 26; Lk. 12, 2; Mt. 13, 12; 25, 29. Mk. 4, 24-25; Lk. 19, 26)

<sup>16</sup>“Ez dau iñok argia iziotu ta ontzi bat az estaltzen, edo oge-pean ipinten, bestetara baiño: argi-ontzi-gaiñean ipinten dau, sartu daitezanak argia ikusi dagien. <sup>17</sup>Izan be, ez dago ezer be gordeta, gero agirian geldituko ez danik; ezta isilpekorik be, ezagutua ta agertua izango ez danik. <sup>18</sup>Begira, ba, zelan entzuten dozen: euki daukanari, emon egingo yako-ta; ez daukanari, ostera, ba-daukala sinisten dauana be kendu egingo yako”.

#### Jesus'en benetako senitartea

(Mt. 12, 46-50; Mk. 3, 31-35)

<sup>19</sup>Bere ama ta anaiak (*senideak*) etorri ziran Jesus' egana; baiña, laguntaldea zala-ta, ezin eldu ziran beragana. <sup>20</sup>Dei au bialdu eutsen: “Zure ama ta anaiak kanpoan dagoz, eta zeu ikusi nai zaitue”. <sup>21</sup>Baiña, Jesus'ek auxe erantzun eutsen: “Jaungoikoaren itza entzuten eta beteten dabenak dira nire ama ta anaiak”.

#### Ekaitza, baretuta

(Mt. 8, 23-27; Mk. 4, 35-41)

<sup>22</sup>Egun baten, Jesus bere ikasleak txalupa batera igo zan, eta auxe esan eutsen: “Goazan itxasoaren beste ertzera”. Eta itxasora jo eben. <sup>23</sup>Eta itxasoan yoiazala, Jesus loak artu eban. Itxas-gaiñera aize-aldia jatsi zan; txalup(e)a ondatzen asi ta arriskuan egozan. <sup>24</sup>Orduan, Jesus'egana urreraturik, iratzartu egin eben, esanez: “Irakasle, galduak gara!” Iratzartu, eta aizeari ta olatuai agindu egin eutsen, eta gelditu egin ziran, eta barealdi ederra egin zan. <sup>25</sup>Orduan, auxe esan eutsen: “Nun da

con corazón bueno y recto, y fructifican con perseverancia.

#### Parábola de la lámpara

(Mc. 4, 21-22; Mt. 5, 15; Lc. 11, 33; Mt. 10, 26 Lc. 12, 2; Mt. 13, 12; 25-29; Mc. 4, 24-25; Lc. 19, 26)

<sup>16</sup>“Nadie enciende una lámpara y la cubre con una vasija, o la pone debajo de un lecho, sino que la pone sobre un candelero, para que los que entren vean la luz. <sup>17</sup>Pues nada hay oculto que no quede manifiesto, y nada secreto que no venga a ser conocido y descubierto. <sup>18</sup>Mirad, pues, cómo oís; porque al que tenga, se le dará; y al que no tenga, aun lo que crea tener se le quitará”.

#### El verdadero parentesco de Jesús

(Mt. 12, 46-50; Mc. 3, 31-35)

<sup>19</sup>Se presentaron donde él su madre y sus hermanos, pero no podían llegar hasta él a causa de la gente. <sup>20</sup>Le anunciaron: “Tu madre y tus hermanos están ahí fuera y quieren verte”. <sup>21</sup>Pero él les respondió: “Mi madre y mis hermanos son aquellos que oyen la Palabra de Dios y la cumplen”.

#### La tempestad calmada

(Mt. 8, 23-27; Mc. 4, 35-41)

<sup>22</sup>Cierta día subió a una barca con sus discípulos, y les dijo: “Pasemos a la otra orilla del lago”. Y se hicieron a la mar. <sup>23</sup>Mientras ellos navegaban, se durmió. Se abatió sobre el lago una borrasca; se inundaba la barca y estaban en peligro. <sup>24</sup>Entonces, acercándose, lo despertaron, diciendo: “¡Maestro, Maestro, que perecemos!” El, habiéndose despertado, conminó al viento y al oleaje, que amainaron, y sobrevino la bonanza. <sup>25</sup>Entonces les dijo: “¿Dónde está vuestra fe?” Ellos,



zuen sinismena?" Areik, bildurrez beterik arrituta egozan, alkarri zirautsoela: "Nor da, gero, au?, aizeai ta urari aginduta, oneik esana egiten dautsoen au?"

### Jerasa'ko deabruduna

(Mt. 8, 28-34; Mk. 5, 1-20).

<sup>26</sup>Galilea'ren aurrez-aurre dagoan Jerasatarren lurraldera eldu ziran. <sup>27</sup>Oiñak lagorrearan jartean, uritik gizon bat etorri yakon bidera; gizon ori deabruak artuta euken, eta aspaldian ez eban soiñekorik jazten, ezta etxean bizi be ez zan egiten, illobietan baiño. <sup>28</sup>Jesus ikustean, aurrean auzpatu yakon, deadarka baten zirautsala: "Zer dot nik zutzaz, Jesus, Jaungoiko Gorengoaren seme orretzaz? Ez nagizula oiñazetu eskatzen dautsut". <sup>29</sup>Gizon aregandik urten zedilla agintzen eutsan Jesus'ek gogo zikiñari-ta. Izan be, beabruak sarritan artzen eban; kataiz eta burdiñazko estunez lotzen eban, zaintzeko; baiña kataiak ausirik, deabruak basamortura egiten eutsan bultza. <sup>30</sup>"Zelan dozu izena?", itandu eutsan Jesus'ek. "Taldea" erantzun eutsan arek; aregan deabru asko sartu ziran-eta. <sup>31</sup>Eta ez egizala lezara bialdu, eskatzen eutsoen Jesus'i.

<sup>32</sup>Txarri-talde aundi bat egoan an, mendian larrean (*jaten*); eta eurakana sartzen itxi egi(ts)ela eskatu eutsoen deabruak; eta Jesus'ek itxi egin eutsen. <sup>33</sup>Deabruak gizon aregandik urten eta txarriakan sartu ziran, eta txarri-taldea aldapa-beera itxasora amildu ta ito egin zan. <sup>34</sup>Txarri-zaiñak, jazo zana ikusirik, iges egin eta barria uri ta baserrietan zabaldu eban. <sup>35</sup>Urten ziran, ba, jazorikoa ikustera, eta, Jesus'egana eldurik, deabruak urten izan yakozan gizona aurkitu eban, jesarrita, jantzita eta bere senera biurtuta, Jesus'en oiñetan; eta bildurrez bete ziran. <sup>36</sup>Jazorikoa ikusi izan ebenak, deabruduna zelan izan zan osatua azaldu eutseen. <sup>37</sup>Orduan, Jerasatarren erri-aldeko laguntalde guztiak eurakandik alde egiteko

lentos de temor, se decían unos a otros maravillados: "Pues ¿quién es éste, que impera a los vientos y el agua, y le obedecen?"

### El endemoniado de Gerasa

(Mt. 8, 28-34; Mc. 5, 1-20)

<sup>26</sup>Arribaron a la región de los gerasenos, que está frente a Galilea. <sup>27</sup>Al saltar a tierra, vino de la ciudad a su encuentro un hombre, poseído por los demonios, y que hacía mucho tiempo que no llevaba vestido, ni moraba en casa, sino en los sepulcros.

<sup>28</sup>Al ver a Jesús, cayó ante él, gritando con gran voz: "¿Qué tengo yo contigo, Jesús, Hijo de Dios Altísimo? Te suplico que no me atormentes". <sup>29</sup>Es que él había mandado al espíritu inmundo que saliera de aquel hombre; pues en muchas ocasiones se había apoderado de él; le ataban con cadenas y grillos para custodiarle, pero rompiedo las ligaduras era empujado por el demonio al desierto. <sup>30</sup>Jesús le preguntó: "¿Cuál es tu nombre?" El contestó: "Legión"; porque habían entrado en él muchos demonios. <sup>31</sup>Y le suplicaban que no les mandara irse al abismo.

<sup>32</sup>Había allí una gran piara de puercos paciendo en el monte; y le suplicaron que les permitiera entrar en ellos; y se lo permitió. <sup>33</sup>Salieron los demonios de aquel hombre y entraron en los puercos; y la piara se arrojó de lo alto del precipicio, y se ahogó.

<sup>34</sup>Viendo los porqueros lo que había pasado, huyeron y lo contaron por la ciudad y por las aldeas. <sup>35</sup>Salieron, pues, a ver lo ocurrido, y llegando donde Jesús, encontraron al hombre del que habían salido los demonios, sentado, vestido y en su sano juicio, a los pies de Jesús; y se llenaron de temor. <sup>36</sup>Los que lo habían visto, les contaron cómo había sido salvado el endemoniado. <sup>37</sup>Entonces toda la gente del país de los



eskātu eutsoen Jesus'i, bildurrez be bildurrez egozala-ta. Jesus txalupara igo ta biurtu egin zan.

<sup>38</sup>Deabruak urten izan yakozan gizonak, beragaz egoten izteko eskatzen eutsan Jesus'i; baiña Jesus'ek bialdu egin eban, esanez: <sup>39</sup>"Biurtu zaitez etxera ta Jaungoikoak egin dautsun guztia azaldu egizu". Eta uri guztian zear joan zan, Jesus'ek egin izan eutsan guztia iragarten.

**Odol-jariduna osatzen dau.  
Jairo'ren alab(e)aren biztuera**

(Mt. 8, 18-26; 5, 21-43)

<sup>40</sup>Jesus biurtu zanean, abegi onez artu eban laguntaldeak: guztiak Aren zain egozan-eta. <sup>41</sup>Sinagogako buru zan Jairo izeneko gizon bat etorri zan; eta, Jesus'en oiñetan auzpaturik, bere etxean sartu zedilla eskatzen eutsan; <sup>42</sup>amabiren bat urteko alaba bakarra il-zorian eukala-ta. Joan yoi'an artean, laguntaldeak Jesus estutu ta estutu egiten eban.

<sup>43</sup>Orduan, amabi urte areitan odol-jarioz geisorik egoan emakume batek, iñok be osatu eziñik egoan emakume batek, <sup>44</sup>atzetik urreratu ta soingaiñeko ertza ikutu eutsan Jesus'i; eta bat-batean odol-jarioa gelditu egin yakon. <sup>45</sup>Jesus'ek auxe esan eban: "Nok ikutu nau?" Guztiak ezetz iñoen ezker, Pedro'k eta onegaz egozanak auxe esan eban: "Irakasle, laguntaldeak estutu ta sakatu egiten zaitue". <sup>46</sup>Baiña Jesus'ek auxe esan eban: "Norbaitek ikutu egin nau, nigandik indarra urten dala somatu dot-eta". <sup>47</sup>Emakumea, bere burua agirian egoala ikusirik, ikara-ikara urreratu zan; eta Jesus'en aurrean auzpaturik, erri guztiaren aurrean esan eban Jesus zegaitik ikatu eban, eta zelan izan zan bat-batean osatua. <sup>48</sup>Jesus'ek auxe esan eutsan: "Alaba, zeure sinismenak osatu zaitu; zoaz bakean".

<sup>49</sup>Berba egiten ziarduan artean, sinagogako negusiarren etxetik norbait dator, esanez: "Zure alab(e)a il egin da. Ez egiozu, onezkero, Irakasleari gogaitik eragin".

gerasenos le rogaron que se alejara de ellos, porque estaban poseídos de gran temor. El, subiendo a la barca, regresó.

<sup>38</sup>El hombre de quien habían salido los demonios, le pedía estar con él; pero le despidió, diciendo: <sup>39</sup>"Vuelve a tu casa y cuenta todo lo que Dios ha hecho contigo". Y fue por toda la ciudad proclamando todo lo que Jesús había hecho con él.

**Curación de una hemorroísa y  
resurrección de la hija de Jairo**

(Mt. 9, 18-26; Mc. 5, 21-43)

<sup>40</sup>Cuando regresó Jesús, le recibió la muchedumbre, pues todos le estaban esperando. <sup>41</sup>Se llegó un hombre, llamado Jairo, que era jefe de la sinagoga, y cayendo a los pies de Jesús, le suplicaba entrara en su casa, <sup>42</sup>porque tenía una sola hija, de unos doce años, que estaba a punto de morir. Mientras iba, las gentes le ahogaban.

<sup>43</sup>Entonces, una mujer que padecía flujo de sangre desde hacía doce años, y que no había podido ser curada por nadie, <sup>44</sup>se acercó por detrás y tocó la orla de su manto y al punto se le paró el flujo de sangre. <sup>45</sup>Jesús dijo: "¿Quién me ha tocado?" Como todos negasen, dijo Pedro y los que con él estaban: "Maestro, las gentes te aprietan y te oprimen". <sup>46</sup>Pero Jesús dijo: "Alguien me ha tocado, porque he sentido que una fuerza ha salido de mí". <sup>47</sup>Viéndose descubierta la mujer, se acercó temblorosa, y postrándose ante él, contó delante de todo el pueblo por qué razón le había tocado, y cómo al punto había sido curada. <sup>48</sup>El le dijo: "Hija, tu fe te ha salvado; vete en paz".

<sup>49</sup>Estaba todavía hablando, cuando uno de casa del jefe de la sinagoga llega diciendo: "Tu hija muerta está. No molestes ya al Maestro". <sup>50</sup>Jesús, que lo oyó,



<sup>50</sup>Jesus'ek ori entzun eta auxe esan eutsan: "Ez bildurtu; izan egizu sinismena bakar-bakarrik, eta osatua izango da". <sup>51</sup>Etxera eldurik, ez eban itxi iñor beragaz sartu zedin, Pedro, Yon, Santiago, eta neskatoaren aita ta ama izan ezik. <sup>52</sup>Neskatoagaitik, guztiak negarrez eta samíñez egozan; baiña Jesus'ek auxe esan eban: "Ez negarrik egin; ez da il; lo dago". <sup>53</sup>Eta irri ta barre egiten eutsoen, ba-ekien ilda egoana-ta. <sup>54</sup>Jesus'ek, neskatoari eskutik oraturik, abots argiz esan eban: "Neskato, jagi zaitetz". <sup>55</sup>Barrero etorri yakon arnasa, eta jagi egin zan batbatean; eta neskatoari jaten emon egioela agindu eutsen. <sup>56</sup>Neskatoaren gurasoak arrituta gelditu ziran; eta jazo izan zana iñori be ez esateko agindu eutsen Jesus'ek.

### Amabien eginkizuna

(Mt. 10, 5, 9-14; Mk. 6, 7-13)

**9** <sup>1</sup>Amaibai dei egiñik, deabru guztiak buruzko aalmen eta eskubidea emon eutsen, geisoak osatu egiezan be bai; <sup>2</sup>eta Jaungoikoaren Erreiñua iragartera ta geisoak osatzera bialdu ebazan. <sup>3</sup>Eta auxe esan eutsen: "Ez artu ezer biderako, ez makillarik, ez zorrerik, ez ogirik, ez dirurik, ezta barruko jantzi birik be ez euki. <sup>4</sup>Etxe baten sartu zaitezenean, gelditu bertan eta izan daitela andixek zuen urteera. <sup>5</sup>Onartu ez zagiezenai buruz, barriz, uri aretatik urtenik, astindu egizue zuen oiñetako autsa, arein aurkako agiritzat".

<sup>6</sup>Andik urtenik, ba, erririk erri ibili ziran, alde guztietan Barri Ona iragarten eta geisoak osatzen.

### Erodes eta Jesus

(Mt. 14, 1-2; Mk. 6, 14-16)

<sup>49</sup>“Por eso dijo la Sabiduría de Dios: Les enviaré profetas y apóstoles, y a algunos los matarán y perseguirán, <sup>50</sup>para que se pidan cuentas a esta generación de la sangre de todos los profetas derramada desde la creación del mundo, <sup>51</sup>desde la sangre de Abel hasta la sangre de Zacarías, el que pereció entre el altar y el Santuario. Sí, os aseguro que se pedirán cuentas a esta generación”.

<sup>52</sup>¡Ay de vosotros, los legistas, que os habéis llevado la llave de la ciencia! No entrasteis vosotros, y a los que querían entrar se lo habéis impedido”.

<sup>53</sup>Y cuando salió de allí, comenzaron los escribas y fariseos a acosarle implacablemente y hacerle hablar de muchas cosas, <sup>54</sup>buscando, con insidias, cazar alguna palabra de su boca.



### Zabal-zabal eta bildur baqarik egin berba

(Mt. 16, 6, 12; 10, 26-27; Mk. 8, 15; 4, 22; Lk. 8, 17)

**12** <sup>1</sup>Onetan, millaka ta millaka lagun batu zirala, alkar zapaltzeraiño batu be, Jesus berba egiten asi yaken, eta bere ikasleai lenengo: "Zaindu egizuez zuen buruok pariseuen legamiñetik, edo bardin dana, azaluskeritik. <sup>2</sup>Ezer be ez dago estalduta, agiri izango ez danik; ezta ezkutuan be, jakingo ez danik. <sup>3</sup>Izan be, zuek illunetan esan zenduena, argi-argitan entzuna izango da; eta bakotxaren geletan belarrira esan zenduena, etxe-gaiñetatik iragarria izango da.

(Mt. 10, 28-31)

<sup>4</sup>Zeuei diratsuet, nire adiskideoi: Ez izan bildurrik gorputza il baiño ezin daikeenai. <sup>5</sup>Irakatsiko dau-tsuet nori bildur izan: gorputza il ondoren, su-lezara (*inpernura*) jaurtiteko eskubidea daukanari bildur izan egiozue; bai, ba-dirautsuet: orrexeri izan egiozue bildur.

<sup>6</sup>Ez ete-dira bost txoritxo txanpon bitan saltzen? Alan be, areitariko bat bakarrik be ez yako aaztuten Jaungoikoari. <sup>7</sup>Zuen buruko uleak be guzti-guztiak dagoz zenbatuta (*kontauta*). Ez bildurrik izan. Txoritxo askok baiño geiago balio dozue zuek.

(Mt. 10, 32-33; Mk. 8, 38; Lk. 9, 26)

<sup>8</sup>Gizonen aurrean neure alde agertu daiten edonor, Gizasemea be alakoaren alde agertuko da Jaungoikoaren aingeruen aurrean. <sup>9</sup>Gizonen aurrean ukatu nagiana, barriz, ukatua izango da Jaungoikoaren aingeruen aurrean.

### Hablar francamente y sin temor

(Mt. 16, 6, 12; 10, 26-27; Mc. 8, 15; 4, 22; Lc. 8, 17)

**12** <sup>1</sup>En esto, habiéndose reunido miles y miles de personas, hasta pisarse unos a otros, se puso a decir primeramente a sus discípulos: "Guardaos de la levadura de los fariseos, que es la hipocresía. <sup>2</sup>Nada hay encubierto que no haya de descubrirse, ni oculto que no haya de saberse. <sup>3</sup>Porque cuanto dijisteis en la oscuridad, será oído a plena luz, y lo que hablasteis a oído en las habitaciones privadas será proclamado desde los terrados.

(Mt. 10, 28-31)

<sup>4</sup>"Os digo a vosotros, amigos míos: No temáis a los que matan el cuerpo, y después de esto no pueden hacer más. <sup>5</sup>Os mostraré a quién debéis temer: temed a Aquél que, después de matar, tiene poder para arrojar a la gehenna; sí, os repito: temed a ése.

<sup>6</sup>"¿No se venden cinco pajarillos por dos ases? Pues bien, ni uno de ellos está olvidado ante Dios. <sup>7</sup>Hasta los cabellos de vuestra cabeza están todos contados. No temáis; valéis más que muchos pajarillos".

(Mt. 10, 32-33; Mc. 8, 38; Lc. 9, 26)

<sup>8</sup>"Yo os digo: Por todo el que se declare por mí ante los hombres, también el Hijo del hombre se declarará por él ante los ángeles de Dios. <sup>9</sup>Pero el que me niegue delante de los hombres, será negado delante de los ángeles de Dios.

(Mt. 12, 32; Mk. 3, 29)

<sup>10</sup>Gizasemearen aurka berba bat esan dagian edonori, parkatu egingo yako; Espiritu Santuaren aurka biraoa esan dagianari, barriz, ez yako parkatuko.

(Mt. 10, 17-20; Mk. 13, 11; Lk. 21, 12-15)

<sup>11</sup>Sinagogetara, auzi-gizonen eta agintarien aurrera eroan zagiezenean, ez arduratu zer zelan erantzungo, edota zer esango dozuen: <sup>12</sup>esatea egoki yatzuena, Espiritu Santuak irakatsiko dautsue une aretan bertan-eta.

### Ez pillatu aberastasunik

<sup>13</sup>Laguntaldeko batek auxe esan eutsan: "Irakasle, esan egiozu nire anaiari, bere oiñordekotasuna nigaz erdibana egin dagiala". <sup>14</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: "Gizon!, nok jarri nau ni zuen arteko ebazle edo erdibanatzaillle?" <sup>15</sup>Eta auxe esan eutsen: "Begira ta gorde zuen buruok diru-gosetatik: gaiñezka eukiarren be, norbere bizitza ez dago bere ondasunetan indartuta-ta".

<sup>16</sup>Ipuin az esan eutsen: "Gizon aberats baten soloak frutua ugari ekarri eben: <sup>17</sup>eta berekautan auxe iñoan: 'Zer egingo dot nik, nire frutuak gordeteko lekurik ez daukat-eta? <sup>18</sup>Auxe egingo dot —esan eban—: nire gaurtegiak lurrera bota, beste aundiago batzuk jaso ta antxe batuko dodaz nire gari ta ondasun guztiak; <sup>19</sup>eta nire arim(e)ari auxe esango dautsat: Arima, ondasun asko daukazuz batuta urte askotarako. Atsedean artu, jan, edan, oparo bizi'. <sup>20</sup>Baiña Jaungoikoak auxe esan eutsan: 'Zoro ori! Gaur gabean bertan eskatuko dautsue arim(e)a; atondu dozuzan gauzak, norentzat izango ete-dira?' <sup>21</sup>Olakoxea da aberastasanak beretzat pillatu bai, baiña Jaungoikoari buruz aberasten ez dana".

(Mt. 12, 32; Mc. 3, 29)

<sup>10</sup>"A todo el que diga una palabra contra el Hijo del hombre, se le perdonará; pero al que blasfeme contra el Espíritu Santo, no se le perdonará.

(Mt. 10, 17-20; Mc. 13, 11; Lc. 21, 12-15)

<sup>11</sup>"Cuando os lleven a las sinagogas, ante los magistrados y las autoridades, no os preocupéis de cómo os defenderéis, o qué diréis, <sup>12</sup>porque el Espíritu Santo os enseñará en aquel mismo momento lo que conviene decir".

### No acumular riquezas

<sup>13</sup>Uno de la gente le dijo: "Maestro, di a mi hermano que reparta la herencia conmigo". <sup>14</sup>El le respondió: "¡Hombre! ¿quién me ha constituido juez o repartidor entre vosotros?". <sup>15</sup>Y les dijo: "Mirad y guardaos de toda codicia, porque, aun en la abundancia, la vida de uno no está asegurada por sus bienes".

<sup>16</sup>Les dijo una parábola: "Los campos de cierto hombre rico dieron mucho fruto; <sup>17</sup>y pensaba entre sí, diciendo: '¿Qué haré, pues no tengo donde reunir mi cosecha?'. <sup>18</sup>Y dijo: 'Voy a hacer esto: Voy a demoler mis graneros, y edificaré otros más grandes y juntaré allí todo mi trigo y mis bienes, <sup>19</sup>y diré a mi alma: Alma, tienes muchos bienes en reserva para muchos años. Descansa, come, bebe, banquetea'. <sup>20</sup>Pero Dios le dijo: '¡Necio! Esta misma noche te reclamarán el alma; las cosas que preparaste, ¿para quién serán?'. <sup>21</sup>Así es el que atesora riquezas para sí, y no se enriquece en orden a Dios".



**Jaungoikoaren ardurapean\***

(Mt. 6, 25-33)

<sup>22</sup>Auxe esan eutsen bere ikasleai: "Orrexegaitik di-rautsuet: Ez arduraz ibili bizi izateko zer jango dozuen, ezta gorputza zerez jantziko dozuen be: <sup>23</sup>bizitza, janaria baiño geiago da-ta, baita gorputza be jantzia baiño geiago. <sup>24</sup>Begira belak: ez dabe ereiten, ez batzen; ez dauke janaritegirik, ezta garautegirik be, eta Jaungoikoak jana emoten dautse. Egaztiak baiño geiago balio dozue, orraitio, zuek! <sup>25</sup>Zuetariko nok, barriz, alegin guztiak egiñarren be, luzatu daike bere bizia ukondo bat? <sup>26</sup>Beraz, gutxienik dana be ezin daikezen ezker, osterantzekoetan zegaitik ibili arduratsu? <sup>27</sup>Begira liriok: ez dabe goruetan egiten, ez eunik eioten. Alan be, ba-dirauntsuet: Salomon bera be, bere aunditasunik aundienean be, ezin jantzi izan zan orreitariko bat lez. <sup>28</sup>Beraz, gaur zelaian egon eta biar labara jaurtiten dan bedarra Jaungoikoak orrela jazten ba'dau, ez ete-dau askozaz geiago egingo zuekaitik, siniste otzeko gizonokaitik? <sup>29</sup>Ez ibili, ba, zer jango edo zer edango ete-dozuen billa, eta ez estutu: <sup>30</sup>gauza guztion billa munduko jentillak ibilten dira-ta. Zuen Aitak, barriz, ba-daki guztion bearrean zagozena. <sup>31</sup>Billatu egizue, billatu, Jaungoikoaren Erreiñua, eta gauza guztiok gaiñezka emongo yatzuez. <sup>32</sup>Ez izan bildurrik, artaldetxo orrek!, atsegin izan yako zuen Aitari Erreiñua zeuei emotea-ta.

**Saldu zuen ondasunak eta egin limosna**

(Mt. 6, 20-21)

<sup>33</sup><sup>4</sup>Saldu zuen ondasunak eta egin limosna. Egin

12, 22 Norbere burua Jaungoikoagan iztea. Mateo'ren oarrak (6, 25-33 Kristo'ren morroitzan diarduenentzat doaz emen.

12, 33 Saldu ondasunak eta egin limosna. Lukas'ek, norbere burua ukatu eta limosna egin bear dala diño barrero be (3, 11; 14, 33; cf. Mt. 5, 3; 6, 19).

**Abandono en la Providencia\***

(Mt. 6, 25-33)

<sup>22</sup>Dijo a sus discípulos: "Por eso os digo: No andéis preocupados por vuestra vida, qué comeréis, ni por vuestro cuerpo, con qué os vestiréis; <sup>23</sup>porque la vida vale más que el alimento, y el cuerpo más que el vestido; <sup>24</sup>fijaos en los cuervos: ni siembran, ni cosechan; no tienen bodega ni granero, y Dios los alimenta. ¡Cuánto más valéis vosotros que las aves! <sup>25</sup>Por lo demás, ¿quién de vosotros puede, por más que se preocupe, añadir un codo a la medida de su vida? <sup>26</sup>Si, pues, no sois capaces ni de lo más pequeño, ¿por qué preocuparos de lo demás? <sup>27</sup>Fijaos en los lirios, cómo ni hilan ni tejen. Pero yo os digo que ni Salomón en toda su gloria se pudo vestir como uno de ellos. <sup>28</sup>Pues si a la hierba que hoy está en el campo y mañana se echa al horno, Dios así la viste, ¡cuánto más a vosotros, hombres de poca fe! <sup>29</sup>Así, pues, vosotros no andéis buscando qué comer ni qué beber, y no estéis inquietos. <sup>30</sup>Que por todas esas cosas se afanan los gentiles del mundo; y ya sabe vuestro Padre que tenéis necesidad de ellas. <sup>31</sup>Buscad más bien su Reino, y esas cosas se os darán por añadidura.

<sup>32</sup><sup>4</sup>No temas, pequeño rebaño, porque a vuestro Padre le ha parecido bien daros a vosotros el Reino.

**Vender los bienes y hacer limosnas\***

(Mt. 6, 20-21)

<sup>33</sup><sup>4</sup>Vended vuestros bienes y dad limosna. Hacedos

12, 22 Abandono en la Providencia. Las advertencias de Mt. 6, 25-33 se dirigen aquí a los que están al servicio de Cristo.

12, 33 Vender los bienes y hacer limosna. Lc. insiste gustoso en la renuncia y en la limosna, 3, 11; 14, 33; cf. Mt. 5, 3+; 6, 19s.

zeuentzat zaartzen ez diran zorroak, zeruetan utsik egingo ez dautsuen dirutza: an ez da lapurrik, ezta ondatzeko sitsik be: <sup>34</sup>zuen ondasuna dagoan lekuan, zuen biotza be antxe egongo da-ta.

### Gertu egon Jauna bariro etorri daitenerako

(Mk. 13, 35; Mt. 24, 43-51)

<sup>35</sup>“Begoz zuen gerriak lotuta eta argi-ontziak iziouta; <sup>36</sup>eta, eztegutik euren ugazaba noiz biurtuko dan zain dagozan gizonen antzekoak izan zaitezte: a etorri ta atea joala, berealaxe zabaldu dagioen. <sup>37</sup>Zoriontsuak, ugazabak, etortean, iratzarririk aurkitu dagizan morroiak! Benetan dirautsuet: bere gerria lotu, arei maian jarrazo eta banan-banan jaten emongo dautse. <sup>38</sup>Eta bigarren gaualdian, naiz irugarrenean ba’dator, eta morroiak alan aurkitzen ba’dauz, zoriontsuak morroi areik! <sup>39</sup>Ulertu ondo au: lapurra zein ordutan etorriko yakon etxagunak ba’leki, ez leuke bere etxea zulatzen itxiko. <sup>40</sup>Egon zaitezte gertu: gutxien uste dagueanean etorriko da Gizasemea-ta”.

<sup>41</sup>Pedro’k auxe esan eban: “Jauna, ipuin ori geuretzat, ala gutzientzat diñozu?” <sup>42</sup>Jaunak auxe erantzun utsan: “Nor da, ba, etxezain zintzo ta zuurra, Jaunak morroi buru egingo dauana, aldi egokian bakotxari dagokion jatekoa emon dagitsen?” <sup>43</sup>Zoriontsua, ugazabak, etorri daitenean, alan egiten aurkitu dagian morroia! <sup>44</sup>Benetan dirautsuet: here ondasun gutzien buru jarriko dau. <sup>45</sup>Baiña, morroi arek bere biotzean ba’diño: ‘Nire ugazaba berandu dator’, eta morroi-neskameak jotzen, jaten eta edaten, eta moskortzen asten ba’da, <sup>46</sup>uste ez dauan egunean eta ez dakian orduan ugazaba etorriko yako, banandu egingo dau, eta gaiztoai zor yaken zoria emongo dautso.

bolsas que no se deterioran, un tesoro que no os fallará en los cielos, donde no llega el ladrón, ni destruye la polilla; <sup>34</sup>porque donde esté vuestro tesoro, allí estará también vuestro corazón.

### Estar preparados para cuando vuelva el Señor

(Mc. 13, 35; Mt. 24, 43-51)

<sup>35</sup>“Estén ceñidos vuestros lomos y las lámparas encendidas, <sup>36</sup>y sed como hombres que esperan a que su señor vuelva de la boda, para que, en cuanto llegue y llame, al instante le abran. <sup>37</sup>Dichosos los siervos, que el señor al venir encuentre despiertos: yo os aseguro que se ceñirá, los hará ponerse a la mesa y, yendo de uno a otro, les servirá. <sup>38</sup>Que venga en la segunda vigilia o en la tercera, si los encuentra así, ¡dichosos de ellos! <sup>39</sup>Entendedlo bien: si el dueño de casa supiese a qué hora iba a venir el ladrón, no dejaría que le horadasen su casa. <sup>40</sup>También vosotros estad preparados, porque en el momento que no penséis, vendrá el Hijo del hombre”.

<sup>41</sup>Dijo Pedro: “Señor, ¿dices esta parábola para nosotros o para todos?”. <sup>42</sup>Respondió el Señor: “¿Quién es, pues, el administrador fiel y prudente a quien el señor pondrá al frente de su servidumbre para darles a su tiempo su ración conveniente? <sup>43</sup>Dichoso aquel siervo a quien su señor, cuando llegue, encuentre haciéndolo así. <sup>44</sup>De verdad os digo que le pondrá al frente de toda su hacienda. <sup>45</sup>Pero si aquel siervo se dice en su corazón: ‘Mi señor tarda en venir’, y se pone a golpear a los criados y criadas, a comer y a beber y a emborracharse, <sup>46</sup>vendrá el señor de aquel siervo el día que no espera y en el momento que no sabe, le separará y le señalará su suerte entre los infieles.



<sup>47</sup>Bere ugazabaren gogoa jakinda, aren naitara ezer gertatu ez, ezta egin be egin ez dauan morroiak, zigorkada asko artuko dauz; <sup>48</sup>ugazabaren gogoa ezagutu ez, eta zigorkadak artzeko lain diran egitadak egin dauzanak, zigorkada gutxi artuko dauz. Asko emon izan yakonari, asko eskatuko yako; eta gordeteko asko itxi izan yakonari, geiago eskatuko yako.

### Jesus, bere Nekaldi-aurrean

<sup>49</sup>“Sua ekartera etorri naz lurrera, eta nik bai nai neukela su ori onezkero iziotuta egotea! <sup>50</sup>Bateoaz bateatua izan bear dot, eta bateo ori bete arte, au bai larrialdia nirea!

### Jesus dala-ta, banakuntza

(Mt. 10, 34-36)

<sup>51</sup>“Lurrera bakea ekartera etorri nazala uste dozue? Ez, orixe; benetan dirautsuet: bakea ez, banaketa baiño. <sup>52</sup>Aurrerantzean, izan be, etxe baten bost lagun izan, eta bananduta egongo dira; iru biren aurka, eta bi iruren aurka; <sup>53</sup>aita semearen aurka ta semea aitaren aurka; ama alab(e)aren aurka ta alab(e)a amaren aurka; amagiñarreb(e)a erraiñaren aurka ta erraiña amagiñarrebaren aurka”.

### Aldien ezaugarriak

(Mt. 16, 2-3)

<sup>54</sup>Laguntaldeari auxe be ba-zirautsan: “Sortzaldean laiño bat agertzen ikusten dozuenean, berealaxe diño-zue: ‘Eurria dator’; eta alantxe jazoten da. <sup>55</sup>Eta egoi-aizeak joten dauanean, ‘gaur sargori’, diño-zue; eta alantxe jazoten da. <sup>56</sup>Azalutsok! Ba-dakizue zeruaren

<sup>47</sup>“Aquel siervo que, conociendo la voluntad de su señor, no ha preparado nada ni ha obrado conforme a su voluntad, recibirá muchos azotes; <sup>48</sup>el que no la conoce y hace cosas dignas de azotes, recibirá pocos; a quien se le dio mucho, se le reclamará mucho; y a quien se confió mucho, se le pedirá más.

### Jesús ante su Pasión

<sup>49</sup>“He venido a traer fuego sobre la tierra y ¡cuánto desearía que ya estuviera encendido! <sup>50</sup>Con un bautismo tengo que ser bautizado y ¡qué angustiado estoy hasta que se cumpla!”.

### Jesús causa de disensión

(Mt. 10, 34-36)

<sup>51</sup>“¿Pensáis que estoy aquí para dar paz a la tierra? No, os lo aseguro, sino división. <sup>52</sup>Porque desde ahora habrá cinco en una casa y estarán divididos; tres contra dos, y dos contra tres; <sup>53</sup>estarán divididos el padre contra el hijo, y el hijo contra el padre; la madre contra la hija y la hija contra la madre; la suegra contra la nuera y la nuera contra la suegra”.

### Las señales de los tiempos

(Mt. 16, 2-3)

<sup>54</sup>Decía también a la gente: “Cuando veis una nube que se levanta en el occidente, al momento decís: ‘Va a llover’, y así sucede. <sup>55</sup>Y cuando sopla el sur, decís: ‘Viene bochorno’, y así sucede. <sup>56</sup>¡Hipócritas! Sabéis ex-

eta lurraren arpegia ezagutzen; zelan ez dozue azter-  
tzen, ba, oraingo aldi au?

Mt. 5, 25-26

<sup>57</sup>Zegaitik ez dozue zuek zeuenez zuzena dana ebazten?  
<sup>58</sup>Izan be, zure arerioagaz auzitegiko gizonagana joan  
zaitezanean, bidean aregaz bakeak egiteko alegiñak egi-  
zuz: epaillearen aurrera eroan eta epailleak ertzaiña-  
ren<sup>o</sup> eskuetan itxi, eta ertzaiñak giltzapean sartu ez za-  
gizan. <sup>59</sup>Auxe dirautsut: ez zara andik urtengo azke-  
nengo txanpona ordaindu arte”.

### Damurako deia

**13** <sup>1</sup>Une aretan norbaitzuek Jesus'egana etorri ta Ga-  
lilearrena azaldu eutsoen: onein odola oparia-  
kaz naastu izan eba la Pilato'k. <sup>2</sup>Jesus'ek auxe erantzun  
eutsen: “Galilearrok orrelako ezbearra izan dabelako,  
beste Galilearrak baiño gaiztoagoak zirala uste dozue?  
<sup>3</sup>Ez, orixe; neuk dirautsuet; garbatzen ez ba'zaree, bar-  
din-bardin galduko zaree guztiok. <sup>4</sup>Siloe'ko torrea gai-  
ñera jausi\* ta il ebazan amazortzi areik, Jerusalem'en  
bizi ziran beste gizonak baiño pekatariagoak zirala uste  
al-dozue? <sup>5</sup>Ez, orixe; neuk dirautsuet; eta garbatzen  
ez ba'zaree, bardin-bardin galduko zaree guztiok”.

### Pikondo agorra\*

<sup>6</sup>Ipuin au esan eutsen: “Gizon batek bere maastian

13, 4 Ez da jazopen onen barririk aurkitzen. Zoritxar ori damu-  
rako deia da, baiña ez dago alkarkizun zuzenik zoritxar orren eta  
uts-egitearen artean (cf. Yn. 9, 3).

13, 6 **Pikondo agorra.** Zorrotasun-egitadaren ordez (Mt. 21, 18-  
22); Mk. 11, 12-14, 20-21), erocapnaren ipuin au dator.

\* Ertzain: alguacil, guardia.

plorar el aspecto de la tierra y del cielo, ¿cómo no ex-  
ploráis, pues, este tiempo?

(Mt. 5, 25-26)

<sup>57</sup>“¿Por qué no juzgáis por vosotros mismos lo que  
es justo? <sup>58</sup>Quando vayas con tu adversario al magistra-  
do, procura en el camino arreglarte con él, no sea que  
te arrastre ante el juez, y el juez te entregue al alguacil  
y el alguacil te meta en la cárcel. <sup>59</sup>Te digo que no  
saldrás de allí hasta haber pagado el último céntimo”.

### Invitación a la penitencia

**13** <sup>1</sup>En aquel momento llegaron algunos que le con-  
taron lo de los galileos, cuya sangre había mez-  
clado Pilato con la de sus sacrificios. <sup>2</sup>Les respondió Je-  
sus: “¿Pensáis que esos galileos eran más pecadores que  
todos los demás galileos, porque han padecido estas co-  
sas? <sup>3</sup>No, os lo aseguro; y si no os convertís, todos pere-  
ceréis del mismo modo. <sup>4</sup>O aquellos dieciocho sobre los  
que se desplomó\* la torre de Siloé matándolos, ¿pensáis  
que eran más culpables que los demás hombres que ha-  
bitaban en Jerusalén? <sup>5</sup>No, os lo aseguro; y si no os  
convertís, todos pereceréis del mismo modo”.

### Parábola de la higuera estéril\*

<sup>6</sup>Les dijo esta parábola: “Un hombre tenía planta-

13, 4 **desplomó.** No existen noticias de este incidente. La des-  
gracia invita a la penitencia, pero no hay relación directa entre  
ella y una falta, cf. Jn. 9, 3.

13, 6 **Parábola de la higuera estéril.** El acto de severidad de  
Mt. 21, 18-22; Mc. 11, 12-14, 20-21, es sustituido por esta parábola  
de la paciencia.



piko-arbola bat eukan sartuta; eta frutu-billa etorri yakon eta ez eutsan ezer be aurkitu. <sup>7</sup>Orduan, maastizaiñari auxe esan eutsan: 'Ba-dira iru urte piko-arbola onetara frutu-billa natorrela, eta ez dautsat ezer be aurkitzen; ebagi egizu. Lurrean alperrik zetako egongo da, ba?'. <sup>8</sup>Baiña, maastizaiñak auxe erantzun eutsan: 'Jauna, itxi egizu aurten be; eta bitartean, inguruan lurra atxurtu ta ongarría jarriko dautsat, <sup>9</sup>orrela aurrerantzean, bearbada, frutua ekarriko dau; emoten ez ba'dau, barriz, ebagi egingu dozu".

**Makur-makur eginda egoan emakume bat zapatuz osatzen dau**

(Cf. 6, 6-11; 14, 1-6)

<sup>10</sup>Zapatu baten, sinagogan irakasten ziarduan. <sup>11</sup>Eta amazortzi urte areitan gogo (*espíritu*) batek geisorik eukan emakume bat zan an: makur-makur eginda egoan, bere gorputza ezelan be zuzen jarri eziñik. <sup>12</sup>Jesus'ek ikusi ebanean, ari dei egin eta auxe esan eutsan: "Emakume, zure geiso orretatik askatuta zagoz". <sup>13</sup>Eta eskuak ezarri eutsazan. Eta emakumea bat-batean zuzen jarri zan, eta Jaungoikoa goratzen eban.

<sup>14</sup>Sinagogako nagusiak, barriz, Jesus'ek zapatuz osatu ebala-ta, asarraturik, laguntaldeari auxe zirautsan: "Ba-dira sei egun lan egiteko; etorri, ba, egun orreitan eta osatuak izango zaree, eta ez zapatuz".

(Mt. 12, 11; Lk. 14, 5)

<sup>15</sup>Jaunak auxe erantzun eutsan: "Azalutsok! Ez doze guztiok zuen idia edo astoa zapatuz askatik askatzen, edatera eroateko? <sup>16</sup>Eta Satanás'ek amazortzi urte dirala lotu eban Abraham'en alaba oni, ezin eitekiola lokarri

da una higuera en su viña, y fue a buscar fruto en ella y no encontró. <sup>7</sup>Dijo entonces al viñador: 'Ya hace tres años que vengo a buscar fruto en esta higuera, y no lo encuentro; córtala; ¿para qué va a cansar la tierra?'. <sup>8</sup>Pero él le respondió: 'Señor, déjala por este año todavía y mientras tanto cavaré a su alrededor y echaré abono, <sup>9</sup>por si da fruto en adelante; y si no da, la cortas".

**Curación en sábado de la mujer encorvada**

(Cf. 6, 6-11; 14, 1-6)

<sup>10</sup>Estaba un sábado enseñando en una sinagoga, <sup>11</sup>y había una mujer a la que un espíritu tenía enferma hacía dieciocho años; estaba encorvada, y no podía en modo alguno enderezarse. <sup>12</sup>Al verla Jesús, la llamó y dijo: "Mujer, quedas libre de tu enfermedad". <sup>13</sup>Y le impuso las manos. Y al instante se enderezó, y glorificaba a Dios.

<sup>14</sup>Pero el jefe de la sinagoga, indignado de que Jesús hubiese hecho una curación en sábado, decía a la gente: "Hay seis días en que se puede trabajar; venid, pues, esos días a curaros, y no en día de sábado".

(Mt. 12, 11; Lc. 14, 5)

<sup>15</sup>Replicóle el Señor: "¡Hipócritas! ¿No desatáis del pesebre todos vosotros en sábado a vuestro buey o vuestro asno para llevarlos a abreviar? <sup>16</sup>Y a ésta, que es hija de Abraham, a la que ató Satanás hace ya diecio-

ori zapatuz askatu?" <sup>17</sup>Eta orrelakoak esaten ziarduan artean, Jesus'en arerioak lotsaz gorri-gorri egozan; laguntalde guztia, ostera, Jesus'ek egiten ebazan egintza miragarriak zirala-ta, poztu egiten zan.

### Ziape-aziaren ipuiña

(Mt. 13, 31-32; Mk. 4, 30-32)

<sup>18</sup>Eta auxe iñoan: "Zeren antzekoa da Jaungoikoa-  
ren Erreiñua? Zeren antzeko dala egingo dot? <sup>19</sup>Gizon  
batek artu ta bere ortuan sartu eban ziape-aziaren<sup>o</sup> antze-  
koa da; eta arbola egiteraño azi zan, eta zeruko egaz-  
tiak aren adarretan apiak egin ebezan".

### Legamiñaren ipuiña

(Mt. 13, 33)

<sup>20</sup>Auxe be esan eban: "Jaungoikoaren Erreiñua, ze-  
ren antzeko egingo dot? <sup>21</sup>Legamiñaren antzekoa da:  
emakume batek artu ta iru negurri-urunetan sartzen dau,  
ora guztia jagi arte".

**Ate estua. Judar zintzo-ebak alde batera itziak.**

### Jentillai deia

(Mt. 7, 13-14)

<sup>22</sup>Jerusalen'eruntz yoiala, uririk uri ta erririk erri  
irakasten ziarduan. <sup>23</sup>Batek auxe esan eutsan: "Gutxi  
al-dira salbatzen diranak?" Jesus'ek auxe esan eutsan:  
<sup>24</sup>"Alegiñak egizuez ate estutik sartzen, auxe dirautsuet-  
-eta: askok izango dabe sartzeko gogoia, baiña ezin sartu  
izango dira.

<sup>o</sup> Ziape-azia: grano de mostaza. "Arbi-azia" be esan daiteke, obe-  
to ulertzeko.

cho años, ¿no estaba bien desatarla de esta cadena en  
día de sábado?". <sup>17</sup>Y cuando decía estas cosas, sus ad-  
versarios quedaban confundidos, mientras que toda la  
gente se alegraba con las maravillas que hacía.

### Parábola del grano de mostaza

(Mt. 13, 31-32; Mc. 4, 30-32)

<sup>18</sup>Decía, pues: "¿A qué es semejante el Reino de  
Dios? ¿A qué lo compararé? <sup>19</sup>Es semejante a un grano de  
mostaza, que tomó un hombre y lo puso en su jardín,  
y creció hasta hacerse árbol, y las aves del cielo anidaron  
en sus ramas".

### Parábola de la levadura

(Mt. 13, 33)

<sup>20</sup>Dijo también: "¿A qué compararé el Reino de  
Dios? <sup>21</sup>Es semejante a la levadura que tomó una mujer  
y la metió en tres medidas de harina, hasta que fermentó  
todo".

### La puerta estrecha.

### Reprobación de los judíos infieles y vocación de los gentiles

(Mt. 7, 13-14)

<sup>22</sup>Atravesaba ciudades y pueblos enseñando, mientras  
caminaba hacia Jerusalén. <sup>23</sup>Uno le dijo: "Señor, ¿son  
pocos los que se salvan?". El le dijo: <sup>24</sup>"Esforzaos por  
entrar por la puerta estrecha, porque, os digo, muchos  
pretenderán entrar y no podrán.



(Mt. 25, 10-12; 7, 22-23)

<sup>25</sup>Etxeko ugazaba jagi daitenean eta atea itxi dagianean, kanpoan gelditu zareenok ate-joka asiko zaree, 'Jauna, zabaldu egiguzu!', esanez. Eta auxe erantzungo dautsue: 'Ez dakit nungoak zareen'. <sup>26</sup>Orduan, zuek auxe asiko zaree esaten: 'Zeugaz jan eta edan dogu, eta geure plazetan irakatsi zenduan'; <sup>27</sup>eta barriro be auxe esango dautsue: 'Ez dakit nungoak zareen. *Alde nigandik gaiztakeri-egille guztiok!*'

(Mt. 8, 11-12)

<sup>28</sup>An izango da negarra ta agin-karraskada, Abraham, Isaak eta Jakob eta igarle guztiak Jaungoikoaren Erreiniuan ikusi dagizuezan, eta zuek andik kanpora jaurtiak izan zaitezenean! <sup>29</sup>Eta eguzki-sortzaldetik eta sartzaldetik, iparraldetik eta egoi-aldetik etorriko dira, eta maian jarriko dira, Jaungoikoaren Erreiniuan.

(Mt. 19, 30; 20, 16; Mk. 10, 31)

<sup>30</sup>Eta azkenak lenengo izango dira, eta lenenak azken izango dira".

### Erodes maltzurra

<sup>31</sup>Une aretan, pariseo batzuk urreratu ta auxe esan outsoen: "Urten eta zoaz emendik, Erodes'ek il egin nai zaitu-ta". <sup>32</sup>Eta Jesus'ek auxe esan eutsen: "Zoaze azeri orri esatera: Nik deabruak jaurtiten eta geisoak osatzen diardut gaur eta biar; eta irugarren egunean nire burua oparizat emongo dot\*." <sup>33</sup>Gaur eta biar eta etzi, aurrera

13, 32 nire burua oparizat emongo dot. Jesus, oiñazearen bidez, "bikain" egiten da (cf. Yn. 19, 30; Ebert. 2, 10).

(Mt. 25, 10-12; 7, 22-23)

<sup>25</sup>"Cuando el dueño de la casa levante y cierre la puerta, os pondréis los que estéis fuera a llamar a la puerta, diciendo: '¡Señor, ábrenos!'. Y os responderá: 'No sé de dónde sois'. <sup>26</sup>Entonces empezareis a decir: 'Hemos comido y bebido contigo, y has enseñado en nuestras plazas'; <sup>27</sup>y os volverá a decir: 'No sé de dónde sois. ¡*Apartaos de mí, todos los agentes de iniquidad!*'.

(Mt. 8, 11-12)

<sup>28</sup>"Allí será el llanto y el rechinar de dientes, cuando veáis a Abraham, Isaac y Jacob y a todos los profetas en el Reino de Dios, mientras a vosotros os expulsan fuera. <sup>29</sup>Y vendrán de oriente y occidente, del norte y del sur, y se pondrán a la mesa en el Reino de Dios.

(Mt. 19, 30; 20, 16; Mc. 10, 31)

<sup>30</sup>"Y hay últimos que serán primeros: y hay primeros que serán últimos".

### Herodes el astuto

<sup>31</sup>En aquel momento se acercaron algunos fariseos, y le dijeron: "Sal y vete de aquí, porque Herodes quiere matarte". <sup>32</sup>Y él les dijo: "Íd a decir a ese zorro: Yo expulsé demonios y llevo a cabo curaciones hoy y mañana, y el tercer día soy consumado\*." <sup>33</sup>Pero conviene

13, 32 consumado. Esta palabra incluye que Jesús se hace "perfecto" por el sufrimiento: cf. Jn. 19, 30; Hb. 2, 10+.

egin bear dot: igarleari Jerusalem'dik kanpora iltea ez dagokio-ta<sup>33\*</sup>.

### Jerusalen'i agiraka

(Mt. 23, 37-39)

<sup>34</sup>“Jerusalen, Jerusalen! Profetak il eta zugana bialdutakoai arrika egiten dautsezun ori! Amaiktxo bidar batu nai izan dodaz, ba, zure semeak, oilloak bere txitak egapean batzen dauzanez, eta zuek ez dozue nai izan!  
<sup>35</sup>Orra, ba: etxea utsik geldituko yatzue. Benetan dirautsuet: ez nozue barriri ikusiko, *'Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena'*<sup>\*</sup>, esan dagizuen arte.

### Gizon ur-geiso bat zapatuz osatzen dau

(Mt. 12, 11)

**14** <sup>1</sup>Jesus pariseo nagusienetariko baten etxean zapatuz bazkaltzera sartu zala, areik Jesus zaintzen ziarduen. <sup>2</sup>Jesus'en aurrean gizon ur-geiso bat egoan. <sup>3</sup>Orduan, Jesus'ek lege-irakasle ta pariseuai itaun au egin eutsen: “Zapatuz iñor osatzea, legezko da, ala ez?” <sup>4</sup>Areik, barriz, isilik. Orduan, geisoari oratu, osatu ta bialdu egin eban.

(Mt. 12, 11. Cf. Lk. 13, 15)

<sup>5</sup>Eta arei auxe esan eutsen: “Zuetariko bati semea edo idia oxinera zapatuz jausi ezkeru, zuetariko nok ez leuke berealaxe atarako?” <sup>6</sup>Eta areik ezin emon eutsoen orretzaz erantzunik.

### Jarlekuak aukeratzea

<sup>7</sup>Mailagunak lenengo tokiak aukeratzen ebezala ikusi-

13, 33 Jesus'ek bere eginkizunari ekiten dautso Bere eriotza ikusi bear dauan Urirako bidean (9, 51).

13, 35 Sal. 118, 26.

que hoy y mañana y pasado siga adelante, porque no cabe que un profeta perezca fuera de Jerusalén<sup>33\*</sup>.

### Apóstrofe a Jerusalén

(Mt. 23, 37-39)

<sup>34</sup>“¡Jerusalén, Jerusalén, que matas a los profetas y apedreas a los que te son enviados! ¡Cuántas veces he querido reunir a tus hijos, como una gallina su nidada bajo las alas, y no habéis querido! <sup>35</sup>Pues bien, se os va a dejar vuestra casa. Os digo que no me volveréis a ver hasta que digáis: *¡Bendito el que viene en nombre del Señor!*”<sup>\*</sup>.

### Curación de un hidrópico en sábado

(Mt. 12, 11)

**14** <sup>1</sup>Habiendo entrado en sábado en casa de uno de los principales de los fariseos para comer, ellos le estaban observando. <sup>2</sup>Había allí, delante de él, un hombre hidrópico. <sup>3</sup>Entonces preguntó Jesús a los legistas y a los fariseos: “¿Es lícito curar en sábado, o no?” <sup>4</sup>Pero ellos se callaron. Entonces le tomó, le curó, y le despidió.

(Mt. 12, 11; Cf. Lc. 13, 15)

<sup>5</sup>Y a ellos les dijo: “¿A quién de vosotros se le cae un hijo o un buey en un pozo en sábado y no lo saca al momento?” <sup>6</sup>Y no pudieron replicar a esto.

### Elección de asientos

<sup>7</sup>Notando cómo los invitados elegían los primeros

13, 33 *Jerusalén*. Jesús continúa su misión en el camino hacia la Ciudad en que debe morir, 9, 51+.

13, 35 del Señor. Cf. Sal. 118, 26.



rik, ipuin au esan eutsen: <sup>8</sup>“Norbaitek ezteguna dei egin dagitzunean, ez zaitetz lenengo tokian jarri: bearbada, zu baiño nagusiagoren bat deitua izanda, <sup>9</sup>zuri ta ari dei egin dautsuen a etorri ta esan ez dagitzun: ‘Itxi oni to-  
kia’; eta orduan zuk, lotsak beterik, azkenengo tokia artu bear izango zeuke. <sup>10</sup>Bestetara bai: bazkal-deia artu dagitzunean, joan eta azken-tokian jesarri zaitetz: zuri dei egin dautsunak esan dagitzun: ‘Adiskide, igo zaitetz gorago’. Eta au goragarri izango yatzu zugaz maian dagozan guztien aurrean. <sup>11</sup>Goratzen dana, beeratua, eta beeratzen dana goratua izango da-ta”.

### Nori egin dei bazkaritarako?

<sup>12</sup>Bazkal-deia egin eutsanari, auxe be esan eutsan: “Bazkaria edo aparia egin dagitzunean, ez dei egin zure adiskideai, ez zure anaiai, ez zure senideai, ezta zure au-  
zoko aberatsai be: eurak be zuri atzera dei egiñik, zeu-  
re saria artu ez dagizun. <sup>13</sup>Bazkaria egin dagitzunean, dei egiñik beartsu, elbarri, erren eta itsuai; <sup>14</sup>eta, orreik ordaiña ezin biurtu daiketuzen ezkerero, zoriontsu izango zara, zintzoen biztueran artuko dozu saria-ta”.

### Apari aundia

(Mt. 22, 2-10)

<sup>15</sup>Mai-lagun batek, ori entzunda, auxe esan eutsan: “Zoriontsua, Jaungoikoaren Erreiñuan jan daikena!”  
<sup>16</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: “Gizon batek apari eder bat egin eban, eta askoi egin eutsen dei. <sup>17</sup>Apalorduan, bere morroia bialdu eutsen, deituai esatera: ‘Etorri zaitetze, gertu dago guztia-ta’. <sup>18</sup>Baiña, guztiak batera, aiko-maikoetan asi ziran. Lenengoak auxe esan eutsan: ‘Solo bat erosi dot, eta ikustera joan bear dot; parkatu, ba, mesedez’. <sup>19</sup>Eta beste batek auxe esan eban: ‘Bost idi-buztarri erosi dodaz, eta areik aztertzer a noa; par-

puestos, les dijo una parábola: <sup>8</sup>“Cuando seas convidado por alguien a una boda, no te pongas en el primer puesto, no sea que haya sido convidado otro más distinguido que tú, <sup>9</sup>y viniendo el que os convidó a ti y a él, te diga: ‘Deja el sitio a éste’, y entonces vayas a ocupar avergonzado el último puesto. <sup>10</sup>Al contrario, cuando seas convidado, vete a sentarte en el último puesto, de manera que cuando venga el que te convidó, te diga: ‘Amigo, sube más arriba’. Y esto será un honor para ti delante de todos los que estén contigo a la mesa. <sup>11</sup>Porque todo el que se ensalce, será humillado; y el que se humille, será ensalzado”.

### Elección de invitados

<sup>12</sup>Dijo también al que le había invitado: “Cuando des una comida o una cena, no llames a tus amigos, ni a tus hermanos, ni a tus parientes, ni a tus vecinos ricos; no sea que ellos te inviten a su vez, y tengas ya tu recompensa. <sup>13</sup>Cuando des un banquete, llama a los pobres, a los lisiados, a los cojos, a los ciegos; <sup>14</sup>y serás d'choso, porque no te pueden corresponder, pues se te recompensará en la resurrección de los justos”.

### Los invitados que se excusan

(Mt. 22, 2-10)

<sup>15</sup>Habiendo oído esto, uno de los comensales le dijo: “¡Dichoso el que pueda comer en el Reino de Dios!”. <sup>16</sup>El le respondió: “Un hombre dio una gran cena y convidó a muchos; <sup>17</sup>a la hora de la cena envió a su siervo a decir a los invitados: ‘Venid, que ya está todo preparado’. <sup>18</sup>Pero todos a una empezaron a excusarse. El primero le dijo: ‘He comprado un campo y tengo que ir a verlo; te ruego me dispenses’. <sup>19</sup>Y otro dijo: ‘He comprado cinco yuntas de bueyes y voy a probarlos; te

katu, ba, mesedez'. <sup>20</sup>Beste batek auxe esan eban: 'Ez-kondu egin naz, eta orregaitik, ezin joan naiteke'.

<sup>21</sup>Morroiak, etxera biurtu zanean, bere ugazabari azaldu eutsan. Orduan, etxeko jabeak, asarratuta, bere morroiari auxe esan eutsan: 'Urten bereala uriko plaza ta kaleetara, eta beartsu ta elbarri, eta itsu ta errenak sarrerazo egizuz ona'. <sup>22</sup>Morroiak auxe esan eban: 'Jauna, egin dot zure agindua, eta oraindiño lekua dago'. <sup>23</sup>Jau-nak morroiari auxe esan eutsan: 'Urten bide ta esietara', eta gogorrean izanda be, sarrerazo egizuz, nire etxea be-te arte'. <sup>24</sup>Benetan dirautsuet-eta: deitutako gizon areitariko batek be ez dau nire aparia dastatuko''.

#### Maite dan guztia ukatu-bearra

(Mt. 10, 38; 16, 24; Mk. 8, 34; Lk. 9, 23)

<sup>25</sup>Laguntalde aundia yoian Jesus'egaz: eta arekana biurturik, auxe esan eutsen: <sup>26</sup>'Norbait neugana bada-tor, eta bere aitari, bere amari, bere emazteari, bere seme-alabai, bere anaiari, bere arreba ta bere buruari be gorroto ez ba'dautse\*, ezin izan daiteke nire ikasle. <sup>27</sup>Bere gurutzea artu ta jarraitzen ez daustana, ezin izan dai-teke nire ikasle''.

#### Ondasunak ukatu-bearra\*

<sup>28</sup>'Izan be, zuetariko batek torre bat egin nai ezke-ro, ez al dau aurretiaz eralgi bear dauana astiro atara-ten, bere lana amaitzeko naikoa daukan ala ez ikusteko?'

14, 26 gorroto ez ba'dautse. Ebertar-esaera: zalekeritik gutziz eta bereala askatzea (af. 9, 57).

14, 28 Ondasun guztiak ukatzea. Edozein ekintzak nekeak eta irau-penā eskatzen dauz.

\* Esi; cerca, vallado.

° Destatu: probar, gustar.

ruego me dispenses'. <sup>20</sup>Otro dijo: 'Me he casado, y por eso no puedo ir'.

<sup>21</sup>'Regresó el siervo y se lo contó a su señor. Enton-ces, airado el dueño de la casa, dijo a su siervo: 'Sal en seguida a las plazas y calles de la ciudad, y haz en-trar aquí a los pobres y lisiados, y ciegos y cojos'. <sup>22</sup>Dijo el siervo: 'Señor, se ha hecho lo que mandaste, y toda-vía hay sitio'. <sup>23</sup>Dijo el señor al siervo: 'Sal a los cami-nos y cercas, y obliga a entrar hasta que se llene mi casa'. <sup>24</sup>Porque os digo que ninguno de aquellos invita-dos probará mi cena''.

#### Renuncia a todo lo que se ama

(Mt. 10, 38; 16, 24; Mc. 8, 34; Lc. 9, 23)

<sup>25</sup>Caminaba con él mucha gente, y volviéndose les dijo: <sup>26</sup>'Si alguno viene donde mí y no odia\* a su padre, a su madre, a su mujer, a sus hijos, a sus hermanos, a sus hermanas y hasta su propia vida, no puede ser dis-cípulo mío. <sup>27</sup>El que no lleve su cruz y venga en pos de mí, no puede ser discípulo mío.

#### Renuncia a los bienes\*

<sup>28</sup>'Porque ¿quién de vosotros, que quiere edificar una torre, no se sienta primero a calcular los gastos, y ver si tiene para acabarla? <sup>29</sup>No sea que, habiendo puesto los

14, 26 no odia. Hebraísmo que evoca el desprendimiento com-pleto e inmediato, cf. 9, 57s.

14, 28 Renuncia a todos los bienes. Toda empresa exige sacrificios y constancia.



<sup>29</sup>Oiñarriak ezarrita gero, ezin amaiturik, ikusten dabek guztiak barre egin ez dagioen, esanez: <sup>30</sup>Gizon onek, etxea egiten asita, ezin amaitu izan eban". <sup>31</sup>Edo-ta, errege batek beste errege baten aurka urtetan danean, ez al dau aurretiaz astiro asmatzen, amar milla gizonegaz gogor egingo ete-leuskion ogei milla gizonegaz gainera datorkionari? <sup>32</sup>Eta bestela, a oraindiño urrun dagoala, mandatariak bialtzen dauz, bakea eskatzeko. <sup>33</sup>Olantxe, ba: zuetariko edonok bere ondasun guztiak ukatzen ez ba'dauz, ezin izan daiteke nire ikasle".

### Gatzaren ipuiña

(Mt. 5, 13; Mk. 9, 30)

<sup>34</sup>"Ona da gatz; baiña gatz gazatzen ba'da, zerez gazu? <sup>35</sup>Ez lurrerako, ez sastegirako da gauza; kanpora jaurtiko dabe. Entzuteko belarririk euki dagianak, entzun dagiala".

### Errukiaren iru ipuiñak\*

**15** <sup>1</sup>Zerga-batzaille ta pekatari guztiak Jesus'egana urreratzen ziran, Beroni entzutera; <sup>2</sup>eta parisueak eta idazlariak mormoxetan ziarduen, esanez: "Orrek, pekatariak onartu ta eurakaz jaten dau". <sup>3</sup>Orduan, ipuin au esan eutsen:

### Ardi galdua

(Mt. 18, 12-14)

<sup>4</sup>"Eun ardi izan, eta oneitariko bat galdu ezker, zuetariko nor ez doa, larogeta emeretziak basamortuan itzita, galduaren billa, aurkitu arte? <sup>5</sup>Eta aurkitzen dau-

15 Errukiaren iru ipuiñak. Ipuin onek parisueen aurka datoz, euron aundikeriaren eta pekatariakanako ezekeraren aurka.

cimientos y no pudiendo terminar, todos los que lo vean se pongan a burlarse de él, diciendo: <sup>30</sup>Este comenzó a edificar y no pudo terminar". <sup>31</sup>O ¿qué rey, que sale a enfrentarse contra otro rey, no se sienta antes y delibera si con diez mil puede salir al paso del que viene contra él con veinte mil? <sup>32</sup>Y si no, cuando está todavía lejos, envía una embajada para pedir condiciones de paz. <sup>33</sup>Pues, de igual manera, cualquiera de vosotros que no renuncie a todos sus bienes, no puede ser discípulo mío.

### No perder la eficacia

(Mt. 5, 13; Mc. 9, 50)

<sup>34</sup>"Buena es la sal; mas si también la sal se desvirtúa, ¿con qué se la sazonará? <sup>35</sup>No es útil ni para la tierra ni para el estercolero; la tirarán afuera. El que tenga oídos para oír, que oiga".

### Las tres parábolas de la misericordia\*

**15** <sup>1</sup>Todos los publicanos y los pecadores se acercaban a él para oírle, <sup>2</sup>y los fariseos y los escribas murmuraban, diciendo: "Este acoge a los pecadores y come con ellos". <sup>3</sup>Entonces les dijo esta parábola.

### La oveja perdida

(Mt. 18, 12-14)

<sup>4</sup>"¿Quién de vosotros que tiene cien ovejas, si pierde una de ellas, no deja las noventa y nueve en el desierto, y va a buscar la que se perdió hasta que la en-

15. Las tres parábolas de la misericordia. Parábolas dirigidas contra los fariseos orgullosos y su menosprecio de los pecadores.

anean, bere lepoan artzen dau; <sup>6</sup>eta etxera eldurik, adiskide ta senideai dei egin eta ba-dirautse: 'Poztu zaiteze nigaz batera, aurkitu dot galdu yatan ardia-ta!' <sup>7</sup>Ba-dirautsuet: era berean, zeruan poz aundiagoa izango da garbatu daiten pekatari bategaitik, damu-bearrik ez da ben larogeta emeretzi zintzoakaitik baiño.

### Drakma galdua

<sup>8</sup>"Edo-ta, zein emakumek, amar drakma euki ta bat galtzen ba'dau, ez dau argi-ontzia iziotzen eta etxea garbitzen eta arduraz billa ibiltzen, drakma a aurkitu arte? <sup>9</sup>Eta aurkitzen dauanean, bere adiskide ta auzokoai dei egiten dautse, esanez: 'Poztu zaiteze nigaz batera, aurkitu dot galdu neban drakma-ta!'" <sup>10</sup>Ba-dirautsuet: orrelaxe pozten dira Jaungoikoaren aingeruak garbatzen dan pekatari bategaitik".

### Seme galdua eta seme zintzoa:

#### "Seme ondatzaillea"

<sup>11</sup>Auxe esan eban: "Gizon batek seme bi ebazan. <sup>12</sup>Eta areitariko gazteenak aitari auxe esan eutsan: 'Aita, emon egidazu ondasunetarik dagokidan zatia'. Eta *aitak* banandu egin eutsezan ondasunak. <sup>13</sup>Egun gutxi barru, seme gazteena, gauza guztiak batuta, urruneko lurralde batera joan zan; eta an, nasaikeritan bizi izanik, bere ondasun guztiak eralgi ebazan.

<sup>14</sup>Guztia eralgi izan ebanean, lurralde aretan gosete gorria sortu zan, eta bear izaten asi zan. <sup>15</sup>Orduan, joan eta lurralde aretako erritar baten morroi jarri zan, eta arek bere landetara bialdu eban, txarrizain. <sup>16</sup>Eta txarriak jaten ebezan ezkurrez sabela bete gura eban, baiña ez eutsazan iñok emoten. <sup>17</sup>Eta bere senera biurturik, auxe esan eban: 'Nire aitaren amaikatxo morroik badauke ogia ugari; ni, barriz, emen goseak illik! <sup>18</sup>Jagi

cuentre? <sup>5</sup>Y cuando la encuentra, la pone contento sobre sus hombres; <sup>6</sup>y llegando a casa, convoca a los amigos y vecinos, y les dice: 'Alegraos conmigo, porque he hallado la oveja que se me había perdido'. <sup>7</sup>Os digo que, de igual modo, habrá más alegría en el cielo por un solo pecador que se convierta que por noventa y nueve justos que no tengan necesidad de conversión.

### La dracma perdida

<sup>8</sup>"O, ¿qué mujer que tiene diez dracmas, si pierde una, no enciende una lámpara y barre la casa y busca cuidadosamente hasta que la encuentra? <sup>9</sup>Y cuando la encuentra, convoca a las amigas y vecinas, y dice: 'Alegraos conmigo, porque he hallado la dracma que había perdido'. <sup>10</sup>Del mismo modo, os digo, se alegran los ángeles de Dios por un solo pecador que se convierta".

### El hijo perdido y el hijo fiel:

#### "El hijo pródigo"

<sup>11</sup>Dijo: "Un hombre tenía dos hijos; <sup>12</sup>y el menor de ellos dijo al padre: 'Padre, dame la parte de la hacienda que me corresponde'. Y él les repartió la hacienda. <sup>13</sup>Pocos días después el hijo menor lo reunió todo y se marchó a un país lejano donde malgastó su hacienda viviendo como un libertino.

<sup>14</sup>"Cuando hubo gastado todo, sobrevino un hambre extrema en aquel país, y comenzó a pasar necesidad. <sup>15</sup>Entonces, fue y se ajustó con uno de los ciudadanos de aquel país, que le envió a sus fincas a apacentar puercos. <sup>16</sup>Y deseaba llenar su vientre con las algarrobas que comían los puercos, pero nadie se las daba. <sup>17</sup>Y entrando en sí mismo, dijo: '¿Cuántos jornaleros de mi padre tienen pan en abundancia mientras que yo aquí me muero de hambre! <sup>18</sup>Me levantaré, iré a mi padre y le diré:



ta neure aitagana joango naz, eta auxe esango dautsat: Aita, pekatu egin neban zeruaren aurka ta zure aurrean; <sup>19</sup>nik ez dot, arrezkero, zure seme-izenik merezi; artu nagizu zure morroietariko bat lez'. <sup>20</sup>Eta jagirik, bere aitagana joan zan.

Oraindiño urrum egoala, bere aitak ikusi ta, errukiz beterik, ariñeketan joan, semeari samatik eldu ta laz-tandu egin eban. <sup>21</sup>Semeak auxe esan eutsan: 'Aita, pekatu egin neban zeruaren aurka ta zure aurrean; nik ez dot, arrezkero, zure seme-izenik merezi'. <sup>22</sup>Baiña, aitak bere morroia auxe esan eutsan: 'Ekarri egizue bizkor soiñekorik onena ta jantzi egiozue; eraztuna eskuan eta oiñetakoak oiñetan ipiñi egiozuez. <sup>23</sup>Zekor gizona ekarri ta il egizue, eta jan eta jai egin dagigun: <sup>24</sup>nire seme au ilda egoan eta biztu egin da-ta; galduta egoan eta aurkitua izan da-ta'. Eta ospatzen asi ziran.

<sup>25</sup>Aren seme nagusia soloan zan; eta biurtzerakoan, etxera urreratu zanean, soiñu ta dantzak entzun ebazan; <sup>26</sup>eta morroietariko bati dei egiñik, guzti a zer izan zeltekean itandu eutsan. <sup>27</sup>Onak auxe esan eutsan: 'Zeure anaia etorri da, eta zure aitak zekor gizona il dau, semea barriro onik etxeratu yakolako'. <sup>28</sup>Semea asarratu egin zan, eta ez eban sartu nai. Bere aita urten, eta erreguka asi yakon. <sup>29</sup>Baiña, arek aitari auxe erantzun eutsan: 'Onenbeste urtetan morroi nakizu, eta ez dot egundo zure agindurik ausi; olan be, antxume bat be ez daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko. <sup>30</sup>Eta zure ondasunak emagalduekaz eraldi dauzan zure seme orrentzat, etorri danekoxe, zekor gizona il dozu!'

<sup>31</sup>Baiña *aitak* auxe esan eutsan: 'Seme, zu beti neugaz zagoz, eta nire guztia zeurea da; <sup>32</sup>egoki zan, ba, ospatu ta poztutea: zure anai au ilda egoan, eta bizitzara biurtu da-ta; galduta egoan, eta aurkitua izan da-ta''.

Padre, pequé contra el cielo y ante ti. <sup>19</sup>Ya no merezco ser llamado hijo tuyo, trátame como a uno de tus jornaleros'. <sup>20</sup>Y, levantándose, partió hacia su padre.

"Estando él todavía lejos, le vio su padre y, conmovido, corrió, se echó a su cuello y le besó efusivamente. <sup>21</sup>El hijo le dijo: 'Padre, pequé contra el cielo y ante ti. Ya no merezco ser llamado hijo tuyo'. <sup>22</sup>Pero el padre dijo a sus siervos: 'Traed aprisa el mejor vestido y vestidle, ponedle un anillo en su mano y unas sandalias en los pies. <sup>23</sup>Traed el novillo cebado, matadlo, y comamos y celebremos una fiesta, <sup>24</sup>porque este hijo mío estaba muerto, y ha vuelto a la vida; estaba perdido, y ha sido hallado'. Y comenzaron la fiesta.

<sup>25</sup>Su hijo mayor estaba en el campo y, al volver, cuando se acercó a la casa, oyó la música y las danzas; <sup>26</sup>y llamando a uno de los criados, le preguntó qué era aquello. <sup>27</sup>El le dijo: 'Ha vuelto tu hermano y tu padre ha matado el novillo cebado, porque le ha recobrado sano'. <sup>28</sup>El se irritó y no quería entrar. Salió su padre, y le suplicaba. <sup>29</sup>Pero él replicó a su padre: "Hace tantos años que te sirvo, y jamás dejé de cumplir una orden tuya, pero nunca me has dado un cabrito para tener una fiesta con mis amigos; <sup>30</sup>y ¡ahora que ha venido ese hijo tuyo, que ha devorado tu hacienda con prostitutas, has matado para él el novillo cebado!'

<sup>31</sup>Pero él le dijo: 'Hijo, tú siempre estás conmigo, y todo lo mío es tuyo; <sup>32</sup>pero convenía celebrar una fiesta y alegrarse, porque este hermano tuyo estaba muerto, y ha vuelto a la vida; estaba perdido, y ha sido hallado''.

### Etkezain zintzo-eza\*

**16** <sup>1</sup>Auxe be ba-zirautsen bere ikasleai: "Gizon aberats batek etkezain bat eban; eta ondasunak ondatu egin utsazala-ta, ugazabari salatu egin utsoen. <sup>2</sup>Ugazabak beragana dei egin eta auxe esan utsan: 'Zer da zutzaz dirausten ori? Garbitu egidazuz etkezaintza orren artu-emonak, onezkero nire etkezain ezin izan zaitkez-ta'. <sup>3</sup>Etkezaiñak berekautan auxe esan eban: 'Zer egingo dot nik nire ugazabak etkezaintza kentzen daustan ezker? Ezin egin daiket atxurran; lotsatu egiten naz eskean ibilten. <sup>4</sup>Ba-dakit zer egin, etkezaintza kendu daistenean, beste batzuek euren etxeetan artu nagien'. <sup>5</sup>Eta bere ugazabaren zordunai banan-banan dei egiñik, lenengoari auxe esan utsan: 'Zenbat zor dautsazu nire ugazabari?' <sup>6</sup>'Eun orio negurri'<sup>o</sup>, erantzun eutsan arek. 'Artu zure ordain-agiria —esan eutsan etkezaiñak—, jesarri arin eta idatzi berrogetamar'. <sup>7</sup>Gero, beste bati auxe esan eutsan: 'Zuk, zenbat zor dozu?' 'Eun gari-negurri'<sup>o</sup>, erantzun eban arek. Etkezaiñak dirautso: 'Artu zure ordain-agiria ta idatzi larogei'. <sup>8</sup>Ugazabak etkezain a goratu egin eban, maltzurkiro jokatu ebalako mundu onetako semeak, euren artu-emonetan, argiaren semeak baiño maltzurragoak dira-ta\*.

### Ondasunak ondo erabili\*

(Mt. 25, 21; Lk. 19, 17)

<sup>9</sup>'Auxe dirautsuet: Egizuez adiskideak aberastasun

**16 Zintzoa ez zan etkezaiña.** 16-18<sup>o</sup>garren ataltxoak izan ezik, atal guzti onek aberastasunak erabilteari buruz diardu.

**16, 8 Egoera gaitz batetik urteteko izan eban trebetasunagaitik, etkezaiña goratua (izan) da.**

**16, 9 Ondasunak ondo erabili.** Ia beti, diruari jaurten yako bide-bagekeriren baten errua, baita Jaungoikoaren serbitzutik okertzeraiño, gizona azpiratzearen errua be.

\* 4.000 litro orio.—° 40.000 killo gari.

### El administrador infiel\*

20, 17 se ha convertido. Cita del Sal. 118, 22.

## Ildakoen biztuera

(Mt. 22, 23-33; Mk. 12, 18-27)

<sup>27</sup>Biztuerarik ez dagoala diñoen Saduzeotariko batzuk urreraturik, itaun au egin eutsoen: <sup>28</sup>“Irakasle, Moises’ek auxe itxi euskun idatzita: Seme bagariko anai ezkondua norbaiti ilten ba’yako, aren anaiak alarguna beretzat artu dagiala, anai zanari ondorengoa izteko. <sup>29</sup>Zazpi anai ziran; lenengoa ezkondu, eta seme bagarik il zan; <sup>30</sup>eta alarguna bigarrenak artu eban, <sup>31</sup>gero irugarrenak; alantxe, zazpi anaiak ondorengorik itxi bagarik il ziran guztiak. <sup>32</sup>Azkenez, emakumea be il egin zan. <sup>33</sup>Onetara, ba: biztueran, areitariko norena izango da emazte?, zazpirak izan eben emaztetzat-eta?”

<sup>34</sup>Jesus’ek auxe esan eutsen: “Mundu onetako semeak, bai, artzen dabe emaztea edo senarra; <sup>35</sup>baiña, beste munduko ta illen biztuerarako gai izatea jadetsi dagienak, ez gizonak artuko dabe emazterik, ez emazteak senarrak, <sup>36</sup>il be ezin il daitekez barriro; biztuera-semeak izanik, aingeruak eta Jaungoikoaren semeak legetxe dira-ta. <sup>37</sup>Olakoak biztu egiten dirala, barriz, Moises’ek be adierazo dau sasiko atal aretan, Jaunari *Abraham’ en Jaungoikoa, Isaac’ en Jaungoikoa, eta Jakob’ en Jaungoikoa* esaten dautsanean\*. <sup>38</sup>Ez da ildakoen Jaungoikoa, biziena baiño, Arentzat guztiak bizi dira-ta”.

(Mt. 22, 46; Mk. 12, 34)

<sup>39</sup>Idazlarietariko batzuek auxe esan eutsoen: “Irakasle, ederto egin dozu berba\*.” <sup>40</sup>Eta ez eben ezer geiago itauntzeko arpegirik.

20, 37 Ex. 3, 6.

20, 39 Idazlariak, euretarik geienak pariseuak, ildakoen biztuera sinistu egiten eben (cf. Mt. 22, 23).

## La resurrección de los muertos

(Mt. 22, 23-33; Mc. 12, 18-27)

<sup>27</sup>Acercándose algunos de los saduceos, esos que sostienen que no hay resurrección, le preguntaron: <sup>28</sup>“Maes- alguno que estaba casado y no tenía hijos, que su hermano tome a la mujer para dar descendencia a su hermano. tome a la mujer para dar descendencia a su hermano. <sup>29</sup>Eran siete hermanos; habiendo tomado mujer el primero, murió sin hijos; <sup>30</sup>y la tomó el segundo, <sup>31</sup>luego el tercero; del mismo modo los siete murieron también sin dejar hijos. <sup>32</sup>Finalmente, también murió la mujer. <sup>33</sup>Esta, pues, ¿de cuál de ellos será mujer en la resurrección? Porque los siete la tuvieron por mujer”.

<sup>34</sup>Jesús les dijo: “Los hijos de este mundo toman mujer o marido; <sup>35</sup>pero los que alcancen a ser dignos de tener parte en el otro mundo y en la resurrección de entre los muertos, ni ellos tomarán mujer ni ellas marido, <sup>36</sup>ni pueden ya morir, porque son como ángeles, y son hijos de Dios; siendo hijos de la resurrección. <sup>37</sup>Y que los muertos resucitan lo ha indicado también Moisés en lo de la zarza, cuando llama al Señor *el Dios de Abraham, Dios de Isaac y Dios de Jacob*\*. <sup>38</sup>No es un Dios de muertos, sino de vivos, porque para él todos viven”.

(Mt. 22, 46; Mc. 12, 34)

<sup>39</sup>Algunos de los escribas le dijeron: “Maestro, has hablado bien”\*. <sup>40</sup>Y ya no se atrevían a preguntarle nada.

20, 37 de Jacob. Cita de Ex. 3, 6.

20, 39 hablado bien. Los escribas, en su mayor parte fariseos, creían en la resurrección de los muertos: cf. Mt. 22, 23+.



### Kristo, Dabid'en seme ta Jaun

(Mt. 22, 41-45; Mk. 12, 35-37)

<sup>41</sup>Jesus'ek itaun au egin eutsen: "Zelan diño e Kris-to'a Dabid'en seme dala? <sup>42</sup>Dabid'ek berak Salmue-tan auxe diño-ta: *Jaunak nire Jaunari auxe esan eu-tsan: Jesarri zaitetz nire eskumaldean*, <sup>43</sup>zure arerioak oinpean jarri dagitzudazan arte\*. <sup>44</sup>Beraz, Dabid'ek ize-na Jaun emoten dautso; zelan izan daiteke, ba, Dabid'en seme?"

### Idazlarien azaluseria

(Mt. 23, 6-7; Mk. 12, 38-40)

<sup>45</sup>Erri guztiak entzuten ziarduala, ikasleai auxe esan eutsen: "Zaindu zuen buruak idazlariakandik: jantzi za-balaz ibiltea atsegin yake, eta plazetan agurtuak izatea, sinagogetan lenengo tokiak eta bazkarietan lenengo jarle-kuak artzea nai izaten dabe; <sup>46</sup>azalezko otoiitz luzeen bi-dez, alargunen ondasunak iruntsiten dabez. Orreik epai zorrotzagoa izango dabe".

### Andra alargunaren limosnatxo

(Mk. 12, 41-44)

**21** <sup>1</sup>Begiak jasorik, aberats batzuk ikusi ebazan, Di-ru-kutxan euren opariak izten. <sup>2</sup>Emakume alar-gun beartsu bat be ikusi eban, an txanpon bi izten; <sup>3</sup>eta auxe esan eban Jesus'ek: "Benetan dirautsuet: emaku-me txiro orrek, beste guztiak baiño geiago itxi dau: <sup>4</sup>gaiñezka dabenetik itxi dabe guztiak-eta; orrek, barriz, bizi izateko bear ebanetik, eukan guztia itxi dau".

### Cristo, hijo y Señor de David

(Mt. 22, 41-45; Mc. 12, 35-37)

<sup>41</sup>Les preguntó: "¿Cómo dicen que el Cristo es hijo de David? <sup>42</sup>Porque David mismo dice en el libro de los Salmos: *Dijo el Señor a mi Señor: Siéntate a mi dies-tra* <sup>43</sup>hasta que ponga a tus enemigos por escabel de tus pies\*. <sup>44</sup>David, pues, le llama Señor; ¿cómo entonces puede ser hijo suyo?"

### Los escribas juzgados por Jesús

(Mt. 23, 617; Mc. 12, 38-40; Lc. 11, 43)

<sup>45</sup>Estando todo el pueblo oyendo, dijo a los discipu-los: <sup>46</sup>"Guardaos de los escribas, que gustan pasear con amplio ropaje y quieren ser saludados en las plazas, ocupar los primeros asientos en las sinagogas, y los primeros puestos en los banquetes; <sup>47</sup>y que devoran la hacienda de las viudas so capa de largas oraciones. Esos tendrán una sentencia más rigurosa".

### El óbolo de la viuda

(Mc. 12, 41-44)

**21** <sup>1</sup>Alzando la mirada, vio a unos ricos que echa-ban sus donativos en el arca del Tesoro; <sup>2</sup>vio también a una pobre viuda que echaba allí dos moneditas, <sup>3</sup>y dijo: "De verdad os digo que esta viuda pobre ha echado más que todos. <sup>4</sup>Porque todos éstos han echado co-mo donativo de lo que les sobra; ésta, en cambio, ha echado de lo que necesitaba, todo cuanto tenía para vivir".

Jerusalen'en ondamendiari buruzko itzaldia\*.  
Sarrera

(Mt. 24, 1-3; Mk. 13, 1-4)

<sup>5</sup>Batzuek Eliza Nagusia arri ederrez eta opariz apainduta egoala esaten ziarduen-eta, Jesus'ek auxe esan eutsen: <sup>6</sup>“Elduko dira egunak, bai, eta guzti onetatik ez da arri bat bestearen gainean lur jo bagarik geldituko”. <sup>7</sup>Auxe itandu eutsoen: “Irakasle, noiz jazoko da ori? Eta guzti ori bete daiteneko ezaupidea, zein izango da?”

Aurretiko ezaugarriak

(Mt. 24, 4-14; Mk. 13, 5-13)

<sup>8</sup>Jesus'ek auxe esan eban: “Begira, gero!, ez zagiezala inõk azpikeriz eroan. Etorri be, asko etorriko dira neure izena artu ta 'Neu naz' eta 'ur dago sasoa' esanez. Ez egiezue jarraitu. <sup>9</sup>Gudu (*gerra*) ta matxiñadai buruz berba egiten entzun dagizuenean, ez ikaratu: guztiok jazo bearrak dira lenengo-ta; ez da oraindiño azkena”. <sup>10</sup>Orduan, auxe esan eutsen: “Erri bat beste erri baten aurka jagiko da, eta erreñu bat beste baten aurka. <sup>11</sup>Lurrikara aundiak, izurrite<sup>o</sup> ta goseteak izango dira leku batzuetan; jazopen ikaragarriak eta ezaugarri aundiak izango dira zeruan.

(Mt. 10, 17-22)

<sup>12</sup>“Baiña, guzti au jazo baiño len, eskuak ezarriko dau-tsuez, eta aurrean erabiliko zaitue, sinagogetan eta kartzeletan itxiez, eta erregeen eta agintarien aurrera eroanez nire izen au dala-ta; <sup>13</sup>ori, autor egin dagizuen<sup>o</sup> jazoko ya-

21. 5 Jerusalem'en ondamendiari buruzko itzaldia. Lukas'ek, Jesus' en etorrera aintzatsua len be aitatu dauan ezkerre (17, 22), orain azkenean baiño ez dau aitatu, <sup>25</sup>garren ataltxoan. (Cf. Mt. 24, 1).

<sup>o</sup> Izurrite: peste.— <sup>o</sup> Autor egin: dar testimonio.— <sup>o</sup> Joputza: es-clavitud.

Discurso sobre la ruina de Jerusalén.\*  
Introducción

(Mt. 24, 1-3; Mc. 13, 1-4)

<sup>5</sup>Como dijieran algunos, acerca del Templo, que estaba adornado de bellas piedras y ofrendas votivas, él dijo: <sup>6</sup>“Esto que veis, llegarán días en que no quedará piedra sobre piedra que no sea derruida”. <sup>7</sup>Le preguntaron: “Maestro, ¿cuándo sucederá eso? Y ¿cuál será la señal de que estas cosas van a ocurrir?”.

Señales precursoras

(Mt. 24, 4-14; Mc. 13, 5-13)

<sup>8</sup>El dijo: “Mirad, no nos dejéis engañar. Porque vendrán muchos usurpando mi nombre y diciendo: ‘Yo soy’ y ‘el tiempo está cerca’. No les sigáis. <sup>9</sup>Cuando oigáis hablar de guerras y revoluciones, no os aterréis; porque es necesario que sucedan primero estas cosas, pero el fin no es inmediato”. <sup>10</sup>Entonces les dijo: “Se levantará nación contra nación y reino contra reino. <sup>11</sup>Habrá grandes terremotos, peste y hambre en diversos lugares, habrá cosas espantosas, y grandes señales del cielo.

(Mt. 10, 17-22)

<sup>12</sup>“Pero antes de todo esto, os echarán mano y os perseguirán, entregándoos a las sinagogas y cárceles y llevándoos ante reyes y gobernadores por mi nombre; <sup>13</sup>esto os sucederá para que deis testimonio. <sup>14</sup>Proponed, pues, en vuestro corazón no preparar la defensa, <sup>15</sup>porque

21. 5 Discurso sobre la ruina de Jerusalén. Lc, que ha tratado ya, 17, 22s+, de la vuelta gloriosa de Jesús, no la mencionará esta vez sino al final, vv. 25s. Cf. Mt. 24, 1+.



tzue. <sup>14</sup>Zuen buruak aurretiaz ez zuritzeko erabagia artu egizue, ba, zuen biotzean: <sup>15</sup>zuen arerio guztiak ezin gogor egin eta erantzun aal izango dautsoen berbetako etorria ta jakituria emongo dautsuet nik\* orduan-eta. <sup>16</sup>Gurasoak, anaiak, senideak eta adiskideak izango dozuez salatzaile, eta zuetariko batzui eriotza emongo dautse; <sup>17</sup>eta nire Izenagaitik, guztien gorrotagarri izango zaree. <sup>18</sup>Baiña, zuen buruko ule bat be ez da galduko. <sup>19</sup>Zuen arimak zeuen eroapenez atarako dazuez onik.

### Jerusalen, inguratuta

(Mt. 24, 15-20; Mk. 13, 14-18)

<sup>20</sup>“Jerusalen gudaroztez inguratuta ikusi dagizuenean\*, jakin egizue orduan aren ondamentia ur dagoana. <sup>21</sup>Orduan, Judea'n egon daitezanak, iges egin begie mendieta-ra, eta uri-barruan egon daitezanak, ez daitezala en sartu: <sup>22</sup>egun areik zigorrezko egunak izango dira-ta; eta idatzita dagoan guztia beteko da. <sup>23</sup>Errukarriak, benetan, egun areitan seiña (*umea*) egiteko ta azten egon daitezanak!”

### Ondamentia ta jentillen sasoi\*

(Mt. 24, 21; Mk. 13, 19)

“Izan be, zoritxar aundia izango da lur-gaiñean, eta zigorra erri onen aurka; <sup>24</sup>ezpataz jota ilgo dira, eta atzerri guztietara joputzarako<sup>o</sup> eroanak izango dira, eta jentillak Jerusalem ostikopetu egingo dabe, jentillen sasoi bete daiten arte\*”.

21, 15 Espiritu (Santuaren) doai bat be ba-da (12, 12; Mt. 19, 20; Mk. 13, 11; Ap. Eg. 6, 10; cf. Yn. 16, 13-15).

21, 20 gudaroztez. “Ondamenti inguingarria” da (Mt. 24, 15).

21, 23 jentillen sasoi. Aldiren baten, jentillak erri ez-zintzoaren leku artuko dabe, barrero parastaka biurtu arte (Errom. 11, 11-32).

yo\* os daré una elocuencia y una sabiduría a la que no podrán resistir ni contradecir todos vuestros adversarios. <sup>16</sup>Seréis entregados por padres, hermanos, parientes y amigos, y matarán a algunos de vosotros, <sup>17</sup>y seréis odiados de todos por causa de mi nombre. <sup>18</sup>Pero no perderá ni un cabello de vuestra cabeza. <sup>19</sup>Con vuestra perseverancia salvaréis vuestras almas.

### Asedio a Jerusalén

(Mt. 24, 15-20; Mc. 13, 14-18)

<sup>20</sup>“Cuando veáis a Jerusalén cercada por ejércitos\*, sabed entonces que está cerca su desolación. <sup>21</sup>Entonces, los que estén en Judea, huyan a los montes; y los que estén en medio de la ciudad, que se alejen; y los que estén en los campos, que no entren en ella; <sup>22</sup>porque éstos son días de castigo, y se cumplirá todo cuanto está escrito. <sup>23</sup>¡Ay de las que estén encinta y criando en aquellos días!

### La catástrofe y el tiempo de los gentiles\*

(Mt. 24, 21; Mc. 13, 19)

“Habrà, en efecto, una gran calamidad sobre la tierra, y Cólera contra este pueblo; <sup>24</sup>y caerán a filo de espada, y serán llevados cautivos a todas las naciones, y Jerusalén será pisoteada por los gentiles, hasta que se cumpla el tiempo de los gentiles.

21, 15 yo. Es también un don del Espíritu, 12, 12; Mt. 10, 20; Mc. 13, 11; Hch. 6, 10; cf. Jn. 16, 13-15.

21, 20 por ejércitos. Es la “abominación de la desolación”, Mt. 24, 15+.

21, 23 el tiempo de los gentiles. Un período indeterminado en el que los paganos suplantarán al pueblo infiel hasta su vuelta en masa, Rm. 11, 11-32.

### Ortzi-ondamendiak eta Gizasemearen etorrera

(Mt. 24, 29-30; Mk. 13, 24-26)

<sup>25</sup>“Eguzkian, illargian eta izarretan ezaugarriak izango dira; eta lurtean, laguntaldean estura, itxaso ta olatuen zaratotsa dala-ta, <sup>26</sup>munduari jazo bear yakozanai begira, gizakumeak ikaraz eta larri ibiliko dira; zerueta-ko indarrak astinduak izango dira-ta.

<sup>27</sup>“Eta orduan, Gizasemea ikusiko dabe, indar eta aintza aundiz laiño baten etorten. <sup>28</sup>Olakoak jazoten asi daitezanean, adoretu zaitze ta jaso egizue burua, zuen askatasuna urr dago-ta”.

### Etorrera-unea

(Mt. 24, 32-35; Mk. 13, 28-31)

<sup>29</sup>Ipuin au esan eutsen gaiñera: “Begira pikondoa ta zugatz (*arbola*) guztiak: <sup>30</sup>ziltzen asten diranean, areik ikustean, ba-dakizue ud(e)a urr dagoana. <sup>31</sup>Orrelaxe zuek be: au jazoten ikusi dagizuenean, jakin egizue Jaungoikoaren Erreñua urr dagoana. <sup>32</sup>Benetan dirautsuet: ez da gizaldi au igaroko, guzti au bete arte. <sup>33</sup>Zerulurrak igaro egingo dira, baiña nire berbak ez dira igaroko”.

### Iratzarrik egon-bearra.

<sup>34</sup>“Zaindu egizue zuen buruak, nasaikeri, moskokeri ta arazoetan zuen biotzak astundu ez daitezcan, eta egun a bat-batean gaiñera jausi ez dakizuen, <sup>35</sup>sarea lez: lurbira osoan bizi diran guztai etorriko yake gaiñera-ta. <sup>36</sup>Iratzarrik egon, ba, beti otoitz egiten, indarra izan da-

### Catástrofes cósmicas y venida del Hijo del hombre

(Mt. 24, 29-30; Mc. 13, 24-26)

<sup>25</sup>“Habrá señales en el sol, en la luna y en las estrellas; y en la tierra angustia de las gentes, perplejos por el estruendo del mar y de las olas, <sup>26</sup>muriéndose los hombres de terror y de ansiedad por las cosas que vendrán sobre el mundo; porque las fuerzas de los cielos serán sacudidas. <sup>27</sup>Y entonces verán venir al Hijo del hombre en una nube con gran poder y gloria. <sup>28</sup>Cuando empiecen a suceder estas cosas, cobrad ánimo y levantad la cabeza, porque se acerca vuestra liberación”.

### El momento de la venida

(Mt. 24, 32-35; Mc. 13, 28-31)

<sup>29</sup>Les añadió una parábola: “Mirad la higuera y todos los árboles. <sup>30</sup>Cuando ya echan brotes, al verlos, caéis en cuenta de que el verano está ya cerca. <sup>31</sup>Así también vosotros, cuando veáis que sucede esto, caed en cuenta de que el Reino de Dios está cerca. <sup>32</sup>Yo os aseguro que no pasará esta generación hasta que todo esto suceda. <sup>33</sup>El cielo y la tierra pasarán, pero mis palabras no pasarán.

### Estar alerta para no ser sorprendidos

<sup>34</sup>Guardaos de que no se hagan pesados vuestros corazones por el libertinaje, por la embriaguez y por las preocupaciones de la vida, y venga aquel Día de improviso sobre vosotros, <sup>35</sup>como un lazo; porque vendrá sobre todos los que habitan toda la faz de la tierra. <sup>36</sup>Estad en vela, pues, orando en todo tiempo para que tengáis fuer-



gizuen eta etorkero dan guzti oni iges egin dagiozuen, eta Gizasemearen aurrean zutik egon aal izan zaitezzen”.

### Jesus'en azkenengo egunak

<sup>37</sup>Egunez Jaunaren Etxean irakasten eban; eta gaba igarotera, Oriotegi izeneko mendira igoten zan. <sup>38</sup>Eta erri guztia goizean-goiz joaten zan Jesus'egana, Jaunaren Etxean berari entzutera.

## VI

### NEKALDIA

#### Jesus'en aurkako azpi-jokoa, eta Judas'en saldukeria

(Mt. 26, 1-5; Mk. 14, 1-2; Yn. 11, 47-53)

**22** <sup>1</sup>Ur zan Pazkoa izeneko Otil-jaieguna. <sup>2</sup>Abadeburu ta idazlariak Jesus zelan il eikeen billa ziarduen, erriaren bildur ziran-eta.

(Mt. 26, 14-16; Mk. 14, 10-11)

<sup>3</sup>Orduan, Iskariote izeneko Judas'egan Satanas sartu zan; Judas ori, barriz, Amabietariko bat zan; <sup>4</sup>eta abadeburu ta (*Jaunaren Etxeko*) zaintzaille nagusiakaz berba egitera joan zan, ia Jesus arein eskuetan zelan itxi eikean. <sup>5</sup>Areik poztu egin ziran eta dirua emongo eutsoela agindu eutsoen. <sup>6</sup>Judas'ek baiezkoa emon eutsen; eta arrezkero, laguntaldearen ixillean, Jesus arei emoteko aukera-billa ziarduan.

#### Pazko-aparia atontzen

(Mt. 26, 17-19; Mk. 14, 12-16)

<sup>7</sup>Eldu zan Pazko-bildotsa oparitzat ilteko Otil-egu-

za y escapéis a todo lo que está para venir, y podáis estar en pie delante del Hijo del hombre”.

### Los últimos días de Jesús

<sup>37</sup>Por el día enseñaba en el Templo y salía a pasar la noche en el monte llamado de los Olivos. <sup>38</sup>Y todo el pueblo madrugaba para ir donde él y escucharle en el Templo.

## VI

### LA PASION

#### Conspiración contra Jesús y traición de Judas

(Mt. 26, 1-5; Mc. 14, 1-2; Jn. 11, 47-53)

**22** <sup>1</sup>Se acercaba la fiesta de los Azimos, llamada Pascua. <sup>2</sup>Los sumos sacerdotes y los escribas andaban buscando cómo hacerle desaparecer, pues temían al pueblo.

(Mt. 26, 14-16; Mc. 14, 10-11)

<sup>3</sup>Entonces Satanás entró en Judas, llamado Iscariote, que era del número de los Doce; <sup>4</sup>y se fue a tratar con los sumos sacerdotes y los jefes de la guardia del modo de entregárselo. <sup>5</sup>Ellos se alegraron y quedaron con él en darle dinero. <sup>6</sup>El aceptó y andaba buscando una oportunidad para entregarle sin que la gente lo advirtiera.

#### Preparativos para la Cena pascual

(Mt. 26, 17-19; Mc. 14, 12-16)

<sup>7</sup>Llegó el día de los Azimos, en el que se había de

na; <sup>8</sup>eta Pedro ta Yon bialdu ebazan, esanez: “Zoaze, eta gertatu eiguzue Pazkoa, jan dagigun”. <sup>9</sup>Areik auxe esan eutsoen: “Nun nai dozu gertatu dagigun?” <sup>10</sup>“Urian sartu zaitezenean, —erantzun eutsen Jesus’ek—, gizon bat urtengo yatzue bidera, ur-edarra bat daroala; jarraitu egiozue sartu daiten etxeragiño, <sup>11</sup>eta auxe esan egiozue etxeko ugazabari: ‘Auxe dirautsu Irakasleak: Nun dago jantokia, nire ikasleak batera Pazkoa jan dagidan?’ <sup>12</sup>Arek gela aundi bat erakutsiko dautsue atonduta, gorengo bizitokian: autxe gertatu”. <sup>13</sup>Joan ziran eta esan izan eutsenez aurkitu eben, eta Pazkoa gertatu eben.

### Pazko-aparia

<sup>14</sup>Ordua eldu zanean, apostoluakaz maian jarri zan; <sup>15</sup>eta auxe esan eutsen: “Gogo biziiaz gura izan dot nekeak eroaten asi baiño len Pazko au zuekaz batera jatea. <sup>16</sup>Ba-dirautsuet: ez dot Pazko au barriro jango, Jaungoikoaren Erreñuan bete daiten arte”\*. <sup>17</sup>Eta edontzi<sup>o</sup> bat arturik\*, eskerrak emon eta auxe esan eban: “Artu au ta banandu egizue zuen artean. <sup>18</sup>Ba-dirautsuet: onezkero, ez dot maats-ardao onetatik barriro edango Jaungoikoaren Erreñua etorri daiten arte.

### Eukaristia

(Mt. 26, 26-28; Mk. 14, 22-24; Kor. 1.<sup>a</sup>, 11, 23-25)

<sup>19</sup>Eta ogia artu, eskerrak emon, banandu ta emon egin eutsen, esanez: “Au neure gorputza da, zeuen alde

22, 16 Eukaristia egiteaz, eta gero, era osoz eta estalki bagarik, aldien azkenean.

22, 17 Lukas’ek tartide (paralelismo) bat dakar: Pazkoa, eta gero Pazko-apariko edontzia alde batetik, eta bestetik, ogia eta Alkartasun Barriko edontzia (19-20).

<sup>o</sup> Edontzi = edan-ontzi: cáliz, copa, vaso.

sacrificarse el cordero de Pascua; <sup>8</sup>y envió a Pedro y a Juan, diciendo: “Id y preparadnos la Pascua para que la comamos”. <sup>9</sup>Ellos le dijeron: “¿Dónde quieres que la preparemos?”. <sup>10</sup>Les respondió: “Cuando entréis en la ciudad, os saldrá al paso un hombre llevando un cántaro de agua; seguidle hasta la casa en que entre, <sup>11</sup>y diréis al dueño de la casa: ‘El Maestro te dice: ¿Dónde está la sala donde pueda comer la Pascua con mis discípulos?’”. <sup>12</sup>El os enseñará en el piso superior una sala grande, ya dispuesta; haced allí los preparativos”. <sup>13</sup>Fueron y lo encontraron tal como les había dicho, y prepararon la Pascua.

### La Cena pascual

<sup>14</sup>Cuando llegó la hora, se puso a la mesa con los apóstoles; <sup>15</sup>y les dijo: “Con ansia he deseado comer esta Pascua con vosotros antes de padecer; <sup>16</sup>porque os digo que ya no la comeré más hasta que halle su cumplimiento\* en el Reino de Dios”.

<sup>17</sup>Y tomando una copa\*, dadas las gracias, dijo: “Tomad esto y repartiadlo entre vosotros; <sup>18</sup>porque os digo que, a partir de este momento, no beberé del producto de la vid hasta que llegue el Reino de Dios”.

### Institución de la Eucaristía

(Mt. 26, 26-28; Mc. 14, 22-24; 1 Co. 11, 23-25)

<sup>19</sup>Tomó luego pan, y dadas las gracias, lo partió y se lo dio diciendo: “Este es mi cuerpo que va a ser

22, 16 halle su cumplimiento. Con la institución de la Eucaristía y luego, de una manera total y sin velos, al fin de los tiempos.

22, 17 una copa. Lc. presenta un paralelismo: la Pascua, y luego una copa de la cena pascual por una parte, y por otra el pan y la copa de la nueva Alianza, vv. 19-20.



eskiñiko dana; au, neure gomutaz egizue". <sup>20</sup>Era be-rean egin eban edontziaz (*kalizaz*) be, apalondoan: "Edontzi au, Alkartasun Barria da nire odoletan, zeuen alde isuriko dana".

#### Judas'en saldukeria agertzen dau

(Mt. 26, 20-25; Mk. 14, 17-21; Jn. 13, 21-30)

<sup>21</sup>"Ementxe dago, barriz, nigaz maian ni saltzen nauanaren eskua. <sup>22</sup>Izan be, Gizasemea ba-doa, erabagita dagoanez. Baiña, errukarria benetan, Gizasemea saltzen dauan gizona!" <sup>23</sup>Orduan, areik alkarregaz eztabaidan asi ziran, euretariko nor ete-litzaken olakorik egin leikena.

#### Nor da nagusiena?

(Mt. 20, 25-27; Mk. 10, 42-44)

<sup>24</sup>Eztabaida bat be sortu zan euren artean, ia nor ete-zeitekean euretariko nagusiena. <sup>25</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: "Errietako erregeak erria euren menpean dauke eskubide osodun jaunak lez; eta arein gain aginpi-dea dabena, Ongille izena emoten dautse. <sup>26</sup>Zuen artean, barriz, ez bedi orrela izan, bestetara baiño: zuetariko aundiena, txikiena lez izan daitela, eta agintzen dauana morroitzen diarduana lez. <sup>27</sup>Nor da, izan be, aundiago?, maian dagoana ala maian morroi dagoana? Maian dagoana, ezta? Emen, ba: ni zuen artean morroi lez diardut".

#### Apostoluai agindutako saria

(Mt. 19, 28)

<sup>28</sup>"Zuek nire larrialdietan neugaz iraun dozue; <sup>29</sup>eta nik, nire aldetik, Erreiñua atontzen dautsuet, niri Aitak atondu daustanez: <sup>30</sup>nire Erreiñuan neure maian jan

entregado por vosotros; haced esto en recuerdo mío". <sup>20</sup>De igual modo, después de cenar, el cáliz, diciendo: "Este cáliz es la Nueva Alianza en mi sangre, que va a ser derramada por vosotros.

#### Anuncio de la traición de Judas

(Mt. 26, 20-25; Mc. 14, 17-21; Jn. 13, 21-30)

<sup>21</sup>"Pero la mano del que me entrega está aquí conmigo sobre la mesa. <sup>22</sup>Porque el Hijo del hombre se marcha según está determinado. Pero, ¡ay de aquel por quien es entregado!". <sup>23</sup>Entonces se pusieron a discutir entre sí quién de ellos sería el que iba a hacer aquello.

#### ¿Quién es el mayor?

(9, 46; Mt. 20, 25-27; Mc. 10, 42-44)

<sup>24</sup>Entre ellos hubo también un altercado sobre quién de ellos parecía ser el mayor. <sup>25</sup>El les dijo: "Los reyes de las naciones las gobiernan como señores absolutos, y los que ejercen el poder sobre ellos se hacen llamar Bienhechores; <sup>26</sup>pero no así vosotros, sino que el mayor entre vosotros sea como el más joven y el que gobierna como el que sirve. <sup>27</sup>Porque, ¿quién es mayor, el que está a la mesa o el que sirve? ¿No es el que está a la mesa? Pues yo estoy en medio de vosotros como el que sirve.

#### Recompensa prometida a los apóstoles

(Mt. 19, 28)

<sup>28</sup>"Vosotros sois los que habéis perseverado conmigo en mis pruebas; <sup>29</sup>yo, por mi parte, dispongo un Reino para vosotros, como mi Padre lo dispuso para mí, <sup>30</sup>para

eta edan dagizuen, eta Israel'go amabi jatorriak epaitzeko auzi- jarlekuetan jesarri zaitezzen".

### Pedro'ren ukatzea ta damua agertzen dau

(Mt. 26, 31-35; Mk. 14, 27-31; Yn. 13, 26-38)

<sup>31</sup>"Simon, Simon! Begira: zuek garia lez galbaatze-ko eskubidea eskatu dau Satanask; <sup>32</sup>baiña, nik zeure alde erregutu dot, zure sinistea makaldu ez daiten. Eta zuk, onbideratu zaitezanean, sendotu egizuz zure anaiak". <sup>33</sup>Pedro'k auxe esan eban: "Jauna, gertu nago giltzaperata eriotzaraiño be zeugaz joateko". <sup>34</sup>Jesus'ek, barriz, auxe esan eutsan: "Zeuri dirautsut, Pedro: ez dau gaur oillarrak kukurruku egingo, zuk ni ezagutzen nozula iru bidar ukatu baiño len".

### Burrukan egiteko ordua

<sup>35</sup>Eta auxe esan eutsen: "Zakuto, bide-zorro ta oiñetako bagarik bialdu zenduedazanean, zerbaiten bearrik izan zenduen?" <sup>36</sup>"Ezerenik be ez", esan eben areik. Jesus'ek auxe esan eutsen: "Orain, barriz, zakutoa daukanak, artu dagiala, eta bardin bide-zorroa be; eta ez daukanak, bere soingaiñekoa saldu ta erosi begi ezpata bat". <sup>37</sup>*Guizkilletzak artua izan da*, idatzitako au, neugan bete bear dala dirautsuet-eta. Izan be, nireak laster egin-gou dau". <sup>38</sup>Areik auxe esan eben: "Jauna, ona emen ezpata bi?". "Naikoa da", esan eutsen Jesus'ek.

### Jesus'en larrialdia

(Mt. 26, 36-46; Mk. 14, 32-42)

<sup>39</sup>Andik urten eta, oitura ebanez, Oriomendi'ra joan

22, 36 Onekero ez da abegi adikorri begira egon bear (10, 4-5), bestetara baiño: guztien areriokeriaren aurka burrukan egiteko gertu egon bear da (cf. 12, 51; Mt. 10, 34).

que comáis y bebáis a mi mesa en mi Reino y os sentéis en tronos para juzgar a las doce tribus de Israel.

### Anuncio de la negación y del arrepentimiento de Pedro

(Mt. 26, 31-35; Mc. 14, 27-31; Jn. 13, 36-38)

<sup>31</sup>¡Simón, Simón! Mira que Satanás ha solicitado el poder eribaros como trigo; <sup>32</sup>pero yo he rogado por ti, para que tu fe no desfallezca. Y tú, cuando hayas vuelto, confirma a tus hermanos". <sup>33</sup>El le dijo: "Señor, estoy dispuesto a ir contigo hasta la cárcel y la muerte". <sup>34</sup>Pero él dijo: "Te digo, Pedro: No cantaré hoy el gallo antes que hayas negado tres veces que me conoces".

### La hora del combate decisivo

<sup>35</sup>Y les dijo: "Cuando os envié sin bolsa, sin alforja y sin sandalias, ¿os faltó algo?". Ellos dijeron: "Nada". <sup>36</sup>Les dijo: "Pues ahora, el que tenga bolsa que la tome y lo mismo alforja, y el que no tenga, que venda su manto y compre una espada"; <sup>37</sup>porque os digo que es necesario que se cumpla en mí esto que está escrito: *'Ha sido contado entre los malhechores'*. Porque lo mío toca a su fin". <sup>38</sup>Ellos dijeron: "Señor, aquí hay dos espadas". El les dijo: "Basta".

### Agonía de Jesús

(Mt. 26, 36-46; Mc. 14, 32-42)

<sup>39</sup>Salió y, como de costumbre, fue hacia el monte

22, 36 una espada. No hay que contar ya con una acogida amistosa, 10, 4-5, sino que hay que disponerse a luchar contra la hostilidad general, cf. 12, 51; Mt. 10, 34.



zan, eta ikasleak jarraitu egin eutsoen. <sup>40</sup>Ara elduta, auxe esan eutsen: "Otoitz egizue, tentaldian jausi ez zaitezzen". <sup>41</sup>Eta arekandik arrikada bat bide-edo urrinduzan; eta belaunikotuta, otoitz egiten ziarduan, <sup>42</sup>esanez: "Aita, nai ba'dozu, kendu egidazu edontzi au; baiña, ez bedi nire gogoa egin, zeurea baiño!" <sup>43</sup>Orduan, zerrutik aingeru bat agertu yakon, eta adorea emoten eutsan. <sup>44</sup>Eta larri gorritan jarrita, ekiñago ziarduan ototizean. Izerdia odol-tantak lez egin yakon, lurrera jausten zirala.

<sup>45</sup>Otoitzetik jagirik, bere ikasleakana etorri ta nagabez lotan aurkitu ebazan; <sup>46</sup>eta auxe esan eutsen: "Zegaitik zagoze lo? Jagi ta otoitz egizue, tentaldian jausi ez zaitezzen".

### Jesus, lotuta daroe

(Mt. 26, 47-56; Mk. 14, 43-50; Yn. 18, 3-11)

<sup>47</sup>Jesus'ek berbetan ziarduan artean, laguntaldea etorri zan. Guztien aurrean, Judas izeneko Amabietariko bat etorren, eta Jesus'egana urreratu zan laztan bat emotera. <sup>48</sup>Jesus'ek auxe esan eutsan: "Judas, laztan bat az saltzen dozu Gizasemea?" <sup>49</sup>Inguruan egozanak, an jazo zeitekeana ikusirik, auxe esan eben: "Jauna, ezpataz joko doguz?" <sup>50</sup>Eta areitariko batek Abadeburuaren morroia zauritu ta eskumako belarria moztu eutsan. <sup>51</sup>Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsan: "Itxi! Naikoa da!" Eta belarria ikuturik, osatu egin eutsan.

<sup>52</sup>Jesus'ek, bere aurka etorri ziran abadeburu, Jaunaren Etxeko zaintzaille nagusi ta zaarrai auxe esan eutsen: "Lapur baten aurka lez urten zaree ezpataz eta makillaz?" <sup>53</sup>Zuekaz egun oro Jaunaren Etxean nengoala, ez zeusten eskurik ezarri; baiña, auxe da zuen lana ta illunpeen indarra".

de los Olivos, y los discípulos le siguieron. <sup>40</sup>Llegado al lugar les dijo: "Pedid que no caigáis en tentación".

<sup>41</sup>Y se apartó de ellos como un tiro de piedra, y, puesto de rodillas, oraba, <sup>42</sup>diciendo: "Padre, si quieres, aparta de mí este cáliz; pero no se haga mi voluntad, sino la tuya". <sup>43</sup>Entonces, se le apareció un ángel venido del cielo que le confortaba. <sup>44</sup>Y sumido en angustia, insistía más en su oración. Su sudor se hizo como gotas espesas de sangre que caían en tierra.

<sup>45</sup>Levantándose de la oración, vino donde los discípulos y los encontró dormidos por la tristeza; <sup>46</sup>y les dijo: "¿Cómo es que estáis dormidos? Levantaos y orad, para que no caigáis en tentación".

### Prendimiento de Jesús

(Mt. 26, 47-56; Mc. 14, 43-50; Jn. 18, 3-11)

<sup>47</sup>Todavía estaba hablando, cuando se presentó un grupo; el llamado Judas, uno de los Doce, iba el primero, y se acercó a Jesús para darle un beso. <sup>48</sup>Jesús le dijo: "¡Judas, con un beso entregas al Hijo del hombre!". <sup>49</sup>Viendo los que estaban con él lo que iba a suceder, dijeron: "Señor, ¿herimos a espada?" <sup>50</sup>Y uno de ellos hirió al siervo del Sumo Sacerdote y le llevó la oreja derecha. <sup>51</sup>Pero Jesús dijo: "¡Dejad! ¡Basta ya!". Y tocando la oreja, le curó.

<sup>52</sup>Dijo Jesús a los sumos sacerdotes, jefes de la guardia del Templo y ancianos que habían venido contra él: "¿Como contra un salteador habéis salido con espadas y palos?" <sup>53</sup>Estando yo todos los días en el Templo con vosotros, no me pusísteis las manos encima; pero ésta es vuestra hora y el poder de las tinieblas".

### Pedro'ren ukatzeak

(Mt. 26, 69-75; Mk. 14, 66-72; Yn. 18, 15-18, 25-27)

<sup>54</sup>Orduan, Jesus lotu, eroan eta Abadeburuaren etxean sartu ziran. Pedro'k urrundik jarraitzen eutsan. <sup>55</sup>Ataurre-erdian sua iziotu izan eben, eta inguruan jesarrita egozan; Pedro eurakaz jesarri zan. <sup>56</sup>Neskame batek, Pedro sutondoan jarrita ikustean, ari begira-begira jarri ta auxe esan eutsan: "Au be aregaz batera egoan". <sup>57</sup>Baiña, Pedro'k ukatu egin eban: "Emakume, ez dot ezagutzen". <sup>58</sup>Gerotxoago, beste norbaitek, Pedro ikusirik, auxe esan eban: "Zu be orreitarikoa zara". "Ez, gizon, ez naz!", esan eban Pedro'k. <sup>59</sup>Ordubetera, beste batek auxe esan eban bein eta barriro: "Bai, ba!, au be beragaz egoan, berau be Galilearra da gaiñera-ta". <sup>60</sup>"Gizon! —esan eutsan Pedro'k—, ez dakit zertaz berba egiten diarduzun be". Eta bat-batean, Pedro'k oraindiño berbetan ziarduala, oillar batek kukurruku egin eban. <sup>61</sup>Eta Jaunak, biurtuta, Pedro'ri begirakune bat egin eutsan; eta Pedro'k Jaunaren itza gogora ekarri eban, "Gaur oillarrak kukurruku egin baiño len, zuk iru bidar ukatuko nozu" esan eutsanean. <sup>62</sup>Eta kanpora urtenda, negarrez asi zan samíñez heterik.

### Lenengo iraiñak

(Mt. 26, 67-68; Mk. 14, 65)

<sup>63</sup>Jesus lotuta euken gizonak, irri ta barre egiten eutsoen, eta iraindu be bai; <sup>64</sup>eta Jesus zapiaz estaldurik, itaun au egiten eutsoen: "Igarri egiozu! Nor da jo zaituana?" <sup>65</sup>Eta iraindu egiten eben, beste berba asko esaten eutsoezala.

### Negaciones de Pedro

(Mt. 26, 69-75; Mc. 14, 66-72; Jn. 18, 15-18, 25-27)

<sup>54</sup>Entonces le prendieron, se lo llevaron y le hicieron entrar en la casa del Sumo Sacerdote; Pedro le iba siguiendo de lejos. <sup>55</sup>Habían encendido una hoguera en medio del patio y estaban sentados alrededor; Pedro se sentó entre ellos. <sup>56</sup>Una criada, al verle sentado junto a la lumbre, se le quedó mirando y dijo: "Este también estaba con él". <sup>57</sup>Pero él lo negó: "Mujer, no le conozco". <sup>58</sup>Poco después, otro, viéndole, dijo: "Tú también eres uno de ellos". Pedro dijo: "Hombre, no lo soy". <sup>59</sup>Pasada como una hora, otro aseguraba: "Cierto que éste también estaba con él, pues además es galileo". <sup>60</sup>Le dijo Pedro: "Hombre, no sé de qué hablas". Y en aquel momento, estando aún hablando, cantó un gallo, <sup>61</sup>y el Señor se volvió y miró a Pedro, y recordó Pedro las palabras del Señor, cuando le dijo: "Antes que cante hoy el gallo, me habrás negado tres veces". <sup>62</sup>Y, saliendo fuera, rompió a llorar amargamente.

### Primeros ultrajes

(Mt. 26, 67-68; Mc. 14, 65)

<sup>63</sup>Los hombres que le tenían preso se burlaban de él y le maltrataban; <sup>64</sup>y cubriéndole con un velo le preguntaban: "¡Adivina! ¿Quién es el que te ha pegado?". <sup>65</sup>Y le insultaban diciéndole otras muchas cosas.



### Jesus, Batzar Nagusiaren aurrean

(Mt. 26, 57-66; 27, 2; Mk. 14, 53-64; 15, 1)

<sup>66</sup>Eguna argitu zanean, erriko Zaarren Batzarra, abadeburuak eta idazlariak batzarra egin eta Jesus eren auzitegira eroan eben; <sup>67</sup>eta auxe esan eutsoen: "Zu Kristo'a ba'zara, esan egiguzu". Jesus'ek auxe erantzun eban: "Esaten ba'dautsuet, ez daustazue sinistuko. <sup>68</sup>Zerbait itauntzen ba'dautsuet, ez daustazue erantzunik emongo. <sup>69</sup>Aurrerantzean, Gizasemea *Jaungoikoaren* indarraren *eskumaldean* jesarriko da". <sup>70</sup>Guztiak auxe esan eben: "Beraz, zu Jaungoikoaren Semea zara?" "Zeuek diñozue —esan eutsen Jesus'ek—: neu naz". <sup>71</sup>Areik auxe esan eben: "Zetarako beste autorrik onezkero, geuk entzun dautsagu beronen agotik-eta?"

**23** <sup>1</sup>Eta batzarreko guztiak jagirik, Pilato'gana eroan eben.

### Jesus, Pilato'ren aurrean

(Mt. 27, 11-14; Mk. 15, 2-5; Jn. 18, 29-38)

<sup>2</sup>Salatzen asi yakozan, esanez: "Gure erria naasten artu dogu au, Zesar'entzako zergak galerazoten eta bera Kristo Errege dala esaten". <sup>3</sup>Pilato'k itaun au egin eutsan. "Judarren Erregea zara zu?" "Zeuk diñozu", erantzun eutsan Jesus'ek. <sup>4</sup>Pilato'k abadeburuak ta laguntaldeari auxe esan eutsen: "Ez dautsat nik gizon oni errurik aurkitzen". <sup>5</sup>Areik, ostera, gogorrago ziarduen esaten: "Erria naasten diardu, Galilea'tik asi ta onaiño, Judea guztian zear irakasten". <sup>6</sup>Ori entzutean, gizon a Galilearra zan itandu eban Pilato'k. <sup>7</sup>Eta Erodes'en menpeko zala jakitean, Erodes'egana bialdu eban, au be egun areitan Jerusalem'en egoan-eta.

### Jesús ante el Sanedrín

(Mt. 26, 57-66; 27, 2; Mc. 14, 53-64; 15, 1)

<sup>66</sup>En cuanto se hizo de día, se reunió el Consejo de Ancianos del pueblo, sumos sacerdotes y escribas, le hicieron venir a su sanedrín <sup>67</sup>y le dijeron: "Si tú eres el Cristo, dínoslo". El respondió: "Si os lo digo, no me creeréis. <sup>68</sup>Si os pregunto, no me responderéis. <sup>69</sup>De ahora en adelante, el Hijo del hombre *estará sentado a la derecha* del poder *de Dios*". <sup>70</sup>Dijeron todos: "Entonces, ¿tú eres el Hijo de Dios?". El les dijo: "Vosotros lo decís: Yo soy". <sup>71</sup>Dijeron ellos: "¿Qué necesidad tenemos ya de testigos, pues nosotros mismos lo hemos oído de su propia boca?"

**23** <sup>1</sup>Y levantándose todos ellos, le llevaron ante Pilato.

### Jesús ante Pilato

(Mt. 27, 11-14; Mc. 15, 2-5; Jn. 18, 29-38)

<sup>2</sup>Comenzaron a acusarle diciendo: "Hemos encontrado a éste alborotando a nuestro pueblo, prohibiendo pagar tributos al César y diciendo que él es Cristo Rey". <sup>3</sup>Pilato le preguntó: "¿Eres tú el Rey de los judíos?". El le respondió: "Sí, tú lo dices". <sup>4</sup>Pilato dijo a los sumos sacerdotes y a la gente: "Ningún delito encuentro en este hombre". <sup>5</sup>Pero ellos insistían diciendo: "Solivianta al pueblo, enseñando por toda Judea, desde Galilea, donde comenzó, hasta aquí". <sup>6</sup>Al oír esto, Pilato preguntó si aquel hombre era galileo. <sup>7</sup>Y, al saber que era de la jurisdicción de Herodes, le remitió a Herodes, que por aquellos días estaba también en Jerusalén.

### Jesus, Erodes'en aurrean\*

<sup>8</sup>Jesus ikusi ebanean, Erodes pozez beterik jarri zan: Jesus'i buruz entzuten ebazanakitik, A ikusteko gurariz egoan aspaldian-eta; gaiñera, mirariren bat egiten ikusiko ebala uste eban. <sup>9</sup>Eurrez egin eutsazan itaunak; baiña Jesus'ek ez eutsan ezer erantzun. <sup>10</sup>An ziarduen ekin eta ekin abadeburu ta idazlariak Jesus'en aurka salakuntzak egiten.

<sup>11</sup>Baiña Erodes'ek bere gudari-taldeagaz, Jesus ezetsi (*bazartu*) ta beronen lepotik irri ta barre egin ondoren, Jesus'i soingaiñeko eder bat jantzierazo ta Pilato'ri bialdu eutsan. <sup>12</sup>Egun aretan, Erodes eta Pilato adiskidetu egin ziran, len alkarren arerio ziran-eta.

### Jesus, barriro be, Pilato'ren aurrean

(Mt. 27, 15-26; Mk. 15, 6-15; Yn. 18, 39, 19, 16)

<sup>13</sup>Pilato'k abadeburu, agintari ta erria batu ebazan, <sup>14</sup>eta auxe esan eutsen: "Gizon au erri-naastaille dala-ta ekarri daustazue; baiña, nik zeuen aurrean itandu dautsat, eta gizon onen aurka diñozuezan salakuntza guztietan ez dot nik auzi-gairik aurkitu. <sup>15</sup>Ezta Erodes'ek be, barriro bialdu dausku-ta. Beraz, gizon onek ez dau eriotzarakorik ezer egin. <sup>16</sup>Beraz, zigortu ta askatu egingo dot". (<sup>17</sup>Pilato'k Pazko-jaiegunean giltzapeko bat askatu bear eutsen)\*. <sup>18</sup>Laguntalde guztia deadarka asi zan batera: "Kendu ori, eta Barrabas askatu eiguzu!" <sup>19</sup>Barrabas au, uriko matxiñada bat zala-ta, baita norbait il ebala-ta, giltzapean sartua izan zan.

<sup>20</sup>Pilato'k, Jesus askatzeko alegiñak egiñik, barriro be berba egin eutsen; <sup>21</sup>baiña, areik deadarka baten

23, 8, Jesus, Erodes'en aurrean. Azalpen au Lukas'ek bakarrik dakar; (cf. 9,9; 13, 31-33).

23, 17 Geitua, Mateo'renetik artuta: 27. 15.

### Jesús ante Herodes\*

<sup>8</sup>Cuando Herodes vio a Jesús se alegró mucho, pues hacía largo tiempo que deseaba verle, por las cosas que oía de él, y esperaba presenciar alguna señal que él hiciera. <sup>9</sup>Le preguntó con mucha palabrería, pero él no le respondió nada. <sup>10</sup>Estaban allí los sumos sacerdotes y los escribas acusándole con insistencia. <sup>11</sup>Pero Herodes, con su guardia, después de despreciarle y burlarse de él, le vistió un espléndido manto y lo remitió a Pilato. <sup>12</sup>Aquel día Herodes y Pilato se hicieron amigos, pues antes estaban enemistados.

### De nuevo Jesús ante Pilato

(Mt. 27, 15-26; Mc. 5, 6-15; Jn. 18, 38-19, 16)

<sup>13</sup>Pilato convocó a los sumos sacerdotes, a los magistrados y al pueblo <sup>14</sup>y les dijo: "Me habéis traído a este hombre como alborotador del pueblo, pero yo le he interrogado delante de vosotros y no he hallado en este hombre ninguno de los delitos de que le acusáis. <sup>15</sup>Ni tampoco Herodes, porque nos lo ha remitido. Nada ha hecho, pues, que merezca la muerte. <sup>16</sup>Así que le castigaré y le soltaré"\*. <sup>17</sup>Toda la muchedumbre se puso a gritar a una: "¡Fuere ése, suéltanos a Barrabás!". <sup>19</sup>Este había sido encarcelado por un motín que hubo en la ciudad y por asesinato.

<sup>20</sup>Pilato les habló de nuevo, intentando librar a Jesús, <sup>21</sup>pero ellos seguían gritando: "¡Crucifícale, crucifícale!". <sup>22</sup>Por tercera vez les dijo: "Pero ¿qué mal

23, 8 Jesús ante Herodes. Episodio propio de Lc.; cf. 9, 9; 13, 31-33.

23, 16 soltaré. Se omite el v. 17.



ziarduen: "Gurutzera ori, gurutzera!"<sup>22</sup> Irugarrenez, auxen esan eutsen Pilato'k: "Ze gaiztakeri egin dau, ba, onek? Nik ez dautsat eriotzarako errurik aurkitzen. Beraz, zigortu ondoren, askatu egingo dot".<sup>23</sup> Baiña areik, deadar aundiagoz, gurutzeratua izan zedilla eskatzen eben, eta arein deadarrak gero ta gogorragoak ziran.<sup>24</sup> Pilato'k arein eskaria egitea erabagi eban.<sup>25</sup> Beraz, areik eskatu ebena, naastaille ta gizon-iltzailletzat giltzapean egoana, askatu egin eutsen, eta Jesus arein naitara itxi eutsen.

### Golgota-bidean

(Mt. 27, 32-34; Mk. 15, 20-23; Yn. 19, 17)

<sup>26</sup>Bidean eroiela, solotik etorren Zirene'ko Simon zalako bati eldu ta gurutzea leporatu eutsoen, Jesus'en atzetik eroan egian.<sup>27</sup> Erriko laguntalde aundiak jarraitzen eutsan Jesus'i, baita emakume-talde aundiak be negar-zotinka\*.<sup>28</sup> Jesus'ek, arekana bihurturik, auxen esan eutsen: "Jerusalen'go alabok: ez egin negarrik nigaitik, zeuekaitik eta zeuen semeakaitik baiño.<sup>29</sup> Etorri be etorriko d'ra egunak, eta orduan auxe esango dabe: 'Zorionsuak sabel-agorrrak, umerik sortu ez eben sabelak eta umerik azi ez eben bularrak!' <sup>30</sup>Eta auxe *asiko dira mendiai esaten: 'Jausi zaitetze gure gainera!' Eta menditxoai: 'Estaldu gagizuez!'*\*<sup>31</sup> Izan be, egur bizian (*berdean*) au egiten ba'dabe, igarrean zer egingo ete-da?"<sup>32</sup> Beste gaizkille bi be ba-eroiezan, Jesus'egaz batera ilteko.

23, 27 Talmud'en irakurten danez, emakumeak edari garratz batzuk erocaten eutseezan eriotzara galduai, zerbait baretu zeitezan (Mt. 27, 34).

23, 30 Os. 10, 8.

ha hecho éste? No encuentro en él ningún delito que merezca la muerte; así que le castigaré y le soltaré".<sup>23</sup> Pero ellos insistían pidiendo a grandes voces que fuera crucificado y sus gritos eran cada vez más fuertes.<sup>24</sup> Pilato sentenció que se cumpliera su demanda.<sup>25</sup> Soltó, pues, al que habían pedido, el que estaba en la cárcel por motín y asesinato, y a Jesús se lo entregó a su voluntad.

### Camino del Calvario

(Mt. 27, 31-34; Mc. 15, 20-23; Jn. 19, 17)

<sup>26</sup>Cuando le llevaban, echaron mano de un cierto Simón de Cirene, que venía del campo, y le cargaron la cruz para que la llevara detrás de Jesús.<sup>27</sup> Le seguía una gran multitud del pueblo y mujeres\* que se dolían y se lamentaban por él.<sup>28</sup> Jesús, volviéndose a ellas, dijo: "Hijas de Jerusalén, no lloréis por mí; llorad más bien por vosotras y por vuestros hijos.<sup>29</sup> Porque llegarán días en que se dirá: ¡Dichosas las estériles, las entrañas que no engendraron y los pechos que no criaron! <sup>30</sup>Entonces se pondrán a decir a los montes: ¡Caed sobre nosotros! Y a las colinas: ¡Cubridnos!\* <sup>31</sup>Porque si en el leño verde hacen esto, en el seco ¿qué se hará?".<sup>32</sup> Llevaban además otros dos malhechores para ejecutarlos con él.

23, 27 mujeres, El Talmud habla de mujeres que llevaban a los condenados brebajes calmantes, Mt. 27, 34+.

23, 30 Cubridnos. Cf. Os. 10, 8.

**Jesus, gurutzean\***

(Mt. 27, 35-38; Mk. 15, 24-28; Yn. 19, 17-24)

<sup>33</sup>Kalbario izeneko lekura elduta, antxe josi eben gurutzean, baita gaizkilleak be, bata eskumaldean eta beste ezkerrekaldean. <sup>34</sup>Jesus'ek auxe iñoan: "Aita, partatu egiezu, ez dakie egiten diarduen-ta". Jesus'en jantziak banandu egin ebezan, zotz egiñik.

**Jesus'i irainka baten**

(Mt. 27, 39-43; Mk. 15, 29-32)

<sup>35</sup>Erria begira egoan; agintariak barre egiten eutsoen, esanez: "Besteak askatu dauz, bai; askatu dagiala bere burua be, Jaungoikoaren Kristo'a, Aukeratua, ba'da"\*.<sup>36</sup> Gudariak be barre egiten eutsoen; eta urreraturik, ozpiña<sup>o</sup> eskiñi <sup>37</sup>ta auxe zirautsoen: "Judarren Erregea ba'zara, askatu egizu zure burua!" <sup>38</sup>Jesus'en gainean idazkun au egoan: "Au, judarren Erregea da".

**"Lapur ona"**

<sup>39</sup>Eskegita egoan lapurretariako batek Jesus'i irainka ziarduan, esanez: "Ez zara, ba, zu Kristo'a? Askatu egizuz, ba, zure burua ta gureak!" <sup>40</sup>Baiña besteak asarre egin eutsan, esanez: "Zuk be ez dautsazu Jaungoikoari bildurrik, oiñaze bardiñetan zagozan orrek?" <sup>41</sup>Guri, bai, oiñazeok artez dagokiguz, gure egiñen bidezko ordaiña artzen dogu-ta; onek, ostera, ez dau okerrik egin". <sup>42</sup>Eta auxe iñoan: "Jesus, gomuta zaitze nitzaz zure Erreiñura joan zaitzanean". <sup>43</sup>Jesus'ek auxe esan eutsan: "Benetan dirautsut: gaur neugaz batera izango zara Paradisuan".

23, 33 Jesus gurutzean. Lukas'en azalpenean, laguntaldea arerio antzera baiño ikus-guraz geiago agertzen da, eta azkenez, damutu egiten dira (48); Jesus'ek parkamen-berbak diñoz, eta ez larritasunez-koak.

23, 35 Mesias'i dagokiozan izenorde bi (2, 26; 9, 35).

<sup>o</sup> Ozpin: vinagre

**La Crucifixión\***

(Mt. 27, 35-38; Mc. 15, 24-28; Jn. 19, 17-24)

<sup>33</sup>Llegados al lugar llamado Calvario, le crucificaron allí a él y a los malhechores, uno a la derecha y otro a la izquierda. <sup>34</sup>Jesús decía: "Padre, perdónales, porque no saben lo que hacen". Se repartieron sus vestidos, echando a suertes.

**Jesús en la cruz ultrajado**

(Mt. 27, 39-43; Mc. 15, 29-32)

<sup>35</sup>Estaba el pueblo mirando; los magistrados hacían muecas diciendo: "A otros salvó; que se salve a sí mismo si él es el Cristo de Dios, el Elegido"\*.<sup>36</sup>También los soldados se burlaban de él y, acercándose, le ofrecían vinagre <sup>37</sup>y le decían: "Si tú eres el Rey de los judíos, ¡sálvate!". <sup>38</sup>Había encima de él una inscripción: "Este es el Rey de los judíos".

**El "buen ladrón"**

<sup>39</sup>Uno de los malhechores colgados le insultaba: "¿No eres tú el Cristo? Pues ¡sálvate a ti y a nosotros!". <sup>40</sup>Pero el otro le reprendió diciendo: "¿Es que no temes a Dios, tú que sufres la misma condena? <sup>41</sup>Y nosotros con razón, porque nos lo hemos merecido con nuestros hechos; en cambio, éste nada malo ha hecho". <sup>42</sup>Y decía: "Jesús, acuérdate de mí cuando vayas a tu Reino". <sup>43</sup>Jesús le dijo: "Yo te aseguro: hoy estarás conmigo en el Paraíso".

23, 33 La crucifixión. En el relato de Lc., la muchedumbre es más curiosa que hostil y finalmente se arrepiente, v. 48; Jesús pronuncia palabras de perdón y no de angustia.

23, 35 el Elegido. Dos títulos mesiánicos, 2, 26; 9, 35+.



### Jesus'en eriotza

(Mt. 27, 45-50; Mk. 15, 33-37; Yn. 19, 25-30)

<sup>44</sup>Seigarren ordu-aldean-edo<sup>o</sup>, eguzkia illuntzean, lur osoa illundu egin zan bederatzigarren ordurarte<sup>o</sup>. <sup>45</sup>Jaunaren Etxeko estalkia erditik urratu egin zan. <sup>46</sup>Eta Jesus'ek, deadar aundi bat egiñik, auxe esan eban: "Aita, zeure eskuetan izten dot nire gogoa (*espirtua*)<sup>\*</sup>. Eta au esanda, azken-arnasa emon eban.

### Jesus ilda gero

(Mt. 27, 51-56; Mk. 15, 38-41; Yn. 19, 31-37)

<sup>47</sup>Euntariak<sup>o</sup> jazioa ikustean, Jaungoikoa goratzen eban, esanez: "Zintzoa zan gizon au benetan". <sup>48</sup>Eta ikuspen aretara batu izan ziran laguntalde guztiak, jazonen zana ikustean, bular-joka biurtu ziran. <sup>49</sup>Antxe egozan urrundik begira Jesus'en ezagun guztiak eta Galilea'tik jarraitu izan eutsoen emakumeak be.

### Jesus'en illobiratzea

(Mt. 27, 57-61; Mk. 15, 42-47; Yn. 19, 38-42)

<sup>50</sup>Ba-zan Batzar Nagusiko gizon zintzo ta on bat, Jose izenekoa: <sup>51</sup>onek, besteen erabagiak eta egiñak ez ebazan ontzat artu. Judea'ko Arimatea urikoa zan, eta Jaungoikoaren Erreiñuaren zain egoan. <sup>52</sup>Onek, ba, Pilato'gana etorri ta Jesus'en gorpua eskatu eutsan; <sup>53</sup>eta Jesus gurutzetik eratsita gero, miesaz batu ta len iñor ipiñia izan ez zan arri bizian zulatutako illobi baten ipiñi eban. <sup>54</sup>Atontze-eguna zan, eta zapatua asten.

23, 46 Cf. Sal. 31, 6.

<sup>o</sup> Seigarren ordua: eguerdiko amabiak.— <sup>o</sup> Bederatzigarren ordua: arrasaldeko irurak.— <sup>o</sup> Euntari: eun gudariren buru edo nagusi zana.

### Muerte de Jesús

(Mt. 27, 45-50; Mc. 15, 33-37; Jn. 19, 25-30)

<sup>44</sup>Era ya cerca de la hora sexta cuando, al eclipsarse el sol, la oscuridad cayó sobre toda la tierra hasta la hora nona. <sup>45</sup>El velo del Santuario se rasgó por medio, <sup>46</sup>y Jesús, dando un fuerte grito, dijo: "Padre, en tus manos pongo mi espíritu"<sup>\*</sup>; y, dicho esto, expiró.

### Después de la muerte de Jesús

(Mt. 27, 51-56; Mc. 15, 38-41; Jn. 19, 31-37)

<sup>47</sup>Al ver el centurión lo sucedido, glorificaba a Dios diciendo: "Ciertamente este hombre era justo". <sup>48</sup>Y todas las gentes que habían acudido a aquel espectáculo, al ver lo que pasaba, se volvieron golpeándose el pecho.

<sup>49</sup>Estaban a distancia, viendo estas cosas, todos sus conocidos y las mujeres que le habían seguido desde Galilea.

### Sepultura de Jesús

(Mt. 27, 57-61; Mc. 15, 42-47; Jn. 19, 38-42)

<sup>50</sup>Había un hombre llamado José, miembro del Consejo, hombre bueno y justo, <sup>51</sup>que no había asentido al consejo y proceder de los demás. Era de Arimatea, ciudad de Judea, y esperaba el Reino de Dios. <sup>52</sup>Se presentó a Pilato y le pidió el cuerpo de Jesús <sup>53</sup>y, después de descolgarle, le envolvió en un lienzo y le puso en un sepulcro excavado en la roca en el que nadie había sido puesto todavía. <sup>54</sup>Era el día de la Preparación, y apuntaba el sábado.

<sup>55</sup>Las mujeres que habían venido con él desde Gali-

23, 46 pongo mi espíritu. Cfr. Sal. 31, 6.

<sup>55</sup>Galilea'tik Jesus'egaz etorritako emakumeak atzetik yoiazan eta illobia be ikusi eben, baita Jesus'en gorpua zelan ipiñia izan zan be. <sup>56</sup>Eta etxera bihurturik, usaingarriak eta mirra gertatu ebezan. Eta zapatuan atsedena artu eben, legeak agintzen ebanez.

## VII

## BIZTUERA-ONDOREN

## Illobia, utsik. --Aingeruaren mandatua

(Mt. 28, 1-8; Mk. 16, 1-8; Yn. 20, 1-2)

**24** <sup>1</sup>Astearen lenengo egunean, goizean-goiz, emakumeak illobira joan ziran, atondo izan ebezan usaingarriak eroiezala. <sup>2</sup>Baiña, arria illobitik kenduta egoala aurkitu eben, <sup>3</sup>eta barruan sartu ziran; baiña ez eben Jesus Jaunaren gorpua aurkitu. <sup>4</sup>Onetzaz zer bururatu ez ekiela, gizonezko bi agertu yakeezan soiñeko argitsu. <sup>5</sup>Emakumeak bildurrez beterik eta lurrera begira egozala, gizonezkoak auxe esan eutseen: "Zegaitik billatzen dozue illen artean, bizirik dagoana? <sup>6</sup>Ez dago emen, biztu egin da. Gogoratu egizue zelan berba egin eutsuen oraindiño Galilea'n egoala, esanez; <sup>7</sup>Bearrezkoa da Gizasemea pekatarien eskuetan iztea ta gurutzean josia izatea, eta irugarren egunean biztutea\*<sup>8</sup>. <sup>8</sup>Eta emakumeak gogora ekarri ebezan, bai, Jesus'en berbok.

## Apostoluak ez dautsee emakumeai sinisten

(Mt. 28, 10, 17; Mk. 16, 10, 11, 14; Yn. 20, 18, 25, 29)

<sup>9</sup>Emakumeak, illobitik bihurturik, guztion barri emon

24, 7 Aurretiaz esandakoak ekarten dautsez gogora; Lukas'en ebanjelioan besteenetan baiño sarriago agertzen dira (9, 22; 18, 31 eta abar; cf. 24, 46-47).

lea, fueron detrás y vieron el sepulcro y cómo era colocado su cuerpo.

<sup>56</sup>Y regresando, prepararon aromas y mirra. Y el sábado descansaron según la Ley.

## VII

## DESPUES DE LA RESURRECCION

## El sepulcro vacío. Mensaje del Angel

(Mt. 28, 1-8; Mc. 16, 1-8; Jn. 20, 1-2)

**24** <sup>1</sup>El primer día de la semana, muy de mañana, llegaron al sepulcro llevando los aromas que habían preparado. <sup>2</sup>Pero encontraron que la piedra había sido retirada del sepulcro, <sup>3</sup>y entraron, pero no hallaron el cuerpo del Señor Jesús. <sup>4</sup>No sabían qué pensar de esto cuando se presentaron ante ellas dos hombres con vestidos resplandecientes. <sup>5</sup>Como ellas temiesen e inclinasen el rostro a tierra, les dijeron: "¿Por qué buscáis entre los muertos al que está vivo? <sup>6</sup>No está aquí, ha resucitado. Recordad cómo os habló cuando estaba todavía en Galilea, diciendo: <sup>7</sup>Es necesario que el Hijo del hombre sea entregado en manos de los pecadores y sea crucificado, y al tercer día resucite\*<sup>8</sup>. <sup>8</sup>Y ellas recordaron sus palabras.

## Los apóstoles no creen a las mujeres

(Mt. 28, 10, 17; Mc. 16, 10, 11, 14; Jn. 20, 18, 25-29)

<sup>9</sup>Regresando del sepulcro, anunciaron todas estas co-

24, 7 resucite. Recuerdo de predicciones que han aparecido en el evangelio de Lc. más que en los otros evangelios 9, 22; 18, 31, etc.; cf. 24, 46-47.



outseen Amaikai eta beste guztiai. <sup>10</sup>Barriok apostolui ekarri eutseezanak, Mari Madalen, Joana ta Mari Santia-go'rena ta onekaz egozan besteak ziran. <sup>11</sup>Apostoluak, barriz, berba guztiok zorakeritzat artu ebezan, eta ez eutseen sinisten\*.

### Pedro, illobian

(Yn. 20, 3-10)

<sup>12</sup>Pedro jagi ta illobira joan zan ariñeketan. Barrura makurtu ta zapiak bakarrik ikusi ebazan, eta bere etxera biurtu zan, jazotakoaz ikaratuta.

### Emaus'ko ikasleak

(Mk. 16, 12-13)

<sup>13</sup>Egun aretan bertan, ikasleatariko bi, Jerusalem'dik irurogei estadiko<sup>o</sup> bidean dagoan Emaus izeneko errira yoiazan, <sup>14</sup>eta jazo izan ziran guztiai buruz ziarduen alkarregaz berbetan. <sup>15</sup>Areik berbetan eta eztabaidan ziarduen artean, Jesus bera urreratu ta eura-kata joan zan bidelagun; <sup>16</sup>arein begiak, ostera, illunduta egozan Jesus ez ezagutzeko\*. <sup>17</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: "Zertaz diarduzue estabaidan alkarregaz zoazen artean?" Areik gelditu egin ziran, arpegia naigabez beterik eukela; <sup>18</sup>eta areitariko batek, Kleofas izenekoak, auxe erantzun eutsan: "Zeu zara, ba, Jerusalem'go kanpotar bakarra, egunotan bertan jazo diranak ez dakizuzan ori?" <sup>19</sup>"Zertzuk?", esan eutsen Jesus'ek. Areik auxe esan eutsoen: "Jesus Nazaretar orrena: gizon igarlea,

24. 11 Cf. Mt. 28, 17; Mk. 16, 11-14.

24. 16 Lengo bardintasuna izanik be (39-40), Jesus biztuaren gorputzak egoera barri bat dau (Yn. 20, 19; Kor. 1.<sup>a</sup>, 15, 44). Lukas'en eta Yon'en ebanjelioetan, ikasleak berben baten edo "ezaugarritren" baten bidez ezaqutzen dabe Jesus.

<sup>o</sup> Irurogei estadio: 11 kilometro gutxi gora-beera.

sas a los Once y a todos los demás. <sup>10</sup>Las que decían estas cosas a los apóstoles eran María Magdalena, Juana y María la de Santiago y las demás que estaban con ellas. <sup>11</sup>Pero todas estas palabras les parecían como desatinos y no les creían\*.

### Pedro en el sepulcro

(Jn. 20, 3-10)

<sup>12</sup>Pedro se levantó y corrió al sepulcro. Se inclinó, pero sólo vio las vendas y se volvió a su casa, asombrado por lo sucedido.

### Los discípulos de Emaús

(Mc. 16, 12-13)

<sup>13</sup>Aquel mismo día iban dos de ellos a un pueblo llamado Emaús, que distaba sesenta estadios de Jerusalén, <sup>14</sup>y conversaban entre sí sobre todo lo que había pasado. <sup>15</sup>Mientras ellos conversaban y discutían, el mismo Jesús se acercó y siguió con ellos; <sup>16</sup>pero sus ojos estaban retenidos para que no le conocieran\*. <sup>17</sup>El les dijo: "¿De qué discutís entre vosotros mientras vais andando?". Ellos se pararon con aire entristecido.

<sup>18</sup>Uno de ellos llamado Cleofás le respondió: "¿Eres tú el único residente en Jerusalén que no sabe las cosas que estos días han pasado en ella?". <sup>19</sup>El les dijo: "¿Qué cosas?". Ellos le dijeron: "Lo de Jesús de Nazaret, que fue un profeta poderoso en obras y palabras delante de Dios y de todo el pueblo; <sup>20</sup>cómo nuestros sumos sacerdotes y magistrados le condenaron a muerte y le crucifi-

24. 11 no les creían. Cf. Mt. 28, 17; Mc. 16, 11-14.

24. 16 conocieran. Aun conservando su identidad, vv. 39-40, el cuerpo de Jesús resucitado se encuentra en un estado nuevo, Jn 20, 19; 1 Co. 15, 44. En Lc. y Jn. los discípulos únicamente le reconocen por una palabra o una "señal".

Jaungoikoaren eta erri guztiaren aurrean egiñez eta berbaz gizon altsua zala, <sup>20</sup>eta gure abadeburuak eta nagusiak ari eriotz-epaia emon eta gurutzean josi ebela. <sup>21</sup>Israel askatuko ebana, Bera zala uste genduan guk; baiña, gauza guztiokaz, iru egun daroaguz onezkero, guzti au jazo zonetik. <sup>22</sup>Egia esan, gure arteko emakume batzuek arrituta itxi gaitue: izan be, goizaldean illobira joan ziran, <sup>23</sup>eta Aren gorpua ez aurkitzean, aingeru batzuk be ikusi izan ebezala esanez etorri ziran, eta aingeru oneik Jesus bizi zala diñoela-ta... <sup>24</sup>Geuretariko batzuk be joan ziran illobira, eta dana emakumeak esan ebenez aurkitu eben; baiña Bera ez eben ikusi”.

<sup>25</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: “Zuek bai, gero, burubageak, eta profetak esan eben guztia sinisteko biotz-motelak! <sup>26</sup>Ez ete-yakon, ba, bearrezkoa Kristo'ri nekeok igarotea ta olan bere aintzan sartzea?” <sup>27</sup>Eta Moises' egandik asita, profetarik profeta, Liburu Santu guztietan Aretzaz idatzita egoana azaldu eutsen.

<sup>28</sup>Areik yoiazan errira urreratzean, aurrera yoiolakoa egin eban. <sup>29</sup>Baiña, areik eurakaz geratzeko beartu eben, esanez: “Gelditu zaitez gugaz, illunabarra da eta eguna illundu da-ta”. Eta arekaz gelditzeko sartu zan. <sup>30</sup>Arekaz batera maian jarri zanean, ogia artu, bedeinkatu, zatitu ta banandu egiten eutsen. <sup>31</sup>Orduantxe zabaldu ziran arein begiak eta orduantxe ezagutu eben; baiña, Jesus ezkutatatu egin yaken ondotik. <sup>32</sup>Areik alkarrri auxe esan eutsen: “Ez genduan, ba, sugarretan biotza gure barruan, Arek bidean berba egiten euskunean eta Liburu Santuak azaltzen euskuzanean?” <sup>33</sup>Eta berealaxe jagirik, Jerusalem'era biurtu ziran, eta Amaikak eta eurokaz egozanan aurkitu ebezan batuta, <sup>34</sup>auxe iñoela: “Egia da! Biztu egin da Jauna, eta Simon'i agertu yako!” <sup>35</sup>Eurak be bidean jazo zana azaldu eben, eta ogia zatitzean ezagutu ebela\*.

24, 35 Idatz-txatalt onek Eukaristia dakar gogora (22, 19; Ap. Eg. 2, 42)

caron. <sup>21</sup>Nosotros esperábamos que sería él el que iba a librar a Israel; pero, con todas estas cosas, llevamos ya tres días desde que esto pasó. <sup>22</sup>El caso es que algunas mujeres de las nuestras nos han sobresaltado, porque fueron de madrugada al sepulcro, <sup>23</sup>y, al no hallar su cuerpo, vinieron diciendo que hasta habían visto una aparición de ángeles, que decían que él vivía. <sup>24</sup>Fueron también algunos de los nuestros al sepulcro y lo hallaron tal como las mujeres habían dicho, pero a él no le vieron”.

<sup>25</sup>El les dijo: “¡Oh insensatos y tardos de corazón para creer todo lo que dijeron los profetas! <sup>26</sup>¿No era necesario que el Cristo padeciera eso y entrara así en su gloria?”. <sup>27</sup>Y, empezando por Moisés y continuando por todos los profetas, les explicó lo que había sobre él en todas las Escrituras.

<sup>28</sup>Al acercarse al pueblo a donde iban, él hizo ademán de seguir adelante. <sup>29</sup>Pero ellos le forzaron diciéndole: “Quédate con nosotros, porque atardece y el día ya ha declinado”. Y entró a quedarse con ellos. <sup>30</sup>Cuando se puso a la mesa con ellos, tomó el pan, pronunció la bendición, lo partió y se lo iba dando. <sup>31</sup>Entonces se les abrieron los ojos y le reconocieron, pero él desapareció de su lado. <sup>32</sup>Se dijeron uno a otro: “¿No estaba ardiendo nuestro corazón dentro de nosotros cuando nos hablaba en el camino y nos explicaba las Escrituras?”.

<sup>33</sup>Y, levantándose al momento, se volvieron a Jerusalén y encontraron reunidos a los Once y a los que estaban con ellos, <sup>34</sup>que decían: “¡Es verdad! ¡El Señor ha resucitado y se ha aparecido a Simón!”. <sup>35</sup>Ellos, por su parte, contaron lo que había pasado en el camino y cómo le habían conocido en el partir el pan\*.

24, 35 el pan. La expresión hace pensar en la Eucaristía, 22, 19; Hch. 2, 42.



### Apostoluai agertzen yake

(Cf. Yn. 20, 19-23)

<sup>36</sup>Jazotakook esaten ziarduela, Jesus arein erdian agertu ta auxe esan eutsen: "Bakea zuekaz". <sup>37</sup>Larri ta ikaratuta, mamuren bat (*espirituren bat*) ikusten ebela uste eben. <sup>38</sup>Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: "Zegaitik ikarutzen zaree, eta zegaitik sortzen dira zuen biotzean ezbaioik? <sup>39</sup>Begira nire esku-oiñok; neu naz. Ikutu ta ikusi nagizue; espirituak ez dauko aragirik ez azurrik; nik ba-daukadaz, ostera, zeuek ikusten daustazuezan". <sup>40</sup>Eta ori esanda, eskuak eta oiñak erakutsi eutsezan. <sup>41</sup>Pozaren pozez areik sinistu be egiten ez ebela ta ikaratuta egozala, Jesus'ek auxe esan eutsen: "Ba-daukazue emen jatekorik?" <sup>42</sup>Areik arrain-erre zati bat eskiñi eutsoen. <sup>43</sup>Jesus'ek artu ta euren aurrean jan eban.

### Azken-burubideak apostoluai

<sup>44</sup>Gero, auxe esan eutsen: "Onexeik dira, oraindiño zuekaz nengoala esan neutsuezan berbak: 'Bearrezkoa da Moises'en Legean, Igarleetan eta Salmuetan nitzaz idatzita dagoan guztia betetea". <sup>45</sup>Eta orduan, adimena argitu egin eutsen, Liburu Santuak ulertu egiezan; <sup>46</sup>eta auxe esan eutsen: "Olantxe dago idatzita: Kristo'k nekeak igaro bear ebazala ta irugarren eguncan illen artetik bizitu egin bear ebala, <sup>47</sup>eta Aren izenean erri guztiai, Jerusalem'dik asita\*, pekatuen parkamenerako damua iragarri bear yakela. <sup>48</sup>Zeuek zaree gauza guztion autorle.

(Ap. Eg. 1, 4)

<sup>49</sup>Orain, neure Aitaren agintzaria bialduko dot zuen gaiñera. Bitartean, egon zaitzeze urian, goitik indarrez jantziak izan zaitzezen arte".

24, 47 Jerusalem'dik asita. Emendik (cf. 2, 38; 9, 51), Espiritu (Santua) munduan zear isusiko da. Lukas'ek olantxe iragarten dau (Ap. Eg. 1, 4, 8 eta abar, baita bere bigarren liburu guztian be, Ap. Eg. 1, 1).

### Aparición a los apóstoles

(Cf. Jn. 20, 19-23)

<sup>36</sup>Estaban hablando de estas cosas, cuando él se presentó en medio de ellos y les dijo: "La paz con vosotros". <sup>37</sup>Sobresaltados y asustados, creían ver un espíritu. <sup>38</sup>Pero él les dijo: "¿Por qué os turbáis, y por qué se suscitan dudas en vuestro corazón? <sup>39</sup>Mirad mis manos y mis pies; soy yo mismo. Palpadme y ved que un espíritu no tiene carne y huesos como veis que yo tengo". <sup>40</sup>Y diciendo esto les mostró las manos y los pies. <sup>41</sup>Como ellos no acabasen de creerlo a causa de la alegría y estuviesen asombrados, les dijo: "¿Tenéis aquí algo de comer?". <sup>42</sup>Ellos le ofrecieron parte de un pez asado. <sup>43</sup>Lo tomó y comió delante de ellos.

### Últimas instrucciones a los apóstoles

<sup>44</sup>Después les dijo: "Estas son aquellas palabras mías que os hablé cuando todavía estaba con vosotros: 'Es necesario que se cumpla todo lo que está escrito en la Ley de Moisés, en los Profetas y en los Salmos acerca de mí". <sup>45</sup>Y, entonces, abrió sus inteligencias para que comprendieran las Escrituras, <sup>46</sup>y les dijo: "Así está escrito que el Cristo padeciera y resucitara de entre los muertos al tercer día <sup>47</sup>y se predicara en su nombre la conversión para perdón de los pecados a todas las naciones, empezando desde Jerusalén\*. <sup>48</sup>Vosotros sois testigos de estas cosas.

(Hch. 1, 4)

<sup>49</sup>"Mirad, yo voy a enviar sobre vosotros la Promesa de mi Padre. Por vuestra parte permaneced en la ciudad hasta que seáis revestidos de poder desde lo alto".


24, 47 Jerusalén. De aquí, cf. 2, 38; 9, 51, el Espíritu se va a difundir por el mundo. Lc. anuncia así Hch. 1, 4, 8, etc. y toda su segunda obra, cf. Hch. 1, 1.

**Zerura igokundea**

(Mk. 16, 19. Ap. Eg. 1, 9, 12)

<sup>50</sup>Jesus'ek Betania-ondoraino atara ebazan; eta bere eskuak jasorik, bedeinkatu egin ebazan. <sup>51</sup>Eta bedeinkatzen ebazala, arekandik alde egin eta zerura eroana izan zan\*. <sup>52</sup>Areik, Jesus auzpaz gurtu ondoren, pozez beterik Jerusalem'era biurtu ziran; <sup>53</sup>eta beti Jaunaren Etxean egozan, Jaungoikoa goratzen ebela.


24, 51 Jesus'en zerura Igokundeari buruz: Ap. Eg., 1, 2, 9; Yn. 20, 17.

**La Ascensión**


(Mc. 16, 19; Hch. 1, 9, 12)

<sup>50</sup>Los sacó hasta cerca de Betania y, alzando sus manos, los bendijo. <sup>51</sup>Y, mientras los bendecía, se separó de ellos y fue llevado al cielo\*. <sup>52</sup>Ellos, después de postarse ante él, se volvieron a Jerusalén con gran gozo, <sup>53</sup>y estaban siempre en el Templo bendiciendo a Dios.


24, 51 al cielo. Sobre la Ascensión de Jesús: Hch. 1, 2, 9s; Jn 20, 17+.







Handwritten text in a stylized, blocky font, oriented vertically. The characters are difficult to decipher but appear to be a mix of letters and symbols.



## Barri Ona Yon Deunak dakarrenez

### Sarrera

**I** <sup>1</sup>Asieran Itza ba-zan\*, eta Itza Jaungoikoagaz egoan, eta Itza Jaungoikoa zan. <sup>2</sup>Asieran Itza Jaungoikoagaz egoan. <sup>3</sup>Dana Berak (*Itzak*) egiña da, eta Bera bagarik ez da egin egindakorik ezer. <sup>4</sup>Aregan bizitza egoan\*, eta bizitza gizonen argia\* zan, <sup>5</sup>eta argiak illunetan argi egiten dau, eta illunak ez eben azpiratu. <sup>6</sup>Izan zan gizon bat Jaungoikoa bialdutakoa, Yon izenekoa\*. <sup>7</sup>Au, autorletzat etorri zan, argiaren autorra emotera, bere bidez guztiak sinistu egien. <sup>8</sup>Bera ez zan argia, argiaren autorra emotekoa baiño. <sup>9</sup>Itza, egiazko argia zan, mundu onetara\* datorren edozein gizakune argitzen dauan argia. <sup>10</sup>Munduan egoan, eta mundua Berak egiña izan zan, eta munduak ez eban ezagutu. <sup>11</sup>Bere etxera etorri zan, eta bereak<sup>o</sup> ez eben ondo artu. <sup>12</sup>Bera artu eben guztiai, barriz,

1, 1 Itza ta Jakituria Alkartasun Zaarrean lez (Gen. 1, 1; Pro. 8, 22; Sap. 7, 22), San Joan'enean be Jaungoikoaren Itza Jaungoikoagan ba-zan (8, 24; 10, 30); gizartera Aitak bialdua izan zan (3, 17), eta gero, bere eginkizuna amaitu ondoren, Aitagana biurtu zan (7, 33; 13, 3; 17, 13; 20, 17). Alkartasun Zaarrak, eta batez be San Joan'ek, Jesus'en Gizakundeari esker, bizi dan Itz onen izatea ataraten dau.

1, 4 (a) Itza, Jaungoiko biziaren Semea (6, 57), gizartearentzat betiko bizitarako iturburu ba'da (3, 15; 17, 2), bizitza Beragan daualako da (5, 26), bizitza berbera dalako da (11, 25; 14, 6; cf. Yn. 1.<sup>a</sup>, 1, 1).

1, 4 (b) Alkartasun Zaarrean argiak lez (Pro. 4, 18-19; Is. 9, 1; 45, 7, cf. Mt. 4, 16; Lk. 1, 79), Itzak Jaungoikoagana eroaten dauz gizonak, eta zoriona, bizia eta Mesias'en salbamena emoten dautse (3, 19; 9; 12, 35, 46; cf. Ap. Eg. 5, 20). Argi onek garaituko dauz illunpeak (8, 12; 12, 46).

1, 6 Eten-aldia (6-8) Yon Bateatzaillearen eginkizunari buruz (cf. 1, 15, 19-40; 3, 22; Lk. 1, 5, 57; Mt. 3, 1).

1, 9 Munduak batzuetan lurra ta izadia esan nai dauz, beste batzuetan gizadia, beste batzuetan Jaungoikoa ta Kristo'ren egintza ukatzen dabezan gizonak (7, 7; 12, 31; 15, 8; 17, 9, 14).

<sup>o</sup> Bereak: bere erriak, judarrak

## Evangelio según San Juan

### Prólogo

**I** <sup>1</sup>En el principio la Palabra existía\* y la Palabra estaba con Dios, y la Palabra era Dios. <sup>2</sup>Ella estaba en el principio con Dios. <sup>3</sup>Todo se hizo por ella y sin ella no se hizo nada de cuanto existe. <sup>4</sup>En ella estaba la vida\* y la vida era la luz\* de los hombres, <sup>5</sup>y la luz brilla en las tinieblas, y las tinieblas no la vencieron. <sup>6</sup>Hubo un hombre, enviado por Dios, que se llamaba Juan\*. <sup>7</sup>Este vino como testigo, para dar testimonio de la luz, para que todos creyeran por él. <sup>8</sup>No era él la luz, sino quien diera testimonio de la luz. <sup>9</sup>La Palabra era la luz verdadera que ilumina a todo hombre que viene a este mundo\*. <sup>10</sup>En el mundo estaba, y el mundo fue hecho por ella, y el mundo no la conoció. <sup>11</sup>Vino a su casa, y los suyos no la recibieron. <sup>12</sup>Pero a todos los que la recibieron les dio poder de

1, 1 **la Palabra existía.** Como en el A. T., la Palabra y la Sabiduría, Gn. 1, 1s; Pr. 8, 22+; Sb. 7, 22+, también en San Juan la Palabra de Dios preexistía en Dios, 8, 24+; 10, 30; fue enviada al mundo por el Padre, 3, 17+, y después, terminada su misión, volvió al Padre, 7, 33; 13, 3; 17, 13; 20, 17. El N. T., y especialmente San Juan, deduce, gracias al hecho de la Encarnación, la naturaleza personal de esta Palabra subsistente.

1, 4 (a) **la vida.** Si él, la Palabra, Hijo de Dios vivo, 6, 57, es para el mundo fuente de vida eterna, 3, 15+; 17, 2, es porque tiene la vida en sí misma, 5, 26, porque ella misma es la vida, 11, 25; 14, 6; cf. 1 Jn. 1, 1+.

1, 4 (b) **la luz.** Como la luz en el A. T., Pr. 4, 18-19; Is. 9, 1; 45, 7, cf. Mt. 4, 16; Lc. 1, 79, la Palabra conduce a los hombres hacia Dios y les da la felicidad, la vida, la salvación mesiánica, 3, 19; 9; 12, 35s, 46; cf. Hch. 5, 20+. Esta luz vencerá a las tinieblas, 8, 12+; 12, 46.

1, 6 **Juan.** Paréntesis, vv. 6-8, sobre la misión de Juan el Bautista: cf. 1, 15, 19-40; 3, 22s; Lc. 1, 5s, 57s; Mt. 3, 1s.

1, 9 **a este mundo.** El mundo designa unas veces la tierra y el universo, otras el género humano, otras a los hombres que rechazan a Dios y la obra de Cristo, 7, 7; 12, 31; 15, 8s; 17, 9, 14.



Aren izena sinistu eben guztiai, Jaungoikoaren seme\* egiteko eskubidea emon eutsen. <sup>13</sup>Au\* ez zan odoletik jaio, ez aragi-guraritik, ez giza-guraritik, Jaungoikoagandik baiño. <sup>14</sup>Eta Itza aragi (*gizon*) egin zan, eta bere bizilekua geure artean jarri eban; eta bere aintza ikusi dogu, Seme bakarrari dagokionez Aitagandik artzen dauan aintza, graziz eta egiaz betea.

<sup>15</sup>Aretzaz Yon'ek egiten dau autor eta auxe diño dea-darka: "Auxe zan Aretzaz esan neban au: Nire ondoren datorrena, neure aurretik jarri da, ni baiño lenago zan-eta".

<sup>16</sup>Bere betetasunetik artu dogu guztiok-eta, eskerrik esker artu be. <sup>17</sup>Legea Moises'en bidez izan zan emona-ta; grazia ta egia\* Jesukristo'ren bidez eldu yakuz. <sup>18</sup>Jaungoikoa ez dau iñok bein be ikusi: Seme bakarrak adierazo dau\*, Aitaren altzoan dagoanak berak.

## I LENENGO PAZKOA

### A. LEN-ASTEA

#### Yon'en autorra

#### <sup>19</sup>Auxe izan zan judarrak\*, Jerusalem'dik bialdutako

1, 12 Jaungoikoaren Semea s.nisten dabenak (3, 12), Jaungoikoaren seme egiten dira (Mt. 5, 9; 23, 9 eta abar; Errom. 8, 14; Gal. 3, 26; 4, 5; Yn. 1.<sup>a</sup>, 3, 1; Apok. 21, 7)

1, 13 Geienetan irakurten danez, beste onetara: "oneik..."

1, 17 Itzaren gizakundearen bidez, Jaungoikoa bera daqo agiriz gizonen artean; bere aintza, beste aldi baten ikusten ez zana (Ex. 33, 20), Semearen gizatasunaren bidez ikusi daiteke (2, 11; 3, 12); Beronek agertzen dauz Aitaren errukia ta zintzotasuna (Ex. 34, 6; Os. 2, 22).

1, 18 Kristo, Aitaren agertzaille: 3, 11; 4, 46; 7, 16; 14, 6-11; Mt. 11, 27.

1, 19 judarrak. Izen au emoten dautse sarritan Yon'ek Jesus'en arerio diran erlejiño-agintariak.

hacerse hijos de Dios\*, a los que creen en su nombre; <sup>13</sup>la cual\* no nació de sangre, ni de deseo de carne, ni de deseo de hombre, sino que nació de Dios. <sup>14</sup>Y la Palabra se hizo carne, y puso su Morada entre nosotros, y hemos visto su gloria, gloria que recibe del Padre como Hijo único, lleno de gracia y de verdad. <sup>15</sup>Juan da testimonio de él y clama: "Este era del que yo dije: El que viene detrás de mí se ha puesto delante de mí, porque existía antes que yo". <sup>16</sup>Pues de su plenitud hemos recibido todos, y gracia por gracia. <sup>17</sup>Porque la Ley fue dada por Moisés; la gracia y la verdad\* nos han llegado por Jesucristo. <sup>18</sup>A Dios nadie le ha visto jamás: el Hijo único, que está en el seno del Padre, él lo ha contado\*.

## I

### LA PRIMERA PASCUA

#### A. LA SEMANA INAUGURAL

#### El testimonio de Juan

#### <sup>19</sup>Este fue el testimonio de Juan, cuando los judíos\*

1, 12 hijos de Dios. Los que creen en el Hijo de Dios, 3, 12+, se hacen hijos de Dios, Mt. 5, 9; 23, 9, etc.; Rm. 8, 14; Ga. 3, 26+; 4, 5+; 1, Jn. 3, 1; Ap. 21, 7.

1, 13 la cual. La lectura corrientemente admitida: dice: "los cuales...".

1, 17 verdad. Por la encarnación de la Palabra, Dios inaugura una presencia personal y sensible entre los hombres; su gloria, en otro tiempo invisible. Ex. 33, 20+, se deja ver a través de la humanidad del Hijo, 2, 11; 3, 12+, que revela la misericordia y la fidelidad del Padre, Ex. 34, 6; Os. 2, 22.

1, 18 lo ha contado. Cristo revelador del Padre: 3, 11+; 6, 46; 7, 16; 14, 6-11; Mt. 11, 27+.

1, 19 los judíos. Juan designa así a menudo a los jefes religiosos hostiles a Jesús.

abade ta lebitarrak “Nor zara zu?” itaunka joan yakoza-nean, Yon’ek emon eutsen autorra. <sup>20</sup>Arek autortu egin eban, bai, eta ez eban ukatu: “Ni ez naz Kristo’a”, autortu eban. <sup>21</sup>Eta auxe itandu eutsoen: “Zer, ba? Elias al-zara?” Yon’ek auxe esan eban: “Ez naz”. “Igarlea ete-zara, ba?” “Ez”, erantzun eban. <sup>22</sup>Orduan, auxe esan eutsoen: “Nor zara, ba, bialdu gaituenai erantzuna emon dagitsegun? Zer diñozu zutzaz?” <sup>23</sup>Yon’ek auxe esan eban: “*Basamortuan deadarka diarduan abotsa naz ni: Zuzendu egizue Jaunaren bidea\**, Isaias igarleak esan ebanez. <sup>24</sup>Areik, pariseuak bialdutakoak ziran. <sup>25</sup>Itaun au be egin eutsoen gaiñera: “Zegaitik bateatzen dozu, ba, ez Kristo, ez Elias, Igarle be ez ba’zara?” <sup>26</sup>“Nik uraz bateatzen dot —erantzun eutsen Yon’ek—; baiña zeuen artean dago zuek ezagutzen ez dozuen norbait; <sup>27</sup>Orixe da nire atzetik datorrena, eta orren oiñetakoen lokarria askatzeko be ez naz ni nor”. <sup>28</sup>Betania’n jazo zan au, Jordan’ez bestekaldean, Yon bateatzen ziarduan tokian.

<sup>29</sup>Biamamonean, Yon’ek Jesus beragana etorten ikusten dau, eta ba-diño: “Orra or Jaungoikoaren Bildotsa\*, munduaren pekatua kentzen dauana. <sup>30</sup>Orrexegaitik esan neban nik au:

‘Gizon bat dator nire atzean, neure aurrean jarri dana, ni baiño len zan-eta’.

<sup>31</sup>Nik neuk ez neban ezagutzen; alan be, uraz bateatzera etorri naz ni, Bera Israel’i agertu dakion”. <sup>32</sup>Eta Yon’ek autor au egin eban esanez: “Espiritu (*Santua*) ikusi dot uso-antzean zerutik jatsiten, eta orretxen gaiñean gelditzen. <sup>33</sup>Nik neuk ez neban ezagutzen; baiña, uraz bateatzera bialdu nenduanak, auxe esan eustan: ‘Norbaitegana Espiritu (*Santua*) jatsiten eta aren gaiñean gelditzen ikusten ba’dozu, axe da Espiritu Santuaz

1. 23 Is. 40. 3.

1. 29 Jaungoikoaren Bildotsa. Irudi onek (Apok. 5, 6) Yabe’reñ morroia (Is. 53; cf. Leb. 14) eta Pazko-bildotsa gogoratzen dauz batera. (Ex. 12, 1).

enviaron donde él desde Jerusalén sacerdotes y levitas a preguntarle: “¿Quién eres tú?”. <sup>20</sup>El confesó, y no negó; confesó: “Yo no soy el Cristo”. <sup>21</sup>Y le preguntaron: “¿Qué, pues? ¿Eres tú Elías?”. El dijo: “No lo soy”. —“¿Eres tú el profeta?”. Respondió: “No”. <sup>22</sup>Entonces le dijeron: “¿Quién eres, pues, para que demos respuesta a los que nos han enviado? ¿Qué dices de ti mismo?”. <sup>23</sup>Dijo él: “Yo soy *voz que clama en el desierto: Rectificad el camino del Señor\**, como dijo el profeta Isaias”. <sup>24</sup>Ellos habían sido enviados por los fariseos. <sup>25</sup>Todavía le preguntaron: “¿Por qué, pues, bautizas, si tú no eres el Cristo ni Elías ni el profeta?”. <sup>26</sup>Juan les respondió: “Yo bautizo en agua, pero en medio de vosotros está uno a quien no conocéis, <sup>27</sup>que viene detrás de mí, a quien yo no soy digno de desatarle la correa de su sandalia”. <sup>28</sup>Esto ocurrió en Betania, al otro lado del Jordán, donde estaba Juan bautizando.

<sup>29</sup>Al día siguiente, ve a Jesús que venía hacia él y dice: “He ahí el Cordero de Dios\*, que quita el pecado del mundo. <sup>30</sup>Este es por quien yo dije:

Viene un hombre detrás de mí, que se ha puesto delante de mí, porque existía antes que yo.

<sup>31</sup>Y yo no le conocía, pero he venido a bautizar en agua para que él sea manifestado a Israel”. <sup>32</sup>Y Juan dio testimonio diciendo: “He visto al Espíritu que bajaba del cielo como una paloma y se quedaba sobre él. <sup>33</sup>Y yo no le conocía, pero el que me envió a bautizar en agua, me dijo: ‘Aquél sobre quien veas que baja el Espíritu y se queda sobre él, ése es el que bautiza en el Espíritu Santo\*’. <sup>34</sup>Y yo lo he visto y doy testimonio de que éste es Elegido de Dios\*”.

1. 23 del Señor. Cita de Is. 40. 3.

1. 29 Cordero de Dios. Este símbolo, Ap. 5, 6, etc., recuerda a la vez al Siervo de Yahvéh, Is. 53; cf. Lv. 14, y al cordero pascual, Ex. 12, 1+.



bateatzen dauana\*<sup>34</sup>. <sup>34</sup>Eta neuk ikusi dot, eta autortu be bai, orixe dala Jaungoikoaren Aukeratua\*<sup>35</sup>.

### Lenengo ikasleak

<sup>35</sup>Biaramonéan, antxe egoan barrero Yon bere ikasle-tariko bigaz. <sup>36</sup>Jesus'i begira-begira jarririk —ibiltzen yoian-eta—, ba-diño: "Orra or Jaungoikoaren Bildotsa". <sup>37</sup>Ikasle biak entzun eben Yon olan berba egiten, eta Jesus'i jarraitu etsoen. <sup>38</sup>Jesus'ek atzerantz egiten dau; eta, jarraitu egiten dautsoela ikustean, auxe dirautse: "Zer nai dozue?". "Rabí —edo bardin dana, "Irakasle"—, nun bizi zara?", erantzun etsoen areik. <sup>39</sup>Jesus'ek auxe esan eutsen: "Etorri zaitze ta ikusiko dozue". Joan ziran, ba, nun bizi zan ikusi eben eta Beragaz gelditu ziran egun aretan. Amargarren ordua-edo<sup>o</sup> zan.

<sup>40</sup>Yon'en berbak entzun eta Jesus'i jarraitu etsoen bietariko bat, Ander zan, Simon Pedro'ren anaia <sup>41</sup>Onek, goizaldean, Simon bere anaia aurkitu ta ba-dirautso: "Mesias aurkitu dogu" —edo bardin dana, "Kristo'a". <sup>42</sup>Eta Jesus'egana eroan eban. Jesus'ek, ari begira-begira jarririk, auxe esan eutsan: "Simon zara zu, Yon'en semea; Kepa izango da zure izena", —edo bardin dana, "Arria".

<sup>43</sup>Biaramonéan, Galilea'ra joan nai izan eban. Felipe aurkitu ta ba-dirautso: "Jarraitu egidazu". <sup>44</sup>Felipe au, Betsaida'koa zan, Ander eta Pedro'ren urikoa. <sup>45</sup>Felipe'k Natanael aurkitzen dau, eta ba-dirautso: "Moises'ek Legean idatzi ebana, baita profetak be, axe bera aurkitu dogu: Jesus, Jose'ren semea, Nazaret'ekoa". <sup>46</sup>Natanael'ek auxe erantzun eutsan: "Nazaret'etik ezer

1, 33 Mesias'ek bialduko dau Espiritu Santua bere biztuera-ondoren (3, 5; 7, 37; 14, 16; 16, 7-8; 19, 30; 20, 22; Mt. 3, 6; Ap. Eg. 1, 5; 2, 38).

1, 34 Jaungoikoaren Aukeratua. Mesias'en izenordea (Lk. 9, 35).

<sup>o</sup> Arratsaldeko laurak.

### Los primeros discípulos

<sup>35</sup>Al día siguiente, se encontraba de nuevo allí Juan con dos de sus discípulos. <sup>36</sup>Fijándose en Jesús que pasaba, dice: "He ahí el Cordero de Dios". <sup>37</sup>Los dos discípulos le oyeron hablar así y siguieron a Jesús. <sup>38</sup>Jesús se vuelve, y al ver que le seguían les dice: "¿Qué queréis?". Ellos le respondieron: "Rabí —que quiere decir, 'Maestro'— ¿dónde vives?". <sup>39</sup>Les respondió: "Venid y lo veréis". Fueron, pues, vieron dónde vivía y se quedaron con él aquel día. Era más o menos la hora décima.

<sup>40</sup>Andrés, el hermano de Simón Pedro, era uno de los dos que habían oído a Juan y habían seguido a Jesús. <sup>41</sup>Este se encuentra al amanecer con su hermano Simón y le dice: "Hemos encontrado al Mesías" —que quiere decir, Cristo. <sup>42</sup>Y le llevó donde Jesús. Jesús, fijando su mirada en él, le dijo: "Tú eres Simón, el hijo de Juan; tú te llamarás Cefas" —que quiere decir, 'Piedra'.

<sup>43</sup>Al día siguiente, Jesús quiso partir para Galilea. Se encuentra con Felipe y le dice: "Sígueme". <sup>44</sup>Felipe era de Betsaida, de la ciudad de Andrés y Pedro.

<sup>45</sup>Felipe se encuentra con Natanael y le dice: "Hemos encontrado a aquél de quien escribieron Moisés en la Ley, y también los profetas: Jesús, el hijo de José, el de Nazaret". <sup>46</sup>Le respondió Natanael: "¿De Nazaret puede haber cosa buena?". Le dice Felipe: "Ven y lo verás". <sup>47</sup>Vio Jesús que se acercaba Natanael y dijo de él: "Ahí tenéis a un israelita de verdad, en quien no hay engaño". <sup>48</sup>Le dice Natanael: "¿De qué me conoces?". Le respondió Jesús: "Antes de que Felipe te

1, 33 el Espíritu Santo. El Mesías conferirá el Espíritu después de su resurrección, 3, 5; 7, 37s; 14, 16s; 16, 7-8; 19, 30; 20, 22; Mt. 3, 6+; Hch. 1, 5+; 2, 38+.

1, 34 Elegido de Dios. Título mesiánico, Lc. 9, 35+.

onik urten daiteke, gero?". "Etorri ta ikusiko dozu", dirautso Felipe'k. <sup>47</sup>Natanael Jesus'ek beragana etorten ikusi ta auxe esan eban aretzaz: "Orra or Israeldar jator bat; ez dago orregan maltzurkeririk". <sup>48</sup>Natanael'ek badirautso: "Nondik ezagutzen nozu, ba?" Jesus'ek auxe erantzun eutsan: "Felipe'k zuri dei egin orduko, zu pikondo-pean zengozala, ikusi zaitut". <sup>49</sup>"Rabbi" (*Irakale*) —erantzun eutsan Natanael'ek—, Jaungoikoaren Semea\* zara zu, Israel'go Erregea zara zu". <sup>50</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: "Pikondo-pean ikusi zendudazala esan dautsudalako sinisten dozu? Aundiagoak ikusi bear dozuz". <sup>51</sup>Eta auxe esan eutsan gaiñera: "Benetan dirautsut: zerua ikusiko dozue zabalik, baita aingeruak be Gizasemearen gaiñera igoten eta jatsiten"\*.

### Kana'ko eztegua

**2** <sup>1</sup>Iru egun geroago, Galilea'ko Kana'n eztegu bat ospatzen zan, eta antxe egoan Jesus'en ama. <sup>2</sup>Baita Jesus be eztegora deitua izan zan, bere ikasleakaz batera. <sup>3</sup>Eta ardaoak uts egin ebala-ta, Jesus'i bere amak auxe esan eutsan: "Ardaorik ez dauke". <sup>4</sup>"Andra —erantzuten dautso Jesus'ek—, zer dot nik zugaz?\*" Ez da oraindiño nire ordua eldu"\*. <sup>5</sup>Jesus'en amak mai-morroia i auxe dirautse: "Egizue Berak esan dagitzuena"\*.

<sup>6</sup>Ba-egozan an arrizko sei kantxin (*marmita*) ju-

1, 49 **Jaungoikoaren Semea**. Emen, Mesias'en izenordea, eta bardin "Israel'en Erregea" be (Mt. 4, 3).

1, 51 **Gizasemea**. Cf. 3, 13 eta abar; 13, 31; Mt. 8, 20.

2, 4 (a) **Itzez-itz**: "zuri ta niri zer?" (Judc. 11, 12; Mt. 8, 29 eta abar). Semitar-escera, tartean ez sartzeko adierazoteko. Maria'ri "andra" esatean (cf. 19, 26), Eba barria, "bizidunen ama" deritxo, antza (Gen. 3, 15, 20).

2, 4 (b) **Gora jaso** izateko, Aitak erabagitako ordua da; gorasote ori urr dago, eta Yon'ek ainbat bidar aitatzen dau (13, 1; 17, 1).

2, 5 Gen. 41, 55

llamara, cuando estabas debajo de la higuera, te vi". <sup>49</sup>Le respondió Natanael: "Rabbi, tú eres el Hijo de Dios\*, tú eres el Rey de Israel". <sup>50</sup>Jesús le contestó: "¿Por haberte dicho que te vi debajo de la higuera, cres? Has de ver cosas mayores". <sup>51</sup>Y le añadió: "Yo os aseguro: veréis el cielo abierto y a los ángeles de Dios subir y bajar sobre el Hijo del Hombre\*".

### La boda de Caná

**2** <sup>1</sup>Tres días después se celebraba una boda en Caná de Galilea y estaba allí la madre de Jesús. <sup>2</sup>Fue invitado también a la boda Jesús con sus discípulos. <sup>3</sup>Y, como faltara vino, le dice a Jesús su madre: "No tienen vino". <sup>4</sup>Jesús le responde: "¿Qué tengo yo contigo, mujer\*? Todavía no ha llegado mi hora\*". <sup>5</sup>Dice su madre a los sirvientes: "*Haced lo que él os diga*\*".

<sup>6</sup>Había allí seis tinajas de piedra, puestas para las purificaciones de los judíos, de dos o tres medidas cada

1, 49 **Hijo de Dios**. Aquí título mesiánico, lo mismo que "Rey de Israel", Mt. 4, 3+.

1, 51 **Hijo del hombre**. Cf. 3, 13, etc.; 13, 31; Mt. 8, 20+.

2, 4 (a) **mujer**. Lit. "¿Qué a mí y a ti?", Jc. 11, 12; Mt. 8, 29, etc.; semitismo que rechaza una intervención. Al llamarla "mujer", cf. 19, 26, parece dirigirse a la nueva Eva, "madre de los vivientes", Gn. 3, 15, 20.

2, 4 (b) **mi hora**. Es la hora fijada por el Padre para la glorificación y cuya proximidad Jn. subraya en numerosas ocasiones, hasta 13, 1; 17, 1.

2, 5 **os diga**. Cf. Gn. 41, 55.



darren garbiketarako ipiñita, bakotzak bi edo iru suil<sup>o</sup> artzen ebazala. <sup>7</sup>Jesus'ek ba-dirautse: "Ontziok urez bete egizuez". Eta goragiño bete ebezan. <sup>8</sup>"Orain atara —dirautse— ta eroan egizuez mai-zaiñari". Areik eroan egin eutsoen. <sup>9</sup>Mai-zaiñak ardao biurtu zan ura dastatu (*artu*) ebanean, ez ekian nungoa zan-eta —bai, orraitiño, mai-morroiak, ura atara ebenok—, senargeiari dei egin <sup>10</sup>eta auxe dirautso: "Ardao ona, guztiak asierarako ataraten dabe; eta gero, mailagunak ondo edanda dagozanean, txarragoa. Zuk, barriz, ardao ona orintxe arte gorde dozu".

<sup>11</sup>Olantxe asi zan Jesus ezaugarriak egiten Galilea'ko Kana'n\*. Eta bere aintza agertu eban; eta Beragan sinistu eben bere ikasleak. <sup>12</sup>Gero, Jesus Kafarnaun'era jatsi zan bere ama ta anaiakaz (*senideakaz*); baiña ez ziran gelditu an egun askorako.

#### B. PAZKO-JAIA

##### Jaunaren Etxearen garbikundea

(Mt. 21, 12-13; Mk. 11, 15-17; Lk. 19, 45-46)

<sup>13</sup>Judarren Pazko-eguna laster zan, eta Jesus Jerusalem'era igo zan. <sup>14</sup>Eta Jaunaren Etxean idi, ardi ta uso-saltzailleak eta diru-aldatzailleak aurkitu ebazan euren jarlekuetan. <sup>15</sup>Lokarriaz zardai<sup>o</sup> bat egiñik, guztiak Jaunaren Etxetik kanpora jaurti ebazan, ardi ta idiakaz; diru-aldatzailleen txanponak lurrean zear isuri ta maiak itxuli egin ebazan; <sup>16</sup>eta usoak saltzen ziarduenai auxe

2, 11 Bestealdi baten profetak lez (Is. 7, 11), Mesias'ek be "ezaugarriak" egiten dauz, gizonai bere Jaungoikozko eginkizunean sinistu eragiteko (3, 12; 2, 23; 4, 54; 11, 42), bere egintzak Beragan dagoan Aitarean indarraren ondorenak dira-ta (5, 36; 10, 38; 20, 30-31 eta abar). Alan be, askok ez dabe sinistu nai (10, 25; 12, 37 eta abar. Cf. Mt. 8, 1).

<sup>o</sup> Suil: metreta (ura artzeko arrizko ontzia).— <sup>o</sup> Zardai: látigo.

una. <sup>7</sup>Les dice Jesús: "Llenad las tinajas de agua". Y las llenaron hasta arriba. <sup>8</sup>"Sacadlo ahora, les dice, y llevadlo al maestresala". Ellos lo llevaron. <sup>9</sup>Cuando el maestresala probó el agua convertida en vino, como ignoraba de dónde era (los sirvientes, los que habían sacado el agua, sí que lo sabían), llama el maestresala al novio <sup>10</sup>y le dice: "Todo el mundo sirve primero el vino bueno, y cuando ya están bebidos, el inferior. Pero tú has guardado el vino bueno hasta ahora". <sup>11</sup>Así, en Caná de Galilea, dio Jesús comienzo a sus señales\*. Y manifestó su gloria y creyeron en él sus discípulos. <sup>12</sup>Después bajó a Cafarnaúm con su madre y los hermanos, pero no se quedaron allí muchos días.

#### B. LA FIESTA DE LA PASCUA

##### La purificación del Templo

(Mt. 21, 12-13; Mc. 11, 11, 15-17; Lc. 19, 45-46)

<sup>13</sup>Se acercaba la Pascua de los judíos y Jesús subió a Jerusalén. <sup>14</sup>Y encontró en el Templo a los vendedores de bueyes, ovejas y palomas, y a los cambistas en sus puestos. <sup>15</sup>Haciendo un látigo de cuerdas, echó a todos fuera del Templo, con las ovejas y los bueyes; desparramó el dinero de los cambistas y les volcó las mesas; <sup>16</sup>y dijo a los que vendían palomas: "Quitad esto de aquí. No hagáis de la Casa de mi Padre una casa

2, 11 *señales*. Como en otro tiempo los profetas, Is 7, 11, el Mesías realiza "señales" para inducir a los hombres a creer, 3, 12+, en su misión divina, 2, 23; 4, 54; 11, 42, porque sus obras son el efecto del poder del Padre que está en él, 5, 36; 10, 38; 20, 30-31, etc. Sin embargo, muchos se niegan a creer, 10, 25; 12, 37, etc. Cf. Mt. 8, 1+.

esan eutsen: "Kendu au emendik. Ez egin nire Aitaren Etxea merkatu-etxe".<sup>17</sup> Aren ikasleak, idatzita egoan au ekarri eben gogora: *Zure etxeaganako zaletasunak irun-tsi egingo nau*\*.

<sup>18</sup>Orduan, judarrak erantzun eta auxe esan eutsoen: "Ze ezaugarri erakusten daukuzu, ba, olan egiteko?"<sup>19</sup> Jesus'ek auxe erantzun eutsen: "Lurrera eratsi<sup>o</sup> egizue Toki Santu au, eta iru egunean jasoko dot".<sup>20</sup> "Berrogeta sei urte igaro dira Etxe Santu au egiten —erantzun eutsoen judarrak—, eta zuk iru egunean jaso?"<sup>21</sup> Jesus'ek barriz, bere gorputzaren Etxe santuatjaz egiten eban berba\*.<sup>22</sup> Illen artetik biztu zanean ekarri eben gogora Aren ikasleak, orixe zala Jesus'ek esan nai ebana, baita sinistu be Liburu Santuetakoa ta Jesus'ek esandakoa.

### Jerusalen'en

<sup>23</sup>Pazko-egunean Jerusalem'en egoan artean, Jesus'en izena askok sinistu eben, egiten ebazan mirariak ikustean.<sup>24</sup> Baiña, Jesus bera ez yaken bete-betean zabaltzen, guzti-guztiak ezagutzen ebazan-eta; <sup>25</sup>ez eban, gaiñera, iñoren bearrik gizonen barri jakiteko, berak ezagutzen eban gizonagan dagoana-ta.

#### D. ESPIRITUAREN EZKUTAPEN-AGERTALDIA ISRAEL'GO IRAKASLE BATI

##### Nikodemo'gaz alkar-ikustea

**3** <sup>1</sup>Pariseuen artean, Nikodemo izeneko gizon bat zan, judarren nagusietarikoa. <sup>2</sup>Gabez Jesus'egana joan

2, 17 Sal. 69, 10.

2, 21 Kristo biztuaren gorputza, Jaungoikoa agirian dagoan tokia (1, 14, cf. 7, 37-39), espirituz eta benetan egingo dan gurtzaren (jaurespenaren) erditokia izango da (4, 21, cf. Ap. Eg. 21, 22; Mt. 12, 6; 26, 61; Kor 1.<sup>a</sup>, 12, 12).

<sup>o</sup> Eratsi: derribar, destruir.

de mercado".<sup>17</sup> Sus discípulos se acordaron de que estaba escrito: *El celo por tu Casa me devorará*\*.

<sup>18</sup>Los judíos entonces le replicaron diciéndole: "¿Qué señal nos muestras para obrar así?"<sup>19</sup> Jesús les respondió: "Destruid este Santuario y en tres días lo levantaré".<sup>20</sup> Los judíos le contestaron: "Cuarenta y seis años se han tardado en construir este Santuario, ¿y tú lo vas a levantar en tres días?"<sup>21</sup> Pero él hablaba del Santuario de su cuerpo\*.<sup>22</sup> Cuando resucitó, pues, de entre los muertos, se acordaron sus discípulos de que era eso lo que quiso decir, y creyeron en la Escritura y en las palabras que había dicho Jesús.

### Estancia en Jerusalén

<sup>23</sup>Mientras estuvo en Jerusalén por la fiesta de la Pascua, creyeron muchos en su nombre al ver las señales que realizaba.<sup>24</sup> Pero Jesús no se confiaba a ellos porque los conocía a todos<sup>25</sup> y no tenía necesidad de que se le informara acerca de los hombres, pues él conocía lo que hay en el hombre.

#### B. LA REVELACION DEL MISTERIO DEL ESPIRITU A UN MAESTRO DE ISRAEL

##### Entrevista con Nicodemo

**3** <sup>1</sup>Había entre los fariseos un hombre llamado Nicodemo, magistrado judío. <sup>2</sup>Fue éste donde Jesús de noche y le dijo: "Rabbi, sabemos que has venido de

2, 17 me devorará. Cita del Sal. 69, 10.

2, 21 de su cuerpo. El cuerpo de Cristo resucitado, lugar de la presencia divina, 1, 14, cf. 7, 37-39, será el centro del culto en espíritu y en verdad, 4, 21s+, cf. Ap. 21, 22; Mt. 12, 6; 26, 61; 1 Co. 12, 12.



zan eta auxe esan eutsan: “Rabí (*Irakasle*), ba-dakigu Jaungoikoagandik zatozana irakasle lez: zuk egiten dozuzan mirariok, iñok ezin egin daikez-ta, Jaungoikoa beragaz egon ezik”. <sup>3</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: “Bene-benetan dirautsut: goitik jaioten ez danak, ezin ikusi daike Jaungoikoaren Erreiñua”. <sup>4</sup>“Zelan jaiote daiteke, ba —dirautso Nikodemo'k—, aguratu ezker? Sartu ete daiteke, ba, iñor barrero amaren sabelean eta atzera jaiote?” <sup>5</sup>“Bene-benetan dirautsut —erantzun eban Jesus'ek—: uraz eta Espirituaz jaioten ez dana, ezin sartu daiteke Jaungoikoaren Erreiñuan\*. <sup>6</sup>Aragitik jaiotakoa, aragi da; Espirituagandik<sup>o</sup> jaiotakoa, espiritu da. <sup>7</sup>Ez zaitez ikaratu goitik jaiote bear dozuela esan dautsudala-ta. <sup>8</sup>Nai dauan tokian joten dau aizeak\*, entzun be bai egiten dozu aren otsa; baiña, ez dakizu nundik datorren, ezta nora doan be. Alantxe da Espirituagandik jaioten dan guztia”.

<sup>9</sup>Nikodemo'k auxe erantzun eban: “Ori, zelan izan daiteke?” <sup>10</sup>“Irakasle zara Israel'en —erantzun eutsan Jesus'ek—, eta ez dakizu ori? <sup>11</sup>Bene-benetan dirautsut: ba-dakiguna diñogu guk eta ikusi doguna autortzen dogu; zuek, oster, ez dozue gure autorra ontzat artzen\*. <sup>12</sup>Lurreko gaiak esatean, zuek sinisten ez ba'daustazue, zelan sinistuko daustazue, ba, zeruko gaiak\* esaten ba’

**3, 5 Jaungoikoaren Erreiñua.** Escera onen orde (Mt. 4, 17), Yon'ek bizitzaz egiten dau berba (1, 4), betiko bizitzaz (3, 15). Bateoari buruz eta berau artu-bearrari diño (1, 35, cf. Tit. 3, 5).

**3, 8 Itz berberak adierazoten dauz aizea ta Espiritu (Santua).**

**3, 11 Jesus'ek auxe baiño ez dau egiten:** Aitaren itza besteci emon (1, 1, 18; 3, 34; 8, 28 eta abar). Baiña berba ezkutu onen aurrean, gizonak banandu egiten dira (7, 43; 10, 19 eta abar, cf. 8, 12).

**3, 12 Yon'en eritziz, sinismena (cf. Mt. 8, 10; Errom. 1, 16), Jesus Aitaren baldutzat eta Semetzat onartzea da (3, 16-18; 14, 1, 10; 17, 21-25; 20, 31 eta abar), Jesus'egana etortea (6, 35), “Bera ikustea” (6, 36), “Bera ezagutzea”, baita Aita be Beragaz (10, 38; 11, 40; 14, 7, 20). Sinismenak betiko bizitza emoten dau (3, 15); 20, 31; Yn. 1.<sup>a</sup>, 5, 1,**

\* Espirituagandik: Espiritu Santuagandik.

Dios como maestro, porque nadie puede realizar las señales que tú realizas si Dios no está con él”. <sup>3</sup>Jesús les respondió: “En verdad, en verdad te digo: el que no nazca de lo alto no puede ver el Reino de Dios”. <sup>4</sup>Dícele Nicodemo: “¿Cómo puede uno nacer siendo ya viejo? ¿Puede acaso entrar otra vez en el seno de su madre y nacer?” <sup>5</sup>Respondió Jesús: “En verdad, en verdad te digo: el que no nazca de agua y de Espíritu no puede entrar en el Reino de Dios\*. <sup>6</sup>Lo nacido de la carne, es carne; lo nacido del Espíritu, es espíritu. <sup>7</sup>No te asombres de que te haya dicho: Tenéis que nacer de lo alto. <sup>8</sup>El viento sopla donde quiere\*, y oyes su voz, pero no sabes de dónde viene ni a dónde va. Así es todo el que nace del Espíritu”.

<sup>9</sup>Respondió Nicodemo: “¿Cómo puede ser eso?”

<sup>10</sup>Jesús le respondió: “Tú eres maestro en Israel y ¿no sabes esto? <sup>11</sup>“En verdad, en verdad te digo: nosotros hablamos de lo que sabemos y damos testimonio de lo que hemos visto, pero vosotros no aceptáis nuestro testimonio\*. <sup>12</sup>Si al deciros cosas de la tierra, no creéis, ¿cómo vais a creer si os digo cosas del cielo?\*. <sup>13</sup>Nadie ha subido al cielo sino el que bajó del cielo, el Hijo del hombre que está en el cielo. <sup>14</sup>Y como Moisés levantó la serpiente en el desierto\*, así tiene que ser levantado\* el

**3, 5 Reino de Dios.** En lugar de esta expresión, Mt. 4, 17+, Jn. habla de vida, 1, 4+, de vida eterna, 3, 15+. Alusión al bautismo y a su necesidad absoluta, 1, 35, cf. Tit. 3, 5.

**3, 8 donde quiere.** La misma palabra designa el viento y al Espíritu.

**3, 11 nuestro testimonio.** Jesús no hace más que transmitir la palabra del Padre, 1, 1, 18+; 3, 34; 8, 28, etc. Pero en presencia de esta palabra misteriosa, los hombres se dividen, 7, 43; 10, 19, etc., cf. 8, 12+.

**3, 12 cosas del cielo.** La fe, cf. Mt. 8, 10+; Rm. 1, 16+, consiste en Jn. en reconocer a Jesús como enviado del Padre y como Hijo, 3, 16-18+; 14, 1, 10; 17, 21-25; 20, 31, etc., en venir a él, 6, 35s+, en “verle”, 6, 36s, en “conocerle” y con él al Padre, 10, 38; 11, 40; 14, 7, 20. La fe de la vida eterna, 3, 15; 20, 31; 1 Jn. 5, 1, 13. Se



dautsuedaz?" <sup>13</sup>Zerura ez da iñor igo, zerutik jatsi dana izan ezik, zeruan dagoan Gizasemea izan ezik. <sup>14</sup>Eta Moises'ek basamortuan\* sugea gora jaso ebanetz, bearrezkoa da Gizasemea be (*gurutzean*) jasoa izatea\*, <sup>15</sup>sinistu dagian edonok betiko bizitza izan dagian\*. <sup>16</sup>Izan be, Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra emoteraiño maite izan dau: Beragan sinistu dagian iñortxo be galdu ez daiten, betiko bizitza izan dagian baiño. <sup>17</sup>Izan be, Jaungoikoak bere Semea mundura ez dau mundua epaitzeko bialdu\*, beronen bidez mundua zeruratu (*salbatu*) daiten baiño. <sup>18</sup>Beronegan sinisten dauana, ez da galzen; sinisten ez dauana, ostera, galduta dago, Jaungoikoaren Seme bakarraren izena ez dau sinistu-ta. <sup>19</sup>Auzigaia, barriz, auxe da; mundura argia etorri zala, eta gizonak argia baiño illuna maiteago izan ebela, arein egiñak okerrak ziran-eta. <sup>20</sup>Izan be, gaizakeria egiten dauan edonok, argiari gorroto dautso ta ez doa argitara, bere egiñak txartzat artuak izan ez daitezkan. <sup>21</sup>Egia egiten dauanak, ostera, argitara doa, bere egitadak Jaungoikoak agintzen dauanez egiñak dirala agertu daiten".

13). Sinismenari, itza ta aginduak maitasunez gorderik ekiten yako (8, 51; 14, 21, 23; 17, 6-8; Yn. 2, 3). Sinismena, ezaugarriak bultz eginda (2, 11), Jaungoikoak autorpenean eusten dala (10, 25), Aitaren doa bat eta erakarte bat da (6, 37, 44, 65). Jesus'i buruzko gizakera oiñarrizko onegatik, gizonak oraindik dira epaituak (3, 17, 36; 5, 19; 8, 12; 9, 39; 10, 35; 12, 48).

3, 14 (a) **basamortuan**. Cf. Num. 21, 4-9.

3, 14 (b) **jasoa izatea**. Gizasemea (1, 51), (*gurutzean*) jasoa begirata (12, 32), Seme bakarra dala (18; cf. 19, 37) sinistea da (3, 12).

3, 15 **betiko bizitza**. Fededuna bizitza barrian sartzen da (3, 12). Mesias'en doacia, Jaungoikoaren bizia artea, eriotza ta edozein muga garaitzen dauana (1, 4; 6, 40, 57; 17, 3; Yn. 1.<sup>a</sup>, 5, 12).

3, 17 Aita da Semea "bialtzen dauana" (4, 34; 5, 30; 7, 28; 8, 42; 17, 3 eta abar), santu egiten dauana (10, 36; 17, 19), gizartea salbatzeko (3, 16, 35) eta munduari bizia emoteko emoten dautsana (5, 24-27; 6, 39 eta abar). Eginkizun onek, Aitaren eta Semearen arteko alkartasun bete-betean sartzen dauz gizonak (3, 34; 5, 36; 7, 17), eta eginkizun ori apostoluen eginkizunaz luzatuko da (4, 38).

Hijo del hombre, <sup>15</sup>para que todo el que crea tenga por él vida eterna\*. <sup>16</sup>Porque tanto amó Dios al mundo que dio a su Hijo único, para que todo el que crea en él no perezca, sino que tenga vida eterna. <sup>17</sup>Porque Dios no ha enviado\* a su Hijo al mundo para condenar al mundo, sino para que el mundo se salve por él. <sup>18</sup>El que cree en él, no es condenado; pero el que no cree, ya está condenado, porque no ha creído en el nombre del Hijo único de Dios. <sup>19</sup>Y la condenación está en que vino la luz al mundo, y los hombres amaron más las tinieblas que la luz, porque sus obras eran malas. <sup>20</sup>Pues todo el que obra el mal aborrece la luz y no va a la luz, para que no sean censuradas sus obras. <sup>21</sup>Pero el que obra la verdad, va a la luz, para que quede de manifiesto que sus obras están hechas según Dios".

ejercita guardando por amor la palabra y los mandamientos, 8, 51; 14, 21, 23; 17, 6-8; Jn. 2, 3s. Provocada por las señales, 2, 11+, apoyada en un testimonio divino, 10, 25, es un don y una atracción del Padre, 6, 37, 44, 65. Por esta actitud fundamental respecto a Jesús los hombres son desde ahora juzgados, 3, 17s, 36; 5, 19+; 8, 12+; 9, 39; 10, 35; 12, 48.

3, 14 (a) **en el desierto**. Cf. Nm. 21, 4-9.

3, 14 (b) **ser levantado**. Mirar al Hijo del hombre, 1, 51+, levantado, 12, 32+, es creer, 3, 12, que es el Hijo único, v. 18; cf. 19, 37.

3, 15 **vida eterna**. Es la vida nueva en la que entra el creyente, 3, 12+, don mesiánico, comunicación de la vida de Dios, que triunfa de la muerte y de todo límite, 1, 4+; 6, 40, 57; 17, 3; 1 Jn. 5, 12.

3, 17 **enviado**. El Padre es "el que envía" al Hijo, 4, 34; 5, 30; 7, 28; 8, 42; 17, 3, etc., le consagra, 10, 36; 17, 19, le entrega al mundo para salvarle, 3, 16, 35, y darle la vida, 5, 24-27; 6, 39, etc. Esta misión hace participar a los hombres en la comunión perfecta del Padre y del Hijo, 3, 34; 5, 36; 7, 16, será prolongada por la de los apóstoles, 4, 38s+.



## II

## JESUS, SAMARIA TA GALILEA'N ZEAR

## Yon'en azken-autorra

<sup>22</sup>Onen ondoren, Jesus bere ikasleakaz Judea'ko lurraldera joan zan; eta antxe egoan arekaz batera, eta bateatu egiten eban. <sup>23</sup>Yon'ek be Ainon'en, Salim-ondoa, bateatzen ziarduan, an ura ugari zan-eta; laguntaldea, barriz, etorri ta bateatu egiten zan. <sup>24</sup>Oraindiño Yon ez zan giltzapean sartua izan-eta.

<sup>25</sup>Garbiketa zala-ta, eztabaida bat sortu zan Yon'en ikasleen eta judar baten artean. <sup>26</sup>Yon'egana joan eta auxe esan eutsoen: "Rabbí (*Irakasle*), Jordan'ez bestekaldean zeugaz egoana, aren alde autorra egin zenduana bera, bateatzen diardu, eta guztiak beragana doaz". <sup>27</sup>Yon'ek auxe erantzun eban: "Iñok ezin artu daike ezer beretzat, zerutik emon ez ba'yako. <sup>28</sup>Zeuek zaree nik esan neban onen autorle: 'Ni ez naz Kristo'a, beronen aurretik bialdutakoa baiño'. <sup>29</sup>Emaztegeia daukana, senargeia da\*; senargeiaren adiskideak, barriz, onen languntzaille ta esanaren zain dagoanak, poz aundia artzen dau senargeiaren abotsaz. Auxe da, ba, nire poza, eta bete-betea da, izan be. <sup>30</sup>Ari, azitea dagokio; niri, barriz, txikiagotzea\*. <sup>31</sup>Goitik datorrena, guztien gaiñetik dago; lurretikoa dana, lurrekoa da, eta lurrekoatzaz egiten dau berba. <sup>32</sup>Zerutik datorrena, guztien gaiñetik dago: ikusi ta entzun dauana autortzen dau, baiña aren autorra iñok ez dau onartzen. <sup>33</sup>Aren autorra onartzen dauanak, Jaungoikoa egizale dala autortzen dau. <sup>34</sup>Jaungoikoak bialdu dauanak, Jaungoikoaren herbak esaten dauz,

3, 29 Jesus'ek beretzat artzen dau (Mt. 9, 15) Jaungoikoak Israel' egazko artu-emonak azaltzen ebazan irudia (Os. 1, 2, cf. Kor 2.<sup>a</sup>, 11, 2; Apok. 19, 7; 21, 2).

\* Txikiagotu: disminuir.

## II

## VIAJE POR SAMARIA Y GALILEA

## Ultimo testimonio de Juan

<sup>22</sup>Después de esto, se fue Jesús con sus discípulos al país de Judea; y allí se estaba con ellos y bautizaba. <sup>23</sup>Juan también estaba bautizando en Ainón, cerca de Salim, porque había allí mucha agua, y la gente acudía y se bautizaba. <sup>24</sup>Pues todavía Juan no había sido metido en la cárcel.

<sup>25</sup>Se suscitó una discusión entre los discípulos de Juan y un judío acerca de la purificación. <sup>26</sup>Fueron, pues, donde Juan y le dijeron: "Rabbí, el que estaba contigo al otro lado del Jordán, aquel de quien diste testimonio, mira, está bautizando y todos se van a él". <sup>27</sup>Juan respondió: "Nadie puede arrogarse nada si no se le ha dado del cielo. <sup>28</sup>Vosotros mismos me sois testigos de que dije: 'Yo no soy el Cristo, sino que he sido enviado delante de él'. <sup>29</sup>El que tiene a la novia es el novio\*; pero el amigo del novio, el que asiste y le oye, se alegra mucho con la voz del novio. Esta es, pues, mi alegría, que ha alcanzado su plenitud. <sup>30</sup>Es preciso que él crezca y que yo disminuya. <sup>31</sup>El que viene de arriba está por encima de todos: el que es de la tierra, es de la tierra y habla de la tierra. El que viene del cielo, está por encima de todos: <sup>32</sup>da testimonio de lo que ha visto y oído, pero su testimonio nadie lo acepta. <sup>33</sup>El que acepta su testimonio certifica que Dios es veraz. <sup>34</sup>Aquél a quien Dios ha enviado habla las palabras de Dios, porque le da el Espíritu sin medida. <sup>35</sup>El Padre ama al Hijo y ha

3, 29 el novio. Jesús se apropia, Mt. 9, 15s, la imagen que describía las relaciones de Dios con Israel, Os. 1, 2+, 2 Co. 11, 2+; Ap. 19, 7; 21, 2.

Jaungoikoak Espiritua negurri bagarik emoten dautso-ta.  
<sup>35</sup>Aitak Semea maite dau, eta beronen eskuan itxi dau dana. <sup>36</sup>Semeagan sinisten dauanak, betiko bizitza dauko; Semea ukatzen dauanak, ez dau bizitza ikusiko<sup>o</sup>, bestetara baiño: Jaungoikoaren asarrea izango dau bere gaiñean”.

#### Gizadiaren Salbatzaille lez agertzen yake samariarra

**4** <sup>1</sup>Jesus'ek Yon'ek baiño ikasle geiago egiten eta bateatzen ebazala entzun eben pariseuak; eta Jesus barri onen jakitun egin zanean —<sup>2</sup>bateatzailleak, orraitin, ikasleak ziran, ez Jesus bera—, <sup>3</sup>Judea itxi ta Galilea'ra joan zan barriro: <sup>4</sup>Samaria'n zear igaro bear eban. <sup>5</sup>Sikar deritxon Samaria'ko errira etorri zan, ba, Jakob'ek bere seme Jose'ri emondako solo-ondora. <sup>6</sup>Jakob'en patia egoan an. Jesus, bidean nekatuta etorrela, patin-ondoan jesarri zan. Seigarren ordua-edo zan<sup>o</sup>. <sup>7</sup>Samaria'ko emakume bat ura ataratera dator. Jesus'ek dirautso: “Ura emon egidazu”\*. <sup>8</sup>Jesus'en ikasleak, jatekoa erostera, urira joan ziran-eta. <sup>9</sup>Emakume samaritarrek badirautso: “Zelan zuk, judarra izanik, zelan eskatzen daustazu edatekorik niri, samaritarra nazan oni?” (Izan be, judarrak ez dabe artu-emonik samaritarraz). <sup>10</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: “Jaungoikoaren doia eza-gutu ba'zengi, eta 'ura emon egidazu' dirautsuna nor dan ba'zeki, zeuk eskatuko zeuskio ari, eta arek ur bizia emongo leuskizu”. <sup>11</sup>“Jauna —dirautso emakumeak—, ezer be ez dozu ura atarateko, eta patia sakona da; nundik dozu, ba, ur bizi ori? <sup>12</sup>Jakob gure aita baiño aun-

4, 7 Iturburuko ura, Eguzki-sortzaldean oso gogokoa, Jaungoikoak emondako biziaren irudi zan (Is. 12, 3; Sal. 36, 9-10; Eclo. 24, 23 eta abar). Emen, Espiritu Santuaren irudia (1. 33; 3, 5; 7, 37-39).

<sup>o</sup> Bizitza edo betiko bizitza ikusiko = izango, lortuko, jadetsiko. “Bizitza” emen zer zeatza (concreta) danez, “bizitarik” jarteabaño zuzenago dago, antza.

<sup>o</sup> Seigarren ordua: eguerdiko amabiak.

entregado todo en su mano. <sup>36</sup>El que cree en el Hijo tiene vida eterna; el que se resiste al Hijo, no verá la vida, sino que la cólera de Dios pesa sobre él”.

#### La revelación del Salvador del mundo a los samaritanos

**4** <sup>1</sup>Cuando Jesús se enteró de que había llegado a oídos de los fariseos que él hacía más discípulos y bautizaba más que Juan —aunque no era Jesús mismo el que bautizaba, sino sus discípulos—, <sup>2</sup>abandonó Judea y volvió a Galilea. <sup>3</sup>Tenía que pasar por Samaría. <sup>4</sup>Llega, pues, a una ciudad de Samaría llamada Sicar, cerca de la heredad que Jacob dio a su hijo José. <sup>5</sup>Allí estaba el pozo de Jacob. Jesús, como venía fatigado del camino, se sentó junto al pozo. Era alrededor de la hora sexta. <sup>6</sup>Llega una mujer de Samaría a sacar agua. Jesús le dice: “Dame de beber”. <sup>7</sup>Pues sus discípulos se habían ido a la ciudad a comprar comida. Le dice la samaritana: <sup>8</sup>“¿Cómo tú, siendo judío, me pides de beber a mí, que soy samaritana?” (Porque los judíos no se tratan con los samaritanos). <sup>9</sup>Jesús le respondió: “Si conocieras el don de Dios, y quién es el que te dice ‘Dame de beber’, tú le habrías pedido a él, y él te habría dado agua viva”. <sup>10</sup>Le dice la mujer: “Señor, no tienes con qué sacarla, y el pozo es hondo; ¿de dónde, pues, tienes esa agua? <sup>11</sup>¿Es que tú eres más que nuestro padre Jacob, que nos dio el pozo, y de él bebieron él y sus hijos y sus ganados?” <sup>12</sup>Jesús le respondió: “Todo el que beba de esta agua, volverá a tener sed; <sup>13</sup>pero el que beba del agua que yo le dé, no tendrá sed jamás, sino que el agua que yo le dé se convertirá en él en fuente de agua que

4, 7 de beber. El agua de manantial, tan apreciada en Oriente, simbolizaba la vida dada por Dios, Is. 12, 3; Sal. 36, 9-10; Si. (Eclo.) 24, 23s, etc. Aquí llega a ser el símbolo del Espíritu, 1, 33+; 3, 5+; 7, 37-39.



diagoa ete-zara, ba? Berak emon euskun patin au, eta bertotik edan eben berak eta bere semeak eta bere abereak". <sup>13</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: "Ur onetatik edaten dauan edonor, barriro be egarri izango da; <sup>14</sup>baiña, nik emon dagiodan uretatik edan dagiana, ez da iñoiz be egarrituko: nik emon dagiodan ura, ostera, betiko bizitzaraiño txirristaka darion ur-iturri izango yako". <sup>15</sup>"Jauna —dirautso emakumeak—, emon egidazu ur orreatatik, barriro egarritu ez nadin, eta ur-eske ona etorri bearrik izan ez dagidan". <sup>16</sup>"Zoaz —dirautso Jesus'ek—, dei egiozu zure senarrari ta etorri zaitez barriro ona". <sup>17</sup>"Ez dot senarrik", erantzun eban emakumeak. "Ondo esan dozu ez dozula senarrik —dirautso Jesus'ek—, <sup>18</sup>bost senar izan dozuz-ta; orain dozuna, barriz, ez da zure senarra; orretan egia esan dozu".

<sup>19</sup>"Jauna —dirautso emakumeak—, ikusten dot profeta zar(e)ana. <sup>20</sup>Gure gurasoak Jaungoikoa mendi onetan gurtu eben; zuek, ostera, Jerusalem'en gurtu bear dala diñozue". <sup>21</sup>"Sinistu egidazu, andra —dirautso Jesus'ek—: eldu da sasoi, eta orduan ez dozue Aita gurtuko mendi onetan ez Jerusalem'en. <sup>22</sup>Ezagutzen ez dozue gurtzen dozue zuek; ezagutzen doguna gurtzen dogu guk, osasuna judarrakandik dator-eta. <sup>23</sup>Baiña eldu da sasoi —eta auxe da, izan be—, eta benetako gurtzailleak Aita gogoz (*espirituz*) eta egiaz gurtuko dabe\*, olakoxe gurtzailleak nai dauz Aitak-eta. <sup>24</sup>Jaungoikoa espiritu da, eta gurtzen dabenak, espirituz eta egiaz gurtu bear dabe Jaungoikoa".

<sup>25</sup>Emakumeak dirautso: "Ba-dakit Kristo deritxon Mesias etorteko dana. Etorri daitenean, berak irakatsiko dauku dana". <sup>26</sup>"Neu naz —dirautso Jesus'ek—, zugaz berbetan diardudan au".

<sup>27</sup>Orduantxe etorri ziran bere ikasleak, eta arrituta

4, 23 Espiritu (Santua) jaiotza barriaren (3, 5) eta jaurespen (gurtza) barriaren iturburu da; "benetakoa", Jainko-agerpen barriaren izateari erantzuten dautsalako (2, 21, cf. Errom. 12, 1).

brote para vida eterna". <sup>15</sup>Le dice la mujer: "Señor, dame de esa agua, para que no tenga más sed y no tenga que venir aquí a sacarla". <sup>16</sup>Jesús le dice: "Vete, llama a tu marido y vuelve acá". <sup>17</sup>Respondió la mujer: "No tengo marido". Jesús le dice: "Bien has dicho que no tienes marido, <sup>18</sup>porque has tenido cinco maridos y el que ahora tienes no es marido tuyo: en eso has dicho la verdad".

<sup>19</sup>Le dice la mujer: "Señor, veo que eres un profeta. <sup>20</sup>Nuestros padres adoraron en este monte y vosotros decís que en Jerusalén es donde se debe adorar". <sup>21</sup>Jesús le dice: "Créeme, mujer, que llega la hora en que, ni en este monte, ni en Jerusalén adoraréis al Padre. <sup>22</sup>Vosotros adoráis lo que no conocéis; nosotros adoramos lo que conocemos, porque la salvación viene de los judíos. <sup>23</sup>Pero llega la hora (ya estamos en ella) en que los adoradores verdaderos adorarán al Padre en espíritu y en verdad\*, porque así quiere el Padre que sean los que le adoren. <sup>24</sup>Dios es espíritu, y los que adoran, deben adorar en espíritu y verdad".

<sup>25</sup>Le dice la mujer: "Sé que va a venir el Mesías, el llamado Cristo. Cuando él venga, nos lo anunciará todo". <sup>26</sup>Jesús le dice: "Yo soy, el que te está hablando".

<sup>27</sup>En esto llegaron sus discípulos y quedaron sorprendidos de que hablara con una mujer. Pero nadie le dijo: "¿Qué quieres?" o "¿Qué hablas con ella?" <sup>28</sup>La mujer, dejando su cántaro, corrió a la ciudad y dijo a la gente: <sup>29</sup>"Venid a ver a un hombre que me ha dicho todo lo que he hecho. ¿No será éste el Cristo?" <sup>30</sup>Salieron de la ciudad e iban donde él.

<sup>31</sup>Entretanto, los discípulos le insistían diciendo: "Rabbi, come". <sup>32</sup>Pero él les dijo: "Yo tengo para co-

4, 23 en verdad. El Espíritu es el principio del nuevo nacimiento, 3, 5, y del nuevo culto, "verdadero" porque responde a la realidad de la nueva revelación, 2, 21+, cf. Rm. 12, 1.



gelditu ziran emakume bategaz berbetan ziardualako. Alan be, ez eutsan iñok esan: "Zer nai dozu?", edo-ta, "Zertaz egiten dozu berba orregaz?" <sup>28</sup>Emakumeak, bere edarr(e)a itxirik, urira arin joan eta auxe esan eutsan laguntaldeari: <sup>29</sup>"Etorri zaitzeze, nik egin dodan guztia esan daustan gizon bat ikustera. Kristo'a ez ete-da, gero, berau?" <sup>30</sup>Uritik urten eta Jesus'egana yoiazan.

<sup>31</sup>Bitartean, ikasleak Jesus'i esan eta esan egiten eutsoen: "Rabbi (*Irakasle*), jan egizu, ba". <sup>32</sup>Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: "Zuek ez dakizuen janari bat daukat nik jateko". <sup>33</sup>Ikasleak alkarri auxe zirautsoen: "Jatekoa ekarri ete-dautso, ba, norbaitek?" <sup>34</sup>"Nire jatekoa—dirautse Jesus'ek—, bialdu nauanaren gogoia egitea ta bere lana burutzea da. <sup>35</sup>Ez dozue zuek esaten, ba: lau illebete barru, gari-ebagitea? Ona emen, ba, nik dirautsuedan au: jaso begiok eta ikusi soloak, onezkero igiterako (*ebagiteko*) zurituta dagoz-ta. <sup>36</sup>Igitariak egun-saria jasoten dau, eta betiko bizitzarako frutua batzen; orrela, ereillea ta igitaria bardin poztuten dira. <sup>37</sup>Izan be, onetan egia da esakera au: bat dala ereillea ta beste bat igitaria. <sup>38</sup>Zuek landu ez dozuena ebagitera bialdu zaituet. Besteak landu, eta arein lana zuei ondo etorri yatzue"\*

<sup>39</sup>Uri aretako samaritar askok, emakumeari "egin dodan guztia esan dausti" autor au entzunda, Jesus'en sinisterra jo eben. <sup>40</sup>Samaritarrak Jesus'egana etorri ziranean, eurakaz gelditu zeitela eskatu eutsoen. Eta antxe gelditu zan egun bian. <sup>41</sup>Eta askok geiagok artu eben sinismena Jesus'i entzundakoaz; <sup>42</sup>eta emakumeari auxe zirautsoen: "Onezkero ez dogu zuk esandakoagaitik si-

4, 38 Ereillea apostoluen aurretikoen irudi da, eta batez be Jesus'ena. Jesus'en eginkizuna (3, 7) apostoluen eginkizunaren bidez egingo da, eta apostoluek Israel'dik (4, 22) hurbira osora zabalduko dabe (6, 70; 13, 16-20; 15, 16; 17, 18-20; 20, 21; Yn. 1.<sup>a</sup>, 1, 3; cf. Lk. 10, 16; Ap. Eg. 1, 8).

mer un alimento que vosotros no sabéis". <sup>33</sup>Los discípulos se decían unos a otros: "¿Le habrá traído alguien de comer?" <sup>34</sup>Les dice Jesús: "Mi alimento es hacer la voluntad del que me ha enviado y llevar a cabo su obra. <sup>35</sup>¿No decís vosotros: Cuatro meses más y llega la siega? Pues bien, yo os digo: Alzad vuestros ojos y ved los campos, que blanquean ya para la siega. Ya <sup>36</sup>el segador recibe el salario, y recoge fruto para vida eterna, de modo que el sembrador se alegra igual que el segador. <sup>37</sup>Porque en esto resulta verdadero el refrán de que uno es el que siembra y otro el que siega: <sup>38</sup>yo os he enviado a segar lo que vosotros no habéis trabajado. Otros trabajaron y vosotros os aprovecháis de su trabajo"\*

<sup>39</sup>Muchos samaritanos de aquella ciudad creyeron en él por las palabras de la mujer que atestiguaba: "Me ha dicho todo lo que he hecho". <sup>40</sup>Cuando llegaron donde él los samaritanos, le rogaron que se quedara con ellos. Y se quedó allí dos días. <sup>41</sup>Y fueron muchos más los que creyeron por sus palabras, <sup>42</sup>y decían a la mujer: "Ya no cremos por tus palabras; que nosotros mismos hemos oído y sabemos que éste es verdaderamente el Salvador del mundo".

4, 38 de su trabajo. El sembrador representa a los predecesores de los apóstoles, y en primer lugar a Jesús. La misión de Jesús, 3, 17+, se realizará de hecho por la de los apóstoles, que la extenderán desde Israel, 4, 22, al mundo entero, 6, 70; 13, 16-20; 15, 16s; 17, 18-20; 20, 21; 1 Jn. 1, 3+; cf. Lc. 10, 16; Hch. 1, 8+.



nisten: geuk entzun dogu ta ba-dakigu auxe dana benetan munduaren Salbatzaillea-ta”.

### Errege-etxeko baten semea osatzen dau

(Mt. 8, 5-13; Lk. 7, 1-10)

<sup>43</sup>Egun biak igarota, andik urten eta Galilea'ra joan zan: <sup>44</sup>igarlea bere errian ez dala onartua izaten esan eban Jesus'ek berak-eta. <sup>45</sup>Galilea'ra eldu zanean, galilearrak abegi onez artu eben, jai-egunean Jerusalem'en Jesus'ek egin izan eban guztia ikusi izan eben-eta: eurak be jaiegunera joan izan ziran-eta.

<sup>46</sup>Orduan, ura ardao biurtu izan eban Galilea'ko Kana'ra etorri zan barriro. Errege-etxeko bat zan Kafarnaun'en, semea geisorik eukana. <sup>47</sup>Jesus Judea'tik Galilea'ra etorri izan zala jakin ebanean, Beragana joan zan, eta bere semea osatzera jatsi zedilla eskatzen eutsan, il-zorian egoala-ta. <sup>48</sup>Orduan, Jesus'ek auxe esan eutsan: “Ezaugarriak eta arrigarriak ikusten ez ba'dozuez, ez dozue sinisten”. <sup>49</sup>Errege-etxekoak dirautso: “Jatsi zaitetz, Jauna, nire semea il baiño len”. <sup>50</sup>“Zoaz —dirautso Jesus'ek—, zure semea bizi da-ta”.

Gizonak sinistu egin eban Jesus'ek esandakoa, eta etxerako bidea artu eban. <sup>51</sup>Bidean beera yoiala, bere morroiak bidera urten eta bere semea bizi zala esan eutsoen. <sup>52</sup>Orduan, obero egin eban ordua itandu eutsen arek. “Atzo zazpigarren orduan joan yakon sukarra<sup>o</sup>”, esan eutsoen areik. <sup>53</sup>Orduantxe igarri eutsan aitak, ordu aretan bertan esan eutsala Jesus'ek: “Bizi da zure semea”; eta berak eta bere etxeko guztiak sinistu egin eben.

<sup>54</sup>Auxe izan zan, Judea'tik Galilea'ra barriro etorri zanean, Jesus'ek egin eban bigarren miraria.

<sup>o</sup> Sukarra = berotasuna; fiebre.

### Curación del hijo de un funcionario real

(Mt. 8, 5-13; Lc. 7, 1-10)

<sup>43</sup>Pasados los dos días, partió de allí para Galilea. <sup>44</sup>Pues Jesús mismo había afirmado que un profeta no goza de estima en su tierra. <sup>45</sup>Cuando llegó a Galilea, los galileos le hicieron un buen recibimiento, porque habían visto todo lo que había hecho en Jerusalén durante la fiesta, pues también ellos habían ido a la fiesta.

<sup>46</sup>Volvió, pues, a Caná de Galilea, donde había convertido el agua en vino. Había en Cafarnaum un funcionario real, cuyo hijo estaba enfermo. <sup>47</sup>Cuando se enteró de que Jesús había venido de Judea a Galilea, fue donde él y le rogaba que bajase a curar a su hijo, pues estaba a la muerte. <sup>48</sup>Entonces Jesús le dijo: “Si no veis señales y prodigios, no creéis”. <sup>49</sup>Le dice el funcionario: “Señor, baja antes que se muera mi hijo”. <sup>50</sup>Jesús le dice: “Vete, que tu hijo vive”. Creyó el hombre en la palabra que Jesús le había dicho y se puso en camino. <sup>51</sup>Cuando bajaba, le salieron al encuentro sus siervos, y le dijeron que su hijo vivía. <sup>52</sup>El les preguntó entonces la hora en que se sintió mejor. Ellos le dijeron: “Ayer a la hora séptima le dejó la fiebre”. <sup>53</sup>El padre comprobó entonces que era la misma hora en que le había dicho Jesús: “Tu hijo vive”, y creyó él y toda su familia.

<sup>54</sup>Esta fue la segunda señal que realizó Jesús cuando volvió de Judea a Galilea.

## III

## BIGARREN JAIA JERUSALEN'EN

## Bezata'ko urtegian elbarri bat osatzen dau

**5** <sup>1</sup>Orren ondoren, judarren jai bat izan zan, eta Jesus Jerusalem'era igo zan. <sup>2</sup>Ardi-ate-ondoan, eberkeraz Bezata deritxon urtegi bat dago bost aterpeaz. <sup>3</sup>Aterpe oneitan, geiso, itsu, erren eta elbarri askoak egozan, uraren eragin-aldiaren zain. <sup>4</sup>Izan be, Jaunaren aingeruak, urtegiara noizean-bein jatsirik, urari eragin egiten eutsan, eta eragindako uretan lenen sartzen zana, edozein gatxez egon zeitena be, osatuta gelditzen zan. <sup>5</sup>Ogeta amazortzi urtean geisorik egoan gizon bat zan an. <sup>6</sup>Jesus'ek, gizon a etzunda ikusirik eta aspaldian antxe egoala jakinik, ba-dirautso: "Osatu nai dozu?" <sup>7</sup>Geisoak auxe erantzun eutsan: "Jauna, ez dot gizonik, ura eragiten asten danean urtegian sartu nagianik; eta ni noan bitartean, besteren bat jatsiten da ni baiño len". <sup>8</sup>"Jagi zaitetz —dirautso Jesus'ek—, artu zure ogetxo ori ta ibili zaitetz". <sup>9</sup>Eta bat-batean, geisoa osatuta gelditu zan, eta bere ogetxoa artu ta ibiltan asi zan.

Baiña, egun a zapatua zan. <sup>10</sup>Orregaitik, judarrak osatuari auxe zirautsoen: "Zapatua da, eta ez yatzu bidezko ogetxo ori eroatea". <sup>11</sup>Arek auxe erantzun eutsen: "Osatu nauanak esan daust: Artu zure ogetxo ori ta ibili zaitetz". <sup>12</sup>Areik auxe itandu eutsoen: "Nor da 'artu zure ogetxo ori ta ibili zaitetz' esan dautsun ori?" <sup>13</sup>Baiña, osatuak ez ekian nor zeitekean, toki aretan egoan laguntalde-artetik Jesus ezkutatu egin zan-eta.

<sup>14</sup>Geroago, Jesus'ek gizon a Jaunaren Etxean aurkitu ta ba-dirautso: "Entzun: osatuta zagoz; ez egin pekatu rik geiako, okerragoren bat jazo ez dakizun". <sup>15</sup>Gizona judarrakana joan zan, bera osatu izan ebana Jesus zala esatera. <sup>16</sup>Zapatuz orrelakoak egiten ebazalako

## III

## SEGUNDA FIESTA EN JERUSALEN

## Curación de un enfermo en la piscina de Bezatá

**5** <sup>1</sup>Después de esto, hubo una fiesta de los judíos, y Jesús subió a Jerusalén. <sup>2</sup>Hay en Jerusalén, junto a la puerta de las Ovejas, una piscina que se llama en hebreo Bezatá con cinco pórticos. <sup>3</sup>En ellos yacía una multitud de enfermos, ciegos, cojos, paralíticos, esperando la agitación del agua. <sup>4</sup>Porque el Angel del Señor bajaba de tiempo en tiempo a la piscina y agitaba el agua; y el primero que se metía después de la agitación del agua, quedaba curado de cualquier mal que tuviera. <sup>5</sup>Había allí un hombre que llevaba treinta y ocho años enfermo. <sup>6</sup>Jesús, viéndole tendido y sabiendo que llevaba ya mucho tiempo, le dice: "¿Quieres curarte?" <sup>7</sup>Le respondió el enfermo: "Señor, no tengo a nadie que me meta en la piscina cuando se agita el agua; mientras yo voy, otro baja antes que yo". <sup>8</sup>Jesús le dice: "Levántate, toma tu camilla y anda". <sup>9</sup>Y al instante el hombre quedó curado, tomó su camilla y se puso a andar.

Pero era sábado aquel día. <sup>10</sup>Por eso los judíos decían al que había sido curado: "Es sábado y no te está permitido llevar la camilla". <sup>11</sup>El les respondió: "El que me ha curado me ha dicho: Toma tu camilla y anda". <sup>12</sup>Ellos le preguntaron: "¿Quién es el que te ha dicho: Tómalala y anda?" <sup>13</sup>Pero el enfermo no sabía quién era, porque Jesús había desaparecido entre la gente que había en aquel lugar. <sup>14</sup>Más tarde Jesús le encuentra en el Templo y le dice: "Mira, estás curado; no peques más, para que no te suceda algo peor". <sup>15</sup>El hombre se fue a decir a los judíos que era Jesús el que le había curado. <sup>16</sup>Los judíos perseguían a Jesús, porque hacía estas co-



erabilten eben aurean judarrak Jesus\*. <sup>17</sup>Baiña, Jesus'ek auxe erantzun eutsen: "Nire Aitak lan egiten diardu beti, eta neuk be lan egiten diardut". <sup>18</sup>Judarrak Jesus'i bizia kentzeko amorratuta ebizan: zapatua austen ebalako bakarrik ez, baita Jaungoikoari bere Aita eritxolako be, bere burua Jaungoikoagaz bardinduz.

#### Semearen lanari buruzko itzaldia

<sup>19</sup>Beraz, Jesus'ek, itza arturik, auxe zirautsen\*: "Bene-benetan dirautsuet: Semeak, bere buruz, ezin ezer egin daike, bere Aita egiten ikusi ezik: Beronek egiten dauana, orixe berori egiten dau Semeak be. <sup>20</sup>Izan be, maite dau Aitak Semea, eta berak egiten dauan guztia erakusten dautso; oneik baiño egiteko aundiagoak be erakutsiko dautsaz, eta zuek ikaratu egingo zaree. <sup>21</sup>Ain zuzen be, Aitak ildakoak biztu ta arei bizitza emoten dautsenez, Semeak be berak nai dautsenai emoten dautse bizitza. <sup>22</sup>Izan be, Aitak ez dau iñor epaitzen: epaibide guztia, ostera, Semeari emon dautso, <sup>23</sup>Aita goratzen dabenez goratu dagien Semea be. Semea goratzen ez dauanak, bera biadu dauan Aita be ez dau goratzen. <sup>24</sup>Bene-benetan dirautsuet: nire itza aditu ta ni bialdu nauanagan sinisten dauanak, betiko bizitza dauko, eta alakoa ez da epaipean jarten: eriotzatik bizitzara aldatu da, ostera. <sup>25</sup>Bene-benetan dirautsuet: eldu da ildakoak Jaungoikoaren Semearen abotsa entzungo dabeneko ordua —eta oraingoxea da, izan be—, eta abots ori entzun dagienak, bizi izango dira. <sup>26</sup>Izan be, Aitak bizitza beragan daukanaz, Semeari be bizitza beragan izatea emon dautso; <sup>27</sup>baita Gizasemea dan ezkerro, epaitzeko esku-bidea be emon dautso. <sup>28</sup>Ez ikaratu onetzaz: eldu da

5, 16 Jazopen au, 7, 19-23'garren ataltxoan amaituko da.

5, 19 Jesus zapatuaren gainetik jarten ba'da, Aita lakoa dala-ko da, eta Aitak bizia emoteko eskubide osoa emon dautso Semeari (3, 35), eta, beraz, bizia onartu edo ezetsi dagienak epaitzekoa be bai (19-30; cf. 3, 12; 8, 12).

sas en sábado\*. <sup>17</sup>Pero Jesús les replicó: "Mi Padre trabaja siempre, y yo también trabajo". <sup>18</sup>Los judíos trataban con mayor empeño de matarle, porque no sólo quebrantaba el sábado, sino que llamaba a Dios su propio Padre, haciéndose a sí mismo igual a Dios.

#### Discurso sobre la obra del Hijo

<sup>19</sup>Jesús, pues, tomando la palabra, les decía\*: "En verdad, en verdad os digo: el Hijo no puede hacer nada por su cuenta, sino lo que ve hacer al Padre: lo que hace él, eso también lo hace igualmente el Hijo. <sup>20</sup>Porque el Padre quiere al Hijo y le muestra todo lo que él hace. Y le mostrará obras aún mayores que éstas, y vosotros os asombraréis. <sup>21</sup>Porque, como el Padre resucita a los muertos y les da la vida, así también el Hijo da la vida a los que quiere. <sup>22</sup>Porque el Padre no juzga a nadie; sino que el juzgar se lo ha entregado al Hijo, para que todos honren al Hijo como honran al Padre. <sup>23</sup>El que honra al Hijo no honra al Padre que le ha enviado. <sup>24</sup>En verdad, en verdad os digo: el que escucha mi Palabra y cree en el que me ha enviado, tiene vida eterna y no incurre en juicio, sino que ha pasado de la muerte a la vida. <sup>25</sup>En verdad, en verdad os digo: llega la hora (ya estamos en ella), en que los muertos oirán la voz del Hijo de Dios, y los que la oigan vivirán. <sup>26</sup>Porque, como el Padre tiene vida en sí mismo, así también le ha dado al Hijo el tener vida en sí mismo, <sup>27</sup>y le ha dado poder para juzgar, porque es Hijo del hombre. <sup>28</sup>No os extrañéis de esto: llega la hora en que todos los que estén en los sepulcros oirán su voz <sup>29</sup>y los que hayan he-

5, 16 en sábado. Este episodio concluirá en 7, 19-23.

5, 19 Les decía. Si Jesús se coloca por encima del sábado, es que es igual al Padre, y el Padre ha comunicado al Hijo su poder absoluto de dar la vida, 3, 35, y por tanto de juzgar a los que la reciban o la rechacen, vv. 19-30; cf. 3, 12+; 8, 12+.



illobietan lagozan guztiak Aren abotsa entzungo dabeneko ordua; <sup>29</sup>eta ona egin izan dagien guztiak, bizitzarako biztuko dira; eta gaiztakeria egin izan dagienak, ondapenerako biztuko dira.

<sup>30</sup>Ezin ezer egin daiket nire buruz: entzuten dodanez ebazten dot; eta nire epaia zuzena da, ez dot nire naia billatzen-eta, ni bialdu nauanaren naia baño. <sup>31</sup>Nire buruaren autorpena neuk emon ba'nengi, nire autorrak ez leuke indarrrik izango\*. <sup>32</sup>Beste bat da nitzaz autor egiten dauana, eta nik ba-dakit nitzaz emoten dauan autorra egiazkoa dana. <sup>33</sup>Zuek Yon'i mandataria bialdu zeutsezan, eta arek egiaren autorra emon eban. <sup>34</sup>Nik ez dot, gero, iñungo gizonen autorrik billatzen; au ba'dirautsuet, zeruratu (*salbatu*) zaitezen dirautsuet. <sup>35</sup>Yon, erreten dagoan eta argi egiten dauan argi-ontzia zan, eta zuek aren argiaz apur baten poza artu nai izan zenduen. <sup>36</sup>Baiña, Yon'en autorra baño obea daukat nik; izan be, Aitak burutzeko emon daustazan egitekoak, nik egiten dodazan lanok, eurok egiten dabe autor nitzaz, ni Aitak bialdu nauala. <sup>37</sup>Eta ni bialdu nauan Aita da nitzaz autor egiten dauana. Aren abotsik zuek ez dozue iñoiz be entzun, ezta aren arpegirik ikusi be, <sup>38</sup>eta bizi be ez da bizi Aren itza zuekan, Arek bialdu dauanari ez daustazue sinisten-eta.

<sup>39</sup>Azertu egizuez Liburu Santuak, betiko bizitza orrexetan dozuela uste dozuen ezkerok: eurok dira nitzaz autor egiten dabenak\*; <sup>40</sup>eta zuek ez dozue nigana etorri nai bizitza izateko. <sup>41</sup>Nik ez dot aintzarik artzen gizonakandik. <sup>42</sup>Ba-dakit nik Jaungoikoaren maitasunik ez daukazuena zuekan.

5, 31 Aitak Semea nor zan erakutsi dau, Beronen alde autor egiñik (31-32); Yon Bateatzaillearen bidez (33-35), Aregan egin dauzan egintzen bidez (36-38), Liburu Santuen eta Moises'en bidez (39-47; cf. 3, 11; 10, 25).

5, 39 Idazti Santuak, bizitza-iturri (cf. Deut. 4, 1; 8, 1 eta abar; Sal. 119 eta abar), Jerukristo dabe erditoki ta elburuztat (1, 45; 2, 22 eta abar; 20, 9; cf. Lk. 24, 27; Pedr. 1.<sup>a</sup>, 1, 10).

cho el bien resucitarán para la vida, y los que hayan hecho el mal, para la condenación.

<sup>30</sup>Yo no puedo hacer nada por mi cuenta: juzgo según lo que oigo; y mi juicio es justo, porque no busco mi voluntad, sino la voluntad del que me ha enviado. <sup>31</sup>Si yo diera testimonio de mí mismo, mi testimonio no sería válido\*. <sup>32</sup>Otro es el que da testimonio de mí, y yo sé que es válido el testimonio que da de mí. <sup>33</sup>Vosotros mandasteis enviados donde Juan, y él dió testimonio de la verdad. <sup>34</sup>No es que yo busque testimonio de un hombre, sino que digo esto para que os salvéis <sup>35</sup>El era la lámpara que arde y alumbra y vosotros quisisteis recrearos un instante con su luz. <sup>36</sup>Pero yo tengo un testimonio mejor que el de Juan; porque las obras que el Padre me ha encomendado llevar a cabo, las mismas obras que realizo, dan testimonio de mí, de que el Padre me ha enviado. <sup>37</sup>Y el Padre, que me ha enviado, es el que ha dado testimonio de mí. Vosotros no habéis oído nunca su voz, ni habéis visto nunca su rostro, <sup>38</sup>ni habita su Palabra en vosotros, porque no cdeéis al que él ha enviado.

<sup>39</sup>Investigad las Escrituras, ya que creéis tener en ellas vida eterna; ellas son las que\* dan testimonio de mí; <sup>40</sup>y vosotros no queréis venir a mí para tener vida. <sup>41</sup>No recibo de los hombres gloria. <sup>42</sup>Ya sé que no tenéis en vosotros el amor de Dios.

<sup>43</sup>Yo he venido en nombre de mi Padre, y no me recibís; si otro viene en su propio nombre, a ése le recibieris <sup>44</sup>;Cómo podéis creer vosotros, que aceptáis gloria

5, 31 No sería válido. El Padre ha mostrado quién era Jesús, dando testimonio de él, vv. 31-32, por Juan el Bautista, vv. 33-35, por las obras que en él ha hecho, vv. 36-38, por las Escrituras y Moisés. vv. 39-47; cf. 3, 11+; 10, 25+.

5, 39 ellas son las que. Las Escrituras, fuente de vida, cf. Dt. 4, 1; 8, 1, etc.; Sal. 119, etc., tienen como centro y fin a Jesucristo, 1, 45; 2, 22, etc.; 20, 9; cf. Lc. 24, 27; I P. 1, 10s.



<sup>43</sup>Neure Aitaren izenean etorri naz ni, eta ez nozue onartzen; beste norbait bere buruaren izenean ba'dator, ori bai, ori onartu egingo dozue. <sup>44</sup>Zelan sinistu daikezue zuek, alkarregandik gorapena artzen dozuenok, eta Jaungoikoagandik bakarrik datorren aintza billatzen ez dozuenok? <sup>45</sup>Ez uste izan, Aitaren aurrean neuk salatuko zaituedanik. Moises'egan jarri dozue zuen itxaropena eta Moises bera izango da zuen salatzaile. <sup>46</sup>Izan be, zuek Moises'i sinistu ba'zengioe, neuri be sinistuko zeuskide, neutzaz idatzi eban arek-eta. <sup>47</sup>Baiña, aren idatziai sinisterik emoten ez ba'dautsazue, zelan emongo dautsazue, ba, nire berbai?"

## IV

## BIZITZ-OGIAREN PAZKOA

## Ogi-ugaritzea

(Mt. 14, 13-21; Mk. 6, 32-44; Lk. 9, 10-17)

**6** <sup>1</sup>Orren ondoren, Jesus Galilea'ko edo Tiberiades'ko itxasoaz bestekaldera joan zan; <sup>2</sup>eta laguntalde aundiak jarraitzen eutsan, geisoakan egiten ebazan mirariak ikusten ebezan-eta. <sup>3</sup>Jesus mendira igo ta antxe jesarri zan bere ikasleakaz batera. <sup>4</sup>Laster zan Pazkoa, judarren jai-eguna.

<sup>5</sup>Jesus'ek begiak jasotean eta laguntalde aundia beragana etorrela ikustean, Felipe'ri dirautso: "Zelan erosiko dogu ogia, oneik jan dagien?" <sup>6</sup>Ori, zirikatzeke zirauntsan, egin bear ebana ba-ekian berak-eta. <sup>7</sup>Felipe'k auxe erantzun eutsan: "Berreun denarioren ogia ez da naikoa bakotxak apur bat artu dagian". <sup>8</sup>Bere ikasletariko batek, Ander'ek, Simon Pedro'ren anaiak, ba-dirautso: <sup>9</sup>"Bost garagar-ogi ta arrain bi daukazan mutil bat ba-dago emen; baiña, oneik zer dira onenbestentzat?" <sup>10</sup>"Jesarri daitela agindu egiozu laguntaldeari",

unos de otros, y no busáis la gloria que viene de sólo Dios? <sup>45</sup>No penséis que os voy a acusar yo delante del Padre. Vuestro acusador es Moisés, en quien habéis puesto vuestra esperanza. <sup>46</sup>Porque, si creyeráis a Moisés, me creeríais a mí, porque él escribió de mí. <sup>47</sup>Pero si no creéis en sus escritos, ¿cómo vais a creer en mis palabras?"

## IV

## LA PASCUA DEL PAN DE VIDA

## La multiplicación de los panes

(Mt. 14, 13-21; Mc. 6, 32-44; Lc. 9, 10-17)

**6** <sup>1</sup>Después de esto, se fue Jesús a la otra ribera del mar de Galilea, el de Tiberiades, <sup>2</sup>y mucha gente le seguía porque veían las señales que realizaba en los enfermos. <sup>3</sup>Subió Jesús al monte y se sentó allí en compañía de sus discípulos. <sup>4</sup>Estaba próxima la Pascua, fiesta de los judíos.

<sup>5</sup>Al levantar Jesús los ojos y ver que venía hacia él mucha gente, dice a Felipe: "¿Cómo vamos a comprar pan para que coman éstos?" <sup>6</sup>Se lo decía para probarle, porque él sabía lo que iba a hacer. <sup>7</sup>Felipe le contestó: "Doscientos denarios de pan no bastan para que cada uno tome un poco". <sup>8</sup>Le dice uno de sus discípulos, Andrés, el hermano de Simón Pedro: <sup>9</sup>"Aquí hay un muchacho que tiene cinco panes de cebada y dos peces; pero ¿qué es esto para tantos?" <sup>10</sup>Dijo Jesús: "Haced sentar a la gente". Había en el lugar mucha hierba. Se

esan eban Jesus'ek. Toki aretan bedarra ugari zan. Jesarri ziran, ba, bost millaren bat gizon. <sup>11</sup>Orduan, Jesus'ek ogiak artu ta, eskerrak emonda gero, jesarrita egozanan artean banandu ebazan, eta bardin-bardin arraiñak be, bakoxtak nai eban beste. <sup>12</sup>Bete ziranean, bere ikasleai auxe dirautse: "Batu egizuez gelditu diran zatiak, ezer galdu ez daiten". <sup>13</sup>Batu ebezan, ba; eta jan izan ebenai gelditu yakezan bost garagar-ogiren zatiakaz, amabi otzara bete ebezan. <sup>14</sup>Jesus'ek egin izan eban miraria laguntaldeak ikustean, ba-iñoan: "Auxe da, benetan, mundura etorteko dan igarlea". <sup>15</sup>Jesus'ek, bera errege egiteko, berari indarrez oratzera etorri nai ebela konaturaturik, barriro be mendira egin eban iges bakar-bakarik.

#### Jesus, ur-gaiñeam ibiltan

(Mt. 14, 22-33; Mk. 6, 45-52)

<sup>16</sup>Illunabarrean, Jesus'en ikasleak itxasertzera jatsi ziran; <sup>17</sup>eta txalupara igorik, itxasoaz bestekaldera yoiazan, Kafarnaun'era. Orduko illunduta egoan, eta Jesus arekana etorri bagarik egoan. <sup>18</sup>Aizeak indar aundia artu eban eta itxasoarrotzen asi zan. <sup>19</sup>Ogetabost edo ogetamarren bat estadio arraunketan egin ebenean, Jesus ikusten dabe itxas-gaiñean ibiltan eta txalupara urrerrazten, eta bildurtu egin ziran. <sup>20</sup>Baiña, Jesus'ek auxe esan eutsen: "Neu naz; ez bildurtu". <sup>21</sup>Txalupan sartu nai izan eben Jesus, eta berealaxe eldu zan txalup(e)a eurak yoiazan tokira.

#### Kafarnaun'go sinagogan itzaldia\*

<sup>22</sup>Biamonean, itxasoaz bestekaldean gelditu zan

6, 22 Itzaldia Kafarnaun'go sinagogan. Ezaugarri onek (2, 11), an egozan guztiak arrituta itzi dauz (6, 14); Jesus'ek, Berari ezarri dautsen zentzuna zuzendu ta gora jasoten dau: Jesus, sinismenaren bidez benetako ogi egosgarria (32-50), Jesus, bere gorputz eta odolaren bidez benetako janaria (51-58).

sentaron, pues, los hombres en número de unos cinco mil. <sup>11</sup>Tomó entonces Jesús los panes y, después de dar gracias, los repartió entre los que estaban recostados y lo mismo todo lo que quisieron de los peces. <sup>12</sup>Cuando se saciaron, dice a sus discípulos: "Recoged los trozos sobrantes para que nada se pierda". <sup>13</sup>Los recogieron, pues, y con los trozos de los cinco panes de cebada que sobraron a los que habían comido, llenaron doce canastos. <sup>14</sup>Al ver la gente la señal que había realizado, decía: "Este es sin duda el profeta que iba a venir al mundo". <sup>15</sup>Dándose cuenta Jesús de que intentaban venir a tomarle por la fuerza para hacerle rey, huyó de nuevo al monte él solo.

#### Jesús camina sobre el mar

(Mt. 14, 22-23; Mc. 6, 45-52)

<sup>16</sup>Al atardecer, bajaron sus discípulos a la orilla del mar, <sup>17</sup>y subiendo a una barca, se dirigían al otro lado del mar, a Cafarnaúm. Había ya oscurecido, y Jesús todavía no había venido donde ellos; <sup>18</sup>soplaba un fuerte viento y el mar comenzó a encrespase. <sup>19</sup>Cuando habían remado unos veinticinco o treinta estadios, ven a Jesús que caminaba sobre el mar y se acercaba a la barca, y tuvieron miedo. <sup>20</sup>Pero él les dijo: "Soy yo. No temáis". <sup>21</sup>Quisieron recogerle en la barca, y en seguida la barca tocó tierra en el lugar a donde se dirigían.

#### Discurso en la sinagoga de Cafarnaúm\*

<sup>22</sup>Al día siguiente, la gente que se había quedado al

6, 22 Discurso en la sinagoga de Cafarnaúm. Esta señal, 2, 11+, ha dejado admirados a todos los asistentes, 6, 14; Jesús rectifica y eleva el sentido que le han atribuido: Jesús verdadero pan asimilable por la fe, vv. 32-50, Jesús verdadero alimento po su cuerpo y su sangre, vv. 51-58.



laguntaldeak, an txalupa bat baiño ez zala egon ikusi eban, eta Jesus ez zala bere ikasleak txalupan sartu, ikasleak soillik joan zirala baiño. <sup>23</sup>Txalupa batzuk, barriz, Tiberiades'tik eldu ziran, ogia jan izan eben toki-ondotik. <sup>24</sup>Jesus an ez egoala, ezta aren ikasleak be ez egozala ikusi ebanean laguntaldeak, txalupetara igo ta Kafarnaun'era joan ziran, Jesus'en billa. <sup>25</sup>Itxasoaren bestekaldean aurkitu ebanean, auxe esan eutsoen: "Rabí (*Irakasle*), noiz etorri zara, ba, ona?" <sup>26</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsen: "Bene-benetan dirautsuet: ogiak jan eta bete zintzazalako zabize nire billa; ez, oster, mirariak ikusi dozuezalako. <sup>27</sup>Lan egizue, alperrik galtzen dan janariagaitik ez, betiko bizitzaraiño irauten dauan janariagaitik baiño: auxe emoten dautsue Gizasemeak, auxe da Aita Jaungoikoak bere ezaugarriaz izentatu dauana-ta".

<sup>28</sup>Areik auxe esan eutsoen: "Zer egin bear dogu, ba, Jaungoikoaren lanak egiteko?" <sup>29</sup>"Auxe da Jaungoikoaren egitekoa —erantzun eutsen Jesus'ek—: Berak bialdu dauanagin sinistu dagizuela". <sup>30</sup>Orduan, areik auxe esan eutsoen: "Ze ezaugarri egingo dozu, ba, ikusi ta zeugan sinistu dagigun? Ze lan egin bear dozu, ba?" <sup>31</sup>Gure gurasoak basamortuan mana jan eben, idatzita dagoanez: *Zerutiko ogia emon eutsen jaten*". <sup>32</sup>"Bene-benetan dirautsuet —erantzun eutsen Jesus'ek—: zerutiko ogia ez eutsuen Moises'ek emon; neure Aita da zerutiko benetako ogia emoten dautsuena: <sup>33</sup>izan be, zerutik jatsiten dana ta munduari bizia emoten dautsana da Jaungoikoaren ogia".

<sup>34</sup>Orduan, auxe esan eutsoen: "Jauna, emon egiguzu beti ogi ori". <sup>35</sup>Jesus'ek dirautse: "Neu naz bizitza-ogia\*.

6, 35 *Neu naz*. Esaera onek, Ex. 3, 14'garren ataltxoá ekarten dau gogora (cf. Yn. 8, 24). Baiña emen eta beste idatz-txatal batzuetan kifu bat edo berba bat azaltzeko da. Emen, mana (Ex. 16, 1; Sal. 78, 24) eta aurreguneko ogi ugartua, egiazko ogi orren irudi bakarrik ziran

otro lado del mar, vio que allí no había habido más que una barca y que Jesús no había embarcado en ella con sus discípulos, sino que los discípulos se habían marchado solos. <sup>23</sup>Pero llegaron barcas de Tiberiades cerca del lugar donde habían comido el pan. <sup>24</sup>Cuando la gente vio que Jesús no estaba allí, ni tampoco sus discípulos, subieron a las barcas y fueron a Cafarnaúm, en busca de Jesús. <sup>25</sup>Al encontrarle a la otra orilla del mar, le dijeron: "Rabí, ¿cuándo has llegado aquí?". <sup>26</sup>Jesús les respondió: "En verdad, en verdad os digo: vosotros me buscáis, no porque habéis visto señales, sino porque habéis comido de los panes y os habéis saciado. <sup>27</sup>Obrad, no por el alimento perecedero, sino por el alimento que permanece para vida eterna, el que os da el Hijo del hombre, porque a éste es a quien el Padre Dios ha marcado con su sello".

<sup>28</sup>Ellos le dijeron: "¿Qué hemos de hacer para obrar las obras de Dios?". <sup>29</sup>Jesús les respondió: "La obra de Dios es que creáis en quien él ha enviado". <sup>30</sup>Ellos entonces le dijeron: "¿Qué señal vas a realizar para que viéndola te creamos? ¿Qué obra vas a hacer?" <sup>31</sup>Nuestros padres comieron el maná en el desierto, según está escrito: *Pan del cielo les dio a comer*". <sup>32</sup>Jesús les respondió: "En verdad, en verdad os digo: Moisés no os dio el pan del cielo; es mi Padre el que os da el verdadero pan del cielo; <sup>33</sup>porque el pan de Dios es el que baja del cielo y da la vida al mundo".

<sup>34</sup>Entonces le dijeron: "Señor, danos siempre de ese pan". <sup>35</sup>Les dijo Jesús: "Yo soy\* el pan de la vida. El que venga a mí, no tendrá hambre, y el que crea en mí, no tendrá nunca sed. <sup>36</sup>Pero ya os lo he dicho: Me

6, 35 *Yo soy*. La expresión evoca Ex. 3, 14+; cf. Jn. 8, 24+. Pero aquí y en otras partes da paso a la explicación de un gesto o de una palabra. Aquí el pan verdadero es aquél del que el maná, Ex. 16, 1+; Sal. 78, 24, y el pan multiplicado la víspera, eran sólo la figura.



Nigana etorri daitenak, ez dau goserik izango; eta nigan sinistu dagianak, ez dau ñoiz be egarririk izango. <sup>36</sup>Baiña, esan dautsuet: ikusi, bai, egin nozue, eta ez dozue sisten. <sup>37</sup>Aitak emoten daustan edonor, neugana etorriko da: eta nigana etorri daitena, ez dot nik kanpora jaurtiko: <sup>38</sup>ez naz zerutik neure gogoa egiteko jatsi-ta, bialdu nauanarena egiteko baiño. <sup>39</sup>Eta auxe da bialdu nauanaren gogoa: Berak emon daustazanetarik bat bera be ez dagidala galdu, azken-egunean biztu dagidazala baiño. <sup>40</sup>Nire Aitaren gogoa auxe da-ta: Semea ikusi ta Beronegan sinistu dagianak, betiko bizitza izan dagiala eta neuk biztu dagidala alakoa azken-egunean”.

<sup>41</sup>Judarrak, barriz, Aretzaz mormoxetan ziarduen, “neu naz zerutik jatsitako ogia” esan ebalako. <sup>42</sup>Eta auxe ñoen: “Ez da, ba, au Jesus, Jose<sup>ren</sup> semea, eta ez doguz, ba, onen aita ta ama geuk ezagutzen? Zelan esan daike, ba, orain: Zerutik jatsi naz?” <sup>43</sup>“Ez egin mormoxetan alkarregaz —erantzun eutsen Jesus<sup>ek</sup>—. <sup>44</sup>Ezin etorri daiteke ñor nigana, bialdu nauan Aitak erakarten ez ba<sup>’</sup>dau; eta neuk biztuko dot alakoa azken-egunean. <sup>45</sup>Idatzita dago Igarleetan: *Jaungoikoak irakatsiak izango dira guzti-guztiak*. Aitari entzuten eta aren irakaspena irakasten dauan edonor, neugana dator. <sup>46</sup>Aita ez dau ñok ikusi izan, ez; Jaungoikoagandik etorri danak bakarrik ikusi dau Aita. <sup>47</sup>Bene-benetan dirautsuet: sinisten dauanak, betiko bizitza dauko. <sup>48</sup>Neu naz bizitzagogia. <sup>49</sup>Zuen gurasoak basamortuan mana jan eben eta il egin ziran: <sup>50</sup>auxe da zerutik jatsiten dan ogia, jan dagien eta il ez daitezan. <sup>51</sup>Neu naz ogi bizia, zerutik jatsia. Ogi onetatik jaten dauana, betiko bizi izango da; eta nik emongo dautsadan ogia, munduaren bizirako neure aragia da”\*.

6, 51 “Aragi” itzak, gizona Itz aragi-egiñaz janaritzen dala adierazoten dau (1, 14). Itza ogi da, bai, Jaungoikoaren Itza danez (32 eta abar), baita oparizat eskiñitako bere gorputz-odolaren aldetik be (cf. Kor. 1.ª, 11, 24).

habéis visto y no creéis. <sup>37</sup>Todo lo que me dé el Padre vendrá a mí, y al que venga a mí no le echaré fuera; <sup>38</sup>porque he bajado del cielo, no para hacer mi voluntad, sino la voluntad del que me ha enviado. <sup>39</sup>Y esta es la voluntad del que me ha enviado: que no pierda a ninguno de los que él me ha dado, sino que los resucite el último día. <sup>40</sup>Porque ésta es la voluntad de mi Padre: que todo el que vea al Hijo y crea en él, tenga vida eterna y que yo le resucite el último día”.

<sup>41</sup>Pero los judíos murmuraban de él, porque había dicho: “Yo soy el pan que ha bajado del cielo”. <sup>42</sup>Y decían: “¿No es éste Jesús, hijo de José cuyo padre y madre conocemos? ¿Cómo puede decir ahora: He bajado del cielo?”. <sup>43</sup>Jesús les respondió: “No murmuréis entre vosotros. <sup>44</sup>Nadie puede venir a mí, si el Padre que me ha enviado no le atrae; y yo le resucitaré el último día. <sup>45</sup>Está escrito en los profetas: *Serán todos enseñados por Dios*. Todo el que escucha al Padre y aprende su enseñanza, viene a mí. <sup>46</sup>No es que alguien haya visto al Padre; sino aquél que ha venido de Dios, ése ha visto al Padre. <sup>47</sup>En verdad, en verdad os digo: el que cree, tiene vida eterna. <sup>48</sup>Yo soy el pan de la vida. <sup>49</sup>Vuestros padres comieron el maná en el desierto y murieron; <sup>50</sup>este es el pan que baja del cielo, para que lo coman y no mueran. <sup>51</sup>Yo soy el pan vivo, bajado del cielo. Si uno come de este pan, vivirá para siempre; y el pan que yo le voy a dar, es mi carne por la vida del mundo”\*.

<sup>52</sup>Discutían entre sí los judíos y decían: “¿Cómo puede éste darnos a comer su carne?”. <sup>53</sup>Jesús les dijo: “En verdad, en verdad os digo: si no coméis la carne

6, 51 *vida del mundo*. “Carne” sugiere que el hombre se alimenta del Verbo (la Palabra) hecho carne, 1, 14. Este es pan como Palabra de Dios, vv. 32s, pero también por su cuerpo y su sangre ofrecidos en sacrificio, cf. 1 Co. 11, 24.



<sup>52</sup>Judarrak alkarregaz eztabaidan ziarduen, eta auxe iñoen: “Zelan emon daikegu onek guri bere aragia jateko?” <sup>53</sup>“Bene-benetan dirautsuet —esan eutsen Jesus’ek—: Gizasemearen aragia jaten eta beronen odola edaten ez ba’dozue, ez dozue bizitzarik zuekan. <sup>54</sup>Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauanak, betiko bizitza dau, eta neuk biztuko dot alakoa azken-egunean. <sup>55</sup>Izan be, nire aragia benetako janari da, eta nire odola benetako edari. <sup>56</sup>Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan dago, eta ni beragan. <sup>57</sup>Bizi dan Aitak bialdu nenduan ez eta ni Aitagaitik bizi nazanez, ni jan nagiana be neugandik bizi izango da. <sup>58</sup>Auxe da zerutik jatsitako ogia; ez, gero, gure gurasoak jan eben lakoa; areik il egin ziran. Ogi au jan dagiana, betiko bizi izango da”.

<sup>59</sup>Ori, Kafarnaun’en esan eban, sinagogan irakasten ziarduala. <sup>60</sup>Bere ikasletariko askok, ori entzutean, auxe esan eben: “Gogorra da berbaera au. Nok entzun daike olakorik?” <sup>61</sup>Jesus’ek, bere ikasleak onetzaz mormoxetan ziarduena bere barruan jakiñik, auxe esan eutsen: “Gaizpidea emoten dautsue onek?” <sup>62</sup>Eta Gizasemea len egoan tokira igoten ikusi dagizuenean?... <sup>63</sup>Espiritua da bizitza emoten dauana; aragia ez da ezetako be. Nik esan dautsuedazan berbok, espiritu ta bizitza dira.

<sup>64</sup>Baiña, ba-dira zuen artean sinisten ez daben batzuk”. Jakin be, ba-ekian Jesus’ek asierarik, sinisten ez ebenak nortzuk ziran, eta bera salduko ebana nor zan. <sup>65</sup>Eta auxe etorri daitekela iñor nigana, grazi ori (*neure*) Aitak emoten ez ba’dautso”. <sup>66</sup>Arrezkero, bere ikasletariko askok atzeruntz egin eben, eta gero ez ebizan Jesus’egaz.

° Beste era batera: “Okerbidera eroaten zaitue onek?”.

del Hijo del hombre, y no bebéis su sangre, no tenéis vida en vosotros. <sup>54</sup>El que come mi carne y bebe mi sangre, tiene vida eterna, y yo le resucitaré el último día. <sup>55</sup>Porque mi carne es verdadera comida y mi sangre verdadera bebida. <sup>56</sup>El que come mi carne y bebe mi sangre, permanece en mí, y yo en él. <sup>57</sup>Lo mismo que me ha enviado el Padre, que vive, y yo vivo por el Padre, también el que me coma vivirá por mí. <sup>58</sup>Este es el pan bajado del cielo; no como el que comieron vuestros padres, y murieron; el que coma este pan vivirá para siempre”.

<sup>59</sup>Esto lo dijo enseñando en la sinagoga en Cafarnaúm. <sup>60</sup>Muchos de sus discípulos, al oírle, dijeron: “Es duro este lenguaje. ¿Quién puede escucharlo?”. <sup>61</sup>Sabiendo Jesús en su interior que sus discípulos murmuraban por esto, les dijo: “¿Esto os escandaliza?. <sup>62</sup>Y cuando veáis al Hijo del hombre subir adonde estaba antes?... <sup>63</sup>“El espíritu es el que da vida; la carne no sirve para nada. Las palabras que os he dicho son espíritu y son vida.

**19** <sup>1</sup>Orduan, Pilato'k Jesus artu ta zigorkadaz astintzeko agindu eban. <sup>2</sup>Gudariak arantzazko koroibat egin, Ari buruan ezarri ta purpurazko soingaiñeko bat jantzi eutsoen; <sup>3</sup>eta Aregana urreraturik, "Agur, judarren errege ori!" zirautsoen. Eta matraillakoak emoten eutsoezan.

<sup>4</sup>Pilato'k, barrero kanpora urten eta auxe esan eutsen: "Begira, kanpora dakartzuet, errurik bape aurkitzen ez dodana jakin dagizuen". <sup>5</sup>Orduan, Jesus arantzazko koroia ta purpurazko soingaiñekoa eroanez urten zan kanpora. Pilato'k dirautse: "Emen dozue gizona!" <sup>6</sup>Abadeburuak eta zaintzailleak Jesus ikusi ebenean, deadarka esan eben: "Gurutzera ori, gurutzera ori!" Pilato'k dirautse: "Artu zeuek eta gurutzeratu, nik ez dot orregan errurik bat bera be aurkitzen-eta". <sup>7</sup>Judarrak auxe esan eutsoen: "Guk ba-dogu Legea, eta Legez, eriotza bear dau, bere burua Jaungoikoaren Seme egin dau-ta".

<sup>8</sup>Pilato'k berbok entzun ebazenean, geiago bildur-tu zan. <sup>9</sup>Barrero auzitegian sartu ta Jesus'i auxe esan eutsan: "Nungoa zara zu?" Baiña, Jesus'ek ez eutsan erantzunik emon. <sup>10</sup>Pilato'k dirautso: "Ez dozu berbarik niretzat? Ez dakizu zu askatzeko eskubidea ta gurutzean josteko eskubidea dodana, ala?" <sup>11</sup>Jesus'ek auxe erantzun eban: "Ez zeuke eskubiderik nire aurka, gōititik emon ez ba'litzakizu; orregaitik, zure eskuetan jarri nauanak, pekatu aundiagoa dau".

#### Eriotz-epaia

<sup>12</sup>Arrezkero, Pilato'k Jesus askatu naiez ziarduan.

yo en él. <sup>39</sup>Pero es costumbre entre vosotros que os ponga en libertad a uno por la Pascua. ¿Queréis, pues, que os ponga en libertad al Rey de los judíos?". <sup>40</sup>Ellos volvieron a gritar diciendo: "¡A ése, no; a Barrabás!". Barrabás era un salteador.

(Mt. 27, 27-31; Mc. 15, 16-20)

**19** <sup>1</sup>Pilato entonces tomó a Jesús y mandó azotarle. <sup>2</sup>Los soldados trenzaron una corona de espinas, se la pusieron en la cabeza y la vistieron de un manto de púrpura; <sup>3</sup>y, acercándose a él, le decían: "Salve, Rey de los judíos". Y le daban bofetadas.

<sup>4</sup>Volvió a salir Pilato y les dijo: "Mirad, os lo traigo fuera para que sepáis que no encuentro ningún delito". <sup>5</sup>Salió entonces Jesús fuera llevando la corona de espinas y el manto de púrpura. Dícele Pilato: "Aquí tenéis al hombre". <sup>6</sup>Cuando le vieron los sumos sacerdotes y los guardias, gritaron: "¡Crucifícale, crucifícale!". Les dice Pilato: "Tomadle vosotros y crucifícadle, porque yo ningún delito encuentro en él". <sup>7</sup>Los judíos le replicaron: "Nosotros tenemos una Ley y según esa Ley debe morir, porque se tiene por Hijo de Dios".

<sup>8</sup>Cuando oyó Pilato estas palabras, se atemorizó aún más. <sup>9</sup>Volvió a entrar en el pretorio y dijo a Jesús: "¿De dónde eres tú?". Pero Jesús no le respondió. <sup>10</sup>Dícele Pilato: "¿A mí no me hablas? ¿No sabes que tengo poder para soltarte y poder para crucificar-te?". <sup>11</sup>Respondió Jesús: "No tendrían contra mí ningún poder, si no se te hubiera dado de arriba; por eso, el que me ha entregado a ti tiene mayor pecado".

#### Condenado a muerte

<sup>12</sup>Desde entonces Pilato trataba de librarle. Pero



Baiña, judarrak deadarka esan eben: "Ori askatzen ba'dozu, ez zara Zesar'en adiskide; bere burua errege egiten dauan edonor, Zesar'en aurka jarten da". <sup>13</sup>Pilato'k berbok entzutean, Jesus kanpora atara eban, eta auzi-maian jesarri zan, Losadura<sup>o</sup> deritxon tokian —eberkeraz, Gabbatá<sup>o</sup>—. <sup>14</sup>Pazkoa atontzeko eguna zan\*, seigarren ordu aldean. Pilato'k judarrai auxe dirautse: "Emen daukazue zuen erregea". <sup>15</sup>Areik auxe iñoen: "Kendu, kendu ori! Gurutzera ori!" Pilato'k dirautse: "Zeuen erregea josiko dot, ba, gurutzean?" "Zesar baiño beste erregerik ez dogu", erantzun eben abadeburuak.

(Mt. 27, 26; Mk. 15, 15; Lk. 23, 24-25)

<sup>16</sup>Orduan, Jesus arein eskuetan itxi eban, gurutzean josia izan zedin.

### Jesus, gurutzean

(Mt. 27, 31, 33, 37-38; Mk. 15, 20, 22, 25-27; Lk. 23, 33-38)

Beraz, Jesus artu egin eben; <sup>17</sup>eta bere gurutzea gainean eroiala, Buruazurtegi edo eberkeraz Golgota deritxon tokirantz urten zan; <sup>18</sup>eta antxe josi eben gurutzean, eta beste bi be bai, albo bietan, eta Jesus erdian <sup>19</sup>Pilato'k idazkun bat be egin eban, eta gurutze-buruan ipiñi eban. Idazkunak auxe iñoan: "Jesus Nazaretarra, judarren erregea"\*<sup>o</sup>. <sup>20</sup>Judar askok irakurri eben idazkun au, Jesus gurutzeratua izan zan tokia uri-ondoan egoan-eta; eberkeraz, latiñez eta gerkeraz egoan idatzita. <sup>21</sup>Judarren abadeburuak Pilato'ri auxe esan eu-

<sup>19, 14</sup> Yon'ek Nekaldiaren Pazko-izakera indartzen dau (13, 1, cf. Mt. 26, 17)

<sup>19, 19</sup> Pilato'ren itaunak (18, 33), Jesus'en erantzunen ondoren, irrimirrizko erantzuna ta profeta-erantzuna artzen dau emen (cf. 7, 16; Mt. 2, 23; 27, 37).

<sup>o</sup> Losadura: Litóstrotos.— <sup>o</sup> Gabbatá: goia, goikaldea.

los judíos gritaron: "Si sueltas a ése, no eres amigo del César; todo el que se hace rey se enfrenta al César". <sup>13</sup>Al oír Pilato estas palabras, hizo salir a Jesús y se sentó en el tribunal, en el lugar llamado Enlozado, en hebreo Gabbatá. <sup>14</sup>Era el día de la Preparación de la Pascua\*, hacia la hora sexta. Dice Pilato a los judíos: "Aquí tenéis a vuestro Rey". <sup>15</sup>Ellos decían: "¡Fuera, fuera! ¡Crucifícale!". Les dice Pilato: "¿A vuestro Rey voy a crucificar?". Replicaron los sumos sacerdotes: "No tenemos más rey que el César".

(Mt. 27, 26; Mc. 15, 15; Lc. 23, 24-25)

<sup>16</sup>Entonces se lo entregó para que fuera crucificado.

### La Crucifixión

(Mt. 27, 31, 33, 37-38; Mc. 15, 20, 22, 25-27; Lc. 23, 33, 38)

Tomaron, pues, a Jesús, <sup>17</sup>y él, cargando con su cruz, salió hacia el lugar llamado Calvario, que en hebreo se llama Gólgota, <sup>18</sup>y allí le crucificaron y con él a otros dos, uno a cada lado, y Jesús en medio. <sup>19</sup>Pilato redactó también una inscripción y la puso sobre la cruz. Decía así: "Jesús Nazareno, el Rey de los judíos"\*<sup>o</sup>. <sup>20</sup>Leyeron esta inscripción muchos judíos, porque el lugar donde había sido crucificado Jesús estaba cerca de la ciudad; estaba escrita en hebreo, latín y griego. <sup>21</sup>Los sumos sacerdotes de los

<sup>19, 14</sup> de la Pascua. Jn. subraya el carácter pascual de la Pasión, 13, 1; cf. Mt. 26, 17+.

<sup>19, 19</sup> Rey de los judíos. La pregunta de Pilato, 18, 33, recibe aquí, tras las declaraciones de Jesús, una respuesta irónica y profética: cf. 7, 16s+; Mt. 2, 23; 27, 37.

tsoen: "Ez dozu idatzi bear 'Judarren erregea', beste au baño: 'Onek auxe esan dau: Judarren errege naz ni.'" <sup>22</sup>"Idatzi dodana, idatzita dago", erantzun eban Pilato'k.

### Jesus'en jantziak banatzen

(Mt. 27, 35; Mk. 15, 24; Lk. 23, 34)

<sup>23</sup>Gudariak, Jesus gurutzean josita gero, Aren jantziak artu ta lau zatitan banatu ebezan, gudari bako-txentzat bana. Soingaiñekoa be artu eben; soingaiñeko au josturabagea zan, goitik beeraiño dana eunduta. <sup>24</sup>Orregaitik, alkarri auxe esan eutsoen: "Ez dagigun urratu; zotz egin dagigun ia norentzat dan". Liburu Santuko au bete zedin: *Nire jantziak euren artean banandu dabez, eta nire soingaiñekoa zotz egin dabe\**. Eta gudariak orixe egin eben.

### Jesus eta beronen ama\*

(Mt. 27, 55-56; Mk. 15, 40-41; Lk. 23, 49)

<sup>25</sup>Jesus'en gurutze-ondoan Beronen ama, eta Aren amaren aizta Maria Klopas'ena, eta Mari Madalen egozan. <sup>26</sup>Jesus'ek, bere ama ta beronen ondoan berak maite eban ikaslea ikusirik, bere amari dirautso: "Andra, or dozu zure semea". <sup>27</sup>Gero, ikasleari dirautso: "Or dozu zure ama". Eta arrezkero ikasleak bere etxean artu eban Maria.

### Jesus'en eriotza

(Mt. 27, 48-50; Mk. 15, 36-37; Lk. 23, 46)

<sup>28</sup>Orren ondoren, Jesus'ek guztia bete zala jakiñik,

19, 24 Mateo'k (27, 35) azaltzen dauan idatz-txatal au, Yon'ek Sal-metegiko 22, 19'garren ataltxoaz alkartzen dau.

19, 25 **Jesus eta Beronen Ama.** Jazopen au Yon'ek bakarrik dakar. Maria'k, Eba barriak (2, 4) Elizari ta kristauai buruz dauan aparteko eginkizuna ikusten dau Yon'ek, antza; arein izenean Yon apostolua dago.

judíos dijeron a Pilato: "No debes escribir: 'El Rey de los judíos', sino: 'Este ha dicho: Yo soy Rey de los judíos'". <sup>22</sup>Pilato respondió: "Lo que he escrito, escrito está".

### Reparto de los vestidos

(Mt. 27, 35; Mc. 15, 24; Lc. 23, 24)

<sup>23</sup>Los soldados, después que crucificaron a Jesús, tomaron sus vestidos —con los que hicieron cuatro lotes, uno para cada soldado—, y la túnica. La túnica era sin costura, de una pieza, tejida de arriba abajo. <sup>24</sup>Por eso se dijeron: "No la rompamos; echemos a suertes a ver a quién le toca". Para que se cumpliera la Escritura: *Se han repartido mis vestidos, han echado a suertes mi túnica\**. Y esto es lo que hicieron los soldados.

### Jesús y su madre\*

(Mt. 27, 55-56; Mc. 15, 40-41; Lc. 23, 49)

<sup>25</sup>Junto a la cruz de Jesús estaban su madre, la hermana de su madre, María, mujer de Clopás, y María Magdalena. <sup>26</sup>Jesús, viendo a su madre y junto a ella al discípulo a quien amaba, dice a su madre: "Mujer, ahí tienes a tu hijo". <sup>27</sup>Luego dice al discípulo: "Ahí tienes a tu madre". Y desde aquella hora el discípulo la acogió en su casa.

### Muerte de Jesús

(Mt. 27, 48-50; Mc. 15, 36-37; Lc. 23, 46)

<sup>28</sup>Después de esto, sabiendo Jesús que ya todo

19, 24 **mi túnica.** Jn. relaciona la escena narrada en Mt. 27, 35 con Sal. 22, 19.

19, 25 **Jesús y su madre.** Episodio propio de Jn, que parece ver en él el papel excepcional de María, nueva Eva, 2, 4, respecto a la Iglesia y a los cristianos representados por el apóstol.



Liburu Santukoa bete zedin, auxe esan eban: "Egarri naz"\*.<sup>29</sup>Ba-zan an ontzi bat ozpiñez<sup>o</sup> beterik. Belaki<sup>o</sup> bat ozpiñetan bustita isopo-adar baten lotu ta agora urreratu eutsoen.<sup>30</sup>Jesus'ek ozpiña artu ebanean, auxe esan eban: "Guztia bete da"\*.<sup>31</sup>Burua makurtu ta azken-arnasa emon eban\*.

### Saietsa urratzen dautsoe

<sup>31</sup>Gertatze-eguna zanez, zapatuz gorpuak gurutzean gelditu ez zeitezan —zapatu a egun aundia zan-eta—, arein belaunak ausi ta gorpuak kendu egizala eskatu eutsoen Pilato'ri judarrak.<sup>32</sup>Joan ziran, ba, gudariak, eta lenengoari belaunak ausi egin eutsoezan, baita onegaz batera gurutzean jositako besteari be.<sup>33</sup>Jesus'egana el-tzean, barriz, ilda aurkitu eben ezkerro, ez eutsoezan belaunak ausi; <sup>34</sup>baiña gudarietarikoa batek, lantza batatz, saietsa zulatu eutsan, eta bat-batean odola ta ura urten ziran\*. <sup>35</sup>Ikusi dauanak berak autortzen dau au, eta bere autorra egiazkoa da, eta arek ba-daki egia diñoana, zeuek be sinistu dagizuen.<sup>36</sup>Eta guzti au, Liburu Santuko au bete zedin jazo zan: *Ez yako azurrik ausiko\**.<sup>37</sup>Eta beste Idatz-lerro batek be ba-diño: *Zulatu ebena ikusiko dabe\**.

19, 28 Sal. 69, 22; 22, 16.

19, 30 (a) Bete dau Jesus'ek bere eginkizuna (3, 17) Jaungoikoaren asmoaren eraz (4, 34; 17, 4; 18, 4), Idazti Santuak iragarritako eginkizuna (5, 39; 20, 9). Aurrerantzean, Jesus zeruan dago (12, 23; 17, 1; 20, 17).

19, 30 (b) Jesus'en azken-arnasa (Lk. 23, 46), Espiritu Santuaren isurte-aurrea (1, 33; 4, 23).

19, 34 Odolak bildotsaren opariaren izana autortzen dau (1, 29; 6, 51), eta urak aren "espiritu" eraqillea (4, 7). Elizaren sakramentuak gurutzean dagoan Kristo'gandik jaioten dira (cf. Errom. 6, 4; Kor. 1.<sup>a</sup>, 11, 23).

19, 36 Ex. 12, 46.

19, 37 Zak. 12, 10. Begiratu, "ikus" da (3, 14). Olantxe jakifnara-zoten da jentillen etorrera sinismenera (cf. 7, 35; 11, 52; 12, 20, 32).

\* Ozpin: vinagre. ° Belaki: esponja.

estaba cumplido, para que se cumpliera la Escritura, dice: "Tengo sed\*.<sup>29</sup>Había allí una vasija llena de vinagre. Sujetaron a una rama de hisopo una esponja empapada en vinagre y se la acercaron a la boca.<sup>30</sup>Cuando Jesús tomó el vinagre, dijo: "Todo está cumplido\*". Inclino la cabeza y entregó el espíritu\*.

### La lanzada

<sup>31</sup>Como era el día de la Preparación, para que no quedasen los cuerpos en la cruz el sábado —porque aquel sábado era muy solemne—, los judíos rogaron a Pilato que les quebraran las piernas y los retiraran.<sup>32</sup>Fueron, pues, los soldados y quebraron las piernas del primero y del otro crucificado con él.<sup>33</sup>Pero al llegar a Jesús, como le hallaron ya muerto, no le quebraron las piernas, <sup>34</sup>sino que uno de los soldados le atravesó el costado con una lanza y al instante salió sangre y agua\*. <sup>35</sup>Lo atestigua el que lo vió y su testimonio es válido, y él sabe que dice la verdad, para que también vosotros creáis.<sup>36</sup>Y todo esto sucedió para que se cumpliera la Escritura: *No se le quebrará hueso alguno\**.<sup>37</sup>Y también otra Escritura dice: *Mirarán al que traspasaron\**.

19, 28 Tengo sed. Cf. Sal. 69, 22; 22, 16.

19, 30 (a) Todo está cumplido. Jesús ha cumplido su misión, 3, 17+, según el plan de Dios, 4, 34; 17, 4; 18, 4, anunciado por la Escritura, 5, 39; 20, 9. Desde ahora Jesús está en la gloria, 12, 23+; 17, 1; 20, 17.

19, 30 (b) entregó el espíritu. El último suspiro de Jesús, Lc. 23, 46, preludio de la efusión del Espíritu, 1, 33+; 4, 23+.

19, 34 y agua. La sangre atestigua la realidad del sacrificio del cordero, 1, 29+; 6, 51+, y el agua su fecundidad "espiritual", 4, 7+. Los sacramentos de la Iglesia nacen de Cristo en cruz: cf. Rm. 6, 4+; 1 Co. 11, 23+.

19, 36 hueso alguno. Cf. Ex. 12, 46.

19, 37 traspasaron. Cf. Za. 12, 10. Mirar, es "ver", 3, 14+. Así se anuncia la llegada de los gentiles a la fe, cf. 7, 35; 11, 52+; 12, 20s, 32.

## Jesus'en illobiratzea

(Mt. 27, 57-60; Mk. 15, 42-46; Lk. 23, 50-54)

<sup>38</sup>Orren ondoren, Arimatea'ko Jose'k, Jesus'en ikasle zanak (izan be, judarrakanako bildurrez ixilleko ikasle izanarren), Pilato'ri Jesus'en gorpua artzeko baimena eskatu eutsan. Pilato'k baiezkoa emon eutsan. Joan ziran, ba, eta artu egin eben Jesus'en gorpua. <sup>39</sup>Nikodemo be joan zan, bein baten Jesus ikustera gabez joan izan zana. Mirraz eta lerdamiñaz<sup>o</sup> egindako eunen bat librako naaste bat eroian. <sup>40</sup>Jesus'en gorpua artu, eta, usaingarriakaz batera, zapiakaz batu eben, judarrak illobiratzetan egin oi dabenez. <sup>41</sup>Gurutzean josi izan zan tokian, ortu bat egoan, eta ortuan illobi barri bat, ordurarte an iñor ipiñia izan ez zan illobia. <sup>42</sup>Judarren Gertatze-eguna zan ezkerro, eta illobia urr egoalata, Jesus antxe ipiñi eben.

## VIII

## BIZTUERA-EGUNA

## Illobia, utsik

(Mt. 28, 1-8; Mk. 16, 1-8; Lk. 24, 1-11)

**20** <sup>1</sup>Astearren lenengo egunean, goizean-goiz, artean illun egoala, Mari Madalen illobira doa, eta arria illobitik kenduta egoala ikusten dau. <sup>2</sup>Ariñeketan asi, Simon Pedro'gana ta Jesus'ek maite eban beste ikasleagana ba-dator, eta auxe dirautse: "Jauna illobitik eroan egin dabe, eta ez dakigu nun ipiñi daben".

<sup>3</sup>Pedro ta beste ikaslea urten eta illobira joan ziran. <sup>4</sup>Biak batera yoiazan ariñeketan; baiña, beste ikaslea

<sup>o</sup> Lerdamin: áloe.

## La sepultura

(Mt. 27, 57-60; Mc. 15, 42-46; Lc. 23, 50-54)

<sup>38</sup>Después de esto, José de Arimatea, que era discípulo de Jesús, aunque en secreto por miedo a los judíos, pidió autorización a Pilato para retirar el cuerpo de Jesús. Pilato se lo concedió. Fueron, pues, y retiraron su cuerpo. <sup>39</sup>Fue también Nicodemo —aquél que anteriormente había ido a verle de noche— con una mezcla de unas cien libras de mirra y áloe. <sup>40</sup>Tomaron el cuerpo de Jesús y lo envolvieron en vendas con los aromas, conforme a la costumbre judía de sepultar. <sup>41</sup>En el lugar donde había sido crucificado había un jardín, y en el jardín un sepulcro nuevo, en el que nadie todavía había sido depositado. <sup>42</sup>Pusieron allí a Jesús, porque era el día de la Preparación de los judíos y el sepulcro estaba cerca.

## VIII

## EL DIA DE LA RESURRECCION

## El sepulcro vacío

(Mt. 28, 1-8; Mc. 16, 1-8; Lc. 24, 1-11)

**20** <sup>1</sup>El primer día de la semana, llega María Magdalena al sepulcro de madrugada, cuando todavía estaba oscuro, y ve que la piedra estaba quitada del sepulcro. <sup>2</sup>Echa a correr, llega donde Simón Pedro y donde el otro discípulo a quien Jesús quería y les dice: "Se han llevado del sepulcro al Señor, y no sabemos dónde le han puesto".

<sup>3</sup>Salieron Pedro y el otro discípulo, y se encaminaron al sepulcro. <sup>4</sup>Corrían los dos juntos, pero el



ariñago yoian, eta lenago eldu zan illobira. <sup>5</sup>Makurtu ta zapiak, bai, ikusi ebazan, baiña ez zan bera sartu. <sup>6</sup>Eltzen da Simon Pedro aren atzetik, illobian sartzen da ta onek be zapiak ikusten dauz, <sup>7</sup>eta Jesus'en burua estaldu eban miesa be bai, zapien ondoan ez, baiña, beste baztar baten tolostuta baiña. <sup>8</sup>Orduan, illobira lenen eldu izan zan beste ikasle a be sartu egin zan; ikusi ta sinistu egin eban: <sup>9</sup>Liburu Santuak iñoanez\*, Jesus illen artetik biztu bearra zanik ez eben ordurarte ulertu izan-eta. <sup>10</sup>Orduan, ikasleak euren etxera biurte ziran.

### Mari Madalen'i agertzen yako

(Mt. 28, 9-10; Mk. 16, 9-11)

<sup>11</sup>Mari illobi-ondoan egoan negarrez, kanpokaldean. Eta negarrez egoala, illobiruntz makurtu zan; <sup>12</sup>eta Jesus'en gorpua egon izan zan tokian, aingeru bi zuriz jantzita ikusten dauz, bata buru-aldean eta bestea oiñakaldean, jesarrita. <sup>13</sup>Areik auxe dirautsoe: "Emakume, zegaitik egiten dozu negar?" Mari'k auxe erantzuten dautse: "Nire Jauna emendik kendu ta nun ipiñi daben ez dakidalako". <sup>14</sup>Ori esanda, atzeruntz begiratu ta Jesus ikusi eban antxe; ez ekian, baiña, Jesus zanik. <sup>15</sup>"Emakume —dirautso Jesus'ek—, zegaitik egiten dozu negar? Noren billa zabiz?" Emakumeak, ortu-zaiña zalakoan, "Jauna —dirautso—, zuk eroan ba'dozu, esan egidazu nun ipiñi dozun, eta neuk artuko dot". <sup>16</sup>Jesus'ek dirautso: "Mari!" Emakumeak Jesus ezagutu ta eberkeraz auxe esan eutsan "Rabbuní\* —edo bardin dana, "Irakasle"—. <sup>17</sup>Jesus'ek dirautso: "Itxi nagizu, oraindiño ez naz Aitagana igo-ta. Zoaz anaiakana, eta esan

20, 9 Jesus'en biztuerak bat-batean argitzen ditu igarpenak; Sal. 16, 8, Ap. Eg. 2, 27 garrenean aitatu; Sal. 2, 7, Ap. Eg. 13, 33 garrenean aitatu; cf. 19, 30; Lk. 24, 45; Kor. 1.<sup>a</sup>, 15, 4.

20, 16 Rabbuní. Aramearren rabbí (irakasle) baiña era aintzatsuagoa.

otro discípulo corrió más que Pedro, y llegó antes al sepulcro. <sup>5</sup>Se inclinó y vio que estaban las vendas en el suelo; pero no entró. <sup>6</sup>Llega tras él Simón Pedro, entra en el sepulcro y ve las vendas en el suelo, <sup>7</sup>y plegado en un lugar aparte, no junto a las vendas, el sudario que cubrió su cabeza. <sup>8</sup>Entonces entró también el otro discípulo, el que había llegado antes al sepulcro; vio y creyó, <sup>9</sup>pues hasta entonces no habían comprendido que, según la Escritura\*, Jesús debía resucitar de entre los muertos. <sup>10</sup>Los discípulos, entonces, se volvieron a casa.

### Aparición a María de Magdala

(Mt. 28, 9-10; Mc. 16, 9-11)

<sup>11</sup>Estaba María llorando fuera, junto al sepulcro. Y mientras lloraba se inclinó hacia el sepulcro, <sup>12</sup>y ve dos ángeles de blanco, sentados uno a la cabecera y otro a los pies de donde había estado el cuerpo de Jesús. <sup>13</sup>Dicenle ellos: "Mujer, ¿por qué lloras?" Ella les responde: "Porque se han llevado a mi Señor, y no sé dónde le han puesto". <sup>14</sup>Dicho esto, se volvió y vio que Jesús estaba allí, pero no sabía que era Jesús. <sup>15</sup>Le dice Jesús: "Mujer, ¿por qué lloras? ¿A quién buscas?" Ella, pensando que era el encargado del hueso, le dice: "Señor, si tú le has llevado, dime dónde le has puesto, y yo me lo llevaré". <sup>16</sup>Jesús le dice: "María". Ella le reconoce y le dice en hebreo: "Rabbuní\*" —que quiere decir: "Maestro"—. <sup>17</sup>Dícele Jesús: "Déjame, que todavía no he subido al Padre. Vete donde los hermanos y díles: Subo a mi Padre y

20, 9 la Escritura. El hecho de la resurrección ilumina de repente las profecías: Sal. 16, 8s, citado en Hch. 2, 27; Sal. 2, 7, citado en Hch. 13, 33; cf. 19, 30; Lc. 24, 45; 1 Co. 15, 4.

20, 16 Rabbuní. Forma más solemne del arameo rabbí, maestro.

egiezu: “Neure Aitagana ta zeuen Aitagana noa, neu-re Jaungoikoagana ta zeuen Jaungoikoagana”\*. <sup>18</sup>Joan zan Mari Madalen, eta, “Jauna ikusi dot”, esan eutsen ikasleai, eta auxe ta auxe esan izan eutsala.

### Ikasleai agertzen yake

(Mk. 16, 14-18; Lk. 24, 36-49)

<sup>19</sup>Astearen lenengo egun aretan, illuntzean, judarrakanako bildurrez ikasleak egozan tokiko ateak itxita egozala, Jesus erdian agertu yaken, eta “Bakea zuekaz”, esan eutsen. <sup>20</sup>Ori esanda, eskuak eta saietsa erakutsi eutsezan. Ikasleak poztu egin ziran Jauna ikustez. <sup>21</sup>Jesus’ek, barriro be, “Bakea zuekaz —esan eutsen—. Aitak bialdu nenduanez bialtzen zaituet neuk be”.

<sup>22</sup>Ori esanda, arein gainera arnasa egin eta auxe esan eutsen: “Artu egizue Espiritu Santua\*<sup>23</sup>Zuek pekatuak parkatu dagiezuezanai, parkatuta gelditzen yakez; zuek pekatuak lotu dagiezuezanai, lotuta gelditzen yakez”.

<sup>24</sup>Tomas, amabietariko bat, Didimo eritxona, ez egoan arekaz Jesus etorri zanean. Ikasleak, “Jauna ikusi dogu”, zirautsoen. <sup>25</sup>Arek auxe erantzun eutsen: “Aren eskuetan untezen ezaugarria ikusten ez ba’dot, eta nire atzamarra untezen zuloan sartzen ez ba’dot, eta nire eskua Aren saietsean sartzen ez ba’dot, ez dot sinistuko”.

<sup>26</sup>Zortzi egun geroago, ikasleak barriro be, barruan egozan, eta Tomas arekaz batera. Ateak itxita egozala, Jesus erdian, agertu yaken eta auxe esan eutsen: “Bakea zuekaz”. <sup>27</sup>Gero, Tomas’i dirautso: “Urreratu atza-

20, 17 Kristo’ren “gorputz-igoera” Aitaren aintzara (12, 32; 14, 2-3 eta abar), biztueraz egin da. Biztuerarik berrogei egunera zerura Igoakundeak (Ap. Eg. 1, 3) osotuko dau alkarizketa-aldia Kristo aintzatsuzak (21, 22; Kor. 1.<sup>a</sup>, 15, 23).

20, 22 Apostoluen eginkizunak (4, 38) Espiritu Santuaren laguntza izango dau (1, 33; Ap. Eg. 2, 1).

vuestro Padre, a mi Dios y vuestro Dios\*<sup>18</sup>Fue María Magdalena y dijo a los discípulos: “He visto al Señor” y que le había dicho estas palabras.

### Apariciones a los discípulos

(Mc. 16, 14-18; Lc. 24, 36-49)

<sup>19</sup>Al atardecer de aquel primer día de la semana, estando cerradas, por miedo a los judíos, las puertas del lugar donde se encontraban los discípulos, se presentó Jesús en medio de ellos y les dijo: “La paz con vosotros”. <sup>20</sup>Dicho esto, les mostró las manos y el costado. Los discípulos se alegraron de ver al Señor. <sup>21</sup>Jesús repitió: “La paz con vosotros. Como el Padre me envió, también yo os envío”. <sup>22</sup>Dicho esto, sopló sobre ellos y les dijo: “Recibid el Espíritu Santo\*<sup>23</sup>A quienes perdonéis los pecados, les quedan perdonados; a quienes se los retengáis, les quedan retenidos”.

<sup>24</sup>Tomás, uno de los Doce, llamado el Mellizo, no estaba con ellos cuando vino Jesús. Los discípulos le decían: “Hemos visto al Señor”. <sup>25</sup>Les contestó: “Si no veo en sus manos la señal de los clavos y no meto mi dedo en el agujero de los clavos y no meto mi mano en su costado, no creeré”. <sup>26</sup>Ocho días después, estaban otra vez los discípulos dentro y Tomás con ellos. Estando las puertas cerradas, se presentó Jesús en medio de ellos y dijo: “La paz con vosotros”. <sup>27</sup>Luego dice a Tomás: “Acerca tu dedo y aquí tienes mis manos; trae tu mano y métela en mi costado, y no seas increí-

20, 17 vuestro Dios. La “subida” corporal de Cristo a la gloria del Padre, 12, 32; 13, 33; 14, 2-3, etc., se ha realizado en la resurrección. La escena de la Ascensión cuarenta días después, Hch. 1, 3s, concluirá el período de los coloquios familiares con Cristo glorioso, 21, 22; 1 Co. 15, 23+.

20, 22 el Espíritu Santo. La misión de los apóstoles, 4, 38+, tendrá la asistencia del Espíritu Santo, 1, 33+; Hch. 2, 1s.



mar ori, eta emen dozuz nire eskuak; ekarri esku ori ta sartu nire saietsean: eta ez zaitez sinisgogor izan, fededun baiño". <sup>28</sup>"Neure Jaun eta Jaungoikoa!", erantzun eutsan Tomas<sup>2</sup>ek. <sup>29</sup>"Ikusi nozulako sinistu dozu —dirautso Jesus<sup>2</sup>ek—. Zorionsuak, ikusi ezarren be sinisten dabena!\*

### AZKENA

<sup>30</sup>Liburu onetan idatzita ez dagozan beste ezaugarri asko egin ebazan Jesus<sup>2</sup>ek ikasleen aurrean. <sup>31</sup>Oneik, barriz, Jesus, Kristo<sup>2</sup>a, Jaungoikoaren Semea dala sinistu dagizuen idatzi dira; eta sinistuaz, Aren izenean bizitza izan dagizuen.

### GEIGARRIA

#### Tiberiades<sup>2</sup>ko itxasertzean agertzen yake\*

**21** <sup>1</sup>Orren ondoren, Jesus Tiberiades<sup>2</sup>ko itxasertzean agertu yaken barriro ikasleai. Olanxe agertu yaken. <sup>2</sup>Simon Pedro, Didimo eritxon Tomas, Natanael, Galilea<sup>2</sup>ko Kana<sup>2</sup>koa, Zebedeo<sup>2</sup>ren semeak eta beste ikasle bi alkarregaz egozan. <sup>3</sup>Simon Pedro<sup>2</sup>k ba-dirautse: "Arraiñak artzera<sup>2</sup> noa". "Geu be zeugaz goaz", erantzuten dautsoe areik. Joan eta txalupara igo ziran; baiña, gau aretan ez eben arraiñik bape artu.

<sup>4</sup>Eguna astean, Jesus itxasertzean egoan, baiña ikasleak ez ekien Jesus zanik. <sup>5</sup>Jesus<sup>2</sup>ek dirautse: "Mutillok, ba-daukazue arraiñik?" "Ez", erantzun eutsoen. <sup>6</sup>"Jaurti egizue sarea txaluparen eskumaldera —esan eu-

<sup>20, 29</sup> Areik, apostoluen autorpenaz bakarrik sinistuko dabe (17, 20; Ap. Eg. 1, 8).

<sup>21</sup> Tiberiades<sup>2</sup>ko itsasertzean agertzen yake. Geigarri au, Yon<sup>2</sup>ek berak edo-ta bere ikasletarikoren batek egindakoa da.

\* "Arraiñak artzera": gure itxasertzean, "arrantzara noa" esango leuke.

dulo sino creyente". <sup>28</sup>Tomás le contestó: "Señor mío y Dios mío". <sup>29</sup>Dícele Jesús: "Has creído porque me has visto. Dichosos los que aun no viendo creen<sup>28</sup>".

### CONCLUSION

<sup>30</sup>Jesús realizó en presencia de los discípulos otras muchas señales que no están escritas en este libro. <sup>31</sup>Estas lo han sido para que creáis que Jesús es el Cristo, el Hijo de Dios, y para que creyendo tengáis vida en su nombre.

### APENDICE

#### Aparición a orillas del lago de Tiberiades\*

**21** <sup>1</sup>Después de esto, se apareció a los discípulos a orillas del mar de Tiberiades. Se apareció de esta manera. <sup>2</sup>Estaban juntos Simón Pedro, Tomás, llamado el Mellizo, Natanael, el de Caná de Galilea, los de Zebedeo y otros dos de sus discípulos. <sup>3</sup>Simón Pedro les dice: "Voy a pescar". Le contestan ellos: "También nosotros vamos contigo". Fueron y subieron a la barca, pero aquella noche no pescaron nada.

<sup>4</sup>Al amanecer, estaba Jesús en la orilla, aunque los discípulos no sabían que fuese él. <sup>5</sup>Dícele Jesús: "Muchachos, ¿tenéis pescado?" Le contestaron: "No". <sup>6</sup>El les dijo: "Echad la red a la derecha de la barca y encontraréis". La echaron, pues, y ya no podían recogerla por la abundancia de peces. <sup>7</sup>El discípulo a quien Jesús amaba dice a Pedro: "Es el Señor". Cuan-

<sup>20, 29</sup> creen. Ellos creerán únicamente por el testimonio de los apóstoles, 17, 20+; Hch. 1, 8+.

<sup>21</sup> Aparición a orillas del lago de Tiberiades. Este apéndice se debe al evangelista, o a uno de sus discípulos.

tsen *Jesus'ek*—, eta aurkituko dozue”. Jaurti eben, ba, sare, eta ezin atara eben ainbeste arraiñez. <sup>7</sup>*Jesus'ek* maite eban ikasleak Pedro'ri dirautso: “Jauna da”. Simon Pedro'k, “Jauna da” entzun ebanean, jantzia gerrian lotu —billoizik egoan-eta— ta zapart egin eban itxasora. <sup>8</sup>Beste ikasleak txalupan etorri ziran, sare, arraiñakaz ekarrela, legorretik berreunen bat ukondo baiño urrunago ez egozan-eta.

<sup>9</sup>Legorrera eldu ziranean, txingar batzuk, txingarren gaiñean arrain bat, eta ogia egozala ikusi eben. <sup>10</sup>*Jesus'ek* dirautse: “Oraintxe artu dozuezan arraiñetariko batzuk ekarri egizuez”. <sup>11</sup>Simon Pedro igo ta sare, legorrera atara eban, eun eta berrogeta amairu arrain aundiz beteta. Eta ainbeste izanarren, ez zan sarea urratu. <sup>12</sup>“Etorri ta jan”, esan eutsen *Jesus'ek*. Ikasleatariko bat be ez zan azartu ari “nor zara zu?” itauntzen, ba-ekien Jauna zana-ta. <sup>13</sup>Orduan, *Jesus* etorri, ogia artu ta emon egiten dautse; eta alantxe arraiña be. <sup>14</sup>Illen artetik biztuta gero auxe izan zan *Jesus'ek* bere ikasleai egin eutsen irugarren agertaldia.

<sup>15</sup>Jan ebanean, *Jesus'ek* Simon Pedro'ri auxe esan eutsan\*: “Yon'en Simon, oneik baiño geiago maite nozu?”. “Bai, Jauna —dirautso—: zuk ba-dakizu maite zaitudana”. *Jesus'ek* dirautso: “Zaindu egizuz nire bildotsak”. <sup>16</sup>Bigarrenez be ba-dirautso: “Yon'en Simon, maite nozu?” Pedro'k dirautso: “Bai, Jauna: zuk ba-dakizu maite zaitudana”. *Jesus'ek* dirautso: “Zaindu egizuz nire ardiak”. <sup>17</sup>Irugarrenez dirautso: “Yon'en Simon: maite nozu?” *Jesus'ek* “maite nozu?” iru aldiz esan eutsan-eta, Pedro illun (*triste*) jarri zan; eta auxe esan eutsan: “Jauna, zuk dana dakizu; zuk ba-dakizu nik maite zaitudana”. *Jesus'ek* dirautso: “Zaindu egizuz nire ardiak. <sup>18</sup>Bene-benetan dirautsut: gazte zintza-

21, 15 *Jesus'ek* bere Eliza Pedro'ren zainpean jarriko dau; Pedro, bere iru ukatzeetatik garbituta, geroago martiri izango da (cf. Mt. 16, 17-19).

do Simón Pedro oyó “es el Señor”, se puso el vestido de encima —pues estaba desnudo— y se lanza al mar. <sup>8</sup>Los demás discípulos vinieron en la barca, arrastrando la red con los peces; pues no distaban mucho de tierra, sino unos doscientos codos.

<sup>9</sup>Al saltar a tierra, ven que había unas brasas, un pez sobre ellas y pan. <sup>10</sup>Díceles Jesús: “Traed algunos de los peces que acabáis de pescar”. <sup>11</sup>Subió Simón Pedro y sacó a tierra la red, llena de ciento cincuenta y tres peces grandes. Y, aun siendo tantos, no se rompió la red, <sup>12</sup>Jesús les dice: “Venid a comer”. Ninguno de los discípulos se atrevía a preguntarle: “¿Quién eres tú?” Ya sabían que era el Señor. <sup>13</sup>Viene entonces Jesús, toma el pan y se lo da; y de igual modo el pez. <sup>14</sup>Esta fue ya la tercera vez que Jesús se apareció a sus discípulos después de resucitar de entre los muertos.

<sup>15</sup>Después de comer, dice Jesús a Simón Pedro\*: “Simón de Juan, ¿me amas más que éstos?” Le dice él: “Sí, Señor, tú sabes que te quiero”. Le dice Jesús: “Apacienta mis corderos”. <sup>16</sup>Vuelve a decirle por segunda vez: “Simón de Juan, ¿me amas?” Le dice él: “Sí, Señor, tú sabes que te quiero”. Le dice Jesús: “Apacienta mis ovejas”. <sup>17</sup>Le dice por tercera vez: “Simón de Juan, ¿me quieres?” Se entristeció Pedro de que le preguntase por tercera vez: “¿Me quieres?”, y le dijo: “Señor, tú lo sabes todo; tú sabes que te quiero”. Le dice Jesús: “Apacienta mis ovejas. <sup>18</sup>En verdad en verdad te digo: cuando eras joven, tú mismo te ceñías, e ibas donde querías; pero cuando llegues a viejo, extenderás tus manos y otro te ceñirá y te llevará adonde tú no quieras”.

<sup>19</sup>Con esto indicaba la clase de muerte con que iba

21, 15 a Simón Pedro. Jesús va a confiar su Iglesia a Pedro, rehabilitado después de sus negaciones y futuro mártir; cf. Mt. 16, 17-19+.



zanean, zeuk lotzen zenduan zure gerria, eta nai zenduan tokira joaten zintzazan; baiña, zaartu zaitezanean, zabaldu egingo dozuz zure eskuak, eta beste batek lotuko dautsu gerria, eta nai ez dagizun tokira eroango zaitu”.

<sup>19</sup>Jaungoikoa zetarikoa eriotzaz goratuko eban adierazoteko esan eutsan ori Jesus'ek. Ori esanda, beste au esan eutsan Pedro'ri: “Jarraitu egidazu”. <sup>20</sup>Pedro'k, atzeruntz biurtuta, Jesus'ek maite eban ikasle a, aparitan Jesus'en bular-gaiñean etzunda egon izan zan a, eta “Jauna, nor da, ba, salduko zaituana?” itandu eutsan a atzetik jarraitzen ikusten dau. <sup>21</sup>Pedro'k, ikasle a ikusirik, Jesus'i auxe esan eutsan: “Jauna, eta ori zer?”. <sup>22</sup>Jesus'ek auxe erantzun eutsan: “Ni etorri arte, ori olan egotea nai ba'dot\*, zuri zer? Zuk, jarraitu egidazu”. <sup>23</sup>Eta anaien artean zurrumurru au sortu zan: ikasle a ez zala ilgo. Alan be, Jesus'ek ez eban “ez da ilgo” esan, beste au baiño: “Ni etorri arte, ori olan egotea nai ba' dot”.

#### Azkena

<sup>24</sup>Auxe da au autortu ta idatzi dauan ikaslea, eta ba-dakigu guk heronen autorra egiazkoa dana. <sup>25</sup>Ba-dira, gaiñera, Jesus'ek egin ebazan beste gauza asko be. Orreik banan-banan azalduko ba'litzaz, mundu guztia be ez litzake naikoa izango, nire ustez, idatziko litzaketzan liburuak artzeko.

21, 22 “Parusia”-rarte, edo bardin dana, Kristo'ren azken-etorrera aintzatsurarte (cf. Kor. 1.<sup>a</sup>, 11, 26; Filip. 4, 5; Apok. 22, 7 eta abar).



a glorificar a Dios. Dicho esto, añadió: “Sígueme”.


<sup>20</sup>Pedro se vuelve y ve que le seguía el discípulo a quien Jesús amaba, que además durante la cena se había recostado sobre su pecho y le había dicho: “Señor, ¿quién es el que te va a entregar?” <sup>21</sup>Viéndole Pedro, dice a Jesús: “Señor, y éste, ¿qué?” <sup>22</sup>Jesús le respondió “Si quiero que se quede hasta que yo venga\*, ¿qué te importa? Tú, sígueme”. <sup>23</sup>Corrió, pues, entre los hermanos la voz de que este discípulo no moriría. Pero Jesús no había dicho a Pedro: “No morirá”, sino: “Si quiero que se quede hasta que yo venga”.


#### Conclusión

<sup>24</sup>Este es el discípulo que da testimonio de esto y que lo ha escrito, y nosotros sabemos que es válido su testimonio.

<sup>25</sup>Hay además otras muchas cosas que hizo Jesús. Si se contaran una por una, pienso que ni todo el mundo bastaría para contener los libros que se escribieran.

21, 22 **yo venga.** Hasta la Parusia; cf. 1 Co. 11, 26; Flp. 4, 5+; Ap. 22, 7, etc.





## JAKINGARRITZAT GEITUA

LEIZARRAGA (1571)

**Seme prodigoa.**  
(Luk. 15, 11-32)

- 11.—...Gizon batek zituen bi seme.
- 12.—Eta hetarik gaztenak erran ziezón aitári, Aitá, indak onhasunetik niri heltzen zaitadandana partea. Eta parti zietzén onak.
- 13.—Eta egun guti-ren buruan, guziak bildurik, seme gaztenor ioan zedin herri urrun bat-etara; eta han irion zezan bere onhasuna, prodigoki vizi izanez.
- 14.—Guzia despendatu ukhan zuenean, egin izan zen gosete gogor-bat herri hartan, eta hura has zedin behar izáten.
- 15.—Eta ioanik, lekhu hartako burgés batekin iar zedin, eta hak igor zezan bere posesione-tara, urdén bazkatzera.
- 16.—Eta desir zuen urdék jatzen zuten maginsh-etarik bere sabelaren bathatze-ra, eta nehork etzeraukan emaiten.
- 17.—Eta bere buruari ohartzekionean, erran zezan, Zembat alokazer diraden ene aitaren etxean ogia frango dutenik, eta ni gosez hiltzen bainaz!

KEREXETA (1973)

**Seme ondatzaillea**

- 11.—...Gizon batek seme bi eban.
- 12.—Eta aretariko gazteenak aitari auxe esan eutsan: Aita, emon egidazu ondasunetarik dagokidan zatia. Eta **aitak** banandu egin eutsezan ondasunak.
- 13.—Egun gutxi barru, seme gazteena, gauza guztiak batuta, urruneko lurralde batera joan zan; eta an, nasaikeritan bizi izanik, bere ondasun guztiak eralgi ebazan.
- 14.—Guztia eralgi izan ebanean, lurralde aretan gosete gorria sortu zan, eta bear izaten asi zan.
- 15.—Orduan, joan eta lurralde aretako erriar baten morroi jarri zan, eta arek bere landetara bialdu eban, txarri-zain.
- 16.—Eta txarriak jatzen ebazan ezkurrez sabela bete gura eban, baiña ez eutsazan inok emoten.
- 17.—Eta bere senera biurturik, auxe esan eban: Nire aitaren amaikatxo morroik baddauke ogia ugari; ni, barriz, emen goseak illik.



- 18.—Iaikirik ioanen naiz neure aitagana, eta erranen draukat, Aitá, huts egin diat zeruaren kontra, eta hire aitzinean.
- 19.—Eta gehiagorik eznauk digne hire seme deitzeko: egin nezak eure alokazeretarik bat bezala
- 20.—Iaikirik bada ethor zedin bere aitagana. Eta hura oraino urrun zela, ikhus zezan bere aitak, eta kompasiones har zezan, eta laster eginik egotz zezan bere burua haren lephora, eta pot egin ziezona.
- 21.—Eta erran ziezón semeak, Aitá, huts egin diat zeruaren kontra eta hire aitzinean, eta gehiagorik eznauk dig-ne hire seme deitzeko.
- 22.—Orduan erran ziezón aiták bere zerbitzari-ei, Ekharzue arropa prinzipal-ena, eta iaunz ezozue; eta emozue erhaztun bat bere esku-ra, eta zapatak oinetara.
- 23.—Eta ekharririk aretze gizená, hil ezazue; eta iaten dugula atsegun har dezagun.
- 24.—Ezen ene seme haur hil zen, eta harzara vitzu da; galdu zen, eta eriden da. Eta has zitezen atsegun hartzen.
- 25.—Eta zen haren seme zahar-ena landán, eta ethorten zela, echeari urbildu zayonean, enzun zitzan melodiá eta dantzák.
- 18.—Jagi ta neure aitagana joango naz, eta auxe esango dautsat: Aita, pekatu egin neban zeruaren aurka ta zure aurrean;
- 19.—nik ez dot arrezkero, zure seme-izenik merezi; artu nagizu zure morroietariko bat lez.
- 20.—Eta jagirik, bere aitagana joan zan. Oraindiño urrun egoala, bere aitak ikusi ta, errukiz beterik, arifieketan joan, semeari samatik eldu ta lastandu egin eban.
- 21.—Semeak auxe esan eutsan: Aita, pekatu egin neban zeruaren aurka ta zure aurrean; nik ez dot, arrezkero, zure seme-izenik merezi.
- 22.—Baiña, aitak bere morroiak auxe esan eutsen: Ekarki egizue bizkor soifekorik onena ta jantzi egiozue; eraztuna eskuan eta oiñetakok oiñetan ipiñi egiozue.
- 23.—Zekor gizona ekarri ta il egizue, eta jan eta jai egin dagigun:
- 24.—nire seme au ilda egoan, eta biztu egin da-ta; galduta egoan, eta aurkitua izan da-ta. Eta ospatzen asi ziran.
- 25.—Aren seme nagusia so-loan zan; eta biurtzerakoan, etxera urreratu zanean, soiñu ta dantzak entzun eban;

- 26.—Eta deithurik zerbitzari-etarik bat, interroga zezan hura zer zen.
- 27.—Eta hark erran ziezón, hire anaye ethorri izan duk, eta hil ukhan dik hire aitak aretze gizembat, zeren osorik hura rezebitu ziezona.
- 28.—Eta aserre zedin: eta etzén sarthu nahi izan: bere aiták bada ilkirik othoitz egin ziezona.
- 29.—Baiña hark ihardesten zuela erran ziezona bere aitari, Huná, hambat urthe dik zerbitza-tzen audala, eta egundano hire manurik eztiat iragan, eta egundano pitina bat eztrautak eman, neure adiskidekin atsegin hartzeko.
- 30.—Baina hire seme haur, zeinak iretsi ukhan baitu hire onhasun guzia putékin, ethorri izan denean, hil ukhan draukat huni aretze gizona.
- 31.—Eta hark erran ziezón, Seme, hi bethi enekin aiz, eta ene guzia ihre duk.
- 32.—Eta atsegin hartu behar zuán eta alegeratu, zeren hire anaye haur hil baitzén, eta vitzu baita, galduta baitzén, eta eriden baita.
- 26.—eta morroietariko bati dei egifiek, **guzi** a zer izan zeitekean itandu eutsan.
- 27.—Onek auxe esan eutsan: Zeure anacia etorri da, eta zure aitak zekor gizona il dau, **semea** barrero onik etxeratu yakolako.
- 28.—**Semea** asarratu egin zan, eta ez eban sartu nai. Bere aita urten, eta erreguka asi yakon.
- 29.—Baiña, arek aitari auxe erantzun eutsan: Onenbeste urtetan morroi nakizu, eta ez dot egundo zure agindurik ausi; olan be, antxume bat be ez daustazu iñoiz emon, nire adiskideakaz ospatzeko.
- 30.—Eta zure ondasunak emagalduekak eralgi dauzan zure seme orrentzat, etorri danelokoxe, zekor gizona il dozu.
- 31.—Baiña, **aitak** auxe esan eutsan: Seme, zu beti neugaz zagoz, eta nire guztia zeurea da;
- 32.—egoki zan, ba, ospatu ta poztutea; zure anai au ilda egoan, eta bizitzara biurtu da-ta; galduta egoan, eta aurkitua izan da-ta.

## Gure Aita

(Mat. 6. 9-13).

9.—Gure Aita zeruetan aize-na, sanktifiká bedi hire izena:

## Gure Aita

9.—...Gure Aita, zeruetan zarrana, santifikatua izan bedi zure izena;

- 10.—Ethor bedi hire resumá. Egin bedi hire vorondatea zeruñ bezala lurrean-ere.
- 11.—Gure eguneko ogia iguk egun.
- 12.—Eta kitta ietzaguk gure zorrak, nola guk-ere gure zordunéi kittatzen baitrauegu.
- 13.—Eta ezgaitzála sar erazi tentazionetan, baina delivra gaitzak gaitxtotik.
- 10.—betor zure Erreiñua; egin bedi zure naia zeruan lez lurrean-bere.
- 11.—Emoiguzu gaur egun one-tako ogia;
- 12.—parkatu gure zorrak, geuk bere gure zordunai parkatu egiten dautsegunez;
- 13.—eta ez gu tentaldira eroan, gatxetik atara baiño.




## «JESUKRISTO'REN BARRI ONA»

### EUROPA'KO IZKUNTZETAN

Albania	:	Engjilli i Krishtit Jesu
Alemania	:	Evangelium Jesu Christi.
Bearne	:	L'Evangeli de Jesus Crist.
Bretañña	:	Aviel Jezus Krist.
Bulgaria	:	Евангелие на Невс Христос.
Dinamarca	:	Evangelium Jesu Kristi.
Eslobakia	:	Evangelium Jezusa Krista.
Eslobania	:	Evangelij Jezusa Kristusa.
Estonia	:	Jeesuse Kristuse evangeelium.
Finlandia	:	Jesuksen Kristuksen evankeliumi.
Flandes (flamenkoz)	:	Evangelie van Jesus Christus.
Gales	:	Efengyl Iesu Crist.
Gaztelera	:	Evangelio de Jesucristo.
Grezia (antxiñakoa)	:	Εὐαγγέλιον τοῦ Ἰησοῦ Χριστοῦ.
Grezia (oraingoa)	:	Ἡ Καινὴ Διαθήκη Ἰησοῦ Χριστοῦ.
Holanda	:	Het Evangelie van Jezus Christus.
Hungria	:	Jézus Krisztus Evangéliuma.
Inglaterra	:	Gospel of Jesus Christ.
Irlanda (Eskozia'koa)	:	Soisgeul Iosa Chriost.
Irlanda (Galai'koa)	:	Soiscéal Iosa Chriost.
Italia	:	Evangelo di Gesu Cristo.
Katalanez	:	L'Evangeli de Jesucrist.
Kroazia	:	Evanoelje Isusa Krista.
Lateraz	:	Evangelium Iesu Christi.
Letonia	:	Jezusa Christa evangeliums.
Lituania	:	Jézaus Kristaus evangélica.
Lusazia'ko Serbia	:	Evangelium Jezusa Khrystusa.
Noruega	:	Evangelium Jesu Kristi.
Polonia	:	Ewangelia Jezusa Krista.
Portugal	:	Evangelho de Jesus Cristo.
Prantzia	:	Evangile de Jésus-Christ.
Rumania	:	Evanghelie de Jesus Cristo.
Rusia	:	Евангелиум Невса Хреста.
Serbia	:	Евангелие Невса Креста.
Suezia	:	Evangelium Jesu Kristi.
Turkia	:	Hazret-i Isa-i Mesihin Incili.
Txekia	:	Evangelium Jezise Krista.





## AURKIBIDEA

Sarrera .....	8
Barri Ona Mateo Deunak dakarrenez .....	11
Barri Ona Markos Deunak dakarrenez .....	113
Barri Ona Lukas Deunak dakarrenez .....	171
Barri Ona Yon Deunak dakarrenez .....	273
Jakingarritzat geitua .....	343
"Jesukristo'ren Barri Ona" Europa'ko izkuntzetan .....	347

## INDICE

Introducción .....	8
Evangelio según San Mateo .....	11
Evangelio según San Marcos .....	113
Evangelio según San Lucas .....	171
Evangelio según San Juan .....	273

## KEREXETA'REN BESTE ZERBAIT

1. **ORBELAK** (1958).
2. **BITARGI** (1960).
3. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BARRI ONA** (1au Ebanjelioak al-kartuta: 1960-1961).
4. **APOSTOLUEN EGIÑAK** (1961).
5. **EGUNEROKO MEZA** (Missale Romanum: 1963).
6. **GOGARTEAK** (Aita Basabe-Kerexeta: 1963).
7. **DIDAJE ETA APOSTOLUEN SINISKITZA** (1965).
8. **APOSTOLUEN EGIÑAK ETA IDAZKIAK** (Novum Testamentum: 1955).
9. **ALKARTASUN BARRIRO ITZAK ETA GAIK** (1965).
10. **ARGI-BIDE TXIKIA** (Zugasti-Kerexeta: 1965).
11. **JESUKRISTO GURE JAUNAREN BERRI ONA** (1au Ebanjelioak al-kartuta, gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1966).
12. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (1au Ebanjelioak: 1966).
13. **ITUN BERRIA** (Gipuzkeraz: Orixe-Kerexeta-Zugasti: 1967).
14. **SALMUTEGIA** (1967).
15. **SALMUDIA** (Gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti 1968).
16. **UMEEN BIBLIA** (1969).
17. **UMEEN BIBLIA** (Gipuzkeraz: Kerexeta-Zugasti: 1969).
18. **DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO VASCO** (cuatro volúmenes: 1970-1971-1972).
22. **GURE SALBAZIÑO-EGINTZA** (Alkartasun Barria; Ascea-PPC'na: 1972).
23. **ALKARTASUN BARRIA** (osorik; 2'garren argitarapena: 1972).
24. **JESUKRISTO'REN BARRI ONA** (2'garren argitarapena; euskeraz eta erderaz: 1973).
25. **EBANJELIO ALKARTUAK** (1973).

*Zuzenbide onetara egin  
zure eskabideak:*

**SECRETARIADO DIOCESANO DE LITURGIA.**

Henao, 5, 2.º. Bilbao (9).

*Edo-ta*

**JAIME KEREXETA (Pbro.)**

San Roque, 16. Elorrio (Bizkaia).